


enfeiu carreañ

Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultura Mintegia

1992

8. zenbakia



Rosa Miren Pagola / Joseba Lakarra / Jon Ortiz de Urbina

Karmele Rotaetxe / Txepetx / Joseba Abaitua

Aloña Arronategui / Goizalde Gezuraga

Nerea Kaltzakorta / Estibaliz Zubiaur

Juanra Madariaga / Ana Isabel Morales

Aitor Ibarrola / Koldo Jule Garai / Josu Lartategi

enseiucarrean

© Deustuko Unibertsitatea - 1. postakutxa - 48080 BILBO

ISSN: 1130-8192

Legezko gordailua: BI-1113-92

Fotokonposaketa: Fotocomposición Ipar, S. Coop.

Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimatzailea: A.G. ELKAR, S. Coop.

Autonomía, 71 - Bilbo

ZUZENDARITZA

Joan Otaegi
Nerea Zuloaga

ERREDAKZIOA

Joseba Abaitua
Belen Abajo
Leire Abrisketa
Paul Bilbao
Unai Elorriaga
Nekane Goikoetxea
Iratxe Momoitio
Joan Otaegi
Amaia Petralanda
Paloma Rodríguez
Nerea Zuloaga

KOLABORATZAILEAK

Joseba Abaitua
Aloña Arronategi
Koldo Jule Garai
Goizalde Gezuraga
Aitor Ibarrola
Nere Kaltzakorta
Joseba Andoni Lakarra
Josu Lartategi
Juanra Madariaga
Ana Isabel Morales
Jon Ortiz de Urbina
Rosa Miren Pagola
Karmele Rotaetxe
Jose M.^a Sánchez Carrión *Txepetx*
Estibalitz Zubiaur

BATZORDE KONTSEILARIA

Joseba Abaitua
Joan Manuel Etxebarria
Joan Otaegi
Jesus Uranga

MARRAZKIAK

Joseba Eskubi

DISEINU GRAFIKOA

Alvaro Sánchez

ARGITALPENA









Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila
1 Posta Kutxa 48080 Bilbo Tfnoa: (94) 445 31 00

ZABALKUNDEA

Ediciones Mensajero
Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo
73 Posta Kutxa 48080 Bilbo
Tfnoa: (94) 447 03 58

Oharra: *Enseiucarrean*-ek ez ditu bere gain hartzen bere baitan batzen diren artikuluetan azalduko eritziak, eta, edozein kasutan, dagokien erantzunkizuna egileena ez beste inorena izango da.

A U R K I B I D E A

7. AURKIBIDEA.  9. EDITORIALA.  13. PAGOLA, Rosa Miren; LAKARRA, Joseba; ROTAETXE, Karmele; ORTIZ DE URBINA, Jon; SANCHEZ CARRION, J. M.^a *TXEPETX* eta ABAITUA, Joseba: «*Euskarak Linguistika Argitzen - Mahaingurua*»  55. ARRONATEGI, Aloña; GEZURAGA, Goizalde; KALTZAKORTA, Nerea eta ZUBIAUR, Estibalitz: «*Armonia Bokalikoa*»  97. MADARIAGA, Juanra: «*Olerkiak*»  105. MORALES, Ana Isabel: «*Poemas & Híbridos-en zehar eginiko gogoeta eroak*»  155. IBARROLA, Aitor: «*Richard Wilbur: Ahots klasikoa izpiritu modernoan*»  165. GARAI, Koldo Jule: «*Johannes Jesus Salbagille-Gabriel Arestiren Maldan Behera-z*»  223. LARTATEGI, Josu: «*Enseiukarrean aldizkariko aurkibide orokorra*».



ESTE ALDI BATEZ HEMEN GAITUZUE 8. ALE BERRI hau besapean dugularik, zuen denbora baliotsua nonbaiten igarotzeko proposamen tentagarri bat eskaintzera, izan ere, oraingo honetan...

Mesedez ez zaitetz bildurtu, ez begiak itxi, irakurle; liburu baten hitzak dira orain entzungo dituzunak, bai, liburu batenak. Beraz, alda ezazu harridurazko keinu barregarri hori! Ez al zenekien liburuok bizitza propioa genuenik? Noski, gehienetan egile baten eskutan uzten gaituzte, orduan mututu egiten gara eta gure hitzak jaso nahian dauden orri zurietan, besteen esanak inposatzen dira.

Dena den, nire 8.alearen aurkezpen honetan sarrerako hitzak ezabatu nahi izan ditut, idazlea haserratuko zaidala dakidan arren! Baina, kontxo! nik ere badut esatekorik! eta besteen hitzen gainetik aritzea itsusia bada ere, ez dut beste aukerarik.

Berraitonak ez zidan ba esan nire isiltasuna besteen hitzekin estalia izango zenik! are gutxiago arnas amini bat hartzeko giza esku batzuen berotasuna sentitu lehenik eta, krass, portadaren zabaltze hotsa gerora entzun behar nituenik! Baldintza hauek alde zurretik jakin izan banitu... baina bizitza horrela da.

Berraitona ez zuten edonolako apalategian ezarri, monastegi zaharrean berau zen eder eta baliotsuena: azal gorri kolorekoa, gainean urrezko hizkiak eta bere barneko biluzdura estaltzeko, gorputz makur, ibilera torpe eta sudur puntatik ihes egin nahian zebiltzan anteojudun batzuen abadeak, leuntasun eta pazientzia osoz marraztu bait zion hizki bakoitza. Arro sentitzen zen bere handitasunaren aurrean harridurazko begiradak besterik ez bait zituen ezagutu.

Aitonak, berriz, dendari baten mahai azpian igaro behar izan zuen bere bizitza osoa, esku dardarti batek trazaturiko zenbaki makurrak eusten. Aita bera ere ez zen zoriontsu izan, inork irakurri ez zituen soldadu bakartiaren amodiozko gutunak arima zurian bait zeramatzan.


Nire zoria bestelakoa izan da; duela urte batzu, ikasle/irakasle talde batek sortu ninduen eta sarritan nekagarriak izan dira ni berpizteko egin dituzten lanak.

Kalera irten behar izan dudan bakoitzean zerbitzari onak eduki ditut, irakurleen aurrean behar bezala agertzeko. Hauek errege bat bezala jantzi naute eta, egun urrezko koroa gutxi badago ere, inguruko gaztelu guztiak arakatu dituzte altxorrik baliotsuenak niri eskaintzeko.

Duela gutxirarte lanean ilusioz aritu den taldeak alde egin du nire aldamenetik, bizitza joan etorri etengabe bat bait da. Badakit ez dutela inoiz nire esker oneko hitzik entzun eta agian baten baino gehiagotan madarikatu naute, lanaren truke isiltasuna ez bait da goxoa. Egileek beti estali izan dituzte nire esanak eta ez dut inoiz eskerrak emateko aukerarik aurkitu. Baina esan bezala, bizitza joan etorri etengabe bat da eta lagun zahar hauek alde egin badute ere, berriak etorri zaizkit.

Orain arte, arropa ezberdinak onartzen nituen, kalitate onekoak baziren behintzat. Baina nagusituz noan neurrian, hautapen zorrotzago batera jo dute neure zerbitzariak. Hauek diotenez, nire estiloa behingoz finkatu behar zen, ez bait da egokia Errege Jauna batzutan koroiaz eta bestetan praka motzetan ikustea. Beraz, bi estalki hautatu dituzte: imaginazio eta sentimenduz brodaturiko literatura mantoi gorria eta ikertzaileen linguistika urrezko kapa.

Jantzi hauen kolorea ezin deskriba daiteke, leuntasuna ezin senti daiteke, orrialde bakoitza zuk zeuk, irakurle, dastatzen ez baduzu.







EUSKARAK LINGUISTIKA
ARGITZEN
MAHAINGURUA



MAHAINGURUAREN AURKEZPENA

PAGOLA, ROSA MIREN

*DUELA SEI BAT URTE DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN SAIO berezi bati hasiera eman zitzaion irakasle eta ikasleen artean, ikerketa eta sorkuntza kritika edo beste edozein azterketa motako lanak bultzatu bidena-bar, eta argitaratzeko aukera eman nahiz, berez mamitu zen **ENSEIUKARREAN** aldizkaria.*

Irakasleak eta ikasleak elkarturik ibili diren arren, benetako eusle eta bultzatzaile ikasleak beurrak izan direnik ezin uka, eta, kontutan izanik, horrelako asmoak, orohar, bizpahiru kezkatuenen eraginez sortzen direla, badu meritu haundirik sei urte hauetan bizirik irautea orduan sortu zen aldizkariak.

Halere, ez uste, hitz hauek eta gaurko ekintza hau hiletetako laudorioa direnik, alderantziz baizik, lehenengo etapa itsi nahi dute ale eta ekintza honek eta beste bati ateak ireki.

Orainartekoan, gai ezberdinak jasotzen zituen **Enseiukarrean** aldizkariak, hala nola, antropologia, psikologia, soziologia, literatura eta abar. Hemen-dik aurrera, literatura eta hizkuntzalaritzara mugatzeko asmoa dute.

Zer adierazi nahi du honek? Aldizkaria helduz joan dela eta garapen bilakabide bat izan duela azken urte hauetan. Baina aldizkaria ez da berez sortzen, gibelean ez balu talde koerente eta ongi eratua horri eusten ez litzateke

horrelako aldaiketetan pentsatzerik ere. Neorrek ikusi eta ezagutzeko aukera izan dut, zenbateraino murgildu izan den aldizkari honen gibeletik dagoen ikasle taldea unibertsitateko giroan eta bihotzean, eta, bidebatez, unibertsitateko aldizkari bati dagokion maila lortzen. Baina, guzti horren gainetik, euskara bera eta bere kultura arlo desberdinetara zabalduz leku gorenetara jasotzea eskuratu dute eredugarria gerta daitekeen aldizkari banguardista bat lortuz.

Pozik zoriontzen zaituztet hainbeste urteetan egin duzuen ahaleginagatik, eta ziur nago aurrerantzean ere emaitza onik jasoko duzuela orain ekingo diozuen etapa berrian, orainarteko adorea eta lana eskaintzen badiozue. Jakin ezazue, bidebatez, gure laguntzarekin ere, konta dezakezuela.

Hizkuntzak betitik kezkatu badio ere gizakiari eta hizkuntza aztertzen aspalditik aritu bada ere, azken bi mendeotan eman dira urratsik nabarmenenak hizkuntz ikasketetan. XIX. mendea hizkuntzalaritza erkatzaileak eta historikoak bete zuten nagusiki, eta, agian, mende horretan eta hizkuntzalaritza horiekin ezarri ziren XX. mendeko hizkuntzalaritzaren oinarriak, ez bait zen alferrik jakintsu bera izan bokalismo indoeuropearrari buruz lan erkatzaile bikaina egin zuena joan zen mendearen bukaeran eta handik gutxira sortu zen estrukturalismoaren aita, F. de Saussure esan nahi baita.

Hizkuntzalaritza estrukturalistak jaso zuen jakintza hau zientzia mailara eta mende honen lehen erdi luzea ongi markatua du, baina bere inguruan beti izan dira mugimenduak eta, batez ere, bere emaitzen artean jaso daiteke hizkuntzalaritza sortzailearen jatorri izatearena zuzenean edo zeharbidez; eta bi hizkuntzalaritza hauek bai beteko dutela XX. mende osoa.

Halere, esan bezala, hizkuntzan ez baita sekula deus erabat burutzen, beste ikuspegi batzu ere badira eta inola ere ez garrantzi txikikoak. Horien artean gizarteak duen zerikusi haundia hizkuntzaren edozein alderditik begiratzen zaiola ere. Meillet eta Sapir-ek, esaterako, aspalditxo azpimarratu zuten bi horien arteko harremana. Bestalde, tresnen eta ordenagailuen munduak sekulako eragina du komunikazioan eta horrek ezinbesteko zuen hizkuntzarekin eta hizkuntzalaritzarekin harremanik izatea, denak bait dira komunikatzeko bideak.

Bestalde, jakin badakigu, eskolak gertatzen diren tokian irizpide ezberdinak eta aurkakoak ere agertzen direla. Beharbada, azkenengo hamarkada hauetan gertatu da topaketarik biziena eskola estrukturalista eta sortzailearen artean eta horrek hainbat piztu du hizkuntzalaritzaren azterketa ikuspegi ezberdinak bata bestearekin osatuz doazelarik. Gaurko mahainguru honetan

guzti honen berri izateko aukera dugu, izan ere, hemen ditugun hizlariak aipaturiko eskoleen eta korronteen ordezkariak direla esan bait daiteke.

Partaideak eta galderak honako hauek dira:

Joseba Lakarra: Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

GALDERA: Zein aportazio egiten dio linguistika historikoak hizkuntzaren, eta gure kasuan euskararen, ikerketari? Linguistika historikoaren barruan egiten ari diren euskararen ikerketek zer aportatzen diote linguistikaren teoriari?

Jon Ortiz de Urbina: Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

Galdera: Zein ekarri linguistika sortzaileak?

Karmele Rotaetxe: Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalari-tzako Katedraduna.


GALDERA: Zein ekarri linguistika estrukturalistak?

Jose Maria Sanchez Carrion: Soziolinguistikan aditua eta irakaslea.

GALDERA: Gaur egun, Euskal Herriak bizi duen elebitasun egoerak zer nolako ikerketak eragin ditu? Ondoriorik atera al da?

Joseba Abaitua: Deustuko Unibertsitateko Irakaslea.

GALDERA: Zer ekartzen dio linguistika konputazionalak hizkuntza naturalen analisiari? Zeintzu proiektu daude martxan une honetan euskarari aplikaturik?





EUSKARA ETA LINGUISTIKA HISTORIKOA

LAKARRA, JOSEBA ANDONI

LINGUISTIKA HISTORIKOAK EUSKARARI ETA EUSKARAK linguistika historikoari, zeinek zeini, nola eta zenbat dakarkion hemen eta orain ebaztea luze jo lezakeen egiteko arriskutsu begitantzen zait. Nekoso eta arriskutsu aurrelan frango eta nireak baino begi zoliagorik beharko litzatekeelako, ez ordea egiteko alperriko inolaz ere. Bi gaion arteko lotura ezinutzizko eta emankor dela edo izan daitekeela bide dateke, hain zuzen ere, nire egungo predikuaeren gune.

Ezer baino lehen, has gaitezen hizkuntz kontuetan arituxe zein sartu berri den edozeinentzat Pernandoren egiak izan daitezkeenak gogoratuaz. Hizkuntz gaitasuna naturazko, gizaizaerari zor zaizkion ezaugarrietarik delarik ere, ezin ukatuzkoa da gaitasun horren —ez soilik ariketaren— nolakoa aldakorra dela; hots, hizkuntzak berezko du aldakortasuna, nahi eta nahiezko, ez zilegi edo debekaturiko, edergailu edo ustelketa iturri, hizkuntzaz arduratu den anitzek mendeetan uste zuenaren kontra. Joan den mendea «historiaren mendea» edo «historizista» gertatu zela esatea usuko eta are topiko bilakatu bada ere aspaldi, ezin ukatu esankizun horrek oinarri sendorik duela. Ez, noski, hizkuntzalaritzari dagokionez soilik: hor dira biologia, geologia edo ekonomia historikoaz egindako azterketa eta proposamen ugari, hizkuntzalaritza historikoaren baitakoen gisari

edo aitzindaritzat ere jo ditzakegunak; dakizuenez, baina ez naiz horretaz hemen arituko, hizkuntzalaritzatik beranduago bestelako hartzekodunek, hizkuntzalarien baimen garbiegirik gabe, hartutako era askotariko —baina ez harenen kitagarri— anitz ere izan da.

Esango nuke euskaltzaleen artean (euskalariak, kronologiari zor legez, geroxeagorako utzi behar) hizkuntzaren aldakortasuna, edozein hizkuntzarena, euskara barne, berandu landutako ideia dela; oraindik orain ere inoiz badirudi kontrakoa uste duenik edota, behintzat, kausi daitekeela ideia osotoro egosteko gogo handiegirik ez duenik: esaterako, zenbaitek euskara aldatu dela onartuko dizu baina gero, honako edo harako euskalkiaz ari zarelarik (gehienetan honako edo harako hori berbera agitzen delarik) balirudike euskalki hori ezinaldatuzko, betidaniko eta betiereko dugula, hitzarmen huts ez eze hizkuntza aldakorren gainetiko ere. Euskaltzaindiaren gramatikan ere ez dirudi denborari axola handiegirik eman zaionik, XVI. mendetik XX.aren akabura ezer jazo ez balitz bezala edo. Urrutiegiz ez joatearren aski bedi Mitxele-nak aipatu nominalismo erakusgarri ezaguna. Hots, «zein da zaharrago, gaztelera ala euskara?» «Euskara, noski» ihardetsiko luke ia edozeinek, are filologiako ikasle zenbaitek ere; aitzitik ezaguna da, eta gorago gogoratu hizkuntzen izakeratik datorrena, hizkuntza baten, biren zein hamarren zahartasun absolutoak ez duela esangurarik, eta itsasoari uharkak egitea bailitzan ari dela horretan saiatzen dena. Besterik da, noski, honako edo harako hizkuntza delako edo bestelako lurraldean lehenagoko edo lehenago lekukoturiko den; hori bai, erantzun daiteke edo erantzuten saiatu, bederen, izenez landako bestelako oinarriak bait dugu.

Ideioak, eta ideioi darraizkien hizkuntz historiarekiko jaidura eta joerak Euskal Herrirako bidean berantatzea ez da harritzeko ez ulergaitz, sail osoarekikoak bait ziren berandutu; dakigunez, hizkuntzalaritza —hor zehar ofiziokoek ulertu ohi duten gisan, bederen— ez da zaharregi Euskal Herrian, eta orain bereon ere ezin esan merkatuan erbiak eta katuak beti zein bere gisan saltzen denik.

Baina, heldu, heldu dela eta hemen dagokigunean eragin larririk ere izan duela ukatzea ezinezko genuke. Izan ere, hizkuntzalaritza historikoa da, batez ere, gubanaino iritsi lehena. Ez da harritzeko iritsi zen mendean iritsirik eta orduko Euskal Herria, euskaldunen eta beren hizkuntzaren sailkapena ingurukoena (eta urrutigokoena) ez bezala egiteke eta eginkizun istilutsu bihurtua bait zen.

Horrek euskal linguistika historikoari ekar zizaiokeena ekarri zion, jakina, normaltasuna; hots, beste eta bestelako hizkuntzetan ikusitako eta aztertutako fenomeno eta bilakabideak euskararen ere bazirela markatu

zen eta apartekotzat jo ohi ziren askori ahaide eta kideak agertu zitzaizkien.

Bestalde, euskarari dagokionez beste askoren kasuan baino etorkiei kasu haboro egiteak, eta etorki horien iluntasunak euskara ezagun eta ia modako ere bilakatu zuen European Humboldt ez geroz. Bada ikertzaile atzerriar frango XIX. mendean eta XX. ean ere eta gehientsuenetan euskararen iraganaz eta historiaz dira axola, gehienbat.

Historiaz baino historiaurreaz gehiago, zehatz mintzatuko bagara; hots, ez testuek erakusten duten eboluzio eta egoeraz baina lehenagoko bilakabide eta are etorkiez. Euskarak beste hizkuntza edo hizkuntz familiariekin (iberikoa, kamitikoak, kaukasikoak...) izan zitzakeen harremanez aritu dira Schuchardt, Uhlenbeck, Lafon, Tovar eta beste. Egun ez dirudi emaitzak duela 30 edo 49 urte zenbaitek aldarrika zitzaizkeenak direnik; halere, euskara honako edo harako hizkuntzarekin lotzea baino garrantzitsuago dena lortu da, hots, gainerako eremuetako erizpiderik hertsienekin gonbaraketarako gaiturik dugu euskara.

Izan ere, Gavel, Martinet eta beste zenbaiten lanak baliatuz, zuzenduz eta zabalduz, euskal fonologia historikoaren ikuspegi bikaina eman zigun Mitxelenak bere 50-60etako lanetan, *Fonética histórica vasca* dugularik guztien bilduma eta gailur. Honek berreraiketarako bidea ematen digu eta aitzineuskararen alderdi honen ideia aski zehatza dagoeneko eskuratu dugula esan dezakegu. Bestalde, Mitxelenak urteetan (hasperenketaren bilakabideari lotuaz zein berariazko lanetan) azentuen deskribapen, sailkapen eta historia aztertu zituen, aurrerapen esanguratsuak lortuaz; ez da agortutako gaia, noski, eta Hualderen zenbait lanek sailkapen sinkroniko zehatzago eta aberatsagoa eskuratu digu azterketa berrietan oinarrituaz, eta eboluzio diakronikoari buruzko argi berriak egin ditu, esaterako tonu eta intensitate azentuak historikoki lotuaz.

Morfologia historikoan ez gara maila horretara iritsi nahiz eta ez den ukatzeko XVI. mendeko aditz sistemaz Lafonek egindako liburuak suposatu zuen aurrerapena eta Mitxelenak berak eta Irigoienek egindako hainbat ekarpen; deklinabideko kasu zenbaiten historia ere ikertu izan da sistema osoarena ikertzeke badugu ere eta zer edo zer egin da izenordainez. Gehiena da, baina, egiteke duguna; sintasi historikoaz hobe ez hitzegin oraintsu arte balia zatezkeen datuak eta horiek miatzeko hurbilketak ere ez bait ziren eskura. Lexikoaren historian inoiz ez bezalako aurrerapenak egin dira azken urteotan: egile eta garai zenbaiten erizpide eta ekoizpenak aztertzen hasiak gara eta, azkenik, *Orotariko euskal hiztegia*-n dukegu aurrerantzean hiztegi historiko batetik inoiz hurbilen izan den lanabesa, helburu horretarako zerbaixka peitu izan arren.

Lingustika historikoaren egoeraz galdetzeak ia zuzen zuzenean haren mirabeetarik baten egoeraz galdetzera garamatza: filologiarenaz, alegia. Egia da filologia zentzu hertsian, hots, testuen argitaratze eta ikerketari dagokionean, ez dela nahi genukeen bezain aitzinatua, baina zerbait edo zerbait baino gahiegotu egin da azken hamarkadetan. Mitxelenak inongo eraginik izan badu datuekiko menpekotasunaren aitorrean utzi du; menpekotasun hau bi eratakoko dugu: batetik haiek —beren aberastasun eta sarkotasunak— zilegiztatzen eta oinarritzen dute gure ibilbidea hizkuntzaren historian barrena; bestetik, linguistika historikoan ere teoria orokorrak eta azaltzaileak beharrezko ez eze ezinbesteko izan arren, egiten dituzten auresanak ezin joan daitezke benetan ditugun emaitzen aurka.

Honi loturik eta Mitxelenak berak usu aldarrikatu legez, euskarari iritsi zitzaion normaltasunak halabeharrez dakar, demagun, neolinguistek haizatu zituzten erizpideak (testuetan kronologiarena, muturretako eremuena, galtzearen fonemena...) baliagarri izatekotan ez direla soilik haiek aztertu zituzten hizkuntzentzat (erromantzeak batez ere) baizik eta guztientzat, euskara barne.

Kanpotarren ariketak gorago aipatu ditugun aitzinamenduz landa bidenabarreko bestelako abantailarik ere izan bide zuen hasiera hasieratik eta zalantzarik gabe horrela gertatzen da azken hamarkadotan; haiengandik hizkuntzazko edo hizkuntz teoriarekiko bestelakorik ere ikasi ahal dute euskalariak. Schuchardt-en irakurketak nola eraman zuen Meillet-enera eta are orduan punta-puntako zen Saussure-rengana ikusteko eskuzta bedi soil soilik *Morfología Vasca*; Uhlenbeck edo Martinetenak Mitxelena bestelakotara ere bazeramala ikusteko ireki bedi nonnahi *Fonética*.

Euskararen ikerketak linguistika historikoari zer eman dion edota zer eman diezaiokeen genuke txanponaren bigarren alderdia, ez gehiegi, egia esan. Edota, baikorragoentzat, ez eman dezakeen guztia.

Ezer baino lehen, ez da jende gehiegi ikastekotan artean aritu dena eta badirudi orain inoiz baino gutxiago dela, modatan ez balego bezala (ez dut ihardungo, halere, hirugarren mundukoek modez izan ditzaketan begintazioez). Hala ere, ez da ikertzaile eskasia soilik euskararekiko ikerketetarik etekina emarago ez ateratzeko zio bakarra; horrekin batean eta agian baino lehen ere, teoria falta, teorizaletasun urria da horretara garamatzana.

Erabat oker izatea baino gogokoago ezer gutxi nukeen arren, *Lenguas y Protolenguas* (eta egile beraren besteren bat) da orain bereon burura datorkidan euskaldunen batek linguistika historikoaren teoriak egindakoen artean aurkez daitezkeen ia guztia. Zer da izan ere fonologi, morfologi

edo sintasi diakronikoaren barnean euskaldunei (are euskalariei) zor zaiena? Eta berriz ere teorizaltetasun ezak dakar beste ezerk baino gehiago ondorio hau. Popper edo Lakatos aipatzeke ere aitortuko bide zait ikersail baten aitzinamendua bertan —mokoka zein baketsuago— diharduten teorioren kalitateak eta ez ustezko ezagutzen bildumak bermatzen duela; indukzioa ezagutza bidetzat aspaldi agertu zen ahul eta agor eta ez dirudi Euskal Herrian bestetan eman ez duenik oparituko digunik.

Galdera bera harroxko begitantzen zait; alegia, euskalariok zer eman diezaiokegu linguistika historikoari? Baina hartu beharrik ote duke, edota, gordinago, hartzera gogotzeko gai izango ote gara? Nago ez ote den hobe beste honetara aurkeztu kontua: linguistika historikoak jorratzen dituen edo jorratzeko dituen alorretarik zeinetan izan daiteke, neurriren batean, esanguratsu euskararen lekukotasuna?


Konpli da gogoratzea ez dakigula berdin ez modu berean gramatikaren alor gutzietz; inola ere askozaz gehiago fonologiaz morfologiaz baino eta honetaz sintasiaz baino. Eta hori nahiz sinkroniaz nahiz diakroniaz ari garelarik. Ezer gutxi pareka dakioke «Sobre las antiguas consonantes» edota, bereziki, *Fonética histórica vasca*-ri morfologia historikoan eta ezer ez sintasi diakronikoan. Ez da zer pentsatu, ordea, euskararen azterketa historikoa ikertzaileentzat ahuntzaren gauerdiko ezturen pareko gertatu behar zaiela. Hizkuntzaren ezaugarri zenbaiten sortze, garapen eta bilakabideak izan du eta baduke, zailantzarik gabe, interesik Euskal-Herrietik landa ere: azentu eta tonuaren, hasperenketaren, bokal sudurkarien, «harmonia bokalikoaren» edo txistukarien bilakabideak fonologian; hizkuntzaren atzizkiberatasun eransaltetasuna, «deklinabide» berezia, aditz sistema oparoa... morfologian; ergatibotauna, hitz ordena, anaforen sistema... sintasian, mailebuen adaptazio eta kopurua, leksikoa berrizteko moduen eboluzioa hiztegian... ez dira axolazko soilik XX. mendearen bukaerako euskara aztertu nahi duenarentzat.

Ez dira gehiegi inguruotan antzeko egitura duten hizkuntzak eta, ari garen gaian oso kontuan hartzeko dena, gutxi dira haratago egitura bertukoaren artean euskararen lekukotasuna ere erdiesten dutenak; alde honetatik nolabaiteko eredu edo erkagai izan daiteke lehendabiziko lekukotasunak oso berandu, zenbait joan den mendean edota are honetan bertan, izan dituztenentzat. Dialekto zatikatzearen zenbatekoa eta nolakoa, faktore historikoekin izan dezakeen lotura, aitzineuskararen data eta kokagunea ere izan daitezke bertoko eta kanpoko hizkuntz historiagilentzako topagune: guk haiek bestetarako prestatu hurbiletak erabili beharko ditugu nahi ta nahiez; zenbaitentzat interesgarri gerta bide daiteke, alderantziz, euskal datuekin egin litekeen hurbilketa horien egokitzapena. Hala biz.

BIBLIOGRAFI OHARRA

Testuan, halabeharrez, ez dut inongo zehaztasunik eman. eraskin honetan ere ez dut tarroenetara jotzea baizik. Euskal linguistika historikoaren ia zernahi alderdi ezagutzeko Mitxelenaren obratik abiatu beharra dago; *ASJU*-ren Gehigarrietan dira bere *Fonética* eta *Sobre la historia de la lengua vasca*, non biltzen diren ia 100 artikulua eta ezinutzizko anitz da *Palabras y Textos* eta *Lengua e historia*-n ere. Alfonso Irigoienek badu izenaren zein aditzaren morfologia historikoaz gauza jakingarririk bere *De re philologica...* bildumetan (3 orain arte) eta orobat toponimia eta onomastika historikoaz *Las lenguas de los vizcaínos* eta ondokoetan. Lafonen XVI. mendeko aditzazko liburua Elkarrek berrargitaratu zuen 1980an.

Linguistika historikorako sarrera anitz, eta gehienak, onak dira; bat aipatzekotan Theodora Bynon-en *Historical linguistics* egingo nuke (bada gaztelaniazko itzulpena ere) eta material anitz den H.H. Hozk-en izen bereko liburua ere (Mouton 1986). Zertxobait berezituago eta zailago gerta litezke J. Fisiack-ek aipatu bildumak 80. hasieratik honaino eta Mouton-en argitaratuak: fonologia, morfologia, sintaxi, semantika eta dialektologia historikoak izan dute bana eta baita arestian linguistika historikoaren eta filologiaren arteko erlazioak ere.





EUSKARA ETA LINGUISTIKA SORTZAILEA

ORTIZ DE URBINA, JON

ERABILERA TEKNIKOAN, «SORTZAILE» ADJETIBOA ZEHATZA eta formala den eredu bati dagokio, eta zentzu honetan gaurko hizkuntz teoria askori aplikatu lekieke: Chomskyren Hatsarri eta Parametroen teoria, Bresnanen gramatika lexiko-funtzionala, Gazdarren GPSG delakoa (Generalized Phrase-Structure Grammar), Perlmutter eta Postalen gramatika erlazionala, etab. Hauetako asko, Chomskyk 1957an ezarritako ikerbide eta ikergaiak onartzen dituzten neurrian, aldaki notazionalak dira. Hemen aurkeztuko dudana, Hatsarri eta Parametroen teoria (HP hemendik aurrerantzean), gramatika transformazionalaren azkeneko garapena da, eta gramatika sortzaileen artean ikerle gehien biltzen dituen da. Formala denez, ohizko teoria zientifikoen antzekoa da, hipotesi ezeztagarriak sortzen ditu (Popperren zentzuan) eta aurrean eta ondorio enpiriko zehatzak eskeintzen ditu.

Teoria gramatikalak hizkuntzari buruzko kezka nagusi batzuek gidatzen dituzte, eta ondokoak lirateke HP teoriaren erdian daudenak:

- Zer «dakigu» hizkuntza bat «dakigunean»? Badirudi gramatika sistema autonomoa dela, nahiz eta gizakien sistema kontzeptual eta pragmatikoarekin lotuta egon, bere baldintzak eta egituratze mota bereziak dituen.

- Nola da posible sistema horretaz jabetzea? Hizkuntza aztertu duen edonork ondo dakienez, izugarri sistema konplexua da. Kontutan hartu milaka hizkuntzalari ahaleginu direla haien botere analitiko osoekin hizkuntzak aztertzen eta oraindik azalean baizik ez gaudela, gehienaz guti dakigula eta are gutiago ulertzen dugula (hartu, esate baterako, ergatibitatearen auzia).
- Hau ikusita, nola da posible hurrek, ezer guti egiteko gai direnean, inongo botere analitikorik gabe, hizkuntza mota mugatu baten aurrean daudelarik, horrelako sistemaz jabetzeko gai izatea?
- Hizkuntzak ezberdinak badira ere, zergatik ez dira gauzatzen gerta litezkeen ezberdintasun posibleak? Hau da, hizkuntzen arteko ezberdintasunak begi bistakoak badira ere, argi dago berdintasunak funtsezkoak direla: ezin daiteke kasualitatea izan euskaraz eta Australia eta Ameriketako hizkuntza ergatiboetan *argitu* bezalako aditz intransitibo bat (argumentu bakarduna) «transitibo» bezala tratatzea egitura askotan, eta ergatiboak ez diren hizkuntzetan ere beste aditz intransitiboetatik ezberdin izatea (alderatu *una estrella caída* eta **una estrella brillada*). Teoria egoki batek berdintasunen eta ezberdintasunen berri eman beharko luke.

Kezka hauei, Chomskyk erantzun genetikoak ematen die: hizkuntz sistemaren ezaugarriak daukagun burmuina izateagatik datoz, honen forma eta egituraren ondorioak dira, eta hemen ez naiz ari ezaugarri espiritual edo metafisikoak, nahiko ezaugarri fisikoez baizik (hizkuntz elementuen artean egin daitezkeen erlazioak, hurbiltasun erlazioak eta erreferentzia erlazioak, etab.). Gure entzumena edo ikusmena begien eta belarrien (azken finean, burmuinaren) egituraren ondorioa diren bezala, burmuinaren ezaugarri fisikoez hizkuntzaren forma baldintzatzen dute, eta ez da harritzekoa beraz giza hizkuntz guztiak funtsean berdintsuak izatea. Gramatika Unibertsala gizakien hizkuntza gaitasuna izango litzateke, burmuinaren egiturak baldintzatutako Printzipioek osatua (governamendua, uztardura, etab.). Honek azalduko lituzke hizkuntzaren arteko berdintasunak. Eskeintzen den modeloa erakargarria da modularra izateagatik: printzipio simple eta independente guti izango genituzke. Hizkuntzaren konplexotasuna ez letorke printzipioetatik, baizik eta haien arteko interrelazio ugarietatik. Hala ere, printzipio batzuen barruan esperientziak finkatu arte aukera txikiak izango lirateke, parametroak. Esate baterako, X-marra teoriak esaten digu nola batzen diren osagaiak elkarrekin sintagmak osatzeko. Teoria hau Printzipio hauetako bat da, buruak


eta osagarrien arteko erlazioak eratzen dituen. Baina, honen barruan parametro txiki bat dago, burua eta osagarriaren arteko sekuentzia finkatzen duena: hizkuntza batzuetan burua osagarriaren ezkerretara agertzen da, bestetan eskumatara. Finkapen ezberdinetatik itxura guztiz ezberdina daukaten hizkuntzak sortzen dira nahiz eta inguratze printzipioa bera izan. Bestalde, sistema modularra denez, parametro baten finkapenak denetarikoa ondorio ezberdinak izango ditu printzipioen arteko erlazioetatik sortzen direnak. Honek azalduko lituzke hizkuntzen arteko ezberdintasunak.

Bigarren galderari bagagozkio, hizkuntzaren jabekuntza dramatikoki errazten da horrela: haurrak ezer guti ikasi behar du: printzipioak alde aurretik emanda daude, eta parametroak finkatzeko esperientzia guti behar da. Buruen kokapena finkatzeko aski da *etorri da, sagarr-a* edo *liburu-a erosi* bezalako adierazpen sinpleak entzutearekin. Horren ondorioak handiak izango dira. Jabekuntza hitzak ikastera mugatuko litzateke, eta hau ere Gramatika Unibertsalak errazten du, hitz posibleak mugatzean etab. Beraz, lehenengo galderari erantzuteko, hizkuntza bat dakigunean Printzipio horiek dakizkigun, finkatutako parametroak barne.

Aipatutako printzipio eta parametro hauek nahiko abstraktuak (hau da, begi bistan dagoenik aldunduak), baina hau hizkuntzalaritza mota honen helburuen ondorioa da; biologiarekin konparaketa egiten badugu, izaki guztien oinarria aztertzeke behar dena (enzimak, proteinak, etab.) nahiko ezberdina da animalien taxonomia bat egiteke behar denekin alderatuz. 'Abstrakzio' (kontuz, printzipioak guztiz konkretuak dira) maila horren sakonki jartzeak badu ondorio penagarri bat. Hizkuntzalaritza gero eta arlo teknikoago ari da bihurtzen, prestakuntza luzea egin gabe ulertezina dena (baina ez dugu bestelakorik espero fisika teorikoan, esate baterako). Beraz, hau bezalako sarreretan ezin da komunikatu analisi konkretuak egitetik datorren interesa, eta galdera orokorretara mugatu behar gara. Hala ere, badago hizkuntzalaritza mota honetan lan egitetik datorren alde on bat: hizkuntzalari talde handia dago munduan zehar bide berdinsutik abiatzen direnak, elkarren lanak ezagutzen dituztenak. Horrek izugarritzko bizitasuna ematen dio arlo honi, edozeinek hizkuntza batean garatzen duen analisisak dioena baliokoa izango baita beste guztietarako.

Hatsarri eta Printzipioen teoriak ikerketa programa erakarri bat sortu du, eta euskararen azterketa ere garatu da asko eredu honen barruan. Noski, askoz gehiago eman dio teoriak euskarari alderantziz baino, ulergarria denez hizkuntzalarien kopurua kontutan hartzen badugu. Baina

euskararen datuak azkeneko urteetan hasi dira plazaratzen, artikuluko tekniko-koen aipamenetan onarritzen bagara: J.I. Hualderen lanak, I. Lakarenak, etab. ohi baino entzulego handiagoa izan dute. Estatu osoan, gure eskualdean kokatzen da, Madrid eta Bartzelonaren atzetik, hirugarren ikerketa zentrua, eta ez da kasualitatea Bigarren Ihardunaldiak Gramatika Sortzailaz direlakoak Gasteizen eratzea, lehenengoak Madrilen eratu ondoren. Hala ere, azpimarratzekoa da gehienetan Euskal Herritik kanpo ikasitako jendea dela horren bultzatzailea. Hemengo unibertsitateetan gehienez ikasleek teoria apur bat ulertzeko moduko mailara heltzen da, produzitzeko behar den mailara iritsi gabe. Hau kezkarria da, ene ustez, eta aurretik daukagun lanaren erakusgarri ona.





EUSKARA ETA LINGUISTIKA ESTRUKTURALISTA

ROTAETXE, KARMELE

NIRE AINTZINAKO UNIBERTSITATEAK ANTOLATUTAKO MAHAinguru honetan parte hartzeak pozten nau eta, hasi baino lehenago esker-erak eman gura dizkiet Joan Otaegi Irakasleari eta bertan ikasleak izan nituen Rosa Miren Pagola, Euskal Ikasketen Zuzendariari eta Itziar Turrez, Linguistika Orokorraren Irakasleari.

Bestalde, Estrukturalismoaz berba egiteko gonbidatu nauzue eta aurretik aitortu behar dut ez naizela, beharbada, oso estrukturalista ortodoxoa. Honek badu bere alde onik, zeren Linguistikaren joera honen garrantzia hotzago ikus dezaket, seguru asko. Itaunei erantzuteko, emandako ordena gordeko dut. Beraz:

a)

1. **Estrukturalismoa:** Errealitatea ikusteko, aztertzeke eta adituteko, gure mende honen bigarren hamarkadatik aurrera hedatzen den mugimendu orokorra dugu. Ez dagokio soilik Linguistikari; poetikak, antropologiak, sikologiak, soziologiak, adibidez, jarraitzen bait diote Estrukturalismoari, erreferentzia ugarietan ikus daitekeenez eta, aipamen bat emateko, O. DUCROT ET al.(1968) *Qu'est-ce que le structuralisme*, Ed. du Seuil liburuaren Hitzaurreak azaltzen duenez.

2. **Linguistikan** mugatuz, Kuhn-ek aipatzen duen «paradigmaren aldaera» suposatu zuen Estrukturalismoak jarraian azpimarratuko dudan zenbait nozio berrigatik. Nozio hauen oinarriak ditu Estrukturalismoak eta, jakinaenez, Ferdinand DE SAUSSURE-ren irakaskuntzatik etorriak dira.

2.1. Hizkuntza ahozko errealitatea da eta ahozko errealitatetzat jaso eta aztertu behar da. Hizkuntza dugu geure barneko beharrak, gurak edota sentipenak adierazteko eta, batez ere, elkarregaz komunikatzeko. Hizkuntza ez da lengoia eta, batez ere, komunikatzeko tresna da. Ondorio batzu datoz hemendik: Linguistika ez da Filologia, ez helburuaren aldetik, ez metodologiaren aldetik ez eta batak eta besteak dituen abiapuntuen aldetik, hau da, erizpide epistemologikoen aldetik. Filologia aintzinako (eta, noski, idatzitako) testuetaz arduratzen bada, Hizkuntzalaritzari garai bateko hizkuntza interesatzen zaio. Filologiarako, munduko hizkuntza guztiak parekoak izaten ez diren bitartean, Linguistikaren ikuspuntutik hizkuntzen arteko hierarkizaziorik ez dago.

Hizkuntza ahozko errealitatea izanez gero, estrukturalismoa Linguistika Orokorren adar batez, Linguistika deskribatzaileaz, alegia, arduratzen da, bereziki. Esan gabe doa, oinarri hau guztiz berria zela bere garaian eta hizkuntzak ezagutzeko eskatzen zuen bidea zeharo ezberdina. Hizkuntza ezagunen eta ez hain ezagunen deskripzioak hasi ziren agertzen, eta, era berean, Linguistika historikoaren arrakasta gutxitzen. Gaur konturatzen ez bagara ere, ez da ahaztu behar Estrukturalismoa zabaldu baino lehenago Linguistikarik bakarria historikoa zela; jakinaenez, joan den mendeko Gramatika gonbaratuak sortuta, linguistika historikoak hizkuntzen ikasketei buruzko *eskusibitate* luzaro gorde zuen, batez ere European, eta honen barruan, herri batzuetan beste batzuetan baino luzaroago.

Euskarari dagokionez, ez da esan beharrik oraintsu arte Filologia ikasketak eta ikerketak eta Linguistikakoak nahastuak izan direla, zoritxarrez. Eta askok uste izan dute eta, beharbada, oraindino uste dute *benetako* Linguistika historikoa dela.

Bestalde, deskripzioak eratzeko Estrukturalismoak eskainitako ereduak eta bideak ez ditugu gureganatu. Ahozko euskara ez dugu behar den moduz ezagutzen, deskripzioak falta zaizkigulako.

2.2. **Hizkuntza eta hizkeraren** artean egin behar den bereizketa.

Oso ezaguna da hizkuntz komunitate baten partaideek hizkuntza bera dutela, hizkuntza hori era ezberdinetan erabili arren, fonetikaren mailan, gramatikaren mailan eta, zer esanik ez, hiztegiaren mailan. Hizkuntza hitun komunitate bati dagokionez gero, abstrakzioa da eta, horregatik,

ez dago hiztunik hizkuntza osoa menperatzen duenik. Ideia hau geroko Gramatika Sortzailearen oinarri batekin erkatzen badugu, bistan dago Estrukturalismoak ezin duela onartu **hiztun idealik** dagoenik.

2.3. **Zeinuak:** hizkuntz-zeinuak alde bitakoak dira: adierazlea eta adierazia eta bereizketa honek semantikaren zein semiotikaren arazo askori erantzun egoki bat ematea baimentzen du. Hizkuntz zeinuaren alde bien arteko lotura beharrezkoa bada ere (osterantzean ez genuke zeinurik edukiko) argi utzi zuen Estrukturalismoak, onomatopeien kasuetan izan ezik, adierazlean ez dagoela motibaziorik, **konbentzionala** delako.

Euskarari dagokionez, aintzinako joera batek sostengatu du adierazleak motibatuak zirela (ASTARLOA izan daiteke ordezkarria). Sinesmen hori gaudituta izan arren, orain dela gutxi pentsatzen zen *greba* adierazlea, adb., *huelga* baino jatorragoa edo zela. Eta hau ez da egia; alde batetik bata eta bestea maileguzko hitzak dira eta, bestetik, hiztun askok, konbentzioaren medio, *huelga* erabiltzen dute. Era berean, Euskal Telebista konbentzio orokor baten aurka doa *eskerrik asko* ixiltzen duen neurrian *mila esker* erabiltzeko, ia esaera bakartzat.

2.4. **Sistema:** Saussure-ren irakaskuntzatik hartuta, garrantzitsuena den oinarri hau betirako finkatuta gelditu da. Gaur egun, inork ez luke ukatuko hizkuntzak sistemak direnik; izan ere, hizkuntz unitateak —maila guztietako unitateak— erlazionatuta daudela onartu behar da, derrigor, haien berri ematea posible izan dadin. Geroko ikerkuntzek erakutsi dute sistema hertsirik edo itxirik ez dagoela eta hizkuntz sistemak, sistema guztiak bezalaxe, irekia izan behar duela. Horrela, «Teoria General de Sistemas» delakoak erakutsi du sistema guztietan zenbait azpistema bereizten dela eta bereizi behar dela. Ekarpen hau, zalantza barik, funtsezkoa da hizkuntzetako barietateen berezitasunak eta elkar lokarriak azaltzeko.

Euskararen kasuan, gutxienez bereizi behar diren azpistemak dialektoak dira. Horregatik, orain dela gutxi Euskaltzaindiak antolatutako Dialektologiaren Kongresuan, erakutsi dut euskalki bat gaitzetsi baino lehenago ezagutu behar dela zein den bere funtzionamendua sistema osoaren barruan eta zelakoak diren bere hartuemanak beste dialektoekin, beste barietate sozialekin eta normarekin (hau da, euskara batuarekin).

Sistemaren nozioak, berez, **egiturarena** (edo **estrukturarena**) dakar. Eta, jakina denez, Estrukturalismoak sortutako nozio hau mantentzen da geroko Gramatika Sortzailearen barruan, sortzaileek egiturari zentzu mugatuago bat ematen badiote ere. Dena dela, sistemaren eta estrukturaren ideiak abiapuntutzat onartuta gero, Estrukturalismoak azpimarratu zuena premiazkoa da: hizkuntza ez da hitzen zerrenda bat ez eta beste hizkuntza

prestijotsuago baten gramatikaren kalkoa (lehen, latina; orain, ingelesa?). Hizkuntza bakoitzak bere egitura bereziak ditu eta Linguistikaren egin-beharrak egitura horiek azaltzea da, azterketarako maila denetan. Honetaz esan behar da gaur egun Unibertsalekin ohituta bagaude ere, kontutan eduki behar da Linguistikaren korrontekak, beste zientzia baten korrontekak legez, garai bateko ideien pean daudela: eta, alde horretatik, ez da ahaztu behar Estrukturalismoa hedatzen denean Ameriketako hizkuntz erlatibismoa ere hedatu egiten duela (WHORF, SAPIR...).

Bestalde, egituren berri emateko, sekula erabilia ez zen prozedura Estrukturalismoak praktikan jarri zuen: perpausetako zatiak sinbolo ordenatuen bidez azaltzea. Prozedura hau oso emankorra izan da Linguistika Aplikatuaren barruan: «patterns», «drills», «exercices structuraux» etab. eredu horiei esker gauzatu ziren, arau fonologikoak eta gramatikalak ikas/irakasteko. **Euskarari** dagokionez, betiko atzerakada dugu, oraingoan justifikatua bada ere: Estrukturalismoaren ekarpenak Linguistika Aplikatuaren ageri zirenean, ez genuen guk euskara ikas/irakasteko posibilitaterik eta.

3. **Ez dago Estrukturalismoaren eskola bakar bat**, eta, adibidez, Europako eta Ameriketako (Estatu Batuetako) Estrukturalismoak nahiko ezberdinak dira, praktikan. Askotan esan denez, Gramatikalari sortzaileek Estrukturalismoari egindako kritika (eta kritika zorrotza, sarritan) Ameriketako estrukturalismoa izan dute ikusmira. Europakoa, agian, ez zuten ezagutzen edo txarto ezagutzen zuten. Hona hemen aipatu nahi nituzkeen Eskola bakoitzaren ekarpenik jakingarrienak:

3.1. **Copenhague** estrukturalismotik **erlazioaren** kontzeptua.

Hizkuntz sistemaren unitate guztiak erlazioatuta daude eta, ondorioz, hizkuntza baten estudioan interesatzen dena erlazio motetan datza eta ez elementuetan. Erlazioen garrantzia azpimarratzeko, Eskola honek nozio teoriko bat sortu zuen: **funtziokoa**, hain zuzen. Jakina denez, gaur egungo **Relational Grammar** delakoak erlazioak hartzen ditu ikergaitzat, **subjetoaren** mugapen egoki bat ematerakoan, adibidez (N.LI, 1976).

Euskarari dagokionez, delako Gramatika Erlazionalak proposatutako zenbait froga kontutan izan nuen Doktoregoko Tesian (*Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, L. Zugaza, 1978) euskal ergatiboa subjetoa zela frogatzeko.

Hjemslev-i beste ekarpen handi bat zor diogu: Saussurek hizkuntza forma soilik zela —eta ez sustantzia— argitu zuen eta, Copenhague-koak zehaztu zuen mota bitako formak bereizi behar zirela, bata eta besteak

hizkuntz zeinua osotzen dutelarik: adierazpenaren forma eta edukiaren forma. Hemendik dator Semiotikaren azterketarako hain baliotsua izan den hizkuntzen taiuketa bikoitza: adierazpen-formaren taiuketa eta adierazi-formaren taiuketa.

Euskararen azterketan edo praktikan bikoiztasun hau ahaztuta egoten da. Alde batetik, gure gramatika batzuek *forma* aipatzen dute beste zehaztasunik eman gabe; jakina denez, edukiaren (edo adieraziaren) formak ez du, orain arte behinik behin, interes handirik sortu gure artean. Bestalde, entzuten eta irakurtzen diren esaldi asko **trasposizio hutsak** dira (hau da, gaztelerak bultzatutako kalkoak), bikoiztasun hori zaintzen ez dutelako; nire *Sociolingüística* liburuan (1988) aipatzen dudana *ez du hamar egun ere eginen*, adibidez, adierazpen formaren aldetik euskara da, zalantza barik baina adieraziaren aldetik, ez da. Euskarak beste era batean egiten baitu edukiaren taiuketa eta igaro den epea adierazteko *hamar egun ere ez direla, ez duela*, eta antzeko esamoldeak ditu; aipatutakoa da hitz hitzez: *no hará sino diez días*.

3.2. **Pragako Estrukturalismotik** lau ezaugarri aipatu behar dira behinik-behin. Azpimarratzekoa da aurkeztu zuten bidea gramatikari dagozkion kontzeptuak eta Pragmatikari dagozkionak bereizteko. Adibidez, perpausaren osagaia nagusi bi izendatzeko **Sujetoa** vs. **Predikatua** gorde bazuten ere, esaldiaren osagai nagusi biak izendatu zituzten **Tema** vs. **Rema**. Jakina denez, Ameriketako linguistek azkenengo bikote honi **Topiv** vs. **Comment** dei egin diote baina, funtsez, etiketak aldatzea baino ez da. Garrantzitsuena zera da: Pragako hizkuntzalariak konturatu ziren izendatze ezberdinak beharrezkoak zirela nozio mota ezberdin biren berri emateko: gramatikaren planteamendua eta objektua eta pragmatikarenak ez datoz bat, jakina denez. Arazo horretan zehatz eta mehatz sartu ezinean, gomutatu nahi dut gaur egungo Pragmatikaren arrakasta.

Pragako estrukturalismoan, hizkuntzaren **helburuari** dagokion oinarria abiapuntutzat hartzen da: oinarri *teleologikoa* dute hizkuntzek guk, hiztunok, elkar komunikatzeko erabiltzen ditugulako. Teoria osoaren zehar ageri da oinarri hau.

Jakina denez, **Fonologia** Pragakoek finkatu zuten, Fonetika eta Fonologiaren eginbeharrak bereizi behar zirela azaldu ezker. Soinuen eta fonemen arteko aldeak kualitatiboak bait dira eta ez kuantitatiboak. Fonema bakoitzaren ezaugarriak ematean, geroko zenbait ikerkuntzak Fonetika Artikulatorioaren hatzak (edo rasgoak) erabili ordez, Fonetika Akustikarenak proposatu dituzte (hauek ere estrukturalista batek sortutakoak, Jakobson-ek, alegia). Bigarren motako rasgo hauei esker, hobeto ikusten da fonema unitate abstraktoa dela eta gauzatzeko momentuan rasgo multzoa

dela. Edozein kasutan, fonologiaren objektua (fonemen zerrenda eta **banaketa** eratzea, bigarren exijentzia hau silaben eura finkatzeko, adb., funtsezkoa delarik, gure artean larregi ahaztuta egoten bada ere) ezin da isolatu hizkuntzaren helburutik: fonemak dira, hain zuzen ere, ditugun unitate artikularri minimoak hitzen arteko bereizketak egiteko; eta, jakina, halako bereizketarik egingo ez bagenu, ez ginateke komunikatzeko gauza izango.

Euskarari buruz, Deustuko Unibertsitatearen talde batek egin du eta egiten ari den Fonetika Akustikazko lana txalagarria da. Halan eta guztiz ere, Fonologiaren lan gehiago beharko genituzke. Esate baterako, gauza jakina da euskara batuak fenomeno foniko asko baztertu egin dituela (Bizkaierazko glide kontsonantikoak, adb.) eta ez dakiguna da ze ondorio mota izan duen baztertze horrek hiztunengan, fonema hiztunak duen errealitate mentala dela kontutan izanik.

Hizkuntz barietateak: Linguista hauek ez zuten inoiz onartu hizkuntza homogeneoa denik eta, hizkuntza «mota» bat baino gehiago bereizi behar direla azaldu zuten, sailkapen baten bidez: Hizk. POETIKOA vs. INTELEKTUALA eta, honen barruan TEORIKOA vs. PRAKTIKOA. Bistan dago sailkapen hau justifikatzen dela oinarri teleologikoagatik: erabiltzen dugun hizkuntza moztaren helburua guztiz ezberdina da poesiaz ari garenean eta lagunekin berba egiten dugunean, adb. Harrezkero, hizkuntza askotan (ingelesa edo frantsesaren kasuak argi daude) erregistroak bereizten dira eta horien arteko aldeak hiztunei erakusten zaizkie irakaskuntza orokorrean. Zer esanik ez, hizkuntza horien ikas/irakaskuntzaren metodologian diferentzia horiek kontutan hartzen dira, hizkuntza baten bizitasuna erakusten dutelako. HAVRANEK-ek urrunago eramane zuten hizkuntzaren heterogeneotasuna eta, bere Tesian, erakutsi zuten hizkuntz barietate ezberdinak beharrezkoak ditugula komunikazioan, eremu sozial ezberdinei dagozkielako. Linguista honek Soziolinguistikari ate garrantzitsu bat zabaldu zion erakutsi zuenean **adostasuna** izan behar dela barietatearen eta eremu sozialaren artean.

Euskararen kasuan, oso era partikular batean hartzen dira barietateak. Ahozko euskara, gehinetan, mesprezaturia izaten da eta askoren ustez benetako euskara Literaturakoa edota eleiza Oratoriakoa da, soilik. Hiztunek (edo hiztun askok, behinik behin) eguneroko bizitzan darabilten euskara mota ez da «ona». Horregatik, agian, ahozko praktikaz arduratzen diren ikerketak Dialektologiakoak izan beharko lirake, gehienek ustez. Hau, baina, ez da egia. Dialektoa ahozko barietatea izaten bada ere (eta idatzitakoa ere bada, sarritan), ahozko barietate guztiak ez dira dialektalak, eremu sozialek ekarritakoak baino. Gainera, Dialektologiaren zeregina

eta Linguistika deskribatzailearena guztiz ezberdinak dira eta izan behar dira. Arazo honetan askoz gehiago sakondu barik, pentsa daiteke euskarenen erregistroak mantendu eta bizkortu ordez, homogeneitateko joera nabari dela. Eta hau ez litzateke ona izango, Pragakoek azaldu zuten arrazoi bategatik: hizkuntza bizi guztiek barietate +formalak eta –formalak eskaini behar dizkiete hiztunei.

3.3. **Paris-eko Funtzionalismoa:** Horrela deituko dut Martinet Irakasleak sortutako korrontea. Linguista ospetsu honen liburuetan eta korrontearen barruan ideia bera errepikatzen da: hizkuntza gizarteak darabilen tresna da. Ondorioz, gizarte horren barnean funtzioaren bat betetzen duten hizkuntz elementuak **pertinentek** izango dira, haiei esker komunikazioa posible delako. Beraz, hizkuntza baten deskripzioa egitean, halako elementuak, bereziki, aurkitu eta azaldu behar ditu linguistak. **Funtzioaren** nozioa (eta eskolaren deitura, neurri batez) hortik dator. Bestalde, korronte honek proposatutako ideiarik jakingarrienetako bat **artikulazio bikoitza** dugu; lehenengo artikulazioaren bidez, unitate adierazgarriak ageri dira: alde bitakoak eta monemak deituak. Bigarren artikulazioak, ostera, unitate bereizgarriak (fonemak) azaltzen ditu: adierazleari, soilik, dagozkio (adierazirik edo edukirik ez bait dute), baina unitate adierazgarriak bereizteko behar ditugu.

Beste nozio teoriko bat hizkuntz elementuen arteko hartuemanen motekin lotuta dago; unitateek erlazio mota bi eduki ditzakete: **paradigmatikoak** (kateko toki batean, aukera bat jazotakoan, besteak baztertuak geratzen dira) eta **sintagmatikoak** (kateko unitateak jarraian ageri dira). Mota batak, nahi besteak arau konkretuak gorde behar dituzte. Aipatzeko da, azkenez, **ekonomiaren** nozioa zertan datzan. Eskola honetan ulertzen da hizkuntz aldaera (zein diakronikoa, zein sinkronikoa) indar mota bik eraginda dagoela. Alde batetik, hiztunak, nahi duen komunikazio osoa ziurtatzeko, prezisio handiz erabili behar du hizkuntza, erredundantziaz baliatuz, etab. Bestetik, bere mezuari forma emateko, ahal den energiarik gutxiena darabil. Behar bi horien loturatzat edo, ekonomia ageri da eta hiztunak, eguneroko hizkuntza erabiltzean, sinpletasunerantz jotzen du. Aurkako indar mota bi hauek hiztunen praktikak baldintzatzen eta moldatzen dituzte eta, hizkuntzaren eboluzioa jazoten da eta jazo behar du derrigor, sinkronian ere bai, hizkuntzak funtzionatzen duelako.

Ezin dut hemen eskola honen ezaugarri gehiagorik aipatu. Esan behar da, dena dela, funtzionalismoaren teoria eta metodologia oso zabalduta daudela munduan zehar eta Linguistika Aplikaturako guztiz emankorrak izan direla, *IKUS/ENTZUN* metodoak eratzeko unean (1962.eko VOIX ET IMAGES DE FRANCE metodoa, adibidez).

Ez da esan beharrik Martinet Irakasleak, berak, euskarari ekarpen handia egin diola, fonetika historikoaren barruan: gure kontsonanteen aintzinako sistemaren ezaguera berari zor diogu, zalantza barik.

Euskarari buruz eta ekonomiari dagokionez, denok dakigu batua sortu zela desegituratzea frenatzeko. Baina ez da ahaztu behar aintzinako formak berreskuratzeko nahia ezinezkoa edo alperrikakoa suertatuko dela: fenomeno batzuk diglosiak bultzatuak izan badira ere, beste batzuk hizkuntzaren eboluziotik datoz. Hori dela eta, gaitza da baiezen tinkorik egitea. Dena dela, euskararen ekonomiaz, ez da ikerketarik ezagutzen: Zipf legearen emankortasuna, adibidez, ez da ikertu gure artean, nik dakidanez, behinik behin. Eta horretarako giro onik ez dago: guretariko askorentzat, euskararen jardunek beharko lituzke erakutsi hizkuntzaren posibilitate birtual guztiak. Baina, beste modu batean ikus daiteke arazoa: hizkuntzen historiak azaltzen du hizkuntza guztiek euren zama gramatikala arindu egin dutela, funtzionalak izateko. Bitartean, SAPIR-ek deitutako hizkuntza *primitiboen* bereizitasuna azaltzen dute eta. Ikerketa mota zehatz baten arloan, ekonomia erregelak gordetzen dira: **Terminologiaren** arloan, hain zuzen ere.

3.4. **Ameriketako Estrukturalismoa:** gehienetan **distribuzionalismoa** deitzen dugu: unitateen kategoriak finkatzeko eta egitura bera ezagutzeko, **banaketaren** erizpidea funtsezkoa da. Distribuzionalismoak dakarren ondorio interesgarri bat **morfonologiaren** mailan datza (BLOOMFIELD, HARRIS, etab). Azterketarako maila hau onartzen denean, argi dago inkestatik jasotzen ditugun unitateak datuak baino ez direla. **Datum**, hau da, beste zeozerk emanda dagoena. Beste modu batean esateko, ageri diren formak (azalezkoak) beste azpiko formen errepresentazioak dira. «Azalezko», «azpiko» eta antzeko deiturak, gure artean Gramatika sortzaileak plazaratu baditu ere, berriak izango balira legez, Chomsky-rentzat ezagunak izan behar ziren, linguista honek, jakina denez, bere Tesia Morfonologiaz egin zuen eta.

Estrukturalismo honen partaide handi bati (BLOOMFIELD-i) zor dizkiogu perpausaren eta hitzaren definiziorik onenak. Eta distribuzionalista bategi, Harris-ek (Chomsky-ren maisua) lehenbiziko transformazioak proposatu zituen.

4. Aurrekoa ikusita gero, pentsa daiteke Gramatika Sortzaileak esan zuenean estrukturalismoak **taxonomia hutsa** egin zuela ez dela egia osoa. Alde batetik, bistan dago deskripzio bat egiten denean taxonomiaz arduratzea beharrezkoa dela, lehenengo hurbilketa batean. Hau esan eta gero, sailkapen zientifiko bat eratzea datuak jasotzea baino askoz gehiago da. Esaterako, datuen konpatibilitateak finkatzeak ez du zerikusirik taxonomiarekin.

Honetaz, gauza jakina da gramatikalari sortzaile batzuek eskainitako azterketak zuzenak ez direla izan unitateen sasi-konpatibilitateagatik.

Labur esateko, eta Estrukturalismoaren eskolen teoriak aparte utzita, linguistika deskribatzaileaz arduratu da batez ere korronte hau. Alde horretatik, Linguistikaren korronte da; ez da Gramatika mota bat ez eta, gutxiago Chomsky-k Gramatika Sortzailean ikusi zuen Sikologiaren adarra. Estrukturalismorako, hizkuntza gizartean bizi delako, hiztunen hizkeren bitartez ezagutu ahal da hizkuntza, eta ez dago hiztun idealik, ez eta, «hizkuntz aldetik, komunitate homogeneorik», Chomsky-k Sortzailearen mugapenari buruz esan zuen bezala. Estrukturalismoak ez du Sortzaileak duen idealizaziorik, beharbada jatorritik onartu zuelako Linguistika «zientzia gogorra» ez dela. Oinarri epistemologikotzat, indukzio-dedukzioarena onartzen du eta ez dedukzioa soilik, gramatika sortzaileak proposatu zuenez, **teoriaz**, behinik behin. Gauzak horrela, Estrukturalismoak badu, bere alde, Sortzaileak ez duen zeozer: erabilitako datuak usariotik hartuta daude eta, **egokitasun** baldintza bete behar dute, derrigor; baina ezin esan daiteke halakorik gramatikalari sortzaileek sortutako perpaus askoren aurrean.

Bestalde, Copenhague-ko eskola aparte utzita, Estrukturalismoak onartzen du hizkuntzak gizartean funtzionatzen duela. Alde horretatik, bere ikuspuntua Generatibismoarena baino orokorragoa da. Horrela ulertzen da, adibidez, William Lavov-ek esandakoa: gure artean, soziolinguistatzat ezaguna den ikertzaile handi honek «linguista soilik» dela idatzi du bere *Sociolinguistic Patterns*-en. Beraren ustez, beste askoren ustez bezala, linguistikaz arduratzeko, kontutan eduki behar da **aldaera sinkronikoa** gure begi bistan jazotzen dela, hizkuntzak ingurune sozial baten funtzionatu behar duelako, nahitaez.

Itxura positibo hauek aurkeztuta gero, akats batzu (edo asko, edo larregi, segun noren eritziz) aurkitzen direla korronte honetan aitortu behar da, eta hutsune batzuk ere bai. Adibidez, lengoaiaren linealtasunari garrantzi gehiegi emateagatik, oso joskera ahula ageri da. Eta, zalantza barrik, Sortzailearen ekarpenik handiena joskeran dugu, beharbada sortu zenean morfologiari buruzko lana egina zelako.

Edozein kasutan ere, Popper-ekin pentsa daiteke Linguistikan —beste zientzia denetan legez— aurrerakadak pausoka ematen direla faltsazio prozesuak izanez gero. Alde horretatik, Linguistikaren historiak erakusten du, nire ustez, korronte ezberdinek osotutako zientzia dugula.

b) Itaun honek erantzun mota bat baino gehiago eduki ditzake:

1. Ikerketa batek, teoria bati benetako aportazioa egiteko, beste teoria alternatibo bat aurkeztu beharko luke. Halakorik ez da gure artean jazo, hizkuntz teoriarik sortu ez dugulako.

2. Teoriatzat ulertzen bada, garai batean euskararen (edo beste hizkuntzaren baten) puntu bat/batzuei buruz eman diren azalpen multzoak (**teoriak** litzateke, ez **teoria**) ukatuak direla eta beste teoria bat proposatzen dela, orduan euskararen ikerketek zeozer egin dute.

2.1. Jakina denez, euskararen eredia latina izan da, luzaro, gure idazle-en artean eta gramatikolari batzuen artean. Latinaren prestigioak sortutako mimetismoagatik edo, euskara hizkuntza flexibotzat hartuta izan da, gure terminologiaren zehar («nominatiboa», «deklinabidea», etab.) ikus daitekeen bezala. Euskararen egitura, baina, ez da hizkuntza flexibodun baten egitura (ROTAETXE et DONEUX, 1971). Euskara hizkuntza **eranslea** da eta SAPIR-en erizpideen arabera, bere sintesiaren neurria altua. Ekarpen hau funtsezkoa da euskararen ezaugarri tipologikoak ulertzeko, adibidez, eta GREENBERG-ek eskainitako Unibertsalak frogatzeko.

2.2. **Euskal Azentua:** ALTUBE-k zabaldu dituen teoriaren arabera, euskaraz ez zegoen azenturik, AZKUE-k, azentuaren bidez, hitz mota bi bereiztu arren eta MITXELENAK indar-azentua izan behar zela idatzi arren. Gauzak horrela, 1977an beste teoria bat aurkeztu nuen (zehatzago, ROTAETXE, 1978; 1978b; 1981). Mendebaldeko euskalkien datuak aztertuta gero, erakutsi nuen euskal berbetan silaba batek (hasieratik kontatuz, bigarrena, gehienetan) indar-azentua dakarrela. Horrez gainera, Estrukturalismo teoriaren baliatuz (GARDE, 1968) zera azaldu nuen: singularra denean, **-a** artikulua doinua altua zela silaba horren frekuentziaren armonikoak gorantz doazelako, nahiz eta indarra handitu barik. Hau esanda, kontutan eduki behar da **-a** artikulua enklitiko dela eta, berez, azentugabeturik, enklitiko denak bezala. Beraz, entzuten den gailentzea **azentu-oihartzunari** dagokio. Bidenabar, azaldu nuen doinu-oihartzuna zabaltzen dela «sapalda» batean (*platean accentuel*), azentudun silabatik eskumara. Halakorik, gainera, ez da jazotzen Pluralean, **-g** pluralen morfema, berez, **-azentudun**, **-azentugarri** ezaugarriak dituelako; ondorioz, kokatzen den silabatik aurrera (silaba hori sartuta) doinua behe-rantz doa eta horrela mantentzen da. Bistan dago proposatutako teoria honek ez duela zerikusirik orduarte menperatzen zen teoriarekin eta, alde guztietatik, berria zela.

2.3. Jakina denez, oso luzaron sostengatu da euskal ergatiboa osagaia zela eta **nork-noren** aditza pasiboa. SCHUCHARDTEK, TOVAREK, JAKOBSONEK (azken honek 1969.eko artikulua batean), beste askoren artean, delako «teoría pasivista del verbo transitivo vasco» defenditu egin dute. Teoria honek eragozpen batzu bazituen ere, nagusi zen MICHELENA-k (1976) idatzi zuenean: «Este es un problema que nunca se ha

resuelto. Las mismas tentativas que alguna rara vez se han publicado han tratado más bien de soslayarlo, de acuerdo con la sabiduría militar que suele tratar de rodear una posición que se resiste a ser tomada de frente». Gauzak horrela, 1977an teoria hori faltsatu nuen, ergatiboa sujetoa zela azaltzean (zehatz gehiago, ROTAETXE, 1978, 1980). Orain dela gutxi urrunago eraman dut baiezpen hau: Absolutua Predikatuaren zatia dela eta, ezin izan daiteke sujetoa (ROTAETXE, 1992). Jakina, inork ez luke ukatuko Absolutoa sujeto dela *nor (-nori)* aditzekin.

Bestalde, arazo honetan ez niola Estrukturalismoari jarraitu esan behar dut; estrukturalisten artean, Martinet Irakaslea euskal ergatiboaz arduratu da, jakina denez; baina ez nengoen eta ez nago ados bere planteamenduarekin ez eta bere ondorioekin.

3. Pentsa daiteke, teoria baten barruan egin diren euskararen ikerketek teoria hori egiaztatu dutela. Hau esatean, galdera bat sortzen da: zeinek egiaztatzen du zein? Ikerketa gehienek teoria bat egiaztatzen dute teoria horren barnean eginak direlako.

Teoriaren aukerari dagokionez, ez dut ezagutzen gure arteko ikerketarik Estrukturalismo eskola esplizitorik aukeratu duenik. Hutsune hau azal daiteke korronte hau ikas/irakasteko astirik ez dagoelako gaurko Plangintzetan edota Linguistika deskribatzailea ezagutzen ez delako. Honetaz, zeozer esanda dago gorago.

Amaitzeko, esan gura nuke, linguistikaz arduratzen den edonori euskara oso hizkuntza jakingarria zaiola, bere inguruan dituen hizkuntzen tipoetatik urruntzen delako.

LAN AIPATUAK

G HARDE P., *L'accent*, Paris, P.U.F., 1968.

MICHELENA, «Notas sobre compuestos verbales» en *Revista de Dialectología y tradiciones populares*, 1976, XXXIII, orri. 245-261.

LI CH.N. *Subject and Topic*, New York, Academic Press, 1976.

ROTAETXE, K., *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Resumen de Tesis de Doctorado, Univ. de Salamanca, 1977.

— *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Durango, L. Zugaza, 1978.

— «L'accent Basque» en *La Linguistique*, Paris, 1978b, 2, orri. 57-77.

— «Lógica-lingüística: la construcción ergativa vasca» en *Revista de la S.E.L.*, Madrid, 1978c, 8,2, orri. 431-445.

— «Ergatiboaren sujetotasunaz» en *Euskera*, Bilbao, 1980, XXV, 2, 417-425.


— «Euskal Prosodiaz» en *Euskera*, 1981, XXVI, 1, 381-396.

— *Sociolingüística*, Madrid, Ed. Síntesis, 1988.

— «Quelques traits typologiques du basque et Ergatif» en *European science foundation*, Strasbourg, W.P., 1992.

ROTAETXE K. et DONEUX J.L., «Sur un point de morphologie nominale du basque» en *Fontes Linguae Vasconum*, Pamplona, 1971, 9, orri. 269-290.

SAPIR E., *Le langage*, (trad. franc. de S.M. Guillemin), Paris, Payot, 1915-1970.





EUSKARA ETA SOZIOLINGUISTIKA

SANCHEZ CARRION, J. M.^a TXEPETX

HAIN ZABALA IZANIK GALDERA, EZ ZAIT ERREZA IZANGO analisia egitetik ihes egitea eta sintesia egiten saiatzea. Esan dezadan, bidenabar, derrigortua naizelarik esan behar dudana labur esatera, gure teoria ezagutzen dutenentzat ebidentea den bezainbeste, arraroa edo arraro xamarra irudi dakiokela teoriaren praktikara hurbildu ez den pertsonari artikuluan zehar esango dena.

Lehen gomendioa, hain modan dagoen marketingaren estilu telegrafikoan jartzen hasita, honela laburbilduko genuke: **teoria hartu, hausnartu, eta ontzat hartzen baduzu (zeure esperientziaren autofuntsezko teoria denez gero), eman, praktikara eramanez (hizkuntzaren orekara eramanez, hain zuzen ere)**. Hausnartzeko gogorik edo betarik ez baduzu, ez hartu. Ontzat hartzeko aurreritziarik baduzu, ez hausnartu (ikertu, aitzitik, zugaron egin daitezkeen aurreritziaren azpiko arrazoiak). Eta besteei emateko nahirik ez baduzu, jo beste teorietara, teoria honetan ez bait duzu aurkituko luzimendu pertsonalerako aukera onik; kontzientzia indartzeko aparteko parada, berriz, bai, horren beharrez baxara. Baina behin hartuz gero, hori bai, eman egin behar da kontzientzia, bestela us-teldu egiten bait da, bere bidea jarraitzerik ez daukan ibai urtsuak bezala; bere tokian jarri nahi ez dugun su ahaltsu baten arabera.

Orain artekoak esanda, esan dezagun gu ez gabela batere eroso sentitzen soziolinguistikaren lemapean. Guk lantzen duguna ez da soziolinguistika soilik, eta ez du zer ikusirik munduan zehar hainbat tokitan izen horrekin bataiatzen diren (baita Euskal Herrian bertan ere) ikerlanekin.

Gure ikuspegia trinomikoa edo trilogikoa da, ikuspegi amankomun berean, arlo soziologikoa, psikologikoa eta etiko-filosofikoa uztartzen bait ditugu. Beraz, soziolinguistikoak baino ez diren planteamenduak gure teoriaren barruan badute lekurik, baina ez dituzte teoria honen posibilitate guztiak agortzen, ez dira profitatzen teoria honen ahalbide guztiez. Psikologikoak bakarrik diren planteamenduak ere sartzen dira teoria honetan, gure teoriak, hala ere, arlo psikologikoa dagokion tokian kokatzen du, mentalismo suizida batek autoezarritako mugak gaindituz. Eta badago gure teorian hizkuntzaren filosofia bat ere, hizkuntzarekiko etika orekatzaile bat. Gure kasuan, gainera, eredu zientifikoa (pentsamendu deduktiboa eta induktiboa) darabilgu filosofia hori gauzatzeko (praktikan) eta garatzeko (teorikoki).

Teoria honen aurkikuntzaren prozesua, bi norabide ibili dituen bidai induktibo-deduktibo luze baten ondorioa izan da, eta horretan datza, hain zuzen, bere baitako koherentziaren gako bat.

1970ean hasi ginen hizkuntzaren bizitza aztertzen arlo soziologikotik abiatuta. Hortik atera zen «*El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*». Lan hori zela medio, gauza asko ikusi eta ikasi genituen. Besteak beste, honako hauek:

1. Hizkuntzaren arlo soziala nahiko baztertuta, alboratua zegoela hizkuntzei buruzko pentsalariek (filosofoak nahiz hizkuntzalariak) egindako lanetan. Soziologoek berek ere ez zioten hizkuntzari berez duen garrantzi nuklearra ematen, linguistikoak ez ziren beste parametro batzuren arabera ikusten zuten gizartea (klase soziala, botere politikoa, arraza, etab.). Honela ba, elkar-tzen eta bereizten duen lehen faktore hori, lengoaiarena, estalita geratzen zen, beragandik sortutako beste faktore batzuren eraginez. Efectua ziotzat eta zioa efectutzat hartzeagatik gertatzen zen hori, gure ustetan.
2. Elebitasunaren edo bilinguismoaren kontzeptua bera «cajón de sastre» bat zela ere ohartu ginen orduan: hizkuntzekiko gaitasuna gehitzen eta hizkuntzekiko gaitasuna moteltzen edo gutxiagotzen zuten egoera arras ezberdinak, indiskriminaturik, nahastuta, sartzen ziren kajoia, alegia.

3. Bai ordezkapen-prozesuan eta bai eusteko edo erretentziozko prozesuan elebitasuna beti agertzen zen bitarteko urrats bezala. Baina kasu batean bertako hizkuntza galtzeko trantsizioa besterik ez zen bitartean elebitasun soziala; bestetan, berriz, sozialki hobesten zen egoera elebakarra izaki, egoera horren barruan («pseudobilinguismo vascófono» izendatzen genuen guk) kanpoko harremanetarako besteen hizkuntza erabili behar zutenentzat maila pertsonaleko egoera elebidunak ere ahalbideratzen ziren.
- 4 Hori argitzeke, ideologia menperatzaile baten truko maltzurra (inplizitua) bihurtzen zen elebitasunari buruzko kontzeptualizazioa.

Diskurtso bilinguista horren azpijoko inplizituak argitzeko mendebaldeko kulturaren «soziolinguistikotzat» jotzen ziren lanetara jo genuen. Hala egin genuen 1974eko lan batean. Lan horrek, hutsune baten konstatazioa eraman gintuen, hots, ez zela posible diskurtso bilinguista batek eragindako tranpatik edo zulotik ateratzea linealimotik atera gabe (prozesu baten graduazioa, faseak eta norabidea kontutan hartzen ez dituen linealismoa); eta ez zela posible ezta ere ideologiaren eremutik atera gabe. Gogoan hartzekoa da, bai zientzian (mota bateko zientzian: mendebaldekoa), bai politikan (pentsakera ezberdinetako politikan) modan zeuden linealimotik eta ideologimotik atera gura zuen planteamendu berriak ez zuela oihartzun handirik izan sektore zabaletan; garaiak garai, hala ere, denbora igaro ahala eta ideologiaren porrota ikusirik, garrantzia hartuz joan da teoria hizkuntzarekiko sektore konszienteenen arteko topagunea bilakatzeko, eta sektore txiki baina nuklear horien eragin soziala segurtatu ahal izateko.

Zergatik atera behar da hizkuntzaren berreskurapenari dagokiona eremu ideologikotik?

Egiatzat hartzen dituen suposizio batzuetan oinarritzen da ideologia sozial bakoitza. Suposizio horiek aurreritzi hutsak bilaka ez daitezen, hipotesi zientifiko guztiek gainditu behar duten froga pasa behar dute. Honako hau:

Elkarren kontra muturka ari diren ideologiaren artean, horietako baten zilegitasuna ez da neurtzen lortutako onarpen sozialaren arabera (planteamendu bakoitzak lortzen duen kontsentsusa) kontsentsu hori guztiz aldakorra bait da, bere barneko koherentziaren arabera baizik. Honako hau da erantzun beharreko galdera: egokitzen da edo ez da egokitzen metodo zientifiko batek jarraitu behar dituen erizpideetara? Zeintzuk dira, baina, erizpide horiek? Unibertsaltasunarena (egoera/izaera berdinak kate-

goria beretsuen bitartez neurtzen dituen), identitatearen printzipioa eta analogiaren printzipioa erabiliz. Copernicoren edo Galileoren aurkikuntzak ez dira egiaztatzen (ez dira egiak izaten hasten) historikoki gizarte batek onartzen dituen unean, baizik eta errealtatearen esperientzia, beraiei esker eta beraien bidez, lehen baino hobeto azaltzen den momentu beretik. Eta berau da, eta ez beste ezer, hizkuntzarekiko diskurtsoek, gizakia arrazional den bitartean bederen, pasa behar duten frogak.

Beraz, esango bagenu, kasu, hizkuntzek, izadiaren gizakiak legez, jaio-hazi-heldu-agortu eta hil egiten direla izaera bereko prozesu bat dela medio, baieztapen hori frogatu egin beharko lizateke hizkuntza bakoitzaren historia konkretuan. Eta ez da hori ikusten duguna aurreritziarik gabe hizkuntzen historia aztertzen hasten garenean: hizkuntza batzuk (Hebraiera, adibidez) berpiztu egin dira; inoiz hitzun askorik izan ez duten hizkuntzek bizirik dira, eta, aitzitik, zibilizazio handi eta boteretsuen tresnak ziren hizkuntzak (Hitita, Sumerioa, Latina, Heleniera klasikoa...) desagertuz joan dira. Hizkuntzen kasuan, beraz, ez dugu ikusten batzuk besteko bizi-iraupenik (eta ezta «límite máximo posible de vida» antzekorik: animaliekin eta gizakiekin gertatzen den legez), baina, jakina, bai ikusten dugu hizkuntza berberaren egoera ezberdina une historiko berean, hiltzearen egotetik toki batean beste hizkuntza batzuri bizibidea moztera iristen dena beste toki batean eta modu horretara hedatu (Gaztelaren edo Frantsesaren kasua, gaur egun), eta jakitekoa da aurrera edo atzera egiten dutela hizkuntzek segun eta zer nolako funtzioak betetzen dituzten ala betetzeke uzten dituzten lurralde konkretu batean.

Zer da hitz egin baino lehen eta hitz hidu (ixildu) eta gero dagoena? Motibapena.

«*El Espacio Bilingüe*» liburuan argitu genuen nola erlazionatzen diren erabilera eta autematea edo pertzepzioa hizkuntzaren bizitzari dagokionean. Hau da: hizkuntzarekiko dugun pertzepzioak nola eramaten gaituen onartzera (edo aldatzera) hizkuntza baten erabilera soziala; eta, orobat, nola erabilera sozial batek, orekatua edo desorekatua izan, eragiten duen pertzepzioa bera orekatua edo desorekatua izan dakigun. Hizkuntz espazioen aurkikuntza izan zen arlo psikiko eta soziologikoa uztartu zituena. Hortik aurrera, beste elementu bat geratzen zen oraindik aurkitzeko, eta modu horretara diskurtso berri bati hasiera eman, eta horixe izan zen **motibapenaren garrantzia**, batzuetan prozesu pertzeptibo baten efektu gisa, eta besteetan delako prozesu pertzeptibo horren hasiera bezala. Finkatu egin behar genuen noiz eta nola bihurtzen den erabilera soziala autemate prozesu baten sorrera, eta noiz, ordea, beraren efektua; noiz

motibapena pertzepzioaren zergatia, eta noiz eta nola bere efektua. Hori da «*Un Futuro para nuestro Pasado*» tesian formulatu genuena. Ahal den moduan laburtzen jarrita, esan dezagun liburu horretan aurkitzen dela lotuta mende honetako zientziaren (fisikari, ekologiari, psikologia edo filosofiari dagokionez) «punta de lanza» dena —lantza muturrarekin bat datorrena— argitzen hasteko errealitatearen aurrean, —besteen errealitatearen aurrean (unibertsoaren errealitatearen aurrean, edo gure nahiz beste inoren hizkuntzaren aurrean) egiten ditugun, eta egin ditzakegun perspektiba guztiak bi sorburu ezberdinetan oinarritzen eta sustraitzen direla, bakoitzak gure errepresentazio globala baldintzatzen duelarik, eta errepresentazioa baldintzatzearekin batera gure funtzionamendu soziala legitimatzen edo aldatzen (egokitu) eragiten diguna.

Sorburu bat inklusibitatearena da, berdintasunaren printzipioan datzana, errealitatea balio beretsuko parte guztien osaketan edo integrazioan ikusten duena. Beste sorburua eksklusibitatearena da, desberdintasunaren diskurtsoan datzana, errealitatea atsedean gabeko borroka bailitzan («lucha sin cuartel») ikusten duena, identifikatzen gareneko zatitxo hori osotasunaren tokian jar dezagun eragiten digun borroka, hain zuzen ere.

Aukera horien aurrean, gure teoriak errealagotzat joko duen sorburua inklusibitatearena da, honek agertzen bait du errealitate amankomun baten zati ezberdinak (eta arlo ezberdinak: izadiarena, hizkuntzarena, unibertso psikikoarena, eta fisikoarena...) osatzeko eta integratzeko koherentziarik gehien, eta berau bait da, halaber, gure barneko intuizio eta motibapen sakonekin hobeto uztartzen dena. Aukera hau egiterakoan, bestalde, bizitza eta mundua kontzeptuak elkarrengandik bereizten saiatu behar dugu: esan nahi da, gogoan hartu behar dugula printzipio horrek ez duela funtzionatzen heredatu dugun gizarte mota honetan (munduan). Aurrerantzean, teoria, induktiboki ere funtzionatzen hasiko da, bestelakotuta edo zorabiatuta dagoen pertzepzioa aldatu eta errealitatearen pertzepzio orekatua guregana dezagun arte. Berdintasunaren printzipiotik (Hizkuntz komunitate guztien funtsezko berdintasunetik) abiatzen gara guri dagokigun ezagutza berreskuratzeko (metodu zientifikoaz eta logikoz az baliatuz, eta ez prozedura ideologikoz). Eta gureganatu egiten badugu pertzepzioa, praktikara eramateko izan behar da erabilera soziala indarberrituz, berdintasuna aurkitzen edo sortzen duen dinamika sozial bati bideak zabalduz.

Hor duzue martxan dagoen prozesu baten berria. Eta hasi egin bada prozesua, hasi da Euskerarekin motibatuen dauden sektoreek bat egiten dutelako ideia horien inguruan, eta ideia horiek bat egiten dutelako Euskal

Herrian zehar normalizazioranzko prozesuan burutzen ari diren hainbat esperientzia berri eta aurrerakoiren oinarriekin.

Inklusibitate/Esklusibitatean oinarritzean datza Etika/Zientzia/Politika berri/zaharren arteko bereizketa. Edo kontzientzia eta sektarismoaren artekoa.

Guk ez diogu, bada, planteamendu honi soziolinguistikoa deitzen, ez bait dauka zer ikusirik lema horren pean orain arte hizkuntzen arteko desoreka eta zapalketa justifikatzeko egin diren «iker» lanekin. Guk diskurtso hololinguistikoa izendatzen dugu, interrelazionala den heinean, artekarik gabeko pentsamolde batean integratzen bait ditu arlo estetikoak, etikoa, psikologikoa, eta soziologikoa. Izateko borondatea duten Hizkuntz komunitate guztien berdintasun funtzionalean oinarritzen den etika inklusibotik abiatzen da, eredu zientifikoa aplikatuta onartu eta errekonozitua izatera pasatzen da, giza psikismoaren aspektu konoszitiboak ulertzeko, orobat, aberastu egiten da psikologia transpersonalaren edo trilogikoaren lorpenekin, eta aberastu egiten ditu lorpen horiek. Eta aurkitzen duguna errealitate sozialaren orekari aplikatzen diogu. Beraz, politikoa ere bada, politika «policy» zentzuan ulertzen dugu eta. Politika ez da gure ustez bizitzaren duintasuna eta pluraltasuna «ezinezkotzat» jotzen duen «el arte de lo posible» delakoa; hots, estrategia bihurri eta partidisten joku interesatua, ez interesantea inondik inora. Ez da «zientifikoa» izango, zientziaz hartzen baldin badugu botere sozioekonomikoen zerbitzurako asmatzen diren sasilogika sasiunibertsalak. Eta ez da etikoa izango etikaren lemapean jan egin behar baldin badugu indigestiblea dena: boteretsuen lotsagabeke-ria perpetuatzeko erretorika ustela. Politikaren lege guztien gainetik giza arrazoiaren legeak jarri behar dira; giza arrazoiaren legeak, bizitzaren printzipiopean jarri behar diren bezainbeste, bere forma guztietan bizitza bermatzen eta zaintzen duen printzipioa.

Esandako guztia da hololinguistika bere baitatik ikusita; eta esatekoa da, momentu honetara iritsita, hololinguistika jokoan kanpo utzi nahi dutenen diskurtsoek ezin diotela erasotu berari ez dagokion mutilazio bat egiteke. Teoriaren osotasunari egindako mutilazioari **dikotomizazioa** deitzen diogu, eta ohartaraztekoa da horrela jokatzeko duten diskurtsoek teoriari uko egiteko errealitatearen beraren oinarritzko zati bati edo aspektu bati uko egin behar izaten diotela. Hiru motakoak izan daitezke diskurtso dikotomikoak:

1. Teoria moralizantea dela salatu dezaketenak. Laizismoaren izenean uko egiten diote bizitzaren inbiolabilitateari. Ustezko laizismoa, beti izan da, eta da, kontradiktoria. Berdintasunaren printzipioan oinarritzen

den logika baten aurrean aldarrikatu egiten dute halakoek zorioneko berdintasuna, baina euren eraginpean edo boterepean norbait/zerbait hartzeko komenigarri zaienean berehala haizatzen dituzte «sokratutzat» jotzen diren asmazioak eta gezur hutsak, guztiak desberdintasunaren printzipioak eragindakoak: «la sagrada unidad de la patria» «la inviolabilidad del orden establecido» «la unidad de destino dada por Dios y consumada por la historia». Errealitateak beti duenez berarekin elementu motibazional bat, diskurtso horren funtsa osotasunaren arlo osagarriekikoren bateko motibapen eskasean edo ez askia izatean datza, modu horretara funtsezkoa tribializatu egiten du eta tribiala magnifikatu, gatazka sozial eta etsipen pertsonala ebitaezinekotzat hartzen ditu, irtenbideak eta bizitzeko gozamina «utopia inpensable»-tzat jotzen.

—Teoria psikologizatzen jotzen dutenak. Planteamendu horiek uste dute «egia politikoa» (bakoitzaren botere sozialaren arabera lortutako eragina) nagusitu egin behar dela zientziaren aurkikuntza eta lorpenen gainetik. Ez dute tutik ulertzen unibertso materialak eta energetikoak dauzkaten lege egonkorrez. Horrela jokaturik, boterearen subjektibismo tranposoak liluratuta, objektiboa dena (bizitzaren lege unibertsalak) subjektibotzat jotzen dute, eta subjektiboa dena (botere aldakor hori, alegia) objektibotzat ikusi. Ez diote, beraz, zientziari uko egiten, zientziaren ondorio direnei egiten diete ezikusiarrena, ondorio horiek euren interesen kontra agertzen direnean.

—Teoria erradikaltzat edo «fundamentalizatzen» jotzen dutenak. Horien helburua ere indibiduo bakarrik uztea da, inerte, kontrolatzen ez dituen indar sozialen jokupean, modu honetan indibiduo sano batengandik isuri daitekeen kemen zuzentzaile eta onuragarria (kontzientzia, alegia) bidera ez dadin bere baitatik multzo handiagoetara. Halakoei jakinarazi egin behar zaie gizartea eta indibiduo konektatzen dituen bitartekoa hizkuntz komunitatea dela. Hizkuntz komunitatearen garrantzia azpimarkatuz, gure diskurtso honek beste diskurtso horren tranpa azaleratu egiten du berehalakoan eta ohartarazten gaitu daukan fundamendu eskasaz erroetara begiratzen duen planteamendu hau «erradikalegitzat» dakusalako.

Esan egin behar da, halaber, orain arte aztertutako diskurtso dikotomikoetariko bakoitza, diskurtso historiko banatan oinarritzen dela, humanoen arteko desberdintasuna areagotzeko historian zehar asmatu izan diren diskurtsoak eta guztion kalterako indarrean dirautenak oraindik ere. Ikusitako dikotomiak, beraz, diskurtso horien eratorpenak edo deribazioak dira, eta, askotan, berauen azken degradazioak. Honako hauek dira diskurtsoak:

—Diskurtso biologista. Darwinismoaren planteamendu eboluzionista hizkuntzen bizitzari aplikatzen saiatzen direnena. Halakoen

ustean, hizkuntzaren bizitzari dagokionean ere berez (naturalki) indartsuagoa denaren lege ukaezin baten efektua da nagusitzen dena, boteretsuen lotsagabekeria «natural»tzat hartzen dute eta Naturak berak elementu zuzentzaile modura joka dezan gizaki eboluzionatuei eman digun sentimendua eta motibazioa alde batera uzten ditu. Baina gizakia, gizakia bada, izadia eta gizadia zaindu egiten dituelako izango da gizaki, hau da, norberarentzat nahi dena besteentzat ere nahi izaten ikasi duelako.

- Diskurtso filologista. Hizkuntza zeinu-sistema arbitrario legez ikusten dutela, ez diote jaramonik egiten (muzin egiten diote) antzinagokoak diren berezko sistema sozialei (hizkuntz komunitateei) arbitrarioak diren sistema politikoek egiten dizkieten arbitrariedadeen aurrean.
- Diskurtso ekonomizista. Hizkuntzei «merkatuaren legeak» aplikatzen dizkie mimetikoki, ahaztu egiten dutelarik, bidenabar, aspektu kuantitatiboa ezezik badutela hizkuntzek aspektu kualitatiboa ere, ahaztea komeni bait zaie hizkuntzak ondare unibertsalaren gordelariak direla.

Gure teoria hololinguistikoak giza pentsamenduaren historian nagusitu diren hiru eratako pentsamolde partzial horiek gainditu egiten ditu, garai bateko anakronismoak direla kontsideratuz. Errepika dezagun, hala ere, iraganekoa dena bizirik baldin badirau oraindik ere, ez dela diskurtsoaren barneko koherentziaren ondorio, baizik eta desberdintasunaren printzipioak bizirik jarrai dezan ahalegintzen jarraitzen duten gizamultzoen eta botere sozialen garaipen zentzugabea. Gurea, berriz, gizadi berri baten itxaropena da, geroa gaurtik egin, bizitzen kontzientzia areagotuz ikasi egingo duen gizadiaren esperantza, horrela jokatuta denontzako onuragarriagoak izango diren lekzioak ikasteko prest dagoena.

Gizadi horrek, diskurtso hololinguistikoa egokiagotzat jotzen jakingo du (errealitatearen deskribapenari hobeto egokitzen zaiolako, hain zuzen), eta jakingo du, halaber, bere funtsa ez datorkiola egoera konkretu batetik abiatzetik (Euskal Herriaren egoeratik), baizik eta herri honek aportatzen zuen hizkuntz kontzientziatik abiatuta, gauza izan delako kontzientziaren hizkuntza zer den formulatu eta aplikatzeko egokiro.





EUSKARA ETA LINGUISTIKA KONPUTAZIONALA

ABAITUA, JOSEBA

EZ NUKE LINGUISTIKA KONPUTAZIONALA (LK) TERMINOA egokia den ala ez eztabaidatu nahi (**Ingenieritza Linguistikoa**, eta **Lengoaia Naturalaren Prozesamendua** sinonimotzat erabiltzen dira maiz). Egokia ala ez, oso erabilia da, eta gaur iharduera handiak daude bere inguruan munduan zehar. Zaila izango da denak zerrendatzea baina aipatuko ditut nabarietak:

- Milaka lagun biltzen dira LKrekin zerikusi zuzena duten biltzarretan (inportanteenak bakarrik aipatuko ditut):

- Urteroko bilera ACL (1961tik hona)
- Urteroko bilera SEPLN (Espainian, 1984tik hona)
- Bi urtean behin EACL
- Bi urtean behin COLING (1967tik hona)
- Bi urtean behin ANPL (1983tik hona)

- EB, Japon eta Europako Unibertsitate eta enpresetan oso iharduera biziak daude. LK-ak hartu duen presentzia erakusteko Alemanian hainbat Unibertsitatetan lizenziatura bezala irakasten dela aipa dezakegu. Orohar, munduan zehar alor honetan nolako ihardukia dagoen jakiteko goian aipatu biltzarretako aktak begiratzea nahiko da (adibidez, aurtengo

COLING biltzarrean 120 komunikazio orokor, 90 proiekturen berri eta 60 «demo» aurkeztuko da).

- Gobernuek bultzatuta: European ESPRIT, IMPACT, LRE proiektuak, DARPA EBen eta 5. eta 6. belaunaldiko konputagailuak Japonen. Proiektu hauetan diru andana banatzen ari da (adibide bat emateko, oso txikia den LRE programak —bakarrik 20 bat proiektu— 2.600 milloi pzta ditu).

- Azkenik, antolatu berri diren elkarte batzuk, *Text Endcoding Initiative* (TEI), *Data Collection Initiative* (DCI) eta *Consortium for Lexical Research* (CLR) aipatu behar dira.

Errepasu azkar honekin azpimarratu nahi nuen munduan LK eremuan dagoen iharduera maila, (gaztelaniaz «actividad febril» dagoela esango nuke). Orain erantzun behar dugun galdera da, zergaitik dagoen halako iharduera? Erantzuna nahiko begibistakoa da. Gure gizarte hau informatua da eta are gehiago gizarte informaturik egotera behartua bilakatzen ari da. Gaur egun, minutu bakar batean sortzen den informazio kopurua, (eskuz, prentsaz, edo elektronikoki sortua) giza zibilizazio osoan XX. mendera arte produzitu zena baino handiagoa da. Informazioa asimilatzeke bide inportante bat (baina ez bakarra) giza lengoia da eta informazio kopurua tratatzeko medio elektronikoa beharrezkoa denez, biak elkartu beharko dira. Nik esango nuke, oinarrian dagoen arrazoi inportanteena, informazio kopuruaren eta informazio honen komunikatu beharra direla. Badaude beste arrazoi asko (sekundarioak edo marjinalagoak). Esate baterako, Informatika Industriak behar ditu programa errezagoak, jende gehiagok makinak eros ditzan.

LK zertan datzan esateko, esango genuke linguistika integrala dela baina aplikazio konkretu batekin: konputagailua tarte, giza lengoia erabili. Linguistika integrala esaten dut, zergaitik? Lengoiak dituen alde guztiak jorratu behar bait dira: fonetika-fonologia, morfologia, sintaxia, semantika, pragmatika. Baita, hizkuntzaren komunikazio moldeak, ahotsaren egitadak (speech acts), hizkuntzaren ikasketa prozesua (ume batek hitz egiten nola ikasten duen), jakinduria enziklopedikoa nola errepresentatu, inferentziak nola egin, elkarrizketak nolakoak diren, hizkuntzen tipologiak, ikasketa kontrastiboak, testu motak, erretorika, idazteko teknikak, diskurtso teoriak, eta abar eta abar. Hau dena, eta zuek pentsa ditzakezenak ere interesatzen zaizkio LK-ari. Bide batez, arlo honetan, oso «feedback» konstruktiboa sortu da, zeren eta LK-k bere aldetik ere hizkuntzalaritzaren eremu osoak bultzatu bait ditu, agian ez da erraza noraino bultzatu dituen imajinatzea. Linguistika teoria mailan, bultzada hau


EB eta European batez ere gertatu da, Linguistika sortzaile (LS) deritzan korrontearen iharduera gaindituz. LK eta LS ez dira etsaiak, LS LK-an barruan koka genezake neurri handi batean. LK-ak asko zor dio LS-ari, baina Estrukturalismoari eta Funtzionalismoari (Pragako eskolari, esaterako) ere bai.

LK definitzeko, arlo interdisziplinarioa dela esan behar genuke: Linguistika (Filologi ikasketak ere barne), Psikologia, Filosofia, Soziologia, Informatika, Biologia, Fisika eta abarrekiko portzioak behar bait ditu. Baina ez naiz honetan sartuko. Zaila da LK-an lanegingo duen profesional bat definitzen. Normalena arlo diferenteetako jendea biltzea da. Horregatik, agian LK izateko lehenago linguista on bat izan behar da. Gaur egun Espainiako lizentziaturekin zaila dena lortzen: sintaxia, gutxi ikasten bait da, semantika gutxiago, eta are gutxiago pragmatika, goian aipatu beste kontu asko alboan utziz. Ea onartu berria den Linguistika lizentziaturak egoera larri hau konpontzen duen. (Esan beharra dago Espainian, beste Europako estatuekin konparatuta, oso atzeratuak gabiltzala, normala den bezala, baina kontu honetan are gehiago, Portugal adibidez gu baino hobeto dabil —nazioarteko biltzarretan aurkezten diren komunikazioen arabera—. Ekialdeko estatuak ere, Hungria, Errusia, Txekoslovakia eta Polonia, gu baino askozaz hobeto).

Zer egiten den Euskadin:

- XUXEN (idazkeraren zuzentzailea, ortografia, morfologia, sintaxia): EHU Donostiako Informatika Fakultatea, UZEI.
- HAIN (Hizkuntza Aplikaziotarako Ingurugunea): EHU Donostiako Informatika Fakultatea, Gasteizko Euskal Filologia, Deustuko Unibertsitatea eta UZEI.
- GFU-LAB (unifikazio gramatikak probatzeko programa): Unibertsitat Jaume I eta Deustuko Unibertsitatea.
- EEBS (egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa): UZEI.
- EUSKALTERM (hiztegi terminologikoa): UZEI.
- IKAS-TXIP (ordenadore bidez hizkuntzak ikasteko programa): DIDAKTIKER.







ARMONIA BOKALIKOA: MARKINA

ZUBIAUR ETXEBERRI, ESTIBALIZ
GEZURAGA FORURIA, GOIZALDE
KALTZAKORTA AZTORKIA, NERE
ARRONATEGI AZURMENDI, ALOÑA

LANAREN HELBURUA

Gure lanaren helburua Markinako armonizazio bokalikoa aztertzea da. Armonizazio hau ikuspuntu diastratiko batetik aztertu nahi dugu, adin talde ezberdinen artean zeintzu aldaketa ematen diren ikusi asmoz.

Lan hau burutzeraz eraman gaitu urte askotan izan dugun kezka bategi: autore zaharrak aztertuz gero eta horrekin batera Bonapartek eta ondorengoek honi buruz jaso dituzten datuak ikusiz gero, gaur egungo egoeraz zeharo ezberdina dela nabaritzen da. Gure asmoa noiz eta non eman den aldaketa hori jasotzea da.

2. METODOA

Fenomeno hauek jasoko dituen galdekizun bat prestatu dugu. Galdekizun hau gaztelaraz da, erantzuna euskeraz jasotzeko. Hala ere, arazo bat dakusaguz puntu honetan, adinen aldagaia kontutan hartzen dugunez gero, ume eta zaharrenek errez erantzun dezaten ahalik eta galdekizunik sinpleena prestatu dugu, talde bi hauetan gaztelera ulertzeko arazoak egon baitaitezke.

Datu hauek biltzeko magnetofoa erabili dugu, guk eskura dezakegun metodorik zehatzena eta zuzenena lekukoaren euskera jasotzeko delako nahiz eta kontutan izan eta jakin metodo hau erabiltzeak eragozpenak dakartzala.

3. LEKUKOAK ETA ALDAGAIK

Lekukoak hiru aldagairen arabera aukeratu ditugu:

1. **Adina**
2. **Sexua**
3. **Kale-baserrikoa**

Adinaren arabera sei talde osotu ditugu:

Hamabost urtetik hamabost urtera.

Hauek dira taldeak:

- 0 - 15
- 16 - 30
- 31 - 45
- 46 - 60
- 61 - 75
- 76 - ...

Adin talde bakoitzeko lau lagun elkarrizketatu ditugu, bi gizonezko eta bi andrazko. Bikote bakoitzetik bata kalekoa eta bestea baserrikoa.

• Lekuko hauei eskatzen zaizkien baldintzak:

1. Bai kale eta baita baserrikoak ere jaiotzetik bertan bizi direnak izatea.
2. Gazteenentzat, O.H.O. Markinan ikasiak izatea.

• Banaketon zergatia:

Kale-baserri banaketa hau, Markinan ez ezik Euskal Herri osoan ematen den fenomeno bat da, gizarte mailan ezberdintasunak eragin dituen, eta nola ez, suposa dezakegu hizkuntzan ere izan duela eraginik. Hori dela eta guk aukeratu dugun azterketa gai honetan zein eragin izan duen ikustea interesgarria iruditu zaigu.

Adinari buruz, esan beharko dugu berriro ere, helburuan aipatu dugun bezela, adin talde ezberdinen arteko aldaketak zeintzu diren aztertu nahi dugula (baldin eta badaude behintzat), eta ezinbestekoa dela beraz, aldagai hau kontutan izatea.

Sexu aldagaia ere sartu dugu, agian ezberdintasunak egon daitezkeelako gizon eta emakumezkoen artean, eta alde zuzenetik ezin dugulako aldagai hau baztertu.

4. LEKUKOEN FITXA

IZENA:
DEITURAK:
HELBIDEA:
AUZOA:
JAIOTZE DATA:
LANBIDEA:
IKASKETAK:
IKASKETA ZENTRUA:
BESTE LEKUREN BATEAN BIZI IZAN AL DA?
NON?
ZENBAT URTETAN?
AITAREN JATORRIA:
BESTE LEKUREN BATEAN BIZI IZAN AL DA?
NON?
ZENBAT URTETAN?
AITAREN LANBIDEA:
AMAREN JATORRIA:
BESTE LEKUREN BATEAN BIZI IZAN AL DA?
NON?
ZENBAT URTETAN?
AMAREN LANBIDEA:

Lekukoak

1. BORJA JAIO, baserrikoa, 11 urte
2. GONTZAL IBARZABAL, kalekoa, 12 urte
3. ALAITZ SAN MARTIN, kalekoa, 15 urte
4. REBEKA JAUREGI, baserrikoa, 15 urte
5. EDURNE IDOETA, baserrikoa, 20 urte
6. ALEJANDRO ARRIETA, baserrikoa, 22 urte
7. ANJEL MARI IBARLUZEA, kalekoa, 26 urte
8. IMA ARANSOLO, kalekoa, 31 urte

9. MIREN MAITEDER DURALDE, kalekoa, 39 urte
10. TERESA ARRIZABALAGA, baserrikoa, 43 urte
11. MIGUEL ANGEL IBARZABAL, kalekoa, 44 urte
12. JUAN INAZIO LARIZ, baserrikoa, 46 urte
13. JUANITA URKIZA, kalekoa, 53 urte
14. JUAN JOSE ESPILLA, kalekoa, 56 urte
15. JESUS ARRIETA, baserrikoa, 57 urte
16. MIKAELA UGARTETXE, baserrikoa, 69 urte
17. FELICIANA ESPILLA, baserrikoa, 60 urte
18. FELIPA LARREA, kalekoa, 66 urte
19. SABIN ARETXABALETA, kalekoa, 67 urte
20. PEDRO KALTZAKORTA, baserrikoa, 72 urte
21. KASIMIRA ALBERDI, kalekoa, 82 urte

5. GALDEKIZUNA

1. ¿Cuántas hijas tienes?
2. La hija del médico
3. Se le ha muerto una hija
4. El marido de la hija
5. ¡Qué pierna más larga!
6. Se ha roto la pierna
7. Le falta una pierna
8. Tiene una cortada en la pierna
9. ¡Qué casa más grande!
10. La casa de mi padre
11. He visto una casa
12. hay goteras en la casa
13. ¿Cuánto café quieres?
14. El café es amargo
15. Quiero un café
16. Hay una mosca en el café
17. ¿Cuántos panes hay en la mesa?
18. El pan se hace con trigo
19. Hay un pan encima de la mesa
20. Hay hormigas en el pan

21. ¡Qué cara más bonita tienes!
22. La cara es redonda
23. Eso es un cara
24. Los ojos están en la cara

25. ¿Cuántos burros hay en el prado?
26. El burro está enfermo
27. He visto un burro
28. El rabo del burro

29. ¿Cuántas palomas tenéis?
30. La paloma está en el nido
31. He visto una paloma
32. Las alas de la paloma

33. ¡Qué manos más bonitas tienes!
34. La mano es necesaria
35. Le falta una mano
36. Tengo cinco dedos en la mano


37. ¿Cuántos libros tienes?
38. El libro es gordo
39. He leído un libro
40. He visto fotos en el libro

41. ¿Cuántas vacas tenéis?
42. La vaca está pastando
43. He visto una vaca
44. La leche de la vaca

45. ¡Qué noche más bonita!
46. La noche es larga
47. He estado una noche sin dormir
48. Te veré esta noche

49. El año pasado
50. Músculo
51. Casi- casi
52. Secarse las flores por falta de agua

53. ¿Por dónde has andado?
54. Tengo que hacer un trabajo



MARKINA - XEMEIN



- | | |
|--------------------|-------------------|
| 1- Plazakola | 7- Barinaga |
| 2- Goierrri | 8- Iruzubieta |
| 3- Zeinka-Ziarregi | 9- markina-Xemein |
| 4- Bolibar | 10- Atxondoa |
| 5- Arta | 11- Urberuaga |
| 6- Iturreta | 12- Iarruskain |

6. MARKINARI BURUZKO ZENBAIT DATU

6.1. **Markina - Xemein**

6.1.1. *Kokapen geografikoa*

Bizkaiko Ipar-Ekialdean kokatuta dago, Gipuzkoarekin mugan Markina-Ondarrua eskualdea osatzen duten hamaika herrietatik bat da.

Markinaren azalera 63,9 km²koa da.

Lea-Artibai eskualdeko herri bat dugu eta eskualde hau bi bailarak osatua da: Lea eta Artibai (Iturburua Oiz mendian duten bi ibai hauek ematen diote izena, Leak bere amaiera Lekeition du eta Artibaik berriz Ondarrun).

Mendiz inguratua dagoen herri bat da eta bere inguruak eta mugak hauexek dira:

- Ekialderantz, Gipuzkoako lurraldeetan sartuz, Eibar eta Elgoibar gertuen.
- Hegoalderantz Trabaku eta Mallabia
- Mutriku aldea hurbil du mendiz-mendi joanda.

6.1.2. *Auzoen banaketa*

- Markina - Xemein:
 - Atxondo: Markina eta Xemeinetik hurbil.
 - Arretxinaga: Markina eta Xemeinetik hurbil.
 - Amalloa: Mutriku eta Berriatuatik gertu dago.
 - Urberuaga: Berriatua eta Amallotik gertu dago.
 - Barinaga: Eibar du hurbil alde batera eta bestera Etxebarria.
 - Iturreta: Iruzubieta, Barinaga eta Etxebarria.
 - Iruzubieta: Bolibar, Iturreta, Trabakua ingurua.
 - Meabe: Aulestiatik hurbil.
 - Arta: Bolibar.
 - Bolibar: Munitibarretik hurbil dago.
 - Ziortza: Munitibarretik hurbil.
 - Goierria: Aulestiatik hurbil.
 - Zeinka: Bolibar, Munitibarretik hurbil.
 - Ziarregi: Bolibar, Aulestiatik hurbil.

6.1.3. *Datu demografikoak*

- 1989ko zensuaren arabera:
 - Biztanleria: 5.048
 - Gizonezkoak: 2.567
 - Andrazkoak: 2.481
 - Biztanleria aktiboaren banaketa sektoreen arabera:
 - Nekazaritzan: 413
 - Guztizkoaren %: 8,17
 - Bizilagun aktiboetatik %: 20,70
 - Industrian: 916
 - Guztizkoaren %: 18,13
 - Bizilagun aktiboetatik %: 45,91
 - Zerbitzuetan: 666
 - Guztikoaren %: 13,18
 - Bizilagun aktiboetatik %: 33,38

6.1.4. *Hezkuntza*


a) Kanpora begira: B.B.B. egiteko jendea beti Ondarrura, Eubara eta Durangora joaten zen, orain berriz erreformarekin Markinan I.E.E. egiteko aukera dagoenez gero, markinar gehiengoa herrian gelditzen da urte bi gehiago behintzat. Bestalde, joan den urteetan lehen Durangora zihoan jendea Lauaxeta ikastolara (Euba) doa orain, Durangora zihoan jende kopurua gutxituz edo desagertuz. Ia beti egongo dira banaka batzuk Eibar eta Elgoibarrera joaten direnak baina oso gutxi.

b) Aipatu beharra dago, lanbide heziketa zentru bat dagoela, leku askotako jendea etortzen delarik. Ad.-

Gernika, Bermeo, Deba eta Lea-Artibai eskualdeko herrietatik datoz. Ikastetxe honetako irakasle gehienak eskualdekoak dira.

6.1.5. *Lanbideak*

1950. urterarte ia dena 1go sektorean oinarrituko da. Urte honetatik aurrera industriaren sorrerarekin batera baserritar batzuk lantegietara joko dute, baserri mundua utzi gabe, 2 sektoreetan arituz.



a) Markinako industriak:

- Marmol beltza ateratzen den harrobia (+/- 25 pertsona)
- Olak (Barinaga, Alberdi, Azpiri)
- Egurgintza
- Elikagai-industriak (Dentici eta Urberuaga)
- Armagintza (Esperanza y Cía.)

Azken urteotan kooperatibek indar handia hartu dute eskualdean, eta Markinan ere bai.

2. Sektorean langilegoaren 3/4 ak Markinan bertan lan egiten du baina hala ere 250 langile inguru Amoroto eta Berriatuara doaz lan egitera. Beste banaka batzuk Elgoibar, Eibar eta Berrizera doaz. Bestaldetik, Ameriketara gazte asko joan da pilotan jokatzera.

Laburtuz esan dezakegu industriaren gorapenaren ezaugarririk nagusia geldiene batetan barneratuta egotea dela. Baserriak, lehengo bizitzaren

ardatza zenak aldaketa ugari jasan ditu. Markina ingurura lan egitera doan jende apurra eskualdekoa da, industrian gorakada eman zenean galego, andaluz, extremeño familiak etorri ziren haien umeak dagoeneko euskeraz mintzatzen direlarik. Baita 3-4 famili portugaldar eta hauen semeek ere euskera badakite.

1987ko Urtarrilaren 13ko zentsuko datuen arabera:

- EUSKERA:
- Ondo ulertzen dute: 4530
 - Ondo hitzegiten dute: 4343
 - Ondo irakurtzen dute: 2962
 - Ondo idazten dute: 2552

• Oharra: zensuaren datuak, ez dira oso fidagarriak, batez ere puntu honetan subjektiboki erantzuten delako.

6.2. Euskera

6.2.1. *Bonaparteren sailkapena*

Bonaparteren 4. sailkapenean Bizkaiari dagokionez, hiru azpi-euskalki bereizten ditu.

- Ekialdekoa: Markina-Xemein.
- Mendebaldekoak: Gernika, Bermeo, Plentzia, Arrigorriaga, Arratia, Orozko, Otxandio.
- Gipuzkoakoa: Bergara eta Gatzaga.

Irizarrek dioenez:

Ekialdeko azpieuskalkian, Markinaldeko hizkera motan: Markina, Xemein, Amoroto, Arbaizegi, Berriatua, Ea, Etxebarria, Elorrio, Ermua, Gizaburuaga, Ipazter, Lekeitio, Mallabia, Mendexa, Murelaga, Ondarrua, Zaldibar sartzen dira.

Bonaparteren sailkapenari eta batez ere bere metodologiari kritikak egin zaizkie. Urkijo eta Azkuek itzulpenez baliatu zela kritikatu zioten.

Azkue, bestalde, ez dago ados Bonapartek Markinako hizkerarako ematen dituen emaitzekin.

«Obsevaciones acerca de la obra “Langue basque et langues finnoises”, del Príncipe Luis Luciano Bonaparte.» artikuluan bere ez adostasuna ikus dezakegu.

TRABAJO DE BONAPARTE:

- MARKINA: alabia, semia, begija, ollua, buruba, burua, aita, luma, izar, bular, etorri da, jaun bat.
AZKUE: DATOS DEL ERIZKIZUNDI (Cuestionario de la Academia)
- MARKINA: arrebie, luzie, egixe, besue, eskue, aite, eztulke, inder, il de.

«Como verá el lector, son completamente distintos los datos de Marquina y Bermeo que figuran en uno y otro Paradigma...»

«A qué se deberá tan chocante diferencia? Seguramente a que el príncipe en vez de consultar con personas literariamente plebeyas, que no saben decir otra cosa que lo que a diario hablan, se habrá dirigido a gentes cultas que le dieron por marquinés el lenguaje de los Moguel, no siéndolo.»

Badirudi beraz, Azkue, Mogelek eta Añibarrok esaten dutenarekin kontrajartzen dela.

J.A. MOGEL:

«...Se notará en el lenguaje de este diálogo ... que muchas voces termino en ja y ba contra la costumbre de la mayor parte de los vizcaínos, guipuzcoanos y bascos. Por ejemplo oguija por oguia, arguija por arguia... buruba por burua, zucenduba por zucendua. Como el doctor Peru, es de uno de los pueblos en que conserva este gusto, no debía salir de lo que había aprendido de sus antepasados. No le falta regla para el caso. Siempre que el nombre termina en I aunque tenga pospuesta la A por artículo, se añade la J con la pronunciación latina... Asimismo cuando el nombre ó el participio de pretérito termina en U, se añade una B al artículo: como en buru-ba, escu-ba, zuzendu-ba... estos tales acaban los nombres en IA, cuando terminan en E, y en UA, cuando en O. Neure, neuria... maitea maitia... zoro, zorua, gaisto, gaistua.

Tal es la costumbre en Marquina, Lequeitio, Elorrio y sus circunferencias... el dialecto que se sigue en este diálogo tirado... es el más claro y universalmente entendido en todo el Señorío, y todos confiesan que es el más limpio y organizado...»

Bestalde, *Confesiño Ona*-ren hitzaurrean MOGELEk dio:

«...Icusico da ez ditugula bardin erabaquiten berbaac aitatu dodan neure adisquide onec (Añibarrok) eta nic; ta emendi ateraco da cetan dagan bizcaico eusqueriaren desbardintasuna. Ac dino maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, cristinaua... nic barriz Marquina inguran leguez maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, cristinauba...»

VILLASANTEK ere gai honetaz bere *Historia de la literatura vasca-liburuan* zera dio:

«... aunque grandes amigos entre sí, disentían sobre el modo concreto y forma de escribir este dialecto. Moguel ha tomado como base de su vizcaíno el habla de Marquina, incluso con sus fonetismos locales. El P. Añibarro... estima que en la lengua escrita no deben tener representación los fenómenos que son restringidamente locales y particulares»

AÑIBARROK *Gramática Bascongada*-ren hitzaurrean dio:

«... en el contorno de Marquina en bizcaya y en las cinco villas de Navarra añaden B entre la U vocal y el artículo A de voces que acaban en U... yo siguiendo a lo más general de Pueblos bascongados omito dicha V...y lo mismo añaden una J herida a los acabados en I... estos mismos suelen mudar en U la O radical... y también la E radical en I... pero ocasionan alguna equivocación a los oyentes o lectores que no están acostumbrados a estas mudanzas: pues, para estos ordía es borracho, asia comenzado, betia lo de siempre...»

Esan dugunez *Confesiño Ona*-ren hitzaurrean Mogelek dio Añibarrok eta berak ez dutela berdin idazten, Bizkaian modu bietara erabiltzen direlako, batera zein bestera danak ondo daude hitzak behar diren lekuetan ebakitzen badira.

Mogelek hizkuntza kultua egin nahi du, ez zaio hainbat axola IA edo IJA idaztea. *Cristinauaren doctrinea*-n dio garrantzitsuena ez dela «mendia» edo «mendija» egitea, baizik eta «mendije» ez idaztea. Fonetismoak onartzen ditu baina gehiegi abusatu barik. J.A. Mogelek literatur bizkaiera egin edo bizkaiera finkatu nahi du, bere ideiak *Peru Abarca*-n betetzen dituelarik. (IA>IJA) baina *Confesiño Ona*-ren eta Markinako eskolakoek (J.J. Mogelek eta Pray Bartolomek ez dituzte beti J.A. Mogelen arauak edo ideiak betetzen:

IA > IJA betetzen da ia beti, salbuespena dago «guztia» bezelako hitzetan, maiztasun handikoetan.

Pray Bartolomek guztia
J.J. Mogelek guztija

I-ren atzean bokale bat datorrenean ez dago arau zehatzik:

IE > geijena/geiena/geyena
JO
JU

Euskal jatorrizko hitzetan deklinabidea sartzean: je

Ad.- errijetaco

Maileguetan: ie diptongoa dutenak:

paciencia

pacienciya

Hortaz, fonetismoa oztopoa izan liteke, baina berez ez da, garrantzitsuena ez delako fonetismoa, hitzak non ebakitzen diren baino. Fonetismo mota biak onartzen dituzte.

Azkuek Markinako eskolakoek ez dutela markineraz idazten dio, Markina aldeko fonetismo batzuk agertzen direla bakarrik.

	J.A. MOGEL	J.J. MOGEL	PRAY BARTOLOME
A + A	IA	IA	IA
E + A	IA	IA	IA
I + A	IJA y	IJA/IJE y	IJA
O + A	UA	UA	UA
U + A	UBA	UBA/UBE	UBA

Mogelek dakarren armonizazio bokalikoa:

IA > IJA

EA > IA

OA > UA

UA > UBA

«Entre los cuatro dialectos literarios del vasco, el guipuzcoano y el labortano se escriben y se pronuncian en general sin permutación de vocales. También el bizcaino es empleado a veces de esta manera, pero como la variedad de Markina es la de la mayoría de los autores, las alteraciones de esta localidad han pasado al bizcaino escrito»

Artikulan agertzen den bezela, Azkuek Mogelen sistema baztertzen du, berarentzat, Añibarro eta beste idazleek ez bezela ez delako herrian oinarrizko. Moguelek *Peru Abarca*-ren hitzaurrean dio:

«Se notará en el lenguaje de este dialogo, que muchas veces termino en ja y ba contra la costumbre de la mayor parte de los vizcainos, guipuzcoanos y bascos... tal es la costumbre en Marquina, Lequeitio, Elorrio...»

7. ONDORIOAK

7.1. Ondorio dialektologikoak

7.1.1. Galdekizunetik ateratako ondorioak

1. A Mugagabea

Lekuko guztiek mantentzen dute hitzaren jatorrizko A inolako aldaketarik gertatu gabe. Beraz, esan dezakegu:

$$A + \emptyset > A$$

Alaba + \emptyset > alaba

Hanka + \emptyset > hanka

2. A + BAT

Kasu honetan ere «bat» mugatzailea hartzerakoan hitza bere osotasunean mantentzen da, aldaketarik jasan gabe. Lekuko batzuk «una hija», «una pierna» galdetzean, ez dute «alaba *bat*», «hanka *bat*» esaten, «alabie», «ankie» edo «alabi», «anki» baino.

Grabazioan ikusten denez, lehen hain ugari agertzen ez zen «bat» erabiltzeko joera dago. Oso arlo eztabaidatua da hau, ez bait dago arau finkorik horri buruz, eta hiztunaren arabera mugitzen baita.

Euskeraz bi motatako izenak ditugu:

—Zenbakaitzak

—Zenbakarriak

—Zenbakaitzak (kafea) badirudi ezin direla kontatu eguneroko hizkeran, nahiz eta jendeak «kafe bat» esan, hizkuntzaren ekonomiagaitik, bai baitakigu esaldi horren azpiko egituran «taza bat kafe» dagoela.

Arauk izen zebakaitzek artikulurik ezin dutela hartu dio.

Hala ere adjetiboak sartzean badirudi ez dela norma hau hain zehatz betetzen.

—Zenbakarriak: liburu, etxe... zenbaitetan, «bat» gabe ager daitezke artikularekin: «etxie», «etxi», «liburu», «liburo», «liburue». Hori gerta daiteke balio generikoa dutenean baina «generikotasun» hori oso aldakorra eta erlatiboa da hiztunen arabera: batzuentzat generikoa dena, besteentzat konkretua da.

«alabie il jako» / «alaba bat il jako»
balio generikoa balio konkretuagoa, joera hau nagusitzen dago
egunotaz.

Bestalde badira beste izen batzuk zenbakaitzak nahiz zenbakarriak izan daitezkeenak (sua)

Gure ustez lekuko hauek «bat» hori zenbatzaile bezela hartzen dute, bi...-ri oposatuz, eta ez diote ematen gazteleraz «uno»k (Actualizador indeterminado) duen zentzu zehazkabea. Baina joera nagusia «alaba bat» esatea da, gaztelerazko sistemari jarraituz. Esan dezakegu «alabie», «alabi», «ankie», «anki» diotenentzat «a» mugatzaile singularrak, gaztelerazko «la/el» artikulua zehaztua eta «un/una» zehazkabeen esparrua betetzen duela.

BAT/A

«Bat» mugatzailea eta «a» artikulua oposizioa ezezagun/ezagun oposizioa adierazteko erabiltzen da.

«Etxie ikusiot» → ezaguna
«Etxe bat ikusiot» → ezezaguna

Hiztunok errealitateko informazioa dugu eta horren arabera, uste badugu aipatzen ari garen entitate bakarra dela, ez dago «bat»en beharrik, artikulua jartzen dugu:

«arpeixe ikusiot» → pertsonak aurpegi bakarra du
«arpei bat ikusiot» → bat, ikusi du eta ez 2, 3, 4, ...

Hemen ere soma daiteke ugaritzen dagoela gaztelerazko eragina, «bat»en erabilera areagotuz.

Kasu honetan, «anka bat apurtu dau»
«ankie apurtu dau» → «bat» horrek zenbatzailearen balioa betetzen du, artikulua erabilerak kasu honetan, entitate bakarra adierazten du, denok dakigulako hankak bi direla eta horregaitik, biak adierazi nahi direnean (bi,-ak) erabiliko da, pluraltasuna markatzeko, eta singularra eta mugagabearekin oposatuz (Irigoienek legea)

Laburtuz: emaitzak hauek dira
Anka bat Alaba bat
Ankie Alabie
Anki Alabi

3. A + A

A + A > AA > EA > IA > IE > I

A organikoa duten hitzek «a» mugatzailea hartzen dutenean, Markinan itxidura jasaten dute. Igoa A organiko horretan (ea/ia) eta mugatzailean gero (ie) horrekin batera asimilazioa ematen da (i)

Bi motatako polimorfismoak ematen dira:

— Indibidualak

— Gizartekoak

Indibidualak zeren hiztun batzuk forma biak erabiltzen bait dituzte:

«alabi / alabie»

«ankie / anki»

Joera nagusi horretatik aldentzen den beste polimorfismo bat daku-sagu, Miguel Angel Ibarzabalengan, honek «alaba» dio baina «ankie»

Gizartekoak, Markinan «alabi/alabie» forma biak elkarrekin bizi direlako.

4. A + Deklinabideko beste kasu batzuk

a) A + AREN > AAREN > EAREN > IAREN > IAEN > IAN / IEN

Joerarik hedatuena «-ian» egitea da, nahiz eta lekuko bakar batek «alabien» erantzun.

b) A + AN > AAN > AN

Kasu guztietan erantzuna «ankan» izan da.

1. E Mugagabea

Lehenengo kasuan gertatzen zen bezela, hemen ere mugagabeen hitza bere osotasunean mantentzen da.

E + Ø > E

Etxe + Ø > etxe

kafe + Ø > kafe

2. E + BAT

Lekukoek hitza mugagabe bezela mantentzen dute, baina aipatzekoa da A-z bukatutako hitzetan gertatu ez den bezela ez dela behin ere «a»

mugatzailea erabiltzen. Gure ustez, kafe-ren kasuan, «kafea» zenbakaitza delako, eta «kafea = kafe bat» zentzuz, «bat»ek ez duelako inolako zalantzarik uzten «bat bakarrik nahi du», baina «kafea nahi dut» ostera izan daiteke «kafe bat» edo «litro bat» edo baita ere «kilo bat kafe»

«Ekarri kafe bat tabernatik # ekarri kafe dendatik»

3. E + A

E + A <EA >IA >IE >I

Polimorfismoa ematen da, beste kasuetan bezela, era bietakoa.

4. E + Deklinabideko beste kasu batzuk

a) E + AN > EAN > IAN > IEN > IN

Bai polimorfismo individuala eta bai gizartekoa ematen dira. Emaitza biak erabiliko dira:

Etxien / kafien

Etxin / kafin

Kasu bakar bat dago «kafetzan» erabiltzen duena, kantitatea edo ugaritasuna adierazten du -tza atzizki horrek, -tza atzizkiari inesibo marka gehitu zaio.

1. I Mugagabea

I + Ø > I

Arpe(g)i + Ø > arpei

ogi + Ø > ogi

Hitzari ez zaionez ezer lotzen ez da aldatzen aurreko kasuetan bezela.

2. I + BAT

«Bat»en arazoa lehenago ere ikusi da, baina esan dezakegu gaztelera-ren eraginez gero eta hedatuagoa dela «bat»en erabilera.

Kasu batetan «arpei» hitzaren I-ren eraginez, bat > bet asimilazioa kanpo sandhira hedatu denean.

3. I + A

I + A > IA > IE > IĴE > IDŹE > IŠE

Ikusten den bezela, bokale palatalari artikulua gehitzean beste hots epentetiko bat tartekatzen dela (ie > iĵe) bilakaera Markinan momentu honetan [š] pausuan dago (sabaiaurreko-igurzkari-ahoskabea)

Kontsonante epentetiko hau ez dugu nahastu behar yod hotsarekin. Yod-ak askotan topo egiten du hots honekin. Bi hots ezberdin dira nahiz eta momentu batetan elkartu, gero emaitza ezberdinak izango dituzte. Yod hotsa ez da nahastu behar armonizazio bokalikoan gertatzen den erre-alizazioarekin.

Posizioak ere zerikusia du arazo honetan:

[ogiše] ≠ [xako]

I + A > IA > IE > IĴE > IDŹE > IŠE

e > j > Ĵ > Ź > Š > X

Markinaldean yodaren errealizazioa, (belare-igurzkari-ahoskabea) [x] izango da [xako]

4. I + Deklinabideko beste kasu batzuk

a) I + AN > IAN > IEN > IĴEN > IDŹEN > IŠEN

Lekuko guztiek ahoskatzen dute [išen] bik izan ezik.

Batek [aĵpejšin] dio, eta gure ustez asimilazioa da aldaketa horren arrazoa, besteak aldiz [aĵpejšan] dio.

Gure ustez sistema bokalikoak duen inestabilitateagaitik aldatzera jotzen du; edo baten edo bien tinbrea.

Azken finean aldaketa fonetiko gertatzen da, baina ez da fonetika soil-la, fonetika sintaktikoa edo fonetika gramatikala ere deitzen zaio, Rotaetxek morfofonologia deitzen dio. Fonetika barruan tratatu arren fenomeno hau ez da fonetika hutsa, gertatzen delako orohar gramatikaren atzizkiak, aurrizkiak edo edozelako lexema edo morfema bat juntatzen diren kasuetan.

Irizarrek «bokale armonia» asimilazio bokaliko fenomenoari deitzen dio, fenomeno fonetiko hau Bizkaiko bizkaieraz ematen dela dio, ez ordea Gipuzkoako bizkaieran.

Beste lekukoak ordea [aĵpejšan] eta [ogišan] dio.

Markina inguruko hizketetan ikus daiteke beste honako bilakera:

I + AN > IAN > IJAN > ID'AN > IDŽAN > IŠAN

Eta agian izan daiteke horren eragina baina fenomeno solteak dira eta ezin da arau orokorrik ateratu.

1. O + Ø > O

«asto» beti mugagabea egiteko «asto», «u» egin gabe.

Salbuespen bakarra dago «asto > astu» egiten duena.

Aldiz «uso»rekin oso arrunta da «usu» egitea, lehen esan dugunez euskal sistema bokalikoa oso inestable da eta «u» horrek «o» bere esparrura eramaten du asimilazioz.

2. O + BAT

Gehienek «uso» edo «usu bat» egiten dute. Batek bakarrik egiten du «bet» kasu bietan: «Astu bet» eta «usu bet». Ondorioetako sarreran aipatu dugun fonetika sintaktikoan datza honen arrazoia.

asto + a > astu / astue → pausû honek fonetika sintaktikoan du hasiera, gero hori kanpo sandhira zabaltzen da: «usu bat > usu bet».

3. O + A

Bi emaitza ditugu: «astu» eta «astue».

Polimorfismoa beste kasu guztietan bezela, indibiduala eta gizartekoa da.

O + A > OA > UA > UE > U

4. O + Deklinabideko beste kasu batzuk

a) O + AREN > OAREN > UAREN > UAEN > UAN > UEN

Joera nagusia UAN egitea da nahiz eta beste emaitza batzuk ikusi:

asto + aren > astuan

usu + aren > usuen

asto + aren > astoan

usu + aren > usuan

Polimorfismoa ikusten da, batzuk jatorrizko hitzaren «o» bokala mantentzen dute batzutan «astoan» eginez, beste batzutan «o» hori itxi egiten da (fenomeno arrunta bestalde) «u» emanaz. «Usuen/ usuan» bikoitean osteraz, hitzaren «o» asimilazioaz «u» egin eta bokale honek hurrengo «a» itxi egin du «e» bilakatu.

1. U Mugagabea

U + Ø > U

U + Ø > O

Beste kasu guztietan bezelaxe, orokorrean ez da aldatzen hitzaren etimologia (esku) baina «liburu»ren kasuan «liburo» entzun dezakegu.

«o» hori ultrazuzenketaz sortua dugu, OA / UA hitzen arteko sinkretismoaren ondorioz. Bokale bi hauek eboluzio berdina izanik jendeak nahastu egin ditu prozesuak eta horrela uste dute «liburua» > liburu + a-ren emaitza zela.

2. U + BAT

Hemen ere bat / a-ren erabilerari buruz lehenago esan duguna errepikatu beharko litzateke.

esku	eskua	liburue
esku bat	liburu bat	esku bet («u» ren asimilazioz)

3. U + A

U + A > UA > UE > U

eskua	
eskue	liburue
esku	liburu

Hasiera baten a > e itxidura ematen da eta azken posizioako bokal erlajatu ondoren galdu egiten da «u» geldituz. Hala ere polimorfismo bezela ulertu behar dugu ue / u, lehen esan bezela polimorfismo indibiduala ta gizartekoa.

4. U + Deklinabideko beste kasu batzuk

a) U + AN > UAN > UEN > UN

eskuan	liburuan
eskuen	liburuen
eskun	liburu

Hemen ere aurreko kasuan bilakaera berdintsua dakusagu.

1. itxidura

2. «ue» diptongoaren murrizketa, azken bokala galduz.

DIPTONGOAK

Diptongazioaren eremuan euskalki guztiak nahiko batasun handia dute. Orohar berezi behar dira:

- Beheranzkoak: au, eu, ai, ei, oi, (ui)
- Gorunzkoak: ja, je, jo, wa, we

Gorunzko diptongoei buruz eztabaida ugariak egon dira, euskeraz, ekialdeko hizketetan izan ezik ez daudela esan delako. Iritzi ugariak daude honi buruz:

Mitxelenak hasiera batetan ez zituen onartu baina *Fonética Histórica Vascaren* bigarren edizioan egon daitezkeela dio. Txillardegik euskalki guztietan ematen direla dio. Altunak Mendebaldean ez daudela dio edo behintzat zalantza handiak ditu. Pagolak toponimoetan eta antroponimoetan badaudela dio.

Beherunzko diptongoei dagokionez, esan behar dugu, ez dagoela kontrako iritzirik.

1. AU

AU diptongoa gehienetan mantendu egiten da, tinbrea aldatu barik gau, gatzeleraz ez bezela, au > o egiten baita. Baina hiztun askok diptongo honen semibokala kontsonantizatu egin dute «gaba» eginez.

Kontsonantizatzeko joera hau oso normala da Bizkaiko euskalkian, batez ere AU diptongoarekin ematen da, eta ez EU diptongoarekin, beste euskalkietan gertatzen den moduan:

Gipuzkoan eta HGGNran euli > ebli (G) / elbi (HGGN)

Kasu gehinetan bezela, hemen ere polimorfismoa aipatu behar dugu:

gabe	gaue	gaube bat	gabin
gau	gabi		gabaz
gaba			gabiñ
gabie	gaua		gabien

Markina mailan ez da kontsonantizazioaren fenomeno sistematikoki egiten, hiztun berberak alternantziak egiten dituelako, kasu batzuetan diptongoa mantentzen dute eta beste batzuetan semibokala kontsonante bihurtzen dute:

gau	gaba	gau bat
gau	gaue	gaube bat
gaba	gabie	gabi bat
gau	gaue	gabe bat

Nahasketa honen kasu nabarmenena «gaube bat» da. Hemen argi dagoenez, diptongoa mantendu arren hots epentetiko bat, (ezpainkari-afrikari (posizioagaitik)-ozena) agertzen da.

2. EI

«Behi» > «beixe», aspirazioaren galtzearen ondorioz sortu den 2. mailako diptongoa dugu, hau beti mantentzen dute: bei semibokala. «bei + a» egiterakoan, semibokal honek armonia bokalikoaren eraginez sortzen den hots epentetiko hori sabaitu egiten du. Mogelek dioen moduan bere garaian IJA → J hori «se pronunziaba a la manera latina» eta suposatu behar dugu, denbora izan duela «i» horrek hots epentetiko hori (sabaiaurreko-igurzkarri-ahoskabea) bilakatzeke.

Mitxelenak dio diptongazioaren murrizketa dela, fenomenorik hedatuena, Markinan hau ez da ematen nahiz eta Ondarrun gertatu:

Markinan: «beixe»

Ondarrun: «bexe»

Murrizketa hau, batez ere yod hotsarekin gertatzen denean diptongoa ematen da. Gure kasuan bustidura ematen da hots epentetikoan baina murrizketa eman gabe.

3. IA

Hau ere bigarren mailako diptongoa dugu, zenbait kasutan «ias», «ies» egiten bait dute. Baina lekuko gehienek, batez ere zaharrek aspirazioaren ordeztze (belare-frikari-ozena) «g» egiten dute, «iges» eginez.

Aspiraketa honen galtzea hizkuntzaren barruko legeen bilakaera besterik ez da. Aspirazioaren galera Bizkaian XIII. menderako ia sistematikoa izan zen, nahiz eta Mitxelenak XVI. menderarte mantendu zela esan. (Batzuk Aragoieraren eraginari leporatzen diote honen galera, baina Pagolak ez du hau argi ikusten).

Gaur egun Markinan azken pausua (belare-frikari-ozena) hori galtzea izan da, lanean ikusten den bezela:

Gazteek: «ias», «ies».

Zaharrek: «iges».

Hau agian ikasketen eraginez izan daiteke. Bestalde, «g» honen agertzea ere izan daiteke «ia» gorunzko diptongoa delako eta euskeraz, antza denez, gorunzko diptongorik ez da egon, eta arrazoi horregaitik hori apurtzeko joera eman da antzinatik beste kontsonante epentetikoa sartuz. Kontsonante hori antihiatikoa da yod edo wau, hiatuan agertzen

den lehenengo bokalaren arabera agertu dira. Ad.- i → j / u → w honen ondorioz bilakera eman daiteke «j» kontsonantiza daiteke → y eta w → b lehen ikusi dugun bezela.

IA > IE bilakaera eman da ia sistematikoki «ias» egiten den kasu bat izan ezik.

Euskeraz, bokalen sistema aldakorra da eta bokalen elkarketak gertatzerakoan aldaketa ugari izan ditu, tinbreak aldakorrak dira eta ia bokal guztietan. Gehien aldatzen diren bokalak tartekoak dira /e/, /o/, /i/, /u/, /a/ batzutan itxi egiten da /e/ eginez, baita /u/ > /i/.

Kasu hauetan, Markinako hizkeran, argi eta garbi ikusten da /a/ itxi egiten dela > /e/. Hau «giharra», «ihartu» eta «ia-ia» ri ere egokitu ahal zaie: «gierra» edo «gixerra», «iertu» edo «igertu» eta «ixaixe», «ixeixe» edo «eixeixe» egiten bait da. «gixerra» < «giharra»tik zetorren, lehen ikusi dugunez, aspirazioa galdu egin da eta «ia» elkartu egin da hiatoan, suposatzen dugu, hemen [š] egiten dutela eta ez [q] aurretik «g» bat dutelako eta ahoskatzeko zailagoa bihurtzen delako. Bestalde, eman daiteke armonizazio bokalikoan eman den bilakera: I + A > IA > IJA > ID'A > IŽA > IŠA lekuko batean eta I + A > IA > IE > IĴE > IDŽE > IŠE «Fenómeno de concordacia vocálica o eufonía» deritzana eman delarik.

4. EA

Orain aipatu dugun guztiaren arabera E + A bokalak elkartzerakoan, egokituz E > I egin da eta IA > IE:

Zehar > sier

Behar > bier

Azkenerako **sinkretismoak** itxi ditugu fenomeno orokorra denez gero ikuspegi oso batean ikusi nahi izan dugu:

A + A > AA > EA > IA > IE > I

Alaba + a > alabie, alabi (alaba)

E + A > EA > IA > IE > I

Etxe + a > etxie, etxi

I + A > IA > IE > IĴE > IDŽE > IŠE

I + A > IA > IĴA > ID'A > IŽA > IŠA

Sinkretismoa E + A eta I + A-ren artean ematen da.

Epentesia sarturik «ogia > ogixe / etxea > etxie» bereizten dutelarik.

O + A > OA > UA > U > U

U + A > UA > UE > U

Sinkretismo hauengaitik, «liburu / liburo» agertzen zaigu ultrazuzenketaz.

ONDORIOZ

Markinan: A + A → IE / I

E + A → IE / I

O + A → UE / U

I + A → IXE / (IXA)

1. Bokalen arteko leherkarietatik eratorritako frikari ozenek batzutan Ø egiten dute. (ihaz → iges / ies)

2. Agian aipatu ditugun fenomeno guztien arrazoia hizkera etxetik ibiltzekoa dela eta ez hizkuntza mailan erakusten dena, (horregaitik ez da goelako finkatua) daude hainbeste polimorfismo eta aldaketa.

3. Txistukariei dagokionez, Markinako euskeran:

[ś] [š]

[c] [č] egiten da. Baina sonogrametan ikusi genuen moduan kasu batzuetan [š] ez zen gor huts hutsa, ozentasun apur bat agertzen zen.

4. Markina inguruan palatalizazio fenomenoaren ematen da «nox», «goz» baina ez da Elantxoben ezta ez Lekeition ematen.

7.1.2. Beste emaitza batzuekin konparaketa

Hitz amaierako bokalak eta -a mugatzaileak sortzen dituzten aldaketa fonetikoak ezberdindu ditugu hemen:

Aldaketa fonetiko hauek joera fonetikoak eraginda ematen dira, joerak historian zehar aldakorrak dira eta alda daitezke bederen, honen adibidea Markinan ematen den aldaketa dugu:

Bonaparteren garaian:

ALABA + A > ALABIA

SEME + A > SEMIA

MENDI + A > MENDIYA

BURUA + A > BURUBA

Rollok ordea, ALABIE, MENDIXE, ASTUE, BURU(B)E dakarzkigu. Azkuek ere azken hauek berberak jaso zituen bere Erizkizundi Irukoitzean.

	BONAPARTE	AZKUE	J.A. MOGEL	J.J.MOGEL	BARTOLOME
A+A	ALABIA	ALABIE			ALABIA
E+A	SEMIA	SEMIE	SEMIA	SEMIA	SEMIA
I+A	MENDIJA	MENDIXE	MENDIJA	MENDIJA/E	MENDIJA
O+A	ASTUA	ASTUE	ASTUA	ASTUA	ASTUA
U+A	BURUBA	ESKUE	BURUBA	BURUBA/E	BURUBA

Esan behar dugu, Bonapartek ematen dituen datuak bai Mogeldarek eta Pray Bartolomek agertzen dituztenekin konparatuz bat datozela. Baina gaur egoera aldatu da. Gogoratu behar da Azkuek eta Urkijok Bonaparteri ematen dituen datuak idatzietan harturikoak direla leporatzen diotela.

MARKINAN JASOTAKO DATUAK

A + A	ALABIE ALABI
E + A	ETXIE ETXI
I + A	OGIXE (OGIXA)
O + A	ASTUE ASTU
U + A	ESKUE ESKU

1. A + A: Bonaparteren garaian egiten zen IA gaur egun IE > I izatera heldu da. Asimilazio eta itxidurek eraginda.

2. E + A: Bonaparte, Mogel, P. Bartolomeren garaietan EA > IA pausuan zegoen baina Azkuek mende honen hasieran IE jaso du. Gaur egun guk jaso dugu IE > I alternantzia, azken pausua I izango delarik.

3. I + A: Bonaparte, Mogel eta P. Bartolomeren garaietan y (Sabai-ko-frikari-ozena)egiten zena, Azkuek mende honetan IXE aurkitzen du (ez dakigu gorra edo ozena zen), guk horrekin batera IXA kasu bat aurkitu dugu. IXE ise gorra egiten da baina sonogrametan ozentasun kutsua agertzen delarik hiztun batzurengan.

4. O + A: Bonaparte, Mogel eta P. Bartolomek UA dakarte, Azkuek UE eta guk UE > U biak jaso ditugu.

E + Aren kasuan bezelaxe Azkuerengandik hona beste pausu bat jaso dugularik.

5. U + A: Bonapartek, Mogelek eta P. Bartolomek UBA dakarte, J.J. Mogelek UBA / UBE alternantzia agertzen du. Azkuek ostera UE dakar guk bezelaxe, baina horrekin batera gero eta gehiago ematen den U jaso dugu.

7.1.3. Eskualdeko beste barietate batekin konparaketa

Ondarruko euskera

	MARKINA	ONDARRUA	GIPUZKOAKO BIZKAIERA
A + A	-I / -IE	-I / -IE	-IA Gaur egun Ondarrun eta Markinan gehien bat I egiten da.
E + A	-I / -IE	-I / -IE	
I + A	IXE (IXA)	IXE	IDXA Sinkretismoa ematen da I + A egiterakoan > [i'se] (sabaiaurreko-frikari-gorra). Gipuzkoako bizkaierarako De Rijekek beste hizketa hauetan aipatzen ez duen IDXA emaitza ematen du. De Rijken ustez Markinan IDXE egiten da eta Gipuzkoako bizkaieran IDXA.
O + A	-UE / -U	-UE / -U	-UA De Rijken ustez UU Markina eta Ondarrun eta Gipuzkoan UA.
U + A	-UE / -U	-UE / -U	-UA UU Ondarrun eta Markinan. De Rijekek Markinarako UBE dakar eta Ekialderako UBA.
IA	IA / IXE	IXE	
EI	IXE	IXE	
UA	AU / ABA	ABA	
EA	JE	JE	

Geografikoki transizio leku batetan kokaturik egon arren (Gipuzkoako azpieuskalkia eta Ondarruko hizkeraren artean) Markinako hizkerak Ondarruko hizkerarekin antz handiak ditu, fenomenoek bilakeretan ia parean joanez, ez ostera Gipuzkoako azpieuskalkiarekin, nahiz eta ondoan egon, horren arrazoia geografikoa izan daiteke bi eremu hauen artean mendiak tartekatzen direlako. Ondarrura begiratuz, bestalde, ez dago horrelako oztopo geografikorik. Bi herri hauek harremanak zuzenagoak eta sendoagoak dituzte.

Markinako jendea asko mugitzen da Ondarrura lanera eta ikastera eta Ondarrukoa ere asko doa Markinara. Markinarako azaldiriko armonia bokalikoa Ondarrukoarekin bat dator, Gipuzkoako Bizkaierarekin bereizten dela dirudi.

7.2. Ondorio soziolinguistikoak

Ondorioak ateratzerakoan, alde batetik dialektologia mailakoak eta bestetik soziolinguistika arloak bereiztu behar ditugu. Ikuspuntu biek hizkuntza duten arren aztergai, berau aztertzeke ordua planteamendu ezberdinak dituzte.

ROTAETXE

«...mientras en este último (planteamiento lingüístico de los hechos de la lengua) se estudia el sistema lingüístico como tal, en el primero (planteamiento sociolingüístico de los hechos de la lengua) se enfoca la lengua como institución social, reconociendo las distintas funciones que cumple en la vida en sociedad»

Hizkuntza baten errealitatea linguistikoa eta soziala da. Linguistikoa, espresibide sistema konplexu bat osatzen duelako, eta soziala, hizkuntza hitzun talde zehatz bati dagokiolako. Talde berdineko hitzunen arteko espresabidea da, hitzunik, halaber, erreferentzia multzoa da, hitzunik lurraldean sinbolikoki elkartzen baititu, hitz egiteko behar diren aukera anitzak eskeiniz.

Aipaturiko planteamentu horretan, soziolinguistikak, hizkuntza heterogeneo ikusten du, eta linguistikak, aldiz, hizkuntza bere homogeneotasunean hartzen du.

Sozilinguistikak kontestua hartzen du kontutan, eta hizkuntza eta gizartearen harremanetan jartzen ditu.

Meillet-ek esan zuenez, hizkuntzetan aldaketa etengabeak sortzen dituena, gizartearen egitura da. (Meillet, A., *Linguistique historique et linguistique générale*, Paris, Lib. Honoré Champion 1965).

Soziolinguistika ez da normatiboa eta puntu honetan ez dago erabat ados hizkuntzalaritzarekin, azken honen barruan bide ezberdinak baitaude:

Alde batetik hizkuntzalaritza arauemalea dago, hizkuntzari buruzko epaiak ematen ditu, zer den zuzena eta zer ez.

Beste alde batetik, ezin dugu esan linguistika guztia arauemailea denik (hizkuntzalaritza sortzailea kasurako).

Bestalde bai soziolinguistika eta baita linguistika ere enpirikoak dira, errealitateetik hartzen dituztelako azterketarako datuak, eta biak dira hermeneutikoak ere bai, datu hauek interpretatzeko metodo edo teoria baten beharra duten heinean.

Markinara lan hau egitera joan ginenean, grabatzerakoan, zenbait lekukok hasiera batean ez zutela eguneroko euskera erabiltzen ikusi genuen. Euskera zainduago batera jotzen zuten, edo behintzat eurentzat «euskera hobe» bat egiten saiatzen ziren, prestigiozko euskera erabili nahian.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar, barietateek elkarrengan eragin dezaketela, Ad.- Gontzal Ibarzabalek (1go adin-taldekkoa) behin bakarrik «arpegi» dio eta besteetan «arpeixe» hemen euskera batuaren eragina ikusten da, ikastetxetan, telebista, hizkuntza idatzian ikusten den bezela ahoskatzen du. Berak badaki, hala ere «arpeixe» «arpegi»tik datorrela.

Potere politiko eta kulturalak euskera batua eta azken urteotan «Bizkaiera batua» bultzatu dute eta hau hiztunengan (batez ere gazteen artean) nabaritzen da, batek baino gehiagok euskera standar edo bizkaiera normatibo hori ezagutzen duelako.

Adin taldeen arabera ezberdintasunak daudela ikusten dugu, egoera sozialek barietate linguistikoak alda ditzaketelako. Ez da hizkuntza bat denboran zehar inoiz aldatu gabe eta inongo eraginik jaso gabe egon, komunitateak (gizarteak) eta barietateak beti elkar harremanetan egoten bait dira eta baten aldaketak bestearen aldaketa dakar, hau nahiz eta arrazoi zehatzik ezin eman, armonia bokalikoan Ondarruko hizkerarekin antzekotasun handia duela ikusten dugu, gure ustez, arrazoi bi egon daitezke: Geografikoa eta hizkuntzaren berezko garapena.

Markina eta Ondarru artean harreman ugari dago, oztopo geografikorik ez egoteak honetarako asko laguntzen duelarik, sarreran esan dugunez Markinako jende asko Ondarrura doa lanera, ikastera... eta alderantziz.

Gipuzkoarekin ostera harremanak badaude ere urriagoak dira mendiak tartekatzen direlarik.

Ez dugu ahaztu behar erderak (kasu honetan gaztelerak) agian Markinako hizkeran izan dezakeen eragina. Hau prestigiozko hizkuntza den neurrian eta 60. hamarkadan ikastolak eta ikastetxeak, euskera sartu den arte, gaztelera hizkuntza ofiziala, hezkuntzan, administrazioan, soldaduskan... erabili behar izan dute gehien bat gure hiztun zaharrek. Gazteleran zenbait fonema egoteak lagundu du euskeraz ere horrela ahoskatzeraz ad.- j [x].

Agian euskerak bere barne-prozesuan duen bilakaeran puntu honetara helduko zatekeen baina dudarik ez dago hain harreman herstuan dauden hizkuntzek elkarrengan eragin dutela eta gazteleraz hots horiek ahoskatzen jakiteak euskeraren sistema fonologikoan eragin izan dezake.

Bestalde, ezberdindu behar dira adinen arabera joera ezberdinak, egitura linguistiko eta sozialaren artean ematen den harremanean, adin eta belaunaldiak garrantzi handia dute, ez bait da berdin une politiko eta gizarte batean edo bestean bizi izatea.

Gaur egun komunikabideek izugarrizko eragina dute, Markinako irratiak funtzionatu arren asteburuetan oso emititzen dutenarekin konparatuz, gainera, aipatzekoa da Markinako irratian ez dutela dena bertako euskeraz egiten. Eta nork ez du pentsatzen komunikabideek eraginik ez dutenik (neologismoak, espresio zuzena zein den erakusten dutela....).

Irrati gehienek (herri irratiak maila gutxiagotan), estadukoak (komunitate Autonomoak, Bizkaiko Foru Ahaldundiak...) lehen aipatu dugun euskera / bizkaiera standar hori bultzatu eta erabiltzen dute eta.

7.2.1. *Adin taldeka*

Eten bat ematen da 30 / 45 taldean. Gazteekin zaharrenek baino harreman gehiago dutelako izan daiteke, baina gazteak baino harreman gehiago izan dute hala ere nagusiekin.

Gazteek gehien bat forma laburtuenak egiten dituzte.

7.2.2. *Kale do baserriko izatea*

Kalean baino baserrian formak osoagoak mantentzen dira, herrian harreman gehiago dagoelako kanpotik datozenetik. Ez da hala ere beti horrela ematen «etxin» adibidez baserrian aldaki gehiago daude kalean baino.

Homogeneotasun handiagoa nabari da baserrikoen erantzunetan hala ere ezin da arau finkorik eman.

Ad.-	Kalean	Baserrian
Ogian:	1 ogixin	
	1 ogixan	10 ogixen
	9 ogixen	

Kalekoak forma laburtuagoak erabiliko ditu baserrikoak baino, eta batipat gazteen artean:

Alaba + a:	9 alabi	6 alabie
	1 alabie	4 alabi
	1 alaba	
Hanka + a:	9 ankie	6 ankie
	1 anki	4 anki

Ikusten denez formak nahastu samar daude, gaur egun ez dago hainbeste ezberdintasunik kale eta baserriaren artean.

7.2.3. *Sexuari dagokionez*

Neskengan zatiketa bat egiterakoan banaketa argia suertatzen da 30/45 urtekoen parean, hauek baino gazteagoak forma laburragoak egiten dituzte besteak baino eta emakume zaharrek ia denek mantentzen dituzte -ie formak ad.- Arrazoa agian, gizonak kalean gehiago ibiltzen direla, eta harreman gehiago izan dezaketela beste adin taldeekin eta beste herriko jendearekin.

Ad.- gisa «astu» hitza, zatiketa hau hitz guztietarako baliagarria delarik:

1 astu
2 astu
—
3 astue
4 astue
5 astue
6 astue

Gizonek ordea:

1 astu
astue
2 astu
3 astu
astue
4 astu
5 astu
astue

Laburtuz, ikusi dugu ezberdintasunik nagusienak adinean daudela eta ez hainbeste kale / baserri edo sexuaren artean.

Etena 3. taldean ematen da, hauek umeak dituzte eta beraien gurasoekin ere harremanak dituzte, beraz erdian daudenez gero, talde bi hauen artean zubia egiten dute eta bata bestearengan eragin dezakete.

DATUEN PORTZENTAIA

	<i>EMAKUME</i>	<i>GIZON</i>
- A + 0:	alaba %100 anka..... %100	alaba %100 anka..... %100
- A + A:	alabi..... %64 alabie %36 ankie..... %36 anki %64	alabi..... %50 alabie %40 alaba %10 ankie..... %60 anki %40
- E + A:	kafie %27 kafi %73 etxie..... %64 etxi %36	kafie %30 kafi %70 etxie..... %70 etxi %30
- I + A:	arpeixe %91 arpegi..... %9 ogixe..... %100	arpeixe %100 ogixe..... %100
- O + A:	usue %64 usu %36 astu..... %36 astue %64	usue %90 usua..... %10 astu..... %70 astue %30
-U + A:	eskue %45 esku %55 liburu %55 liburue..... %45	eskue %40 esku %60 liburu %70 liburue..... %30
DIPTONGOAK:		
	gaba..... %73 gabie..... %10	gaba..... %40 gabie..... %10

gabi %9
gaua..... %9

gabe..... %20
gaue..... %20
gau %10
beixe %100

-A + BAT:

alaba bat. %64
alabie %27
alabi..... %9
anka bat %82
anki %9
ankie..... %9

alaba bat.....%80
alabie%10
alabi..... %10
anka bat%70
anki %10
ankie..... %10

-E + BAT:

kafe bat %91
kafi bat %9
etxe bat %100

kafe bat%100
etxe bat%100

-I + BAT:

ogi bat %82
ogixe..... %18
arpeixe bat. %55
arpeixe %36
arpei %9

ogi bat.....%100
arpei bat.....%40
arpeixe%50
arpegi..... %10

-O + BAT:

usu bat..... %36
uso bat..... %55
uso bet..... %9
asto bat %91
asto bet %9

usu bat%20
uso bat%70
uso %10
asto bat%90
astu..... %10

-U + BAT:

esku bat %91
esku bet %9
liburu bat..... %73

esku bat.....%90
eskua %10
liburu bat.%80

liburo bat %18
liburue %9

liburue %10
liburo %10

DIPTONGOAK:

gau %36
gaba bat %27
gabe bat %18
gabi bat %9

gau %30
gaba bat %20
gabe bat %40

bei %100

gaube bat %10
bei %100

-A + DEKLINABIDEA:

alabian %91
alabien %9

alabian %80
alabien %10
— %10

ankan %100

ankan %100

-E + DEKLINABIDEA:

kafin %73
kafien %27

kafin %50
kafien %40
kafetzan %10

etxin %54
etxien %36
— %9

etxin %70
etxien %30

-I + DEKLINABIDEA:

arpeixen %91
arpeixan %9
ogixen %82
ogixin %9
— %9

arpeixen %100
ogixen %90
ogixan %10

-O + DEKLINABIDEA:

usuan %91
usuen %9
astuan %82
astoan %18

usuan %100
astuan %70
astoan %30

-U + DEKLINABIDEA:

eskuen %54
eskun %36

eskuen %30
eskun %50
eskuan %20

	liburuen	%45	liburuen	%20
	liburun	%36	liburun.....	%60
	liburuan.....	%9	liburuan.....	%10
	liburu baten	%9	liburu baten	%10
DIPTONGOAK:				
	gabaz	%36	gabaz.....	%40
	gabien.....	%45	gabien	%20
	gabin	%18	gabin.....	%20
			—.....	%10
	beixan	%91	beixan	%80
	beixen	%9	beixen	%20
IAZ:	iges	%73	iges	%60
	ies.....	%18	ies	%20
	ias.....	%9	—.....	%20
GIHARRA:				
	gixerrie.....	%64	gixerrie.....	%20
	gixerra.....	%9	gixerra.....	%20
	giarra	%9	giarra	%10
	gixerri	%9		
	gierra	%9	gisarra	%10
			ixerrie	%10
IA-IA:				
	ixeixe	%82	ixeixe	%80
	ixaixe	%9	ixaixe	%10
	—	%9	eixeixe.....	%10
IHARTU:				
	igertu.....	%55	igertu	%40
	iertu.....	%9	iertu.....	%10
	—.....	%36	—	%50
ZEHAR:				
	sier	%18	sier.....	%20
	—	%82	—	%80
BEHAR				
	bier.....	%91	bier	%90
	(lan) biot.....	%9	(lan) biot.....	%10

	<i>KALE</i>	<i>BASERRI</i>
-A + 0:	alaba %100 anka..... %100	alaba %100 anka..... %100
-A + A:	alabi..... %82 alabie %9 alaba %9 ankie..... %82 anki %18	alabi..... %40 alabie %60 ankie..... %60 anki %40
-E + A:	etxi %36 etxie..... %64 kafi %36 kafie %64	etxi %40 etxie..... %60 kafi %60 kafie %60
-I + A:	arpeixe %91 arpegi..... %9 ogixe..... %100	arpeixe %90 — %10 ogixe..... %100
-O + A:	astue %64 astu..... %36 usue..... %82 usu %18	astue %30 astu..... %70 usue..... %70 usu %20 usua..... %10
-U + A:	liburu %45 liburue..... %27 esku %9 eskue %9	liburu %60 liburue..... %40 esku %40 eskue %60
-A + BAT:	alaba bat %82 alabie %18 anka bat %82 ankie..... %18	alaba bat %60 alabie %20 alabi..... %20 anka bat %80 anki %20
-E + BAT:	etxe bat %100 kafe bat %91 kafi bat %9	etxe bat %100 kafe bat %100

-I + BAT:

arpei bat..... %45
arpeixe %27
arpegi bat..... %9
arpei bet..... %9
arpegi..... %9

ogi bat %91
ogixe..... %9

arpei bat.....%20
arpeixe%60
arpegi bat..... %10

arpei %10
ogi bat.....%90
ogixe..... %10

-O + BAT:

asto bat %91
astu bat %9

uso bat..... %91
usu bat..... %9

asto bat%90

astu bet %10
uso bat%50
usu bat..... %30
usu bet..... %10
uso %10

-U +BAT:

liburu bat..... %73
liburue..... %9
liburo bat..... %18
esku bat %91
esku %9

liburu bat%90
liburue..... %10

esku bat.....%80

esku bet %10
eskua %10

DIPTONGOAK:

bei bat %100
gabe bat %18
gau %18
gaube bat %9
gaba bat %54

bei bat.....%100
gabe bat%40
gau.....%30

gau bat..... %10
gau bet..... %10
gau bat..... %10
gabi bat..... %10

-A + DEKLINABIDEA:

alabian %73
alabien %18


alabian%100

—.....	%9		
ankan.....	%100	ankan.....	%100
-e + DEKLINABIDEA:			
etxin	%64	etxin	%50
etxien.....	%36	etxien.....	%30
		etxian.....	%10
		—.....	%10
kafin	%64	kafin	%70
kafien	%27	kafien	%30
kafitzan.....	%9		
-I + DEKLINABIDEA:			
arpeixen	%91	arpeixen	%100
arpeixan	%9		
ogixen	%82	ogixen	%100
ogixan	%9		
ogixin	%9		
-O + DEKLINABIDEA:			
astuan	%73	astuan	%80
astoan	%27	astoan	%80
usuan	%82	usuan	%20
usuen	%18		
-U + DEKLINABIDEA:			
liburun	%45	liburun	%50
liburuen.....	%36	liburuen.....	%30
liburu baten	%18		
liburuan.....	%20		
eskun	%45	eskun	%40
eskuen	%27	eskuen	%60
eskuan	%18		
DIPTONGOAK:			
baixan.....	%73	beixan	%100
beixen	%27		
gabaz	%36	gabaz	%40
gabien.....	%36	gabien.....	%10
gabin	%18	gabin	%50
gabiñ	%9		

IA-IA:	ixeixe%82	ixeixe%90
	eixeixe..... %9	
	— %9	
	ixaixe %10	
ZEHAR:	sier %18	sier.....%20
	— %82—	%80
BEHAR:	bier..... %100	bier%80
	(lan) biot..... %10	
	(zeregin) biot... %10	

BIBLIOGRAFIA

- ALARCOS, E. *Fonología española*, Ed. Gredos, Madrid 1983.
- AÑIBARRO, *Gramática vascongada*, San Sebastián, *ASJU III* (1969), 11-170.
- AZKUE, R.M., «Observaciones acerca de la obra < *Langue basque et langues finnoises* > de L.L. Bonaparte» *EUSKERA* 7 (1926), 17-36.
— *Morfología vasca*. Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- BARINAGARRAMENTIA, M.D., *El medio rural de Markina-Xemein*, Biblioteca geográfica C.A.V. 1989.
- DE RIJK, «Vowel interaction in Bizcayan Basque», *FLV* 5, (1970), 149-168.
- ECHAIDE, A.M., «Ordenación cartográfica de algunos datos de Erizkizundi Irukoitza», *ASJU VIII* (1974), 113-148.
- HARANBURU, *Enciclopedia histórica geográfica de Vizcaya*, III. alea.
- IRIGARAY, A., «Mogel eta literatura euskera», *EUSKERA*, (1960), 110-120.
- MITXELENA, K., «El texto de Peru Abarca», *ASJU XII-XIII* (1978-1979), 201-224.
— *Fonética histórica vasca*, 3. edizioa, 1985.
— *Historia de la literatura vasca*, Erein. Donostia 1988.
— «La fragmentación dialectal. Conocimientos y conjeturas» *RSEL* 6, 2 (1976), 309-326.
- MOGEL, J.A., *Peru Abarca*, Durango, J. de Elizalde, 1881.
— *Confesiño ona*, Vitorijan, F. Larumbe, 1803.
- ONAINDIA, S., *Euskal literatura*, Etor, Bilbo 1974.
- ROTAETXE, K., *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*. Durango, L. Zugazaga, 1978. — *Sociolingüística*, Madrid, Ed. Síntesis, 1988.
- SARASOLA, I., *Historia social de la literatura vasca*, Barcelona, Akal editor, 1976.
- VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, Oñate, Editorial Aranzazu, 1979.
- WEINRICH, U., *Lenguas en contacto, descubrimientos y problemas*, Ediciones de la Biblioteca, Universidad Central de Venezuela, 1968.
- YRIZAR, «Los dialectos y variedades de la lengua vasca». *Homenaje a Julio de Urkijo e Ibarra*, SS., 1949, 375-424.
- ZARATE, M., *Bizkaiko euskal idazleak*, Derio, Derioko Seminario-ikastetxea, 1980.



IGANDEA 11
MATTIN

OLERKIAK

MADARIAGA, JUANRA

POETIKAREN ARKITEKTURA

Poemaren angelutik at
deuseztatzen da mundua
eta koloreak barreatu.
Erran nahi baita
karraturen direla
nere pena eta loriak,
nere kexa eta eihagorak.
eta hori perfekzionatzera
deliberatu baitut,
poema angeludunak
izkiriaturko ditut.
Zuretzat.
Poemaren angelutik at
ezpaitago deus.

ABANTZU DIRENEK

Dying
Is an art, like everything else.
S. PLATH

Abantzu direnek
dena daukate
eta itsasoaren urgainetik ibil daitezke
eta elurtzan ez dute erexarik inprimatzen,
errez banitzen baita abantzu dena.
Abantzu direnek
dena daukate
eta aberastasunaren lurrunean egiten dute lo
eta ez dute inguma eta eldarniorik sofritzen,
errez banitzen baita abantzu dena.
Kuriosoa da, baina
abantzu direnek
dena daukate
heriotza propialaren jabeak baitira
itsasoaren urgainetik ibil baitaitezke,
besterik ez.

GUDA AZALIA


Gerlariek ordokia betetzen zuten,
zurdaz jantziriko belartzak zapalduz,
buruz buru, urrunean
arerioaren begiak somatzen saiatuz,
baina zein ere gizon elementia zen
ez zen fisik ere entzuten
lekat eta lantza guzien puntak
urratzen zuen haizearen urrumada,
guda azalia bilakatuz.

GATAZKATIK

Gatazkatik itzuli nintzen
armaduraz jantzirik
bihotza boztarioz, irusik,
eta zu nereganatzen ikustean
gutiziatu zintudan,
Grialala bezala,
eta geroz maitatu,
halaz ere
ez nuen zure besarkada senditu
brontzezko armadura hotzak
galerazi baitzidan zure kereza.

HAINBESTE ERRAN DUT

Hainbeste erran dut udagoiena
non negua enkaria bihurtu baita.
Hainbeste erran dut egoneza
non bakartasunak hodeiertza baitirudi.
Hainbeste erran dut amodioa
non fereka negar egiteko bidea baita.
Hainbeste erran dut itsasoa
non urdinak dezepzionatu bainau.
Hainbeste erran dut heriotza
non umeak eta usoak ez baitira jaiotzen.
Hainbeste erran dut udagoiena, egoneza,
amodioa, itsasoa,
heriotza,
non poesia irain bihurtu baita.



POEMAS & HIBRIDOS-EN ZEHAR EGINIKO GOGOETA EROAK

MORALES, ANA ISABEL

Josu Lartategi
eta Koldo Garairi

0. Sarrera

*Erasorik jaso baino lehen defentsa prestatzen hastea ahulezia seinale izan liteke, nor berak egindakoaz oso ziur ez egotearen zantzu alegia. Bada, bai: neure bezala ezagutzen dut jarrera hori eta, beraz, alde zurretik aitortuko dut hurrengo lerroetan irakurriko duzuen filologia ikastordu asper-tuen artean egindako gogoeta solte zenbaiten bilketa udatiarra baizik ez dela; idatzi dudan zenbait gauza zalantzan jartzen duen lehena ni neu naitzela eta, ondorioz, lan honek errenuntzia egin beharko diola, hasiera hasieratik eta ezinbestean, *egia definitibo*-ak ezartzeari.*

Apaltasun aitormen derrigorrezko honen ostean, eta egon daitezke-en eta ziur badauden pekatu guztiak neuri ez beste inori dagozkidala behin azpimarraturik, zilegi bekit hemendik aurrera *ni* deseroso hau utzi eta *gu*-ren izkutaleku gozoan aterpe bilatzea, ondo esanak norberari eta gaizki esanak besteri leporatzeko bidea ematen duen pertsona gramatikal amatiar honen fikziozko babesean gorderik.

Gauzak horrela, eta arnasa pittin bat lasaiago hartuaz, goazen orain lan honen nondik norakoa pizka bat argitzera. Lehenengo eta behin adierazi behar genuke zergatik aukeratu dugun *Poemas & Híbridos* liburua gure artikulua idazteko. Arrazoia oso simplea da: atsegin ditugun gauzetan

lan egitea munduan den gauzarik goxoena da; hau esanda dagoelarik, ez dugu izkutatu beharko —eta zergatik, gainera? Ez al zuen Leo Spitzerrek aztertzailea eta azterturiko obraren arteko sinpatia erreibindikatzen?— liburu honen egilea gure autore kutunenetakoa dela eta lan hau egitea zerbait izan baldin bada beste ezer baino lehenago gustagarria izan zaigula. Bestalde, *Poemas & Híbridos* autorearen azken liburu poema izanik, neurri handi baten aurreko lanen antologia, baina beste zenbait poema berriren bilduma ere¹, iruditu zitzaigun hau oso obra egokia izan zitekeela Atxagaren planteamendu poetikoen bilakabideari begiratu bat emateko.

Hau horrela delarik orain agian komeniko litzateke *Poemas & Híbridos*-en egitura apur bat zehaztea, era honetan gure lanaren lekua ere bide batez mugatzeko.

Liburuak bi zati nagusi ditu: alde batetik poema bilduma bat, zein hiru azpisailetan bana bait daiteke —liburuari hasiera ematen dioten hamabi poemak, «Etxekoak\familia» izenpean datozen zazpiak eta «Kantak\canciones» taldeko gainerako zortziak— eta beste batetik «Henry Bengoa, Inventarium» delako lanaren erdal bertsioa. Euskal poema guztiak beren erdal bertsioekin batera azaltzen dira, eta badaude gazteleraz bakarrik idatzirik beste batzuk ere. Gure lanak liburuaren lehen zatia eutsiko dio, «Henry Bengoa...» albo batera utziaz. Komentatu edo aztertuko ditugun poemak hizkuntza bietan agertzen direnean euskal bertsioan finkatuko gara nagusiki eta gaztelerazkoa bakarra denean horrexeri lotuko gatzaizkio, noski.

Ikus dezagun orain, bada, zeintzuk izan diren lantxo honen lerro nagusiak: gure irakurketa *Etiopia*-ren irakurketatik², bertan iragartzen zen isiltasun agindutik, abiatu da. *Etiopia*-rekin kale itsu baten sartu izanaren sentsazioa geneukan, poesia itoko zuen hormatzarraren oztopoak handiegia zirudien aurrera egin ahal izateko. Halaz ere, poemak badira izan, bai *Etiopia*-rekin batera —azken baten poemez baliatzea poesia egiterik ez dagoela adierazteko— bai eta *Etiopia*-ren ondoren ere. Antologia honek

¹ Bernardo Atxaga: *Poemas & Híbridos*, Visor Libros Ministerio de Cultura, Madrid, 1990

Poema berri diodanean argitaragabe edo liburu moduan kaleratu barikoa esan nahi dut. Izan ere, poema berrienak 89.ekoak dira.

Aipu guztiak liburu honetakoak izango dira, hala gertatzen ez denean nabarmen erazi egingo dugularik.

Aipuen ostean azalduko diren zenbakiek orrialdea adieraziko dute; zenbakirik ez dagoenean, horrek aurretik emandako azken aipamenaren orrialde berera jo behar dela esan nahiko du.

² Bernardo Atxaga: *Etiopia*, Donostia, Erein, 1988 (3. argitalpena).

beronek erakusten digu egileak poemak idazten jarraitu izan duela —gutxi, egia da, argitaratuei dagokienez, behintzat— eta *Etiopia*-ko poemen garai berean beste era bateko poemak ere egon zirela, apika irtenbideren baten seinalatzaile lotsatiak. Edonola ere, *Poemas & Híbridos*-en beste bide horiek zeintzuk izan daitezkeen ikusi uste izan dugu edo, hobeki esanda, zeintzuk izan daitezkeen autorearen poesigintzan borrokan diharduten indar edo joerak: negatiboa, hizkuntzaren agorpenetik abiatua eta poesiaren ukaziora eramaten duena, eta positiboa, hizkuntzaren berreskuragarritasunetik abiatzen dena, poesiari arnasa berria eman diezaiokeen bakarra.

Guzti hau, jakina, ez da hemen azaldu den bezain ximplea: bikoiztasun honen atzean bizitza eta munduari buruzko kontzepzio bat dago, ikuskera inkonformista bat, gustoko ez duen errealitate baten aurrean aldiz etsirik eta aldiz beste errealitate hobeen amesle edo asmatzaile agertzen zaigun sentsibilitate bat. Erdian, sentimendu bien artean kulunkatzen diren hainbat poema. Eta poemak direlako azken baten benetako protagonistak, ez dugu ukatuko Bernardo Atxagaren poemen artean egin dugun paseoan aipatu klabeen bilaketaz gain, paseatzaile bokazionalen antzera, plazerrak gidatu dituela gure pausoak, bai eta noizedonoiz gelditu ere, poema liburu bat analisira eramatea den nolabaiteko irreberentzia hori egiten ari ginela ahanzteko.³

1. Hitzak eta munduak

*«Izena, esan zaharraren arauera,
izana dela badakigu, hitzetan
gauza zaharrak isladatzen direla,
hizkuntzak munduak direla»*

J. SARRIONANDIAK

Beraz, errezena hasieratik hasia izaten denez, gu ere liburuaren lehendabiziko poematik partituko gara, bertan gozokiro endredaturik gelditu eta gure gogoeta eroei bide emateko. Eta gure talaiatik aurrea ikusten duguna esnatzen ari den trikua da. Loaren lainoak uxatuz batera, trinkoak leku-denborazko konposizioa egiten dio bere buruari, bere mundua ordenatzen du, unibertsoan kokatzen da. Horretarako lehenengo

³ Eskerrak eman behar dizkiot —beti bezala— bere eritzi eta laguntzarengatik Irene Zubizarretari, duda gabe nire entzulerik pazientziatsuenari.

eta bat «dakizkien hitz guztiak ekartzen ditu gogora; / gutxi gora behera, aditzak barne, hogeitazazpi hitz» (6. orri.). Ondoren, inguruko zertzeladei egiten die erreparu: dena dago bere lekuan: «Amaitu da negua, / ni trikua naiz (...) / Hor dago erreka, Hau da Nire erresuma, Goseak nago». Ez dago, beraz, oztoporik errege txiki honek ehiztari lanari ekin diezaion, bere jaun eta jabetza agerian jar dezan ...Ala bai? Bai, izan ere, «artean ez baita eguerdia baino, lege zahar batek / galerazi egiten baitizkio eguzkia, zerua eta sapelaitzak».

Trikuak Legeak ezarri dizkion mugak ezagutzen ditu, eta zuhur eta esaneko, badaki gauari itxaroten, orduan du eta bere garaia —»Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel»— mendian gora abiatzeko, «seguru bere arantzetaz nola egon baitzitekeen / Gerlari bat bere eskutuaz, Espartan edo Corinton».

Hala ere, trikuak ez du jakin badirela bestelako mugak, zeinen transgresioak heriotz ordainetan pagatzen bait dira, «ez ditu ezagutzen gure automobilen argiak, / ez da ohartzen bere heriotzaren hurbiltasunaz ere» (8. orri.)

Trikuak urrats fatal bat egin du: bere unibertsoaren, bere denboraren *mugaz bestaldera* iragan da, «zure eta nire denboran sartuz», bere mundukoaz bestelako Lege batek gobernatzen duen unibertso baten eroriz. Lege hau ez zegoen, ez, bere hogeitazazpi hitzeko *hiztegi unibertsean* gorderik, hosto lehorrezko kabiak, mendiak eta errekek osaturiko erresumetan beste arau batzuk agintzen dutelako, sugeak txoriari begiratzen dionean honi gainerako guztia iluntzen zaiola dioenak adibidez⁴, edota txepetxari «problems txantxangorriekin. Ene atzetik dabilta asmo kriminalez» esan erazten diona bezalakoek⁵

Trikuaren hiztegia ez da, izan ere, azkeneko zazpi mila urteetan berritu, eta hortik dator kio bere akabatzea. Bada, Celso Emilio Ferreirok

⁴ Bernardo Atxaga: *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, Donostia, Erein, 1986.

—*Bi anai*, Donostia, Erein, 1985.

⁵ Poema hau, «Uren» izenekoa, *Zurgai* aldizkarian argitaratu zen, 89.eko abenduko alean. Beraren azalpen moduko bat eman zuen autoreak *El País*-eko asteroko osagarrian. Ikus

Bernardo Atxaga: «El misterio de los cuatro pájaros» *El País Semanal*, 1990.eko azaroaren 18a.

Gai berberaz dihardu *Akademia Sekretuaren Egutegia*, 1987 delako kalendarioan B. A.-k sinaturiko artikuluxkak, azaroaren 19ari dagokion orriaren atzekaldean dagoena. Egutegi hau Pamiela argitaletxeak plazaratu zuen, Euskal Idazleen Elkartearen laguntzaz, lehen aipaturiko urtean.

Txepetxa eta txantxangorriaren inguruko auzi honetaz aritu zen Bernardo Atxaga Euskadi Irratiko saio baten ere, horri dagokion testua HABEko euskalduntze materialean bilduta dagoelarik. Ikus *Euskalduntzearen B mailarako langaiak. Irakaslearen liburua: entzumen lantzen*, Donostia, 1986, 210. orri.

idatzi zuenez, «la realidad existe porque existe la palabra», eta trikuari automobil edo kamioaren izenik inork irakatsi ez dionez gero, hauek gabeko errealitate baten, berean, bakarrik bizi ahal izan du. Ez du jakin mugak gainditzeko hitz berriak behar direnik.

Hiztegi, edo, nahi bada, hizkuntzen —berbaren zentzunik zabalenean, hots, ez ingeles, frantses edo euskera bezalako hizkuntza diferentek gogoan hartuz, baizik eta hizkera, adierazmolde desberdinak— eta bakoitzak ebokatzen duen mundu ikuskeraren arteko erlazio hau Bernardo Atxagaren lanetan konstante bat dela esatera ausartuko ginateke. Izan ere «ezagun dira bere hitz eta solasetan» esango balu bezala, asko eta askotan, trikuaren kasuan legez, pertsonaiaren hitz mundua da haren aurkezpena egiteko darabilen elemento nagusietako bat. Horrela, kalatxorien *memoria liburuan* («Kalatxoriak») sandalo lore batek seinalatzen duena «zubien eta lapur zahartuen orrialdea» da, «teilatu pitzatu»ak eta «merkatu alboko hondakin»ak (10. orri).

Aitzitik, trikuak ez bezala, kalatxoriak hirira moldaturiko izakiak ditugu, beren eta gure munduaren arteko lindean bizi direnak, euren ekilibrista bihotzek maiteen dituzten lapur edo suizida horiek bezain marjinalak. Baina beren liburua ere mugatua delako agian, kalatxoriek gehien maite dutena «egunen mudapen amaiezina, infinito» da, beren hegaden sailak ere finitu behar duela esango zien orrialdea gureztat, gizakiontzat geratu zelako. Animalion eta gizakion hiztegiak funtsean bereizten dituen, izatez, hauxe da eta: biak mugatuak izanagatik, bion ezagueraz kanpoko hitz eta orrialde osoak egon arren, gizakiok bakarrik egotean eza horren jakinaren gainean. Trikuak hogeitazazpi hitz baino ez zituen ezagutzen, baina hogeitazazpi horiekin bere lurraldean errege zen, eta ez zeukan bere unibertso ttikitik kanpoko kezkarik ez berririk. Ziutatean noraezean dabilenak ordea, inguruari begiratzen dio «hitz ezezagunen hiztegi bati bezala» («Herdoilarena», 26. orri.), eta *Etiopia*-ko irakurleoi hain ezagun zaigun desparadisu ikaragarrian hareak estaltzen dituen objektu *mutilatuen* artean («...gutun / Horituak, erloju / Hautsiak.../ Espartako eskutu herdoildua», «Harearena», 14. orri.), *hiztegi liliputiarra* ere badago, bere tipitasun terriblean gure mundua konprenitzeko gaiezatasunaz mintzo zaigun hiztegia, hain zuzen. Baina, areago: noraino azaltzen dute ditugun hitz gutxi horiek mundua, bizitza, unibertsoa?

Aurretik esan dugunez, Errealitatearen esplikazioak gauzapena ematen dieten hitzekin daude harreman estutan. Joseba Sarrionandiaren *Narrazioak* liburuaren epilogoan lehen, eta *Obabakoak*-eko «Ni, Jean Baptiste Hargoux» izeneko ipuinean geroago, ikusi ahal izan dugu nola «onez

atera zen aintzindari bakarra, Guillaume ttiki hura, hizkuntza berri batez esplikatatu zen»⁶. Atxagaren beraren hitzetan berriro:

«...gure errealitatea adierazteko *hitzik ez dago*⁷, munduak eskura jartzen dizkigun gramatika eta hiztegiak odolez beteta daude. Geuregandik aparatatu beharrean gaude beraz, eta banan bana, ile kalparrean gordetako zorriak bailiren».⁸

Hitzak inprentsuaz bezala itzultzen zituen Enrique de Tassisek ere, Villamedianako poeta erdi mistiko hark, mania etimologistan murgildurik bere zoriongabetasuna hobeto ulertu nahian edo:

«ba al dakizu noiz erabili zen *desolamendu*⁹ hitza lehenengo aldiz?» aditu nuen arkupeetik ateratzen ari nintzenean.

«Ez», esan nion geldituz.

«Mila seirehun eta hamabigarrenean».¹⁰

Erreferentzia hau berau dakarren «Kantak IV (Desolatio)» izeneko poema, hitz gastatuen joera bateratzaileak eraginiko izu honexetatik sortua da, gure interpretazioan:

«Esaten du ene hiztegi batek
desolamendu hitza latinezko
desolatio hartatik datorrela,
jenitiboz *desolationis*;

Dio baita ere mila seirehun eta
Hamaikagarren mendean sortu eta
idatzi zela lehenengo aldiz
antzerra txuri baten lumaz;
bere esanahiak direla
bakardade, ruina, hondamen
(...)»

74.orri.¹¹

⁶ Bernardo Atxaga: «Epilogo, sasoi zaharrak gogoan» in Joseba Sarrionandia: *Narrazioak*, Elkar, Donostia, 1987.

⁷ Azpimarra jatorrizko testuari dagokio.

⁸ *Ibid.*

⁹ Azpimarra jatorrizko testuari dagokio.

¹⁰ Bernardo Atxaga: *Obabakoak*, Donostia, Erein, 1989, 185. orri. Hemendik aurrera, liburu honetatik ateratako aipu guztiak *Obabakoak* jarriaz iragarriko dira, orrialdea ere adieraziz.

¹¹ Azpimarrak jatorrizko testuari dagozkio.

Hitzak zaharrak dira, asko bidaiatu dute gizaldietan barrena, azke-
nean gure eskuetara beste ehundaka berbeekin batera gordetzen dituen li-
buru potolo baten barruan heltzeko. Lerro gutxi batzutan biltzen da hitz
bakoitzaren adiera, baina non daude *desolatio* hitza lehenengoz idatzi ze-
netik gureganaino bizi eta hil zirenen oihartzunak? Hiztegiaren abstrak-
zioak aienatu egin ditu haien arrastoak oro:

«(...)
Baina ez dio ezer
kaletik doan
jendearen bihotzetaz;
Ez dio ezer, zutaz eta nitaz,
gartzela edo koarteleako
patiotaz...»

Hitzak txanponak bezala erabiliz baliogabetu egin ditugu, beren
baitan gordetzen zuten gauzarik inportanteena, beren izateko arrazoi ba-
karra, ahaztuz: kaletik doan jende horren bihotzetan gertatzen dena, hain-
beste istorio anonimo...

Agian hitzen indijestioaz gaixotzeko arriskuan gaude, agian ez gara
ohartu gure eleketak alferrikakoak direla, beren sostengu ziren gauzetatik
aspaldidanik hain urrunduta.

2. Zaratatik isiltasunera

*«No obstante, sobre esta nada edi-
fiqué mis libros.
Arena, arena, arena al infinito
(...). Aquí se extingue el lenguaje»*

E. JABESek

«Desolatio»n azaltzen den ideia bera legoke, beste enfoke batez,
«Kamamila edanez ere» edota «Barkatu, Cravan» poemen oinarrian. Bio-
tan erreflexioa poesiari buruzkoa izango litzateke bereziki, hitzen desgast-
teak ekar lezakeen poesia faltsu eta endekatua gogora eraziz.

Lehenengoa, «Kamamila edanez ere» alegia (28. eta 30.orri), hitz
batez definitu behar bagenu «eszeptizismo»a aipatuko genuke. Hemen
mintzo zaigun poetak ez du, dirudienez, ezertan ere sinesten; dena
dago hemen desbirtuaturik, dena dago kutsatuta, eta giro insano honen

adierazgarri, hara hor berba egin ahal izateko *kamamila* edan behar duen poeta bat¹²

Hala bada, hasieratik bertatik gaixotasuna iradokitzen digun atmosfera baten sartzen gara, badakigu orain hitz egiten duena poeta *osasungabea* dela, nolabait degradazio prozesuan abiatuak izakia. Gauzak honela, ez gaitu harritzen giroa eta hitz egilea bera betetzen dituen kutsadura, esateko ekintzara berara hedatzeak: hemengo olerkariak, jolasean bezala, *esan ditzakeen* errepertorioa emango digu, baina aukera bilduma hori ikusi eta gero aterako dugun ondorioa, paradajikoki, hainbeste bider berresaten den *esan nezake* hori ezeztatzen etorriko da: poesiak eta hizkuntzak ezer adieraztea galazten duen endekapena (*esatearen* ukazioa) eta, bestetik, esaterik merezi duen ezer ez egotearen sentsazioa (*nezake*-aren ukapena, hau da, adierazi potentzialen arbuiamendua). Hasiera hasieratik onartzen du poetak *esan ditzakeen* horiek *esaera okerrak* direla, baina hala eta guztiz ere zazpi aldiz ahaleginduko da gutxienez zerbait esaten. Lehenbiziko saia-keran *ziutatearen setioa* izango dugu gai. Bilboko goizaldea, iragan den gauaren mamu isila, argia eta ilunaren arteko kontrastea, hiriaren amenazuaren aurrean hain badaezpadakoa suertatzen den egun argiaren babesa... Guztiok ezagunak zaizkigu Bernardo Atxagaren poemak —*Etiopia*-koak bereziki— dastatu ditugunoi. Imajinek beraiek beste poemetako oihartzuna dakarkigute (ikus adibidez «Herdoilaren» eta erkatu hango «eta sukalde proletarioen argi urdinskak / murrail erraldoiaren begi gauero», 26. orri, eta oraingo «lehen argi hau ez da murraila transparentea baino», 28. orri.) Hala ere, orain jasotzen dugun inpresioa arras bestelakoa da. Izan ere, irudi guztiok eduki lezaketen efekto poetikoa zartada batez ezabatuko da: nola eman sinesgarritasunik —sinesgarritasun poetikoa, noski— «in the beautiful morning of Bilbao» bezalako esnobismoak tartekatzen dituen poeta honi? Nola hartu seriotan *edota* batekin gauza bat zein bestea esatea berdin dela dioskun poeta bat? Egia esan, bere buruari barre egiten dion lehenbizikoa poeta bera da, aurreko olerkietan erabilitako gai eta irudiak orain klabe ironikoan ematean bere poesia bera jartzen bait du kolokan. Beste batzutan bezala —*Etiopia*-n hau etengabe gertatzen da— poema honetan ere ikusiko dugu nola Egia eta Gauza Handiak banan bana beheratzen diren, nola grandilokuentzia

¹² Gogoratu Sarrionandiaren «Maggie, indazu kamamila» ipuineko protagonistak ere bere amamak eramaten zion kamamila behar zuela egunero jeiki ahal izateko izugarritzko mozkorraldien ostean.

Ikus Joseba Sarrionandia: «Maggie, indazu kamamila» in *Xaguxarra*, Donostia, Hordago, 1980.

usainik duen espresioak oro baduen bere kontrapuntua, kontrapuntu ironikoa hain zehatz (gogoratu, adibide bat ematearren, *Etiopia*-ko bederatzigarren zirkuluaren izenburua: «bederatzigarrena eta azkena» huts hutsean jarriz gero, halako fatalismo baten jausteko arriskua egon liteke; Atxagak, bide hori moztu nahian, barre egiten die titulu ozenei eta «The end» bat ezartzen du parentesi artean. Era honetan, tentsioa jaisten duten eta filmeetako giroa dakarten hitz harrotzez baliaturik, irribarre batez egingo dio aurre poetak frakasoari, irribarre deskreido eta triste samarra, hala ere.¹³

Ildo honetatik bertatik joango dira ondorengo bertsoak ere: hirugarren saioan lokutorearen heriotz absurdoa kontatzen zaigu, eta berriz ere beste poema batzutan ikututako gaien aurrean aurkitzen gara: suizidioa (ikus «Kantak II (Fas fatum)», 62. orri.), gizakia ziutatearen kaosean eroturik, bizidun bilakatzen diren elemento bizigabeak (ikus «Eguneroko bizitza», 18-21. orri.)... Baina orain harira ez datozen hitz arrotzek eteten dute diskurtsoa, poetaren ahotsak gero eta kutsu artifizial handiago hartzen duelarik. *Off* preposizio ingelesaren balio ia beti negatiboak batetik, eta lokutorearen suizidioaren parodia dirudien *sleep* (=lo) aditzak, bestetik, degradatu, desitxuratu egiten dituzte beste kontestu baten oso bestela ikusiko genituzkeen gaiok.

Hurrengo *esaera okerra*¹⁴ guztietan luzeena dugu, poemaren barruko beste poema bat ia: lelo antzeko batekin hasi eta bukaturik, erritmo eta

¹³ Oso ondo azaltzen du Hugo Friedrich-ek (*Estructura de la lírica moderna*, Barcelona, Seix Barral, 1974) ideia hau lirika modernoari dagokionez: «Según una definición derivada de la poesía romántica (y erróneamente generalizada) la lírica suele ser considerada como el lenguaje del sentimiento, del alma personal. El concepto del sentimiento implica una distinción por el mero hecho de entrar en lo familiar (...).

Precisamente es esa la familiaridad comunicativa lo que el poema contemporáneo pretende evitar. Este prescinde de la humanidad en el sentido tradicional de la palabra, de la vivencia, del sentimiento, y a menudo incluso del yo personal del poeta, el cual no participa de su poema como individuo privado, sino como inteligencia que crea poesía (...). Ello no excluye que semejante poema pueda nacer del arrobamiento del alma o pueda provocar semejante arrobamiento (...). *Y si algunas flaquezas sentimentales pretenden imponerse, se les da un latigazo y se las destruye con palabra disonantes*» (23.,24. orri; azpimarra geurea da).

Gai honetaz antzeko eritzia dakar Joseba Sarrionandiak, ikus Joseba Sarrionandia: *Ni ez naiz hemengoa*, Lizarra, Pamiela, 1985, 187. orri.

«Humanitateaz libratze» horri dagokionean, dena dela, esango genuke *Etiopia*-ko poemak joera horretakoak izanagatik ere, ez dugula ezaugarri hori hain argi ikusten berandua-goko olerkietan, batez ere orainsukoetan. Horietan gure ustez nabariago da poetaren —ez diot autorearen!— ni pertsonal hori. Ikus adibidez «Desolatio» (74. orri.), «Bizitzak» (16. orri.), «Bihotz antzinako bihotz» etab. «Ahulezia sentimentaloiden ezabaketa ironikoak, ordea, badirau, gure eritziz, oraingo poemetan ere, baina, zelanbait esateko, umore «xuabe»ago batekin.

¹⁴ Ohar *esaera okerrok* zenbait kasutan halakoxeak direla hitzaren zentzunik hertsienean: ikus erdal bertsoian «por lo cual que un micrófono le silbaba», 29. orri.

hizkera desberdinak («anitz denbora», «clepsydra», «Micenasko palazio»-ak, «sasoi ilun»-a, «keramika hauskorr»-a, «fantasia lurralde»-ak...) autonomia ematen diote. Orain kausitzen duguna dispersioa, apatridatasunaren gaia da, baina ezaguna dugun *off* delakoaren interferentziak ez ezik beste zerbaitek ere ebakitzen dizkio hegoak hau bezalako arazo sakonari: bere burua problema larri honen ordezkariatzat aurkezteko ausardia duen *neu* fanfarroiak:

«(...) neu naiz diasporaren *off* ontzi nekatua
ene oroimenean bizi da sakabanatze guztien kopia bat, [yeah. (...)],
28.orri.

Oso esanahitsu suertatzen da —bere urria dela-eta dituen inplikazioengatik— Bernardo Atxagak poemetan egiten duen singularreko lehen pertsonaren erabilera. Berehala komentatuko dugun beste olerki baten («Barkatu, Cravan») «ez dela posible lehen pertsonan mintzatzea» esaten bazaigu ere, hemengo poetak ez omen dauka horren berririk, eta bere subjektibitate harroari eusten dio («neu», «ene», «enegan», «neu», «ene») bere burua sakabanatzearen paradigma moduan jarriaz. Poesia eta hizkera mota honi darion faltsutasuna lehen aipatzen genuen *Gauza Handien* degradazioak indarturik dator, Atxagak hain sarri egiten duen izen abstraktoen neurketa zehatza dela medio: «sakabanatze guztien *kopia* bat»¹⁵ daukagu hemen, «Eguneroko bizitza»n «ixiltasun tonelada pare bat», «bakardadearen milaka kopia», «antitristezi pildorak», «Ejitoko zazpi izurriteren edizio ugaldu eta korrejitua» eta «zoriona gramoka» dauzkagun bezalaxe.

Era berean, interjekzioak hain bakan enplegatzen dituen idazle batek hemen mintzo den poetari bere esaldia *Yeah* batez amaiteraztea uneoro nabarmenagotzen den ironiaren beste adierazpide bat da. Bai, poeta honek, dirudienez, gai bakoitzari dagozkion topikoak ere ezagutzen dituela erakutsi nahi digu:

«(...) (ordudanik, esan nezake,
bost ibai bete joan dira clepsydran barrena),
(...)»

...berehala, Micenasko drama deskribatu ondoren, hangoen oinazearen oinordeko azaltzeko, hori bai, konzeptu abstraktoen bulgarizazio ekinaren barruan, parekatze harrigarri bezain barregarria eginez:

¹⁵ Azpimarra geurea da.

«(...)»¹⁶

Orain enegan datza haien *oinaze* eta *abitaminosi* guztia
oh yeah, sleep, neu naiz diasporaren off ontzi nekatua.

(...)»

Azken bertso honetan ikusten dugun ingelesezko hitzen pilaketak, bestalde, gero eta jasangaitzago egiten zaigun poeta honen esnobismoaz batera, hasieratik sumatzen genuen hizkuntzaren dejenerazio prozesuaren aurrerapena ematen digu aditzera. Gainera, interesgarria da ohartzea testuan tartekatzen diren estraineko hitz arrotzek diskurtsoaren hariari jarraitzen zioten bitartean, ondorengoekin ez dela halakorik gertatzen; hauek edo hutsa esan nahi dute («yeah», «off») edota neke, indargabetasunarekin erlazionatzen dira («sleep»). Paraleloki, hasieran igartzen genuen eritasun giroaren beste erreferentzia bat idoroten dugu orain, *abitaminosi* horren eskutik.

Aldapa behera honetan, *esan daitezkeenen* azkeneko hiru adibidetara heltzen gara: lehenengoak eguneroko bizitza arruntaren irudia dakar, horri dagokion hizkera ohizkoarekin: «zizare panpox bat sagarrean gorde da» (30. orri.); bigarrenak poetaren *niaz*, eta zehatzago, *bere bihotzaz* hitz egiten digu, *tonu poetiko* baten: «zenbat eratzun zilarrezko ene bihotzaren baitan»; azkenekoan, paisaia urbanora jotzen du: «neguaren haizea aditzera ematen da zoroki, oh yeah / hormetako orri publizitarien zarpailak off astinduz».

Erregistro aldaketok, hizjariora berriro ere moztzen duten ingelesezko berbak, *edota* lokailuaren errepikapen anaforikoak... poeta honek esan ditzakeen gauza guztien ezdeustasuna azpimarratzen digute. Poema honetan ez dugu konklusio itxurako ezer, dena infinitoraino luza eta luza litekeelako: bla, bla, bla... Izan ere, olerki hau poema izan zitezkeenen pusketez egina dago, harrokeria guztiz «begira poesia egitea zein erreza den» esanez bezala poeta erdi moderno erdi pasota batek eskeintzen dizkigun posibilitateekin. Baina olerkaria bezala, poesia eta hizkuntza hau gaisorik daude; eta gastatu, biziatuegi dauden hitzekin, bere buruaren kontenplazioan itsutzen den poeta batekin, esate hutsa, zaratotsa besterik ez da gelditzen. Formula errepikatuak.

Guzti hau aintzat harturik, berez bezala dator «Barkatu, Cravan» (32.,34. orri.) poemaren hasieran irakurtzen duguna:

«Francis Picabiak munduko bozeo txapelketa

Barcelonan jokatu zuenerako

Gauza guztiak esanak zeuden jadanik agian

(...)», 32. orri.

¹⁶ Azpimarrak geureak dira.

Esatearen inguruko erreflexioari begiratu baino lehenago, emandako erreferentzia tenporalaz ohartzea komeniko litzateke. Izan ere, bai izenburuan eta bai estraineko lerroan dauzkagun aipamenak txit esanguratsuak dira poema kokatzeko. Arthur Cravanek eta Francis Picabiak Dadaismoaren has-tapenetara garamatzate, mogimendu honek Artean suposatu zuen guztiarekin. *Dada*-ren izpiritua iraultzan mamitzen da: lehen Mundu Gerraren kaosean eztanda egin zuen gizarte burgesak basazko oinak zituen erraldoia zela utzi zuen agerian. Oinarria eman zioten prinzipio etikoak ustelak ziren, eta konbikzio honek eragindako arbuiapena Dadaismoaren errebellian gorpuztu zen: aurreko guztia jarri behar zen bilin-bolonka: ohiturak, pentsamolde tradizionalak, Artearen inguruko ideia eta jokaera ezarriak...

Dada desobedientzia izango zen, probokazioa, destrukzioa, Artea eta artistaren desmitifikazio saioa... Horrela, dadaistek, beren bizitzetara beraietara eramane zuten eskandalurako grina hori: Cravanek —bozeolari profesionala, desertorea, kazetaria, probokatzaille nagusia...— literatura eta pintura baino, bozeoa eta borroka librea nahiago zituela esatean, arte munduan nagusi zen zerebralitatearen aurkako erreakzio gisara egiten zuen hitz. Galdutako inozentzia berkonkistatu beharra zegoen, eta lan honek eskatzen zituen eraberritzerako disposizioa eta finkatu ordenarekiko errespetu falta Cravanen izpiritu bera zeukan bere lagun batek, Francis Picabiak, izango zituen. Bere izakera konformagaitzak bultzaturik, Artearen hainbat alorretan ihardun zuen: pinturan, literaturan, zinemagintzan... baina —beti ere burla eta errebelliorako nahiak gidari zituela— barre egin zien gauza serio eta solemneei uneoro, lehenbizi eta batez ere Arteari. Picabiak bilatzaile nekaezinaren kemen eta nerbioaz egin zituen bere lanak, irtenbide definitiboak gartsuki mesprezaturik. Horregatik berak hain maite zuen ez-profesionaltasuna —»ni superafizionatua naiz» esaten omen zuen— galtzearen beldurrez edo, eta bere bilakuntza horrek behe jo zuelako ustetan apika, Picabiak ez zuen itxaron zahartzarora bere burua Artearen mundutik apartatzeko, etengabeko ekimenaren ostean eta mugimendu zein korronte artistiko anitzetan militatu ondoren.

Oro har mintzatuz, Dadaismoak, jakina denez, funtzio irekitzailea izan zuen (Surrealismoa eta Arte Abstraktoa izan ziren bere seme-alabak, besteak beste); alabaina, bere zeregin esperimentalaren alboan utzirik, bere baitan sorturiko sarkasmo eta probokazio giroa lirarteke bere aportazio nagusiak: *Dada*-k askatasuna erreibindikatu zuen eta honek bide eman zion balio tradizionalekin hautsi eta Artera haize berriak ekartzeko.¹⁷

¹⁷ Eskerrik asko Reyes de Domingori gai honetaz emandako orientazioengatik. Ikus adibidez

Gure poemara itzuliaz eta bertan ematen zitzaigun erreferentzian begia berriro jarririk, gogora dezagun gauza berriak ez omen zirela esaten Picabiak Barcelonan munduko bozeo txapelketan parte hartu zuenerako. Guk dakigula, (baina oker egon gaitzeko) pintore honek ez zuen sekula bozeatu, eta Barcelonan garai batez egon bazen ere 391 aldizkari literario abangoardista argitaratzeko izan zen. Bai bozeatu zuena, ordea, haren adiskide Arthur Cravan dugu, eta broma txiki honi zor dakioko beharbada izenburuko *barkatu* hori. Parentesi bat zabalduz, esan behar dugu era honetako *bihurrikeriak* oso gogoko dituela Bernardo Atxagak; nahikoa da «37 galdera mugaz bestalde dudan kontakto bakarrari» deritzon poema irakurtzea (36-38. orri.) batetik galderak hogeitamazazpi ez direla eta bestetik han aipatzen den Tom Simpson ziklistaren heriotzaren azalpena ez dela esaktoa antzemateko¹⁸.

Honelako jokoetan, gure ustez, poema honek nostalgiaz gogoratzen duen Dadaismoaren joera anarkiko eta desakralizatzailea gordetzen da. *Gezur* txikiokin, Jon Kortazarrek dioenez¹⁹, autoreak bizitza eta bere buroarekiko erakusten zuen ironia geuregana, irakurleongana ere hedatzen du. Izan ere, gure lehen erreakzioa baietz esatea da, oroitzen garela, Picabia bozeolariaren izena —edo Aubisque-a Simpsonen hil lekutzat, kasurako— ezagun egiten zaigula, egunkariren baten irakurri dugulako edo. Hala ere, poetak, belarritik apur bat tiratzen digu eta gu ere erori egin garela demostratu, guk ere *irentsi* egiten dugula ematen zaigun guztia.

Baina Picabia bozeolari bihurtzeak beste interpretapen bat ere izan dezake: egia baldin bada gizon honek ez zuela inoiz ring batera igon, Barcelonako txapelketa fantasiatzko erreferentzia bilakatzen zaigu; gauza berriak esaten zireneko denbora ez legoke jadanik Dadaismoak eragin zuen leherketan, alegiazko garai baten baizik: *nihil novi sub sole* esaldia edozein garaitarako izango litzateke aplikagarri.

Bestalde, komentatu ditugun bi *gezur* horiek —Tom Simpson eta Francis Picabiari dagozkienak— autorearen lanaren beste ezaugarri batez mintzatzeko aitzakia ematen digute. Poemetan bi gizonoi ezarri zaien lanbideari (kasu batean egiazki eta bestean ez) arreta jartzen baldin badiogu, ez zaigu oso zaila egingo Atxagaren unibertsoko pertsonaia kutunenetako bi direnaz jabetzea. Bai bozeolaria («Herdoilarena»n ere aipatzen dena:

Yvonne Duplessis: *El surrealismo*, Barcelona, Oikos-tau ediciones, 1972.

F.Javier San Martín: *Arte del siglo XX*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1986.

Zenbaiten artean: *Historia de la pintura*, Auri Ediciones, IV. tomoa.

¹⁸ Tom Simpson ez zen Aubisque mendian hil, Ventoux izenekoan baizik.

¹⁹ Jon Kortazar: *Laberintoaren oroimena*, Baroja, 1989, 220. orri. Hemendik aurrera *Laberinto* izenaz aipatuko dugu obra hau.

«Bus txofer batzu bozeolari hilaz mintzatzen;», 26.orri., eta *Ziutateaz*-en zati luze bat betetzen duena, Joe pertsonaian gorpuzturik), bai ziklista (berehala aztertuko dugun «37 galdera ...» poeman asfixiaz hila eta *Obabakoak*-en karrerako azkena izanik, herriko ume guztien bihotza apurtzen duen Hilario hura) galtzaile modura azaltzen dira beti Atxagaren idatzietan. Oraingoan ikusten dugun Picabia bozeolariak ez zaigu zehaztapenik ematen, baina bere konbatea zerbaiten bukaerarekin identifikatzen da, edo hobeki esan, agian aspaldidanik gertatua zen amaiera baten konfirmazioarekin.

Honenbestez, idazleak alegiazko garai baten kokatzen du gauza berriak esaten zireneko denbora. Bidaia luzetan sofritzen duten trenak («apatridak bailiren trenak / memoria karrilen fatalitatean galduz» irakurtzen genuen «Herdoilarena») eta Akratik pasatzean negar egiten duten makinistak (ezin saihestu «Gauero aterako nintzateke paseatzera»ko makinistenganako oroitzapena), biak ditugu ezin atxagatarra; jadanik esanda dauden gauzen adibidetzat jartzeak berriz adierazten du, gure us-tez, —»Kamamila edanez ere»z mintzatzean aurreratzen genuen— poesia sorkuntzarekiko jarrera eszeptikoa egilearen beraren poesiatik hasten dela. Orain, ezer berririk esaterik ez dagoenean *edo* horren indiferentziak berrekartzen dizkigun esaera pusketak —poema hondakinak— baizik ez ditugu; hori eta ziurtasun bat:

«Badakigu, très normal, très normal,
ez dela posible lehen pertsonan mintzatzea
(...)»

Afirmazio hau ere derrigorrezko ondorio legez darraikio «Kamamila edanez ere» poemari. Han ikusten genuen nola Ni autosufizientearen erantzunak antzu gertatzen ziren, nola subjektibitate boteretsuak faltsutasunera baino ez ginderamatzan. Hizkuntza eta poesia hori bezain gezurrezko da horrela eraiki dugun gizarte monstrosoa, bai eta honek eskeintzen dizkigun paradisu huts, elbarritu, hareazkoak:

«Eta egunero irakurtzen dugu etxebarneko pozaren
Hainbat oinarriren izena: Zorionak
Yogurth fantastikoekin aurreratuko dugun diruagatik,
Zorionak zimurrik gabeko arropa horregatik,
Zorionak gure esku dauzkagun mila eltzeko misterios
horiengatik, zorionak, zorion beroenak;
Zorionak for me, zorionak for you, zorionak denontzat.
(...)»

Mundu publizitarioko tonu triunfalistak eta nazkatzeraino belarrira errepikatzen zaigun «zorionak» horrek gure bizimoduaren hustasuna jartzzen digute begi aurrean; baina lehen bezala, poetak ez du dramatizatu nahi, ironia nahiago du. Horregatik tartekatuko dira berriz ere erdal hitzak, hitz jokoak, errima errezak:

«(...)

Eta esan zuen Ezra zaharrak aspaldi, klitxeak beti klitxeak,
edo txikleak zapore guztitan, orange, citron,
dragon hau baino hoberik ez ziagon.

(...)»

Bere ohizko jokamoldeari jarraituz, pare parean jartzen dizkigu «grabedade»a eta «huskeria», Ezra (Pound)-en hitz sentenziosetatik txikleaz hitz egitera jauzi batez iraganaz.

Hori bai, kasualitatez bezala hor zintzilik gelditzen den esaldiak poemaren muina biltzen du: «klitxeak beti klitxeak». Halaxe da, izan ere: publizitate kutsu nabarmeneko mintzamoldetik erabat arruntak diren perpausetara abiatuko gara. Testuingurik gabe batbatean aurkitzen ditugun *hark* eta *bera*

«(...)

Edo hark esan zuen bezala, bera da politena, asko maite dut

(...)»

anonimotasunaren lainopetan galtzen dira. Esaldion tankera ximple, ia infantilak, pausoka iragarri joan zaigun hizkuntzaren gainbera atzeratuezi-na isladatzen du garbiro. Kontestu honetan, Malone-ren salbamen ahaleginak —«O-nou. O-nou»— irribarrea eragingo digu gehienaz ere, baina, zoritxarrez, —ezin bait ditugu ahaztu Samuel Becket-en Malone hura eta bere saio etsi eta alferrekoa momentua idaztearen bitartez zelanbait gordetzeko, ezta nola azkenik bere existententzia ezerezean ezabatzen den ezinbestean— itxaropen gabekoa irudituko zaigu. Hizkuntza agorturik eta lehen pertsonaren lilura desenmaskaratu delarik, egindako bidea berregitea da, besteren ezean, geratzen zaigun bakarra. Ondorioz, horixe izango dira berresango diren hitzak: autorearen beste poema batzutatik ateratako bertsoak (ikus *Etiopia*-n 70. eta 88. orrialdetako poemak), errepikatze soila baino gehiago egitea ezinezkoa dela adierazten duten olerkietakoak, hain zehatz. Fita doratudun zigarroak, yogourth fantastiko eta zapore guztitako txikleak bezalaxe hutsalak dira, Nueva York-en eta toki guztietan, toki guztiak bait dira Nueva York —«Ze, ziutatea berbera bait da beti» esango luke Kavafisek.

«Kamamila edanez ere»-ren moduan, formula gastatuek betetzen dituzte poema honetako azken lerroak. Nondik datozen ez dakigun eta erlazio gabe gurutzatzen diren elkarrizketa zatiak bailiren

«(...)
O-nou
O-nou, zer moduz, comantalevu, eta abar, eta abar»

hauek (*O-nou* eta *comantalevu* direlakoetan jatorrizko grafiaren alterazioarekin) zentzungabeko hizjario molesto, desatsegin eta antzu baten erakusgarri dira.

Hau bezalako nekea eta gogaipena igartzen zaio «Orduan» deritzon maitasun poemari.²⁰ Hemen ere topiko edo altisonantzia izpirik duen guztia barregarri uzten da:

«(...)
Eta udazken hartan, izen ugariko emakumea bihurtu
hintzenan,
Casiopea eta Pollux, edo Isis and Pandora, eta Bereniceren
Ilea, elemental Mister Watson;
(...)»

Maitaldian idatziriko bertsoak, halaber, poetaren eskandaloa sortzen dute orain:

«(...)
Astelehen edo astearte batetan, gogoa higan nuela,
Nire seksoan aurkitzen dun, qué barbaridad, Bagdag,
idatzi ninan gauez
(...)»

Eta beren arruntasunagatik errepikatzerik ere merezi ez duten hitzen asperra somatzen dugu:

«Orain, hire maitale traketsa naun, maitatzen haunat, etcétera negu bezperetan etcétera, etcétera.»

Hustu eta odolgabetu arte erabilitako hizkuntzaren nazkak horma bat eraikitzen du poetaren bidean. Honen aurrean *Etiopia*-n aurkezten zen

²⁰ Bidenabar, kontutan hartzekoa da testu hau *Henry Bengoa. Inventarium* lanaren barruan agertzen dela euskal bertsoian; erderazkoan, aldiz, —*Poemas & Híbridos*-ek dakarrena— ez da poema hau azaltzen, eta bere ordezkari *Ziutateaz*-en «Lehen eskaintza» izenpetik irakurtzen genuena daukagu: «También, el último de los días...». Ikus Bernardo Atxaga, *Ziutateaz*, Donostia, Erein, 1976, 9-10.orri.

irtenbidea —eta ez da oso egokia izen hau, ez bait zen inora irtetea— isiltasunarena zen («Ixiltasun tonelada pare bat etorri zen kostako trenean bagoietan izerditan blai / Adjetibo kalifikatiboen armadarekin borroka egiteko abenidetan gogor horror»²¹; «Ixiltasun ikaragarria hedatzen da ene inguruan»²²), garaiz mututzearen duintasuna sikiran ere gordetzea.

Hala ere, *Etiopia*-z geroztik, Bernardo Atxaga ez zen guztiz isildu, handik hona oso lan bakanak kaleratu baditu ere. Honek pentsaerazten digu autoreak —prekautio handiz diogu hau: idazle prolificoa ez izatea problema honekiko duen jarrerari dagokion jokamolde koherentea da, gure aburuz— hitzaren aldeko apostua egin duela, poesia eta hizkuntzaren arnasberritzea ttantaka egiten den lan zaila dela jakin arren. Oso aipagarriak dira ikuspegi honetatik orain gutxi elkarrizketa baten esandakoak:

«Me he dado cuenta de que la ruptura del lenguaje poético estereotipado, que había llevado a cabo en mis poemas, era una mera parodia, que quien parodia un poema de amor no es capaz, en realidad, de hacer un poema amoroso mejor que el que parodia. La parodia es una salida un poco triste, una victoria pírrica. He intentado salir de ese círculo paródico haciendo una poesía más directa, volviendo a los orígenes de la poesía y comprendiendo que ésta era en principio canción y que narraba una serie de historias (...). En mis últimos poemas he intentado recuperar esa inmediatez que la poesía moderna había perdido y he empezado a escribir baladas y canciones.»²³

3. Mugaz bestaldekoarekiko nostalgia

«O! Zenbat gustatuko litzaidakeen alde hori ezagutzea! Hainbeste jakin nahi nuke neguan sua pizten duten!»

L. CARROLeK, *Ispiluan barrena*.

Baina haria ez galtzeko, atera dezagun iparorratza eta itzul gaitezen gure adiskide trikuarengana.

²¹ *Etiopia*, 85. orri.

²² *Ibid.* 103. orri.

²³ «Bernardo ATXAGA o la literatura como ilustración», *El Urogallo*, Diciembre 90-Enero 91, Juan José Lanz-ek egindako elkarrizketa. Beronen moldaketa bat euskeraz egina aurki daiteke *Zurgai*-n, 1990.eko zenbakian «Con Bernardo Atxaga» tituluz.

Esaten genuen lehen hiztegiak munduen jantziak zirela, espazio desberdinen kode desberdinak. Hiztegi liliputiar bat, beraz, errealitate liliputiar baten ispilu izango da; iguina sortzen digun hizkuntza bat, bera bezain itogarri eta arrunta —zentzunik txarrenean— den bizipen bat. Baina, honek badakar berarekin batera desira bat, aspirazio bat, urrunago iristeko borondatea:

«(...)
Hegorik banu, ni ere saiatuko nintzateke
Lur berrien bila, jasoko nuke neure kanpamendua
Bandera beilegiz seinalaturiko kostan;
Hobeto egin dezan denborak bere lana
Ahantz nadin betirako
Hiri honetako murraila eta jendeaz (...)»
«Negukoa», 12. orri.

Antzarrekin batera lur berrien bila aireratu, hemengoaz bestelako beste mundu bat («Zergatik gara hain zorion gabeko?») azalduko duen beste hizkuntza baten bila (gogora ekar Guillaume txikia)... Zeren eta, «Multzokadetan, antzerrak kostalde epeletara abiatzen dira negua usaintzen duten orduko, eta letrak osatzen dituzte bere bidaietan. Horregatik esan liteke zeruak antzarren bitartez idazten duela»²⁴.

Zeruaren idazkera hau, edo, beste modu batera esanda, gauzen mui-na, bizipen autentikoagorako aspirazioa da, gure eritziz, «37 galdera mugaz bestalde dudan kontakto bakarrari» delakoan datzan sentimendua. Baina ez dugu hor bakarrik aurkitzen. *Alde honetako* gabezia eta miseriek sortutako hutsunea eta errealitate mediokre batek eragindako frustrazioa behin eta berriz gogora erazten zaizkigu Bernardo Atxagaren poemetan. Ez dago oihurik ez nigarririk, bakar bakarrik hauek bezalako bertsoek —gure eritziz egileak idatzi dituen inpresionanteenetakoak— biltzen duten desolamendu isila:

«(...)
Harea egotziz bihotzek
Harea erakarriz. Harea.
(...)»
«Harearena», 14. orri.

Ildo beretik doaz olerkiotan hain sarri errozko inkomunikazio eta bakardade guztizkoaren adierazle diren *telefonoak*. Gainerako guztia beza-

²⁴ *Sugeak txoriari begiratzten dionean*, 49. orri.

la, tresna hauek ere devaluaturik daude, badaukate beren azaleko irudia gezurtatzen duen alderdi ilun bat. Elkarrengandik urrun daudenak kontaktoan jartzeko jaiok, paradajikoki telefonoak distantzia bera baino askoz ere gogorragoa den muga baten adierazpide bihurtzen dira. Atxagaren poemetan telefonoak isilik daude, edota, jotzen dutenean —gauean, telefono hotsak garai horretan dakarren adur txarraren usainarekin— komunikazioaren ezintasuna isladatzen dute, telefonoak beraiek bezalaxe bi aurpegi dituen errealtate bat aditzera emanez:

«(...)

Ene maitaleak telefonoa jo zidan kobre zaporeko maitasunez gauaren erdian,

Eguneroko bizitza ikatza bezalako labezomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe.

(...)»

«Eguneroko bizitza», 18. orri.

«Armiarma bat bezala
dator gaua
(...)

Eta ixiltasun hartan,
telefonoak hasten dira
hoska eta garrasi egiten
gauaren erdian.

Tximeleta bat bezala
argia dator
hiriaren bazter guztietara;
kalean dabil
jendea berriro, ezer pasa ez balitz bezala.

Baina aurpegi askotan
antzeman liteke nola
telefonoan egon diren
garrasi egiten
gauaren erdian»

«Kantak VII (Telefonoak)», 78. orri.

«Desolamendu» hitzaren hiztegiako definizio lakonikoaren atzean bezala, mila istorio anonimo izkutatzen dira gauaren jantzi beltzek estaldurik. Gauean azaleratzen dira, hain zuzen, egunaren itxurapenek moztururiko ikarak eta negarrak:

«(...)
Lau, lau gelatan Bihotz,
Zenbat mamu dauzkazun,
nola ikaratzen zaren, gauean;
Gau, gau batzutan Bihotz,
Hautsi egiten zara,
Lurrera jausi eltzetxo baten gisan;
(...)»

«Kantak IV (Bihotz, antzinako bihotz)», 70. orri.

Honela, mamuz beteriko ilunbeen eta hauei darraikien egun-argi engainatsuaren txandakatze mingarrian bizi gara hemengoak, baina... eta bestaldean?

«Esaidan, zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak?
Kausitzen al duzue maitasunik sikira zuen maitatuen arteko ehundiko hogeitabost edo hogeiairen baitan, ala hemen bezala
mutu al diraute telefonoak, bihotz mortuak bailiren gauetz gau,
bihotz mortuak bailiren etxeko laberintoaren azkeneko salan?
(...)»

«37 galdera mugaz bestalde dudan kontakto bakarrari», 36. orri.

Poema honen hasierak, ikusten dugunez, deskribatu dugun alde hone-tako desanparoa irudikatzen du lerro gutxitan. Hor ditugu berriro telefonoak, mutu, erabili beharko lituzketen gizakien bihotzak bezain mortu. Eta bakar-dadea harri pisu bat bezala erortzen da gainera laberinto bilakatu den etxean hedaturik. Estraineko lerroan dagoen galderak berak —«ehuneko hogeitabos-tarekin konformatuko nintzateke» esanez bezala— mugaz honunzkaldekoar-en exkaxtasuna nabarmentzen du hasieratik. Orduan, bere lau hormatako gela gris eta estutik kanpo lurralde desezagun eta gonbidagarri bat zabaltzen dela esan berri dioten preso bat bailitzen, poetak bata bestearen gainean pila-katzen zaizkion itaunak egingo dizkio bere kontakto bakar horri, eta insis-tentzia, urjentzia honek, galderak betetzen dituzten irudi xume eta batzutan inozentziaz blaituekin batera, xamurtasunez nahastutako tristezia utziko du beren atzean; zeren eta, desira ttiki hauek —hasierako portzentaiak bezala— mundu ilun, zikoitz eta agortu bat dute sorburu:

«(...)
Zuen erresumako lurraldeen artean ba al dago Greenland edota

Groenlandia deitutako parajerik? Ospelak al dira hango
 haranak?
 Ba al daude Shell konpainiako gasolinategiak, eta ez al dira
 biltzen
 tximeletak kolore horiko karrankaletan? Neguan ere ez?
 (...)
 Mugaz bestaldean, hostoek ematen al diete babes fruituei?
 Ba al dago marrubirik? (...), 36.-38. orri.

Christian erregearen lur jelatuek legez, tximeletak, marrubiak eta fruitua babesten duten hostoek, urruneko, beste erresuma baten ostendutako ametsak dirudite. Izan ere, alde honetarako gelditu zen gure ezinbesteko akabera taigabean gogora erazten eta bekokia oraindik ziprizontzen digun hausterrea («Ez al du esistitu han *Cenizas* bezala firmatzen zuen espia batek?», 36. orri.); alde honetarako baita loan ere «behera behar hau» —aurrera ezin egina— errepikatzen diguten amets gaiztoak («Ez al duzue karramarroekin ametsik egiten?»), zeintzuk gure ahuldade eta desanparo infinitoa beti ere presente egiten bait digute («Eta ume itsuekin?»). Zer dakite bestaldean heriotza eta frakasoaz? Memoriak ba al du hor lekuren bat galtzaile batentzat?

«(...)
 Tom Simpson ziklistarekin akordatzen al zarete inoiz? nola asfixiatu zen Aubisque mendian gora, nola bere elastikoak axedrez taula apurtu bat zirudien karreteraren harri txintzarretan?»²⁵

Lurrean jausi eta desegindako ziklista errukarriaren irudia (erreku-rrentea egilearengan, lehen esan bezala) airean aienatzen da, mugaz bestaldean ez bait dago horrelakoentzako tokirik. Han Simpsonen broma honek ez luke zentzunik izango, berdin izango litzateke-eta Aubisque-n hil ez zen Tom Simpson hau zein beste edozein galtzaile.

Alabaina, bestaldearen lilurak badu bere kontrapuntua, lur berde horretako argia zalantzaren itzalak iluntzen duelako batbatean. Izan ere, poetak ezin dezake eszeptizismoaren jantzia erantzi nolana; agian gu

²⁵ Tom Simpson ziklista britainiarra kirolari frakasatuaren eredu peto petoa da. Zenbait laisterketa garrantzitsu irabazi eta gero (Burdeos-Paris, 1967, Milán-San Remo, 1964 eta Paris-Niza, 1967) eta fondoko munduko txapelduna izan ondoren (1965), Frantziako *Tour*-rean hil zen 1967an Ventoux mendirako igoeraren erdian, dooping-a zela kausa.

Ikus *Gran Enciclopedia Larousse*, XXI. tomoa, edota, *Manual tutor del ciclismo*, Madrid, Ediciones Tutor, 1991.

Atxagaren galderari dagokionez, nik, lotsa guztiz, ezetz erantzun beharko nuke, hau da, nik ez neukala Simpson honi buruzko ideiarik. Berriz ere konfirmatu da, beraz, «erloju guztiak (direla) ahantzura eta ihesa». Bai gogoratzen zena nire adiskide Isabel de Domingo zen, eta hari eman behar dizkiot hemendik esker beroenak.

ere —ume itsu— arrain abisalen modura, inoiz ere iritsiko ez dugun eta gure unibertsoetik kanpo lotzen den eguzki baten aurrentipen soil eta hutsalaz ari gara, berorretarako hitzik —oraingoan ere hitzak / munduak— ez daukagularik:

«(...) Arrain abisalek ba al dute aurren
-tipenik
eguzkiaz, ba al dakite argia eta iluna hitzak bereizten?
(...)» 38. orri.

Azken baten, helmugarik ba ote dagoen duda mingarriak sakonegi ditu sarturik sustraiak gudan eta horregatik azken itaun guztion azpian inkredulitate errozkoko bat sumatzen da. Noraeza eta xede zehatzik gabeko bidea —laberintoa, bestela esanda— hemengo eta hango aldeak bereizten dituen muga gañditu eta haruntza luzatzen ote den beldurra, bidazti guztien suertez galdetzera bultzatzen du poeta: zer izan da beren esperantza tren baten jarri zuten horietaz?, aireak bere erara higitzen dituen txori hauskorrez?, porturik aurkitzen ez duten itsasontziez?

Beharbada «patu» hitza esanahiz husturik dago bestaldean ere. Agian, emozioz joko dugu hango bibliotekan gordetzen den hiztegi berri-
ra eta han geure berba gastatuak baizik ez ditugu kausituko:

«(...) Zuek patua aipatzen duzuenean, zertaz ari zarete, zehazki?
Lan seguru baten abantailaz? Edo laranjarekin jaten denaz
simpleki?
(...)»

Nonbait izatekotan, bestaldea lekutan dago gugandik; hain urrun, non, gure ibilera deslaidaren oihartzuna ez den ailegaten hango biztanle zorionekoengana («Otoi egiterakoan gogoan izaten al dituzue desertuko karabanak?»).

Hala, Bernardo Soares-Fernando Pessoa idatzi zuen gisara, —eta aipu hau berau egiten zuen Atxagak lehen esan dugun Sarrionandiari eginiko epilogoan— guk argonauten formularen bertsio mingarria berriztatuko genuke, babestu beharko gintuzkeen portuaren ideiarik gabe nabigatuaz; baina baliteke baita egin behar dugun bidaia hori askoz izugarriago izatea, hots, porturik inon ere ez egotea.

Ikara hau ez da poema honetan soilik agertzen: «Kantak VI (Tximeleta Reggae)» delakoan, (76. orri.), pinpilinpauxak, kostaldea utzirik, itsaso mugagaberantz —gogoratu, «basamortuaren beste izena», *Etiopia*-n irakurtzen genuenez— abiatzen dira eta isiltasuna eta iluna besterik ez dituen infinitoa galdu:

«(...)
Tximeleta haiek hegal egiten
itsasoaren ixiltasunerantz;
Ez joan, ez joan, itsaso horretan
pausalekurik ez da.
Ez dago irlarik,
Ez dago harkaitzik;
Itsasoan ez dago ur iluna besterik.»

Baliteke egia izatea, honenbestez, aztertzen ari ginen «37 galdera...» izeneko olerkiaren bigarren partean gero eta nabarmenkiago azaltzen ari zitzaigun kezka hori: atea zabaldu eta lehen zegoeneko gela berbera aurkitzen duenaren bihotzestura uzten digute azken lerroek. Bestaldean ere ez dugu eguzkiaren izenik aurkitu, hango hiztegiak ez digu patu hitzaren adierazkizuna argitzen. Ustez paisaia berria erakutsiko zigun leihora joan eta ispilu bat aurkitu dugu:

«(...)
Asko al dira, asko al zarete mugaz bestaldeko erresuma hartan?
Egunero kaletik ikusten dudan jende hau, han bizi al da?»
38. orri.

Ikusten dugunez, berba ponposo samarrez esentzien bilakuntza dei genezakeen hau ez da aspirazio injenuo bat, baizik eta, garaipen aukera gutxi dagoela jakinik poetak duen zerbait gehiagorako ezinbesteko beharra.

Premia hau, gure irudiz, sarri askotan detekta daiteke Atxagaren obretan, oso maiz hitzaren ahalmenaren problematikari loturik. Bi adibide gehiago emategatik pare bat hitz esango dugu «Bizitzak» eta «Poema polaroid sobre la muerte de John Lennon» izenekoen gainean.

Lehenengoa, «Bizitzak» alegia (16. orri) esaten ari garenaren eredu suertatzen da. Poema eder honetan geroago aztertuko dugun beste baten —«Bihotz, antzinako bihotz»— daukagun parekatze batekin egiten dugu topo, hots, Natura eta Bihotzaren artekoarekin. Naturaren izakiak legez, Bihotza indibiduo oso eta errepikaezin bezala sortu zen, izen eta izan propialarekin; garai zahar horietatik hona, ordea, batzuk zein bestea, behiala izan zutenaren islada kolorge izatera iragan dira. Haien memoriak, alabaina, tinko eusten die aintzinako erabatekotasun eta integritateari, eta horregatik Iraila, Eguzkia eta Gaua, Bihotza bezalaxe, erradikalak izango dira beren gurrietan, ez dira erdi mailako ametsekin asebeteko: Udazkena, Negu izateko irrikitan bizi den erdibideko izakia izango da,

Eguzkia eta Gaua inoizko osotasun baten hondar nostalgikoak diren bitartean:

«(...)

Eta hala, Iraila Garo Gorridunak
soilik Elur, soilik Otso,
Barren zabal eta izoztu
izan nahiko zukeen;

Eta izan nahiko zukeen Eguzkiak
Argi huts eta zorrotz
Erleen memoria ahulean:

Gaua, berriz,
hastapenetako garaiaz
oroitzen da bereziki,
orduak ez baitzen gaua besterik
(...)»

Oso adierazgarria da izaki guztion izenak eta izan nahiko luketen gauzenak hizki nagusiz —eta bigarren hauek mugagabeen gainera— idatzirik egotea, hau, gure eritziz, jatorrizko *birjindade* haren isladapena bait da. Izenak, bere bakoiztasunean, norbanakoaren beraren bakoiztasuna is-pilatzen zueneko garaia oroimena dakarkigu, eta aldi zaharron nostaljiagatik beragatik, bizitza desira bete ezinen —baina ez horregaitik sortu ezinen— ernaleku bilakatuko da. Izan ere, hau da gizakiaren tragedia txikia: nahigabeen ere beti zerbaiten bila aritzea, bizitza zekena dela behingoz ez ikastea eta, neurri baten betirako ume irauten duelarik, bere bihotzak desio duena gertatuko delako esperantza sekretua gordetzea. Horregatik, poema honen hasierako bertsoek diotenez

«Bizitzak ez du etsitzen
ezpada muga latzetan;
ezpadu Oihanarekin egiten amets,
egiten du Desertuarekin.
(...)»

Desertua eta Oihana: hain zuzen ere Atxagak hainbat aldiz erreibindikatutako estra-espazioak, kulturaren (=kultiboak dauden lekua, autoreak berak aldizkari honen V. zenbakian definitu bezala) aurreko espazio primordialak, hots, Basoa. Basoak hastapenetako une hura errepresentatzen du, eta harekiko grina eta joera berriz ere azalduko zaizkigu beste zenbait poematan, bereziki arestian aipaturiko «Bihotz, antzinako Bihotz» horretan. Esan genezake, gure olerkera bueltatuz, Otso eta Elur mina direla

Iraileko Garoa gorritz janztera eramaten duena, eta arturratzea zein arratsa dakarrena, berriz, Hasierako denbora esentzial hura errepikatzeke saio beti huts egina baino ez. Halaxe bada, poetaren nahien adierazpide diren bi hitz —hizki nagusiz izkribaturik hauek ere— zalantza eta desilusioak gorabehera (zeren eta, ezin ekidin ertzeko desira horien betetzeari buruzko frakaso asurresentipena: hor dago azkenaurreko lerroko *zoritxarrez* hori) mugaz bestaldean egon zatekeenaren peskizan abiatzera —nabigatzera— bultzatzen dutenak lirateke:

«(...)
Era berean, Egundo Ez
edo Beti Beti
esanka dabil nire Bihotza;
Bi hitz bakarretan
erabakitzen ditu, zoritxarrez,
bere desira guztiak»

Berba biok giltzarri gertatuko dira Bihotzaren hizkuntza (zeinaz geroxeago mintzatuko garen) eta honek eragingo duen beste hizkuntzaren —poesiarenaren— bilaketa prozesua konprenitzeko. Urrats hau egin aurretik ikus dezagun, atal honekin bukatzeko, «Poema polaroid sobre la muerte de John Lennon» (41.-47. orri.) deritzona.

Gaitz egiten da lehenbiziko irakurketan, hasieran batez ere, poema honen zirimolan norabidea ez galtzea. Izan ere, beste poema batzutan («Barkatu, Cravan» edota «Kamamila edanez ere»-n) hizkuntza gastatuarren iguina zer den dastatu baldin badugu, oraingoan sentsazioa burubira eta zorabioraino helduko da. Izenburuari jaramon eginez gero, badakigu John Lennon-en heriotza dela, edo izan beharko lukeela, testuaren ardatza. Hala ere, musikoari zuzenean dagozkionak parrafo bukaeretan banaturik dauden hamabost bat esaldi baizik ez dira. Gainerakoa, ahots distortionatuen hizjario etengabea, mirakuluak eskeintzen dituzten mezu publizitarien eta basakeriarik ikaragarrienak plazerraz bezala kontatzen dituen prentsa sentsazionalistaren gezurrezko jarduna da:

«(...) Y fue sobre las tres de la tarde cuando alguien pudo ver la silueta de un hombre completamente desnudo que se tambaleaba y desaparecía, y de la vivienda salía una música tenue, un olor insoportable. Pero hablando de otra hora, la hora de elegir un sujetador para ellas, hay que tener en cuenta que de joven los pechos están muy separados de las axilas, y a esa separación deben corresponder las copas. (...), 41. orri.

«(...) Halifax hasta Battle Harbour, tu inicial de porcelana y oro te define sin palabras, refleja tus sentimientos, es como tú misma. Claro que el amor es bizco, las penas de amor atacan a la vista. El estrabismo, concretamente esa dolencia que hace que parezca que un ojo se marcha de excursión por un sitio distinto al otro, es síntoma de conflictos sentimentales. Y Carolina no fue a ver a Julio Iglesias. (...)», 45. orri.

« (...) Una mujer cogió a su pequeña hija, de diecisiete meses, y se arrojó a la calle desde el piso número once del bloque, Islas Hébridas hasta Reikjaviak, de la barriada sur. Pero, vamos, no se apure, ponga fuera de combate al dolor, fantástica crema, (...)», 45. orri.²⁶

Adibideok aski dira ikusteko nola dena nazkatzeraino tribalizatzen duen berbeta merke honek errealitatea bera prostituitzen duen, John Lennon-en heriotza ere bere karnabal partikularreko partaide bihurteraziz. Horregatik musikoari egin zekioken poemarik onena faltsutasun guzti horretatik —krema, sujetadore, aizto etab. zoragarriak eta hauek bezain zoragari diren jet-set eta espektakulu munduko seme-alaba pribilejiatuak: Julio Iglesias, Carolina, Angela Molina...— apartatzeko ahalegina litzateke. Bai, apartatu, bereiztu... nolabait zarama guzti horren kutsapenetik ate kontserbatu. Hala, berrikitan esan dugunez, Beatle-aren hilketa paragrafoei amaiera ematen dieten esaldi soil gutxi batzuk narratuko dute, eta pausu bakoitza Juan Eduardo Cirlot-en «67 versos en recuerdo de Dadá» poemako lerro batek markaturik (eta babesturik) etorriko da:²⁷

«Y el UNO se arrodilla dulcemente, un beatle asesinado por un fan», 41. orri.

«Y el DOS tiene trenzas de papel, muere John Lennon por un autógrafa», 42. orri.

«Y el TRES llena de plata los triángulos, un loco asesinó a John Lennon», 43. orri.

«Y el CUATRO no solloza, se dirige a su piso de Dakota», 44. orri.

²⁶ Testuon aurrean automatikoki datorkigu burura «Hans Mensher» ipuinean leitzen genuena:

«Aldian behin, bizitza miserablea da; halakoetan kazetaria presaka abiatzen da miseria horren haragi ustelaz bazkatzera», *Obabakoak*, 280. orri.

Edota:

«Heriotz trajikoa, bai, baina, (...) halako *joiase* batez narratzen dena», ibid., 281. orri. (azpimarra jatorrizko testuarena da).

²⁷ Poema hau aurki daiteke, besteak beste, honako liburuan: J. Eduardo Cirlot: *Obra poética*, Madrid, Cátedra, 1981, 155-156. orri.

«Y el CINCO no devora el firmamento, cae víctima de siete disparos cuando entraba, acompañado por su mujer, Yoko Ono, en el portal de su casa, hacia las cinco de la madrugada del pasado martes», 44. orri. Etab.

Ezbairik gabe, poema hau, Atxagak berak 47. orrialdeko oharrean dioenez, «Entre la basura reciclada, una hebra de oro» suertatzen da. Berriz aurkitzen dugu hitz hiletatik burua altxatzeko desira, gauzen eta izakien muinari atxikiko zaien hizkera purifikatu —berba hau zerbaitetarako erabil baldin badaiteke— eta imajinatibo baten bilakuntza. Izatez, zabor hizkuntzaren amenazuarekikoa autoreak azken aldian agertu dituen kezka nagusietako bat da. Entzun diezaiogun idazleari berari:

«se trata de que esta sociedad, con una lógica mercantil que es la única, como única verdad y único dios, segrega basura constantemente. Basura nuclear, orgánica, verbal, de todo tipo. Con este lenguaje se puede hacer una novela, que yo llamo basura reciclada. (...) La lengua tiene, no desde el punto de vista orgánico sino del de la propia vida, el mismo comportamiento de un árbol. El árbol muere por dentro y crece por fuera; toda su vida la tiene en la corteza, y por dentro es madera. También la lengua, a fuerza de utilizarla, muere y se convierte en madera. El “lenguaje basura” está basado en todo esto, en un nivel alto de generalizaciones que no quieren decir nada.»²⁸

Hizkuntza honi aurka egiteko, Atxagaren aburuz, «Hay que digerirlo, y regurgitarlo una vez digerido»²⁹, hau da, zabortegia begi aurrean jarriarik, berau salatu, poema honetan egiten den bezala.³⁰

Baina guzti honetatuz gain, hemen ere idoroten dugu —aurrekoetan legexe— ez bakarrik adierazmolde berriekiko ardura, baina baita *beste aldearen* ametsa ere. Zein da hemen beste alde hori? Bada, nahikoa da mapa on bat hartzea eta testuan tartekaturik ematen zaizkigun bidaia misterioetsuaren urratsen norabideari jarraitzea:

«Los padres de la princesa, que son unas grandes personas creyeron que su hija no era lo feliz que ellos hubieran deseado y se metieron en nuestra vida tratando de ayudarla. Eso fue lo peor, página tres, Long Island, repito, hasta Providence;», 41. orri.

²⁸ «El universo mágico de Bernardo Atxaga», *Deia*, 1991.eko Uztailaren 14ean Iñaki Olanok autoreari egindako elkarrizketa. Mila esker Ana Arceo adiskideari, berak pasatu bait dit testua.

²⁹ *Egin*, 1991.eko Apirilak 24, 48. orri.

³⁰ Badirudi, gainera, idazlearen projektuen artean zabor hizkuntzaren berziklaketa hori helburu duen nobela bat idaztea dagoela. Ikus 28. oharrean aipatutako elkarrizketa.

«(...) era una criatura hermosa que necesitaba, Liverpool hasta Man, un poco de cariño», 42. orri., etab. etab.

Ibilaldiak bi abiaburu ditu: bata Estatu Batuetan, Long Island deritzon irlan (hots, New York-en, Lennon hil zuten lekuan) eta bestea Ingalaterran, Liverpool-en (*The Beatles*-en sorterrian) alegia. Bata zein bestea apurka apurka doaz aurrera: E.E.B.B.-etako Ekialde kostan zehar Iparralderantza lehena eta Ingalaterrako Mendebal kostaldean zehar (Ipar Irlandatik iraganez) Iparralderantz, bigarrena. Elkargunea, Groenlandia: «Entre Cape Desolation y Cape Farewell hay un helado mar. Thule no queda lejos», 47. orri.

Hementxe dugu, hortaz, lur berrienganako gogoa berriro ere, heriotzaren eta gezurraren antidoto izango litzatekeen bidaiaria askatzailea. Amerikaren Ekialde muturra eta Europako Iparraldearen azken proiektzioa delarik, Erik Gorriak X. mendean *lurralde berdea* deitu zion hau (kontutan hartzekoa da, bestalde, lehenbiziko kolono hau gizerahile omen zelako bere herritik egotzia iritsi zela Groenlandiara) halako mundu urrun, legendario eta gonbidagarri bilakatzen da (gogoratu «37 galdera...»-n: «Zuen erresumako lurraldeen artean ba al dago Greenland edota Groenlandia deitutako parajerik?»). Eta areago Thule mitikoa, azken eskimalen bizitokia, greko eta latindar zaharren artean orduan ezagutzen zen parajerik urrunena Septentrionerantza. Inoiz zehazki kokatu gaberik, herriaren irudimenean lurralde fabuloso bihurtu zen eta bere sinboloak *erdigune*, *paradis*, *finkotasun*, *superioritate* eta *babesleku* ideiak bildu zituen, ideologia hiperboreoen derrigorrezko erreferentzia izaki.³¹

³¹ Mitolojikoki herri hiperboreoak munduko lurralde iparraldekoenetan bizi zirenak lirateke. Han eguzkia urtean behin irten eta behin izkutatuko zen, eta hango biztanleak, borroka eta auzirik gabe, zoriontsu biziko ziren mila eta milaka urtez. Ikus dezagun Juan Eduardo CIRLOT-ek guzti honetaz dioena:

«THULE- Este reino mítico deriva, en su nombre, de Tula, —nombre de la comarca suprema— que Guenón cree más antiguo que *Paradesha*. Se encuentra en muchos idiomas, desde Rusia a la América central. En sánscrito la palabra Tulá significa balanza, en relación con el signo zodiacal de libra. Pero una tradición china señala que la antigua balanza era la Osa Mayor. Esto llevaría a una identificación de Thule con el país polar, el centro por excelencia. También es llamada esta comarca «isla blanca», coincidiendo con la «montaña blanca» o símbolo del mundo y con las «islas afortunadas» de la tradición occidental. Guenón indica que la blancura, aplicada a elementos topográficos, indica siempre una alusión a un lugar paradisiaco, perdido por el hombre y al que se refieren de continuo leyendas y cuentos folklóricos. Cita los nombres de Albania, Albián, Alba Longa y se refiere asimismo al hecho de que el latín *albus* (blanco) corresponde al hebreo *Lebanah* que designa la luna. La identificación de isla y montaña es explicada por el autor citado indicando que ambas coinciden en las ideas de estabilidad, superioridad, refugio frente al medio. La isla permanece incólume en medio de la agitación oceánica, imagen del mundo exterior o

Baina, Thule-ren aipamena, legenda eta herri kontakizunetan sarri agertzeaz gain, literatura idatzian ere erabili izan da: ezin dezakegu ahantz Goetheren baladako Thuleko errege hura, maitasun leial eta fideltasunaren irudia.³²

Hauxe da, beraz, poetak Lennon-en heriotzari eskeiniriko olerkia: bere hilketaz negozioa egin zutenen arbuiapena eta kiratsa darion min-tzaera baten gaitzespena; horrekin batera, poesia berriturako asmoa eta Beatle-aren oroitzapena —merezki duten beste gauzekin batera— garbi gordeko duen Groenlandia baten ilusioa.

3. Groenlandiara bidean

«Y yo te buscaré en Groenlandia...»
ZOMBIES-en kanta batetik.

Ondorioz, bidean jarri beharra daukagu, edo beste hitzez esateko, Bernardo Atxagari segika hasi behar, bere lumarako tinta zein iturritatik isurtzen den ikusteko (EZ nabil, inolaz ere, iturri literarioei buruz! Esan nahi dudana hauxe da: zein da Bernardo Atxagaren Groenlandia?).

Bigarren atalean esan dugun ber, esentziak ziren (ohartzen gara hitza-
ren arriskuaz, baina ez dakigu nola deitu bestela) poetaren xedea, eta honen pare-parean, erakutsi nahi duen mundu egiazkoagoari dagokion hitz berri eta purifikatua. Nora jo, baina, horren bila?

«mar de las pasiones», e igualmente la montaña es el «monte de la salud», que se halla por encima de las modificaciones de la «corriente de las formas» en lo biológico (...) Las ideologías de lo «hiperbóreo» se relacionan con el mito de Thule.

HIPERBOREAS, REGIONES- Relacionadas con el polo, como centro. La doctrina de la «tradición primordial» sitúa en las regiones hiperbóreas su propio origen. De ahí que ciertas sociedades, grupos y razas hayan adscrito a esas comarcas su nacimiento. Por simbolismo de espacio, lo hiperbóreo corresponde a lo máximamente elevado en el «nivel» terreno.» in J. Eduardo Cirlot: *Diccionario de símbolos*, Madrid, Labor, 1991.

Oso bestelakoa da, tamalez, gaur egungo Thule-ren egoera: NATOk basea egin zutelarik, han bizi ziren azken eskimalak, Thames-eko nynphak bezala, aldendu egin ziren.

³² Balada honek kontaktzen du nola Thuleko erregeak, alargundurik, bere emazte zenak utzitako urrezko kopa gorde zuen betirako, andre maitearen oroimenez, heriotzaren ordua iritsi zitzaionean edalontzi hori itsasora jaurtiki zuelarik, inork ez dezan, bera joan eta gero, hortik ardorik edan.

Balada *Fausto*-n agertzen da, protagonistaren maitalearen ahotan jarria. Ikus daiteke, baita, honako liburuan:

J. Wolfgang Goethe: *Poemas*, Barcelona, Plaza y Janés, 1976. Carmen Bravo Villasantek prestatuturiko edizio elebiduna.

Beharbada, hurrengo hitzok argi piska bat emango digute *gauza primordial* direlako horien nondik norakoa zehazteko:

«Haurraren berdina horretan, uste zuen begiak itxi eta ezer ikusi gabe geldituz gero, hori nahikoa zela munduak bere edukia gal zezan: ikusi nahi ez zuen hura erabat desagertu zedin. Desiratzeak batere balio *duen garaietan biziko bagina bezala, noski*»³³

Edota

«(...) eta hogeitamar urte nahiko eta gehiegi direla adolezentziako amets guztiei —eta ez bakarrik gloriari buruzkoei— agur egiteko»³⁴

Bai, haurtzaroa da *bihar* hitza zentzuz beterik dagoeneko garaia, ametsen aldia, Hilario munduko karreristarik onena deneko unibertsoa. Ume giroko poemetan Bernardo Atxagak haurraren begirada transparentetik —Ainhoaren begi urdinak— iragazitako mundu berri bat eskuratzen digu; ez mundu idealizatu bat, ordea —hantxe dago, aurrez aurre heriotzaren gaia— baina bai umearen inozentziak preserbatutako mundu bat, non, hizkera infantilaren xarma dela medio, gauzek duintasun berezia bereganatzen duten. Ainhoak, Katyren heriotza narratzen digu («Etxekoak I (Katyren heriotza Ainhoaren ahotik)», 48. orri.), eta lehenbizi bere istorioan kokatu nahi gaitu. Horretarako bere eremu ttikia osatzen duten xehetasunak ematen dizkigu, nahasbiderik ezin egon daitekeela dakienaren ziurtasunaz:

«Nahi duzu esatea, bai, benetan nahi duzu esatea Katy zein zen, bai?, bada zuk ezagutzen duzu etxe haundi bat eta ate berdea, eta zapateria bat, eta emakume lodi lodia, beti soineko beltzarekin eta horrela, eta ez al dakizu nola dagoen bide bat dena harriz betea eta nola beste bide ttikiago bat ere badagoen, eta gero ibaia eta arrainak, eta txalupa asko, bai? ba al dakizu hori? bada hori baldin badakizu ikusiko zenuen Katy (...)»

Umeari xehetasun guzti horiek beharrezko iruditzen zaizkio —gutuna bidali nahi duen haurrari kontinentea eta planeta zehaztea beharrezko zaion bezala— mundua ordenatzeko, jakindakotzat emanez, gainera, aipatutako toki guztiak erreferentzia bakarrekoak direla, alegia, zapateria bat baizik ez dagoela, emakume lodi beltzez jantzitako bat bakarrik dagoen modu berean. Aitzitik, bere mundu txiki horretatik kanpoko gutzia

³³ *Obabakoak*, 144. orri. Azpimarra geurea da.

³⁴ *Ibid.*, 132. orri.

urruti ezezaguna da, mapa bateko izenak baino ez: «(...) ez al dakizu nola plaian itto zen, Bilboko edo Frantziako edo ez dakit nongo plaian? (...)»

Bestalde, heriotzak berak trszendentzia galtzen du Ainhoaren begietan. Berarentzat maila berean daude hildako zakurra eta «plaian itto zen mutiko hura» (zakurraren heriotzak gehiago larritzen duela esan liteke), eta pertsona nagusiak dira bereizketak ezartzen dituztenak: «(...) eta zuk igual, igual ikusi zenuen funerala, baina nik ez nuen ikusi, maistrak ez zela joan behar esan zuen, maistrak esaten du zakurrak ez direla klaseko ume ttiki hura bezala(...)».

Ainhoaren inozentziak bere ume hizkeraren injenuitatean dauka islada. Hizkuntzak, ume izateak ematen dituen lizentziei esker, arauak apurtzearen freskotasuna erdiesten du, espontaneitatearen lilura:

«(...) oso kontent jartzen zen inor ikustean, edozein, bai, edozein ikusita jartzen zen kontent, oso tuntuna zen, eta segituan astintzen zuen isatsa ras ras, isatsa astintzen zuen ras ras (...)»

Horregatixe goza dezake *brodatzen* esaten duen Ainhoak bakarrik («Etxekoak II (Ainhoa), 90. orri.) masustazko horma moreen soseguaz «udararen adar gorrietatik / eskegita dagoen arrats»ean. Ainhoa txikiarentzat dira koloreak, usainak, zaporeak; berarentzat isiltasuna, bakea eta aurretantz —etorkizunerantz— luzatzen den bidea:

«Begira egien berriro masustei,
horma moreak egiten bideari,
soseguan ixiltasuna brodatzen,
Ainhoa;
(...)»

Lerro eder eta delikatuok gainezkatzen dituen armonia inpresioak —diptongo eta bokaleen jokoak eragiten duen musikalitateaz, Jon Kortazarrek behin baino gehiagotan azpimarratu duenez³⁵— haurtzaroaren majikotasunaz hitz egiten digu, oraintsu esan bezala, «desiratzeak batere baliio duen garaia»:

«(...) hire begietako erle urdinak elikatzen
hire aho multiplikatuaaren antsiak zaintzen,
Ainhoa.
(...)»

³⁵ Ikus, besteak beste, *Laberinto*, 223. orri.

Baina metaturiko ametsen aroa iragan egingo da, ahitu, udararen adar gorrietatik —puntaren puntan, beraz— zintzilikatzen den fruitua bezala. Ezinbestean laberintora sartu beharko duen Ainhoa honek (mundua jada ez da erreferentzia zehatz eta gutxi batzutan laburbiltzen, baizik eta *gela hutsetako etxe* bihurtzen) ezin izango du, hartaraz gero, *brodatzen* esan. Ispilua eskutan orrazten ari den Ainhoa emakumeak —nagusiek, *irule panpalek*, aholkatu legez— *bordatzen* esaten ikasi beharko du, eta horrekin batera adio esan bere haurtzaroari, bere begietako erleak elikatzen zituen eztizko aldi horri.

Edonola ere, une hori iritsi artean Ainhoak bere mundu txiki-handia ibiliko du eta bere haur begiek ematen dioten forma berezian transmitituko zaigu guri paisaia hori.

«Familia III (Ainhoa se pasea)» izeneko poeman (52. orri.)³⁶ eguzkia ez da dagoeneko edozein eguzki, tximiniak ez dira edonolakoak eta kaleak ere ez ditugu ohizko berberak. Ainhoaren presentziak bazterreratu eta gainditu egiten ditu ikusmolde arruntak, are metaforizazio saio timidoak ere:

«Nadie representaría este sol sábado tarde
como un tigre con la boca llena de fuego,
ni como una bombilla grande, ni siquiera
los párvulos de la escuela, tan pequeños.
(...)»

Jean Cohen-en terminoak erabiliz³⁷ esan genezake Ainhoa ume esentzial eta absolutoa dela, umetasuna bera (ohar gaitezen hau dela Bernardo Atxagaren poemetan protagonista mailan izen propialarekin azaltzen den kriatura bakanetako bat). Ainhoak bere haurtasunaren bizia eransten dio inguruari eta mundua bera ere jolas egiten zaio. Gauzen neurria Ainhoaren munduko gauzen tamainakoa da. Horrela, eguzkiaren deskripzioa edozein umeren unibertsoa hornitzen duten elementuen bitartez eraikiko da:

«(...)»
Este sábado el sol es una bolsa, por la tarde,
con muchas campanillas y caramelos dentro;
sus rayos bisbisean en el cielo, al girar,
como los radios de una bicicleta nueva.
(...)»

³⁶ Poema honek *Etiopia*-ko bigarren zirkuluan (43. orri.) daukagun lehenengoaren bertsioa dirudi, nahiz eta diferentzia nabarmenak dauden poema bien artean: *Etiopia*-ko olerkian ez dago Ainhoaren aipamenik eta tonua ere malenkoniatsuagoa dela esango genuke.

³⁷ Ikus Jean Cohen: *Estructura del lenguaje poético*, Madrid, Gredos, 1970, 158. orri.

Eguzkia, beraz, hotsa da, zaporea, dizdira, mugimendua...

Baina areago, eguzki hau ez da edonoizkoa, larunbat arratsaldekoa baizik. Eta berezitasun honek izarraren argiak bainatzen dituen gainerako gauza guztiei eragingo die. Dena dago jai eguzki beteak blaiturik, eta, ondorenez, kaleak eta hiri guztia ere larunbateko dira:

«(...)

Y las chimeneas de las fábricas duermen
la gente charla de fútbol, la ropa blanca
flota en los tendederos de las ventanas.

(...)»

Eta arropa zurien dantza alai jendearen berrikeriaz nahasten delarik, fabriketako inaktibitatearekin kontrastatuz, halako batez poemako benetako protagonista datorkigu, kaleak eta jendeak bere begiradaz transformatzen dituen Ainhoa ttikia, bera ere gozoki bihurturik:

«(...)

(Y Ainhoa se pasea por estas dulces calles
con un vestido de vainilla y fresa)»

Umearen begiradari darizkion freskotasun eta inozentziarekin animalien bitartez datorrena bakarrik pareka daiteke. Azken hauek dira gauzei tolesturarik gabe heltzen dioten beste izakiak. Ez dugu hemen Bernardo Atxagaren lanetan animaliek duten lekuaz hitz egin behar (aurretik zenbait poematan ikusteko aukera izan dugu): sobera ezaguna da bere kontaketak aintzinako (baina *aintzina* zehaztugabea delarik) garai primordialetan kokatzeak animaliei berba egiteko ahalmena ematea ahalbidetutu diola —denok bai bait dakigu aintzina gauza guztiek hitz egiten zekitela, noski—. Berbadun animalion artetik gugana heldu dena eta merezimendu guztiz lehentasunezko aipamena behar duena, nola ez, Shola poxpolina da. Shola —«mezcla de pequinesa y fox-terrier»— ezagun zaharra da guretzat, nahiz eta, bere jabeak bezala, izen bat baino gehiago erabili izan duen. Oker ez bagaude, *La cacería*-ko Tomasa bera dugu orain bere benetako izenaz azaltzen zaigun txakur maitagarri hau.

Aztergai dugun liburuan Sholaren ahotik datozkigun hiru poemetan («Familia IV (Shola, mezcla de pequinesa y fox-terrier, habla de lo que le gustaría tener)», «Familia V (Shola habla de los días malos)» eta «Familia VI

(Shola habla sobre cómo es el mundo)»³⁸, Ainhoa protagonista zutenetan aurkitu ditugun ezaugarri berak berreturik, gure ustez, kausitzen ditugu. Shola ere ez dago problema eta bizitzaren alde ilunetatik aparte, eta berak ere badauzka bere desirak baina, Ainhoarekin gertatzen zen bezala, bere begiek inmediatez jantzen dituzte inguruko gauza guztiak. Sholari, adibidez, jendearen arreta erakartzea gustatuko litzaioke, denak berari begira edukitzea, eta horretarako sekretu handi bat izan nahi luke, «de esos que no se pueden contar / pero que se notan» («Familia IV», 53. orri.)

Sholaren koketotasun eta banitate izpiak, bere hizkerari ematen dion ikutu intelektualaz batera (esaldiak *efectivamente* edo *etcétera*z bete arazten dizkiona: azken baten zerbaitetarako balio behar idazle baten txakur izateak) sinpatiazko irribarrea ernerazten dute:

«(...)

Y que la gente dijera: No, Shola no es
lo que parece, guapa, inteligente, etcétera,
sino que tiene un secreto muy gordo,

O sea, que es misteriosa.»

«Familia IV», 53. orri.

Edonork bezalaxe, Sholak ere egun txarrak izaten ditu, esaldi nahiko sentenziosoz adierazten duenez («Hay días malos en la vida», «Familia VI», 54. orri.) Egun horietan Shola ohepean izkutatzen da, Grogok (bere jabearen beste izenatarik bat, agi denez) zein Mary Brau Brauk egiten dizkieten inbitazioei uko eginez. Shola ez da errez komenzitzen eta tinko dirau bere jarrera horretan: «me ruegan, me imploran, me lloran etcétera» (konturatu zenbat maite dituen Sholak sinonimoak), baina «Yo no digo nada, guardo silencio, efectivamente, / porque yo soy así, tengo mucha personalidad».

Halaz ere, tinkotasun honek baditu bere mugak: ez dago horrenbesteko egun txarrik okela eta arroz bete plater bati muzin egitea merezi duenik:

«(...) Pues pasa que te he preparado
un plato de carne con arroz. ¿Qué hago? ¿Lo tiro?
¡Tírar!, grito yo, ¿Estás loca o qué?
Salgo de mi escondite
Y voy a la cocina disparada;
(...)», 55. orri.

³⁸ Poema hauek aipatutako *La cacería* ipuinaren bukaeran aurkitzen ditugu, Tomasa pseudonimoaz sinaturik, eta *Poemas a cuatro patas* bere liburuaren aurrerapen gisa. Ikus Bernardo Atxaga: *La cacería*, Madrid, Ediciones Altea, 1986.

Jakingarria da, bestalde, liburuia Xola Fernández de Apesteguiari eskeinuta dagoela.

Kontraste hori berori da Shola hain pertsonaia maitagarri egiten duena, hau da, bere grabedadeari jazartzen zaion injenuitatea. Tristurak eta aldi gaiztoak (Familia VI)-ean ere konprobatuko dugunez) ez dute inoiz erabateko nagusigoa. Egun txarra ahaztuta ohepetik atera eta janari gozotara abiatzera bultzatzen duen inozentzia hori da Sholaren mintzamoldeak dituen bi alderdiek agerian uzten digutena: aipaturiko *dotoretasun* linguistiko horri hizkera infantil eta kolokialari dagozkion esamoldeak kontrajartzen zaizkio («un secreto muy gordo», 53. orri. «voy a la cocina disparada», 54. orri. adibidez, eta oro har perpaus labur eta soilek osaturiko esaldiak, errepikapenak, deskribapen sinpleak: «(...) otro sitio que está arriba del todo / y tiene muchas cosas, estrellas etcétera», 56. orri. etab.), hitz joko umoretsuei atearak zabal zabalik uzten zaizkielarik. Ainhoaren haurtasunak hizkuntza araei mihia ateratzeko eskubidea ematen zion eran, Sholaren animaliatasunak pertsona nagusiok estutzen gaituzten debeku eta mugapen linguistikoak indarrean dauden eremuaren mugaz bestaldean jartzen du txakurra. Gozaten duen hizkuntz anarkia honengatik beragatik, Sholak, hizkuntzaren endekamendua gaindituz, festa bihurtzen du berba egitea eta hitzak indar eta arnas berriaz janzen dira, ondorioztatze serio eta sakonaren itxura guztia izango zuenaren erdian batbatean eta tximista legez agertzen diren esapideak direla bide:

«(...)

Salgo de mi escondite

y voy a la cocina disparada;

toda regla tiene sus escorpiones»

Honelako jokoan bitartez, bizitzan suertatzen diren aldi larriei *errespetua galtzearen* aldeko jarrera bat aldarrikatzen da: badira egun txarrak, baina ez hainbeste, bazkari on baten kontsolamendua baldin badugu, behintzat.³⁹

Berdin agitzen da batzutan hain gaiztoa den mundu —Aquí— honekin. «Familia VI»-ean (56. orri.) Sholak munduaren deskripzioa egiten digu, jadanik beste poema baten, «37 galdera...» deritzonean, ikusi dugun *hemen / han* kontrajarpena azpimarratuz. Interesgarria da aztertzea nola txakurraren begiek antzemandako espazioa —Ainhoaren mundua bezalaxe— zenbait elementu zehatz eta jakinetan erabakitzen den, nahiz eta Sholak berak aitortzen duenez, mundua oso handia izan:

³⁹ Dena dela, ezin dugu ekidin «Hutsalak my love», *Etiopia*-ko poema hartan (88. orri.) irakurtzen genuen horretaz oroitzea: kontsolamendua dago «gezur ttipiak asma ditzakegun bitartean», baina gezurrak, azken baten. Hots, soluzio honek Shola bezalako izaki bati bakarrik balio diezaiokeela.

«El mundo es muy grande,
es bastante infinito.
(...)»

«Infinito» adjetiboari aurrejarritako adberbio harrigarri horrek munduaren handitasuna erlatibizatzen duen moduan, Sholaren esperientziak —«he viajado / en coche, en avión etcétera»— eta tokiei berak ezarritako etiketek bost lekutan laburbilduko dute munduaren luze-zabale-
ra:

- lehenbizi katuz beteriko toki atsegin bat;
- bigarrenez, urrun dagoena, Pekin, esateko;
- ondoren, jateko okela gozoa ematen dion andrea («Familia V»-ean azaltzen den berbera?) bizi den lekua: Allí;
- hor goian dagoena, «tiene muchas cosas, estrellas, etcétera»: zerrua;
- azkenik, beste toki bat: Aquí, zein arrazoi ageriko eta eztabaidaezinengatik deitzen bait da horrela: «Le llamo Aquí porque siempre estoy aquí».

Mundua osatzen duten bost lekuon zerrendari eta Sholak bakoitzari buruz emandako deskripzioari errepasso eginez, berehala ohartzen gara guztiak hiru sailetan bana ditzakegula:

—batetik, urrunekoaren ezagungabetasunean ezabatzen direnak, hau da, zerua —honi izenik ere ez zaio ematen: «otro sitio que está arriba del todo»— eta nonbait, urrun dauden leku guztien ordezkari den Pekin (Ainhoarentzat Frantziak edo Bilbok beteko luketen funtzio berekoa).

—Bestetik, leku onak, atseginak: «uno que está lleno de gatos» alde batean, eta denetan hoberena dena, bestean: lehen aipaturiko *Allí*.

—Azkenez, munduko bostgarren lekua, *Aquí*, tristura eta intolerantzia nagusi direnekoa:

«(...)»
A la gente de aquí no le gusto nada.
Un día iba por la calle y me pegaron.
Esto que pasa Aquí me pone muy triste,
(...)», 57. orri.

Mugaz honunzkaldetik mintzo zenaren moduan, Shola indarkeriazko *Hemen* honetan bizitzera kondenaturik dago —berau da-eta bere herria— *Han* hobe baten oroitzapenez eta minez bizi ere.

Dena den, aurreko poeman ikusten genuen bezala, Sholak etsipenaren aurkako antidoto mirakulutsua dauka: bere txakur bihotzaren oso-osokotasuna eta maltzurkeriarik eza, bere arrazoinketa honelako gogoeta filosofikoaz bukaerazten diona:

«(...)
Y sólo una cosa me consuela
Me consuela pensar
que nadie es croqueta en su tierra.»

Berriz ere hizkuntzak txinparta atera du, eta Sholak barre algara oparitu digu poemaren amaieran melankoliaren lekuan xamurtasuna jarriaz.

Umetaroa alde batetik, eta animaliatasuna bestetik sentimendu gardena eta beti berrien eremu baldin baziren, berauei loturiko ez-titasuna biderkatu egiten da poemaren ardatza alor bi horien ezaugarriak bere baitan biltzen dituen izaki bat denean. «Etxekoak VII (Sagarrondo bati lo kantata)», (58. orri.) izeneko poeman olerkariaren ahotsa fereka egiten da eta bere hitzak sagarrondo txikiaren loa zaindu nahi duen musika goxoa. Aurreko poemetan pertsonaien beraien mintzamoldea eta mundu ikuskera berezia aurkezten ziren artean Ainhoa eta Sholaren bidez, oraingoan poetak sagarrondo txiki —hain txiki!— -arekiko jarrera ematen zaigu aditze-ra. Arbola hauskorren nimiñotasunak hitzak berak kutsatuko bailituen, guzti guztia sagarrondotxo bezain ttipi eta delikatu bihurtzen da: onomatopeiak, hots sabaikariak, pittintasuna adierazten duten sinonimo sailak...⁴⁰ guztioz baliatzen da poeta bere laguntxoari zuzentzen dion begiradaren xamurra bertsoetara ere eramateko:

«Geldiro haziko zara mara mara,
sagarrondo xume, zipriztin, ttotto;
doi doi gizenduz sagarrondo ttipi
hogeï urtez gero egonen zara potolo⁴¹
(...)»

⁴⁰ Hauxe azpimarratzen du Pilar Muñoak, *Zurgai*-ko 90-ko abenduko alean argitaratu zuen «Bernardo Atxaga: sus poemas y otras cosas» izeneko artikuluan.

⁴¹ Interesgarria da efektu hau lortzeko Atxagak erderazko bertsoian auzentatiboaz baliatu dela, oso emaitza onarekin, nahiz eta euskal bertsoaren goxotasunera ez den ailegaten, gure ustetan. Ez dauka interes gutxiago gogoan hartzeak duela hamar bat urte autoreak poema honen itzulgarritasunaz zeukan eritzia: Ruper Ordorikaren diska baten irakurtzen genuenez (*Hautsi da Anphora*, Xoxoa, Bilbo 1981), Atxagak ezinezkotzat jotzen zuen olerki honen erderaketa. Diska horretan bertan dauden bere beste zenbait testu komentatuz egileak han idatzitakoak (umore oso pertsonalarekin) txit jakingarriak dira, batez ere orduko eta gaurko Atxagaren arteko aldeak ikusteko.

Poetaren hitzei darien emetasunak, bestalde, sagarrondotxoaren inguruan elkartzen diren gainerako basoko izakiak ere besarkatzen ditu; hauek ere, arbolaren neurriko, pertsonaia xumeen familia xumea eratzen dute:

«(...)
Zure abarrez txintxilikatuko dira
armiarmak, euritxoaren ttanttoak
zure txulotan gordeko kattagorriak
kattagorri lapur buztan handiak.
(...)»

Naturaren zikloa dela medio zuhaitzkoa irudiz aldatuz joango zaigu: *euritxuaren ttanttoen* garaia behin iraganda, udaberriak lorezko jantzien dirdira oparitutako dio — «txuriago maiatzaz sagarrondo loti / soineko berriaz printzesa irudi»— azkenez, udarekin batera, fruituen betetasunera heltzeko. Armiarma zein euri tantoen jostailu eta kattagorrien aterpe izateaz gainera sagarrondoak bere zituen oparotasuna gehituko dio edertasunari, berak ekarritako fruituak beste izakien elikagaitzat esku zabalez eskeinirik:

«(...)
Ekainean bareak zuri begira,
zure fruituak noiz jausiko ote behera,
banketea nahi dugu zure kontura
sagarrondo txintxo, sagarrondo ona.»

Bare tripazaitxoentzat sagarrondo emankorrek agindutako oturun-tzarekin «Etxekoak / familia» delako poema sorta ixten da. Saila osatzen duten zazpi poemetan hiru dira, ikusi dugun bezala, protagonistak: Ainhoa txikia, Shola, eta ezagutu berri dugun sagarrondotzkoa. Honainoko orrialdeetan nahiko garbi gelditu da, gure eritzirako, pertsonaion begiek munduaren eta bizitzaren ezaguera desberdin —kreatibo, aberats, tolesturagabe— bat transmititzen digutela, eta mundu ikuskera honek hizkera jostari, imajinatibo eta berritzaile baten duela bere espresabidea.⁴² Esan genezake «Kamamila edanez ere» edo «Barkatu, Cravan» bezalako poemetan nabari den itolarriaren orde z haize freskoaren bolada bat dakarkigutela etxekoen olerkiok. Badirudi helmuga bihurturiko Groenlandia hura,

⁴² Aparteko azterketa mereziko luke hizkera honen konstruikerak. Izan ere, aintzat hartzekoa da oso Atxagak ahots propiala, beste guztietatik diferente eta bere berea ematen diela bai Ainhoari eta bai Sholari ere. Hurrengo baten agian ausartuko gara.

gauza primordialen, eta beraz, kutsatu gabeen parajea, animalia, landare eta zuhaitzen basoan gordetzen dela, bai eta gizakiaren *baso-aroa* izan litekeen ume garaian ere.⁴³ Poemok daukaten izen amankomuna gogoan izanik, bestalde, olerkaria giro honetan gogarena sentitzen dela pentsatu ahal dugu, hur-hurreko dituela —*etxeke*, zehazki esateko— beren poemei odol berria ematen dieten izaki kutun hauek. Uste honetan sendotzen gaitu «Kantak IV (Bihotz, antzinako bihotz)» (70. orri.) deritzon poemak:

«Oroimena, nola esango nizuke? Bai, pixka bat arkaikoa da, bihotza bezala. Ez dio arrazoiari jaramon gehiegirik egiten.»⁴⁴

«Hamaika hitz Villamedianako herriaren ohoretan eta bat gehiago» ipuinaren sarreran pertsonaia batek esandako berbok poema hau komentatzen hasteko abiapuntu egokia izan daitezke. *Aintzinako* eta *lojikatik libre samarra* izateaz definitzen den Bihotz honi beroni mintzatuko zaio poeta oraingoan, eta tasun bi horiek berrikitan aztertu ditugun basoko izaki horiekiko identifikazioa iradokiko digute hasiera hasieratik. Kanturako oso aproposa egiten duen erritmo batekin —ahapaldi bakoitzeko azkenengo hitzetatik zenbait hurrengo ahapaldiaren lehenbiziko lerroan errepikatzen direlarik, ideien kateamendu eta progresioa berez bezala lortuaz— poemak identifikazio horrexetarako bidea egingo du, pausuz-pausu, tristura, bakardadea eta beldurretan barrena:

«Bihotz, buztinezko Bihotz,
Etxe tiki bat zara,
Ahula, hauskorra, lau gelatako.
(...)»

Hauskortasun hau dela-eta, Bihotza, babesgabea, apurtu egiten da izuak beraren jabe egiten direnean. Izan ere, «gauari ikara hartzen hasten da; gauetan ernetu egiten baitzaizkio galdu duen askatasunaren alde mintzatzen diren ireltxoak»⁴⁵ Eta Bihotza garrasika hasten da, negarrez, poetari berari orain desezagun zaion baina aintzina beharbada ulertu zuen hizkuntza baten. Gauean —geure buruarekin bakarrik eta inguratu ohi gaituen zarata isiltasunak ito duenean— Bihotzak bere ahotsa goratzen du, bere mintzo arkaiko eta arrazoiatik harunzkoa berreskuratuzko:

⁴³ Modaz pasaturik dagoen arren, apur bat freudiano jarri eta haurtzarora super-ego-a guztiz geureganatu gabe daukagun aldia dela gogoratu ahal dugu.

⁴⁴ *Obabakoak*, 129. orri.

⁴⁵ *Ibid.*, 163. orri.

«(...)
Zeit , Einsamen Helian,
Abens grauen flammendes,
Ez zaitut konprenitzen, oi ene Bihotz; 71. orri.

Der Tod ist ein Meister
Und du, zur Linken du,
Ez zaitut konprenitzen, oi ene Bihotz; 72. orri.

Der, des menshen Sinn,
Von zweifeln voll,
Ez zaitut konprenitzen, oi ene Bihotz.»⁴⁶

Denboraz, heriotzaz eta dudaz hitz egiten duen Bihotz hau lekuz kanpo bezala gelditzen da, bere mintzoa iraganari dagokiola dirudi:

«(...)
Bihotz, antzinako Bihotz,
Ez al zara zaharregi,
eta, ilun, eta itxu, barregarri;
(...)»

Alabaina, poetak dioen moduan, ez da dena ilun. Zaharregia omen den Bihotzaren berezko tokia bera bezain arkaikoa den —eta, ondorioz, bere hizkuntza gordetzen duen— beste leku baten bait dago: basoan, alegia. Ikusten dugu, beraz, nola «Bizitzak» olerkiko ideia bera errepikatzen zaigun orain ere: Bihotza, esaten genuen, Basoa bezala, ez da mediokritatearekin

⁴⁶ Eskerrak eman behar dizkiot Juventino Caminero irakasleari alemanerazko bertso hauek gazteleraratu egin dizkidalako; euskeraz honela lirateke, gutxi gora behera:

«Denbora, Helian bakartia
arrats nabar suzkoa»
«Heriotza maisu bat da
eta zu siniestro»
«Gizakien zentzua
dudaz betea»

Lehenengo lerroan aipatzen den Helian hori Georg Trakl-en poemetan sarri azaltzen den pertsonaia dugu eta Elis edo Sebastian bezala, «son nombres de imaginarios jóvenes que sirven a Trakl para confrontar su pureza con la corrupción del mundo que le rodea», José Miguel Mínguez-ek dioenez (ikus Georg Trakl: *Poemas 1906-1914*, Icaria, Barcelona, 1991, 116. orrialdeko oharra).

Goiko bertso horiek, begi bistakoa denez, Trakl-en olerkietako giro berberan murgiltzen gaituzte: antzeko tonua, antzeko irudiak... baina egile diferentea: dirudienez, Atxagarenak berarenak dira, eta aitortu behar dugu Iñaki Aldekoagatik izan ez balitz oraindik egongo ginatekeela bertsook poeta jermaniarraren liburuetan bilatzen, eta, jakina, ez aurkitzen.

konformatzen, eta ertzero jotzen du bere exigentzietan. Villamedianara hiriko *smog lirikotik* iheska abiatu zen pertsoanaiaren izpiritua landareenaren berdina zen, *garo eta goroldiozkoa*; bilatzen ari zen bakea, berriz, Villamedianako herrian aurkitu zuen: «han ez zegoen murmuriorik, ixiltasuna zen nagusi (...). Ez zegoen dudarik: nekazari eta artzai artean nengoan, antzinako jendearekin.»⁴⁷

Honelaxe, poema honetako Bihotza ikaratzen duten itzalen artean Garo Zuhaitzen Basoaren berdetasuna nabarmentzen da eta bere baitan biltzen duen mendeetako sosegua Bihotzarentzako deia eta aterpea da:

«(...)
Berde, zein berde dauden
Basoko garo zuhaitzak,
Zein ixil eta lasai, arratsean;
(...)»

Zeren eta, biak, funtsean, bat bera bait dira, gai berberaz eginak, lur-raren semeak: aintzinekoak. Arrazoimena baino lehenagokoak:

«(...)
Arrats, arrats hontan Baso,
Hartzazu ene Bihotza,
Buztinetik sortua da, zu bezala.»

Poetak Basoari eginiko eskari honekin aurreneko ahapaldian susmatzen genuen Basoarekiko bat egitea burutzen da. Izua eta etsipena hastapenetara itzuliaz konjuratzen dira, buztina buztinarekin elkartzen duen berrenkontru purifikatzaileaz. Horrela ulertu behar da, apika, «Uren»⁴⁸ izenekoan poemaren bukaeran pika-pika baten ahotik zetozkigun esperantza hitzok:

«(...)
ezen pika-pika batek zion bezala, geure erresuma
eraberritu egingen da, eta erabat purifikatu
barauaren bentajak dituen gorputz bat bezalaxe»

Basorako itzulera garbitzailea izango da poetari bihotzaren mintzo arkaikoa berriz ikasten lagunduko diona, hitzei aintzina zeukaten gauzak present egiteko botere majikoa bihurtuko diena: poesiaren abenturan berriz saiatzeko kaminoaren hasiera.

⁴⁷ *Obabakoak*, 153. orri.

⁴⁸ Ikus 5. oharra.

4. «Me moriré dubidubí...»

B. ATXAGAK

Ez genuke, dena den, zuzen jokatuko poetak bere bihotzaren *mamuak* uxatzeko hartzen duen beste jarrera bat gogoratuko ez bagenu. Eta jarrera hori da, hain zuzen ere, hainbat poematan edireiten dugun barre desdramatizatzailea, sensibleria errezean erortzeko arriskua ziztada batez ezeztatzen duen umore ukitua.⁴⁹

Poemas & Híbridos-en daukagun honen adibiderik nabarmenena liburuaren lehenengo zatiari amaiera ematen dion «Canciones VII (Canción tonta)» (80-83. orri.) poema da gure aburuz. Poema honetako gai nagusia, ezbairik gabe, heriotzarena da, ezinbestean ailegatu behar duen heriotza. Hala eta guztiz ere, lehenengo ahapaldia —zenbait aldaketarekin bost aldiz errepikatzen dena, kantaren lelo bezala— aski izango da autoreak arazoari ematen dion tratamenduaz jabetzeko:

«Me moriré, dubidubí
Me moriré, dubidubá
Es posible, dubidubí
Casi seguro, dubidubá
Pero. ¿quién me matará?
(...)», 80. orri.

Hasierako baieztapenak gorde lezakeen larridura ondoren txandakatzen diren *dubidubí*, *dubidubá* festiboek desegiten dute. Nahigabeen poema kanta bilakatzen zaigu ezpainetan, nahiko kanta *martxosoa*, gainera, bertsoen metro laburrari eta lelo ahapaldiko bertsoak erdibitzen dituen etenari esker. Erritmo arin eta markatu honi lehen esandako hots-hitzen —*dubidubí*, *dubidubá*— ozentasuna eta bertsolerroen amaieran kausitzen ditugun errima asonante zein kontsonanteen efekto musikala gehitzen zaizkio. Horrela batbatean geure burua harrapatzen dugu hilko garela alaikiro eta patxadaz kantatzen eta, deskuidatuz gero, erritmoa oinarekin markatzen eta guzti. Giro honetan gaudelarik ez da batere harrigarria, noski, ondorengo bertso guztietan *¿quién me matará?* arazoari inguruka aritzea, eta are heriotzaren nolako horretaz morbositatez gozatzea, umore beltzaren leze-zulotan beldur gabe barneratuz.

⁴⁹ Ez dugu hona aldatuko bost mila aldiz gutxienez erabilia izan den aipu bat, non Bernardo Atxagak Roland Barthes-ekin honetaz konpartitzen duen ikuspuntua jasotzen den. Irakurri nahi duenarentzat badago *Laberinto*-n (216. orri.), *El Urogallo*-n (ikus 18. oharra), *Zurgai*-n (ikus 18. oharra), Jon Kortazarren *Literatura vasca siglo XX*-n, Donostia, Etor, 1990, 163. orri., etab. etab.

Baina aurrera baino lehen komenigarria da estraineko ahapaldi horretantxe daukagun ñabardura bati erreparatzea: lehen esaten genuen poema heriotzaren ezinbestekotasunetik abiatzen zela; irudi luke poetak egia horrekin bizitzea eta halaxe onartzea erabaki duela, eta etorri behar duen heriotzaren noizkoaren gainean burutazio jostalariei umoreaz ekitea. Haatik, aurreneko estrofa honetatik bertatik poetak esperantzazko leku bat uzten dio dudari. Atsegina da pentsatzea —Bagdadeko morroiak bezala— badagoela aukerarik heriotzaren aurrean. Horregatik *me moriré-ari es muy posible, casi seguro* itxaropentsuak darraizkio, fatalitatearen tartari zati bat lapurtu nahirik.

Gauzak horrela, poeta bere balizko borreroen —zenbat aldiz irudi hau Atxagaren lanetan!— zerrenda errepasatzen hasten zaigu. Zenbakiak beren abstraktotasun hotza galdu eta nortasun eta aurpegidun izaki bihurtzen dira: otzan itxurakoak batzu, beldurgarriak beste batzu, baina den-denak ustegabeko hiltzaile potentzialak:

«(...)
Quizá me mate
el terrible Uno,
O su hermanito,
El pequeño Dos;
Probabilidades
Tienen el Tres
El Cuatro y el Cinco,
Y también el Seis.
Pero en Noviembre
Mi favorito
Es el Siete
de la suerte.
(...)»

Zenbakiaren karakterizazio honetan berehala igartzen dugu, bere arbitrariotasun imajinatiboan, Atxagak bere poemei inoiz aitortu izan dien ikutu dadaista⁵⁰:

⁵⁰ Irakur, kasurako, 18. oharrean aipatzen den *El Urogallo*ko elkarrizketa. Ez genuke, hala ere, egia osoa esango, «Poema Polaroid»-en tartekatzen ziren J. E. Cirlot-en bertsoek ideia hori sujeritu digutela aitortuko ez bagenu.

«(..)
El Ocho, tan amarillo
Puede ser él mi asesino,
O el Nueve lluvioso
Si tiene buen tino.
(...)», 81. orri.

Bat-etik Hamalau-erainoko tartea besarkatzen duen poemaren lehen parte honetan poetak gogoetatan ihardun du Azken Eguna izan daitekeenaren fetxari buruz, behin baino gehiagotan lehen aipaturiko umore beltzari amore emanaz («Y habrá una noche / Entre el Diez y el Once / Que de paseo / Quizá me lleve»). *Hamabostetik* aurrera, ostera, gauzak aldatu egingo dira: poetak ez dio orain arteko indiferentziari eutsiko, eta argi eta garbi adieraziko digu ez duela hiltzeko gogorik, behar izanez gero, usai ziniko xamarreko arrazoiak argudiatuz:

«(...)
No quiero morir
El día Quince,
ni tampoco el Dieciséis,
Y el Diecisiete
A decir verdad
Me viene bastante mal.
Y el Dieciocho lo mismo
Por una cuestión
Sentimental.
El Diecinueve
No sería natural,
El Veinte suena fatal,
Del Veintiuno
Y del Veintidós
Prefiero no hablar.
(...)», 82. orri.

Baina poeta ez da hor gelditzen, eta beste pausu bat ematen du: problema ez da bakarrik ez duela hil nahi, baizik eta Bagdadeko morroia legez —lehen aurreratzen genuen— Heriotzari berari desafio egitera auzartzen dela.

«Azken hitzaren bila»-ko kontalariari ez zitzaion gustatzen «Bagdadeko morroia» ipuinean antzematen zen fatalitatea. Ez eta Henry Bengoari ere. Biek beste bidea, patuaren aurka borrokatzearena alegia, nahia-go izan zuten.

Hementxe bezalaxe:

«(...)
El Veintitrés
Saldré a la calle,
El Veinticuatro
Estaré en Bagdag;
El Veinticinco
Me iré a Ispahan
Tranquilamente;
Encuéntrame si puedes!
El Veintiséis
Y el Veintisiete
Comeré manzanas;
Envenénalas si te atreves!
El Veintiocho
Iré a nadar (82. orri.)

El Veintinueve
Flotará tan ricamente
Si de los remolinos
Sacar provecho sabes.
(...)», 83. orri.

Baina hemengo poetak, bizitzaz «Azken hitzaren bila»-ko protagonistak baino gehiago dakielako beharbada, edota gogoan duelako Henry Bengoak ahaztu ez zuena, hots, Heriotza engainatzea agian ametsetako kontua dela, bideak baduela bukaera ezagutzera behartuta dago:

«(...)
El Treinta por ser par,
el Treintauno porque no lo es,
Los dos son criminales
Profesionales,
Habitan en las salas
Terminales
De los hospitales;
Sabén mucho de finales.»

Hilearen —bizitzaren— azken egunak, bere momentuari pazientziaz itxaroten dion Hogeitamar edo Hogeitamaika siniestro honek, ordura arteko guztia ihesa eta borroka baizik ez dela adierazten du, Heriotzarekin jokatzen dugun partida bat, trebe izanez gero luza dezakeguna —eta are entretenigarri egin ere— baina aldez aurretik irabaztun jakina daukana, bere

absurdotasunak berak ezin pisutsuago bihurtzen duen arrazoi bategatik: «El Treinta por ser par / El treintauno porque no lo es».

Hemen hitz egiten duena ez da poeta injenuo bat, ez eta poeta iheslari bat. Hemen duguna finitu beharraren laztasunaren jakinaren gainean dagoen gizakia da, baina patuari —laranjarekin jaten denari ez, besteari— ahal bezainbeste barre egitea erabaki duena, bidearen amaieran zai dagoen Heriotzari umorezko kanta bat egin diona, nahiz eta gure irribarrea, lehen ahapaldia irakurtzean zabala, ezabaturik dagoen, edo behintzat halako mi-kaztasun batek desitxuraturik, azkenekora ailegatzean.

Edonola ere, errealitateari begirada berriarekin heltzea, ohiturak eta topikoak kamustutako gorputz hau baraupean jartzea, hizkuntzaren pirueta batez etorri da berriro ere: poesiak poesia izaten segi dezan batzutan *dubidubí, dubidubá* esaten jakin behar da.

6. Ondorioak

Bukatutzat eman dugu gure ibilaldia eta, hortaz, egindako bidean ikusitakoen errekapitulazioa egitea dagokigu orain.

Lehen lehenik antzematen genuena zen nola Bernardo Atxagaren lanetan hitza eta beronek adierazten duen munduaren arteko erlazio zuzena elemento iraunkor legez azaltzen zen: hizkerak munduen gorputzura edo janzkera izango lirateke eta unibertsoak berbalizatzen zituzten hiztegiak unibertso horien arabekoak izango ziren, eta alderantziz. Autorearen kripturak, beraz, beren mintzaeren bitartez definitzen ziren maiz eta han agertutako gabezia eta hutsuneak beren bizitzetako zulo / mutilazio / limitazioen tradukzioa izango ziren.

Esaten genuen halaber gure irakurkerak *Etiopia*-ko konklusioan zuela partiera: han adierazten zenez, poesiak ez zeukan aurrera egiterik, bate-tik esan zitezkeen gauza guztiak aspaldidanik omen zeudelako idatzirik, eta bestetik, tresna bera, hizkuntza, bere erabilpen poetikoa galerazten zuen prostituzio baten biktima zelako. Hitzenganako errespetua galdua zegoen eta berba zikinduen uholdearen aurrean isiltasunak zirudien jarre-ra duin bakarra.

Baina aukera posible honetaz aparte —eta berau baztertu gabe— autoreak poesiari errenuntzia egiten ez zion beste bide bat ere hautatzen zuela ikusten genuen. Iruditzen zitzaigun lehendabizi poeta ez zela aurrean zeukan errealitate mediokre eta arruntarekin konformatzen, ez eta onartzen harekin ondo ezkontzen zen hitz txiro eta motxa; bazegoela, ho-

rrekin bat, zerbait gehiagorako gogoia, antzarren hegadek bakarrik gida zezaketen munduaren irakurketa berrirako aspirazioa. Poeta honek ere, «Azken hitzaren bila»-ko osaba pikaroaren moduan, ez zuela etsi nahi eta bere gisako *palmondo piztuak* bilatu nahi zituela, «bera baino mundu arruntago batek eskaintzen zion bizimoduaren aurka»⁵¹

Zerbait gehiago horri —gauzen muina, esentzia?, berba purifikatua?— Groenlandia deitzen genion.

Hurrengo pausua, beraz, Groenlandia hori zehaztean zetzan. Zer zen Groenlandia? Zer izkututzen zigun lurralde berde horrek? Bada, hara hurbildu eta aurkitzen genituenak umeak, animaliak, landare eta zuhaitzak ziren: hauexek ziren beren begirada gardenarekin munduaren koardoa kolore berriez pintatzen zutenak, gauzei beren perfil aspaldi ezabatutak itzultzen zizkietenak. Izan ere, hizkuntzak *krak!* egin beharra zeukan errealitatea berpiztu eta esna zedin, eta izaki primordial hauek behar bes-
teko inozentzia zeukatzen hizkuntzari bere ohizko traje estu, oihal gogortuzkoa erantzi erazteko, eta ele egitea jokia dela ez ahazteko.

Basoa zen, orduan, poetaren eztarria ur berriaz freskatuko zuen iturria gordetzen zuena, ur berriaz eta hala ere betierekoaz, Artzek esango lukeenez, zeren eta gogoratu behar dugu Basoa Bihotza bezain arkaikoa dela, eta horregatik zaiola euskarri poetari: hastapenetako garai zaharren memoria —gauzen jatorrizko integritatea— bere barruan zaintzen duelako.

Baina Groenlandiara umorearen bitartez ere ingura gintezkeen, larridura erlatibizatzen zuen hizkuntza *desobediente* eta *irrespetuoso* baten eskutik, *Etiopia*-ko ironia garratzaren ordez beranduagoko poemen («Familia IV, V, VI», «Canciones VIII»...) irribarre serenoa jarriaz.

Edozein modutan, ez genuen ukatzen guzti honen atzean artean sumatzen zen tristezia zaporea; ez genuen ukatzen hor dirautela beldurrak, bakardadeak eta heriotzak, Basoak eta barreak ez dituztela irudi fantasmalak aienatzen, nahiz eta une batez uxatu. Izan ere, poetak badaki *beste alde* horretara nahibeste inkursio bizkorgarri eginagatik ere trikuaren belardia eta gure errepidearen artean badagoela *muga* bat, gure denbora eta trikua-rena bereizten dituen. Dena den, bidaia labur horiek noizbehinka poema bat idazteko adina emango diote olerkariari: besterik ez bada ere, honek hangoaren berri emateko, hangoaren memoria gal ez dadin idatziko ditu bere poemak. Apika horregatik iritsiko zaigu bere ahotsa era pertsonal eta zuzenago baten orain, olerkietatik mintzo zaiguna istorio zaharrak kontatu —edo oroiterazi— nahi dizkigun poeta delako.

⁵¹ *Obabakoak*, 275. orri.

Sarrionandiaren aipu batekin hasten ginen, eta horrelako babesak ematen digun ausardian bihotz harturik bere hitzez baliatuko gara amaitzeko ere. Beharbada ez da zilegi izango Joseba Irazuri zuzendutako testu bat hona ekartzea, baina esandakoak aintzat hartuta, begitantzen zait —niri, ez guri— Sarrionandiak dioenak Bernardo Atxagarentzat ere balio dezakeela. Nik neuk, behintzat, antz handiak aurkitzen dizkiet bioi honi dagokionez:


«Aberrigabea, belaunak azaldu zitueneko lekuetara ez da egundo itzuliko, nahinon bizi delarik arrotz bizi da, oroimenez eta perfekzio gogoz.

Bere baitan daraman herrialdea inguruan adierazten zaion probintzia baino ederragoa eta duintsuagoa da.

Horregatik bizi da errorik gabe eta konformitaterik gabe, aide legez eta hutsune gisa besterik gorpuzten ez den beste mundu bat mundurako asmatzen»⁵²

Deustuan, 1991.eko irailaren 19an

⁵² Joseba Sarrionandia: *Ez gara gure baitakoak*, Lizarra, Pamiela, 1987, 86.orri.





RICHARD WILBUR: AHOTS KLASIKOIA IZPIRITU MODERNOAN

IBARROLA, AITOR

1987AN RICHARD WILBUR ESTATU BATUETAKO OLERKARI Laureatu izendatu zutenean, asko izan ginen poztu ginenak ikustean kritika eta literaturazaltzaileek ez zutela galdu erabat zentru estetikoa euren eritzietan. Nahiz eta azken hiru hamarkadetan New York City-ko olerkari eta itzultzaile honek lekua izan egindako olerkari-antologia guztietan, nabaria da gaurrengungo autore gehienek bide desberdinetatik eraman dituztela euren bertsoak, erabateko aldaketa eraginez irakurleen gustuetan. Hasiera batean, Wilbur irakaslea bere belau-naldiko olerkari guztiengandik —Ezra Pound eta T.S.Eliotengandik hasita— bereizten da, beste askok erabili duten «artista alienatu»aren mozorroa ez hartzeagatik. Maiz, bere karrera eta jaioterriaren bizitza ildo beretik joan dira, nahiz eta egia izan, ez duela inoiz bere kontzientzia ixildu kritikatu behar zuela uste izan duenean. Bere hitzetan:

«Ustelkeria arriskua nabaritzen da, artista alienatu izan beharrean hiritar-olerkari bilakatzen zarenean, baina nik beharrezko arriskua deritzot komunitate sentimendutik edo komunitate izateko itxaropenetik ez bada sortzen, olerkia antzu bihurtzen dela uste dut eta.

Sentimendu honetan, Wilbur mende hasierako Robert Frost eta Edwin A.Robinson olerkariengandik hurbilago aurkitzen da bere garaikideengandik

baino. Frost-en kasuan bezala, Wilbur-en paisaiek, haren karrera artistikoa eta irakasle lan osoa garatu duen New England-eko kolore eta soinuak erakusten dituzte. Are gehiago, haren olerki askotan gaurregungo olerkigintza-ren aita den Walt Whitman-engandik jaso du Richard Wilbur-ek izpiritua zabalduz jende kopuru susmagaitzak besarkatzeko ahalmena.

Hau honela izanik, Wilbur-en olerkiak bereiztu eta lehenengo mailakoak izatera bultzatzen duena haren formen oreka eta perfektioa da. Kanon poetikoak, erretorika zaharkitu eta formalismo arruntekin amaitzeko borrokatu duen garaian, Wilbur-ek ausardiaz jokatu du, ahapaldi doi eta guztiz zehazturiko patroir eritmiko eta metrikoak **vers libre**aren forma irrealak bezain eraginkorrak direla frogatzen saiatuz. Bere estiloaren disziplinari eta baliabide estilistikoak goreneraino aprobetxatzea lortzen duen lengoaiaren erabilkera sofistikatuari zor dizkio tentsio gehien duten esaldiak. Bere lanei buruzko artikulua batean haxe argitzen du: «Olerkigintzarekiko nire jarrera, bateren bat izatekotan, bere baitan funtzionatzen duten errekurtsu guztiez osatua izan behar lukeelakoa da.» Batzutan, kontzepzio honekin, haren olerkiak egiazko laberintoak bihurtzen dira, zeinetan irakurleak behin baino gehiagotan bidea galtzen duen irteera gorena aurkitu baino lehen. Zailtasun kalkulatu honek, kritikiko batzurenagan haren olerkigintza, korapilotsua izanik, mugatuegia eta gogaikarriegia izan daitekeenaren ustea sortu du. Dena dela, ardo goxoak bezalaxe, neurri egokian gozatzeko, Wilbur irakaslearen olerkiek nektare guztiak dastatzen ohiturik dagoen ahosapaia eskatzen dute. Haren poemak konplexuak dira gauzen esperientzia konplexua delako, eta hauek ondo ulertzeko, egokiak izan behar dute somatzen dituzten zentzu eta ordenatzen dituzten adimenaren arteko erlazioek. Haren lerroek zehaztasun eta kontrol maila haundia erakusten dute, hark defendatzen duenez «mugetan dago indarra; botila batean atxilotuta egotetik datorkio poterea jeinuari.» Dena dela, ez litzateke egokia izango, Wilbur-ek iraganetik jarauntsitako arauak mantso bereganatzen dituen olerkaritza hartzea; alderantziz, bere garaipena paradigma guztiz desberdin batetik egiten duen arauon berrulerpenean datza.

Haren trebetasunen artean, olerkien seinalerik nabarienei iratxeki behar izatekotan, haren emankortasuna eta metaforak erabiltzeko jariora aipatuko genituzke, zeini esker bi Pulitzer (1957an *Things of This World* hirugarren olerki bilduma eta 1989an *New and Collected Poems* olerkiei esker) eta beste garrantzi handiko sariak lortu izan baititu. Gaur egun ez da erreza errealitatea azaltzerakoan, lengoaiak ezartzen dizkigun zailtasunak kontutan hartuz, geure begi eta belarri aurrean «errealitatea era errealagoan»

(Wallace Stevens) aurkitzea. Wilbur-en metaforaren aberastasuna, argi da-goenez, irudimen kinetikotik eratortzen da. Seinale poetikoaren bidez bakarririk da posible, askotan ohartezinak edo baztergarriak diren materialeekin gogor lan eginez, hauen ordena eta zentrua lortzea. Aristotelesek zioen bezala «metafora onak ezberdintasunean dagoen antzekotasunaren oharmen intuikorra eskatzen du.» Eta hain zuzen ere, hau da R. Wilbur-en olerkien helbururik nabarmenena; batzutan, adieraztezina eta beste askotan kontraesankorra den errealitatean proiektatzen duen ordenean mamitzen da bere interesa. Haren poemaren «A World without Objects Is a Sensible Emptiness» barne dauden «izpirituaren gamelu garaiak» adierazgarri egokiak ditugu nola, metafora batez baliatuz, posible den ukiezina besarkatzen:

O connoisseurs of thirst, Beasts of my soul who long to learn to drink
Of pure mirage, those prosperous islands are accurst That shimmer on the
brink Of absence; auras, lustres And all shinings need to be shaped and
borne.

Pound edo Stevens-entzat bezala, Wilbur-entzat olerkigintzaren maila gorenak dizdirarekin argitzen gaitu; haiek gabe ez litzateke gizakia-entzat salbazio itxaropen aztarnarik ere izango. Maizegi koherentzia galtzen duen munduari zentzu fresku eta orekatua ematea da gaia bere kasuan, eta ez sasi-erlijioa sortzea —gudari lanetan II. Munduko Guduan izandako esperientziak zerikusi handia du adierazitako sentimenduekin—. Arrazoion-gatik, berarentzat, beste era batera jasanezinezkoak liratekeen gauzei posible diegu begiratzea metaforaren bidez. Honela Wilbur eta irakurlearentzat lengoai metaforikoa aterpe bihurtzen da, eta babes honetatik zehaztasun eta objetibitate maila haundi batez inguratzen gaituen errealitate konplexua aurki dezakete; baina, honek ez du inolaz ere ekarriko bere olerkien tenperatura lirikoaren hozdura.

Ahapaldi bakoitzetik azaleratutako ohigabeko zabaltasun sentibera eta grinatsua argi geratzen da, aipamen labur honetarako *Ceremony and Other Poems* (1950) eta *Things of This World* (1956) bildumetatik aukeratutako olerkiotan. Aurretik aipatu dugunez, giza-adimenaren funtzioak sarri jartzen dira proban konposaketa hauetan, azken helburua erabat ezberdina dela emanaz, burua argitu baino bihotza ukizetik hurbilago. Hiru kasuetan olerkiak, bere trebetasuna erabiliz, denontzat ezagunak zaizkigun gauza edo ezagupenak, errealitatearen geure esperientziaren parabola argiak bihurtzen ditu. Haren olerkietan leku aproposa aurkitzen duten elementuak hain desberdinak izateak edozein maisulanetan agertzen den batasunerako joera indartzen du. Richard Wilbur-ek ez du inoiz ukatu

bere maisutasunaren zati handia Inglaterrako XVII.eko olerkari metafisikoengandik jaso dela; hauek, gizakien bihotzarentzat paradójikoa dena, erreal eta hunkigarriena izatea lortu zuten bere mutur-puntuko **conceitak** zirela medio. Goian aipatutako artikuluan, Wilbur-ek zera defendatzen du:

«Nire belaunaldiko poeta amerikar gehienok, XVII.eko metafisikoak eta John Crowe Ransom bezalako ironiaren maisu kontenporaneoak mi-resten ikasi genuen. Gure irakasle eta garai hartan irakurtzen genituen kritikoez bultzatzen gintuzten sentitzera irudi inkongruente, ideia kontraesankor eta norabide desberdinen sentimenduak konbinatzen dituen poesia dela garrantzitsu eta etsigarriena.»

Eta egia esanez, beronen olerkien irakurketak behin eta berriz eramaten gaitu John Donne eta Andrew Marvell bezalako autore ospetsuen joku liguistikotara. Haiek izan ziren lehenengoak, lengoia erabiltzerakoan trebetasun ezezaguna erakutsiz irudi oso desberdinak jokoan jarri zituztenak, era susmaezinaren bitartez sentikorraren eta intelektualaren nahasteari hurbilduz. Hemen itzuliriko «Mind» olerkiaren lehenengo laurdena da, dudarik gabe, errealitate osora hurbiltzen gaituen hutsunean egindako jausi lirikoa, deskribatutako gauzen letraz letrako edozein definizio saiaketa gainditzen duen lengoai metaforikoaren zorrotasun eta zehaztasunari esker. Begi somatzaile zorrotzak eta soinu apropos eta organikoekin aurkezten zaizkigun kontzeptuak janzteko gai den belarriak, indarrak batzen dituzte, mundu kaotikoa menperatzea lortu arte. Kontrol eta argikusmena dituen momentu labur honetara iristeko egindako borroka neketsua da; baina azken emaitza ikusirik, merezi du ahalegina egiteak.

Mind in its purest play is like some bat
That beats about in caverns all alone,
Contriving by a kind of senseless wit
Not to conclude against the wall of stone.

Dirudienez, zer ikusi gutxi dute elkarrekin gizakien buru konplexuak eta kobazuloan hegaldatzen dagoen saguzahar ilunak. Baina hau honela izanik, olerkiaren bertsoetan sartzen garen neurrian, azkenean, ia hobe zina den batasunean elkartzen dira gure barnean sorturiko kidetasun ikustezinak.

Amaitzeko, bere olerkigintzaren alde tematikoari dagokionez, R. Wilbur ez da inoiz mugatu gure esperientziaren alor konkretu batzutara. Beti apal izan eta inguratzen gaituen unibertsoa ezagutzeko ditugun mugak kontutan hartu arren, bere olerkigintzan dena ikusten du, txikienetatik

gure izatearen galdera sakonetaraino, gauza trajikoenetik bizipen barregarrietaraino. Honegatik, aldioro —askotan nahigabe—, gizakumeak jasotzen dituen estimuluen bonbardaketaren islada zehatza izaten saiatzen diren benetako bildumak eta zerrendak aurkitzen ditu sarritan irakurleak haren olerkietan. Bere bildumetan zabaltzen den neurrigabeko gai aukerak posible egiten diote, gainera, mota guztietako doinu eta erre-gistroekin lan egitea, gai bakoitzaren beharren arabera. Kanpokaldeko errealitatearen aberastasuna eta ugaritasuna atxakia egokia da errealitatearen perspektiba zalantzarri eta osagabea eskaintzeko, batez ere, olerki bakoitza egoera oso berezi batetik sortuz «guztiz autonomia» dela kontutan hartuz. Dena dela nahiz eta bere lanak gai barietate sinesgaitza ukitu, argi dago haietariko batzuk maiztasun nabarian agertzen direla; autoreak hauekiko joera argia erakutsiz. Hauen artean, **a fortiori** nabarmendu behar dugu erlazio egokiena bilaketarena, mundu ukigarri eta izpirituaren intuizioen artean. Halan edo holan, erromantikoengandik hasita, olerkigintza moderno osoan agertzen den irreal eta irudikorren arteko mugarekiko interesak R. Wilbur-en olerki guztiak zeharkatzen ditu, bere gogarteen azken gunea bihurtu arte.

Zentzu honetan, Wilbur, Wallace Stevens bezala, olerkari modernuaren eredu bezala agertzen zaigu, beti borrokan gizakumeak distorsionaturiko, eta ideia multzo eta ñabardurarik gabeko errealitatea berreskuratzeke prest. Berarentzat, geure izpirituak ere garatzen den munduan ainguratuta jarraitu behar du eta pekatuak haundiena mundua baztertzea edo erabat bestelakotzea izango litzateke. Wilbur-ek dioenez, «olerkigintzak ideiak abstrakzioetik berreskuratzen ditu sensibilitatean murgilduz; pertsona eta gauzetan isladatzen ditu, eta sentimendu mota guztiz inguratu; guzti honekin, edozein ideiak egoera modernoenean agerturiko gizatasunarekin elkartzeko duen gaitasuna egiaztatu nahi du.» Guzti hau ikusita, haren irudimenaren sortze-ahalmena baztertu gabe, haren olerkiak gure bizitzaren eguneroko gaiekin lotuta egongo direla beti argi dago.

Seguraski, Wilbur irakaslea haserretuko litzateke bere ezaugarriak bikainenak pasarte gutxi hauetan ikustean. Eta egia esan, arazoak izango lituzke horretarako, maisulanaren haunditasunak ezin dira inolaz ere parafraseatu eta. Ohar labur hauek eta ondorengo hiru olerkien itzulpenek balio dezatela bederen irakurle berriak animatzeko XX. mendeko iparramerikako olerkigintzaren izen ohoretsuarengana hurbiltzeko.

NB. Olerkien itzulpen lanetan Aristondoko Iñaki eta Landareko José Mariren laguntza baliotsua izan dut. Nire esker beroenak.

«Adimena»

*Adimena bere berariazko ariketan, harpeetan bakardadean
hegaldaka dabilen saguzaharraren gisakoa da,
harrizko hormaren kontra ez azkentzeko
zentzurik gabeko ibilbide xotiletan barna abiatuz.*

*Zabunka ibili edota mihatzen aritzea ez du beharrezko
izkutuki ezagutzen bait ditu bertan diren oztopoak,
eta hala, itzul eta zintzilika, murgil eta igo daiteke
airerik ilunenean zehar ibilbide bikainetan.*

*Eta ez al da perfektua parekatze hau?
Adimena saguzaharraren gisakoa da. Hain zuzen. Halabaina
endelgamenduaren aritze zorionekoenean
huts egite dohatsu batek harpea zuzen dezake.*

«Malabarista»

*Pilotak botea ematen du, baina gero eta gutxiago. Ez da
gauza alaitsua, bere itzulikortasun propioa gaitzesten du.
Erortzea du atsegin, eta Lurra era berean
erortzen da izarretatik gure bihotzetan,
bertan errotu eta ahanzten da.
Zeru urdin koloreko malabaristaren beharra dago, bost
pilota gorrirekin*

*gure grabitatetik aska gaitzan. Guiiii, pilotak airean
hara hona itzulika doaz, bere esku itzulbiratsuetan biraka,
arintasunaren bideak ikasten, erpuruetan bazkatzen diren
esferak bilakatur,
eta bertan beraien ibilbideei atxikitzen,
zeru txiki bat haren belarri inguruan kulunkatzen.*

*Baina errezagoa da ezerezetik zerua sortzea
lurraz birjabetzea baino, eta tente eta soilik
mundu zurrumbilo honetan, keinu prestu eta sendoz
atzera biltzen du zeru hori,
pilotaz pilota bereganatuz,
eta dena erratz, plater eta mahai bategatik ordezkutzen du.*

*Oi! orain mahaia bere behatz lodiaren gainean birabiraka
dabil, erratzak
bere sudur gainean gordetzen du oreka, eta platera
erratz muturrean dantzatzen da! Arraioa! nolako ikuskizuna,
garraisi egiten dugu:
mutilttoak lurra ostikoz jotzen dute, eta neskattoak
txilioka ari dira, eta dunbalak zapart egiten du,
eta dena erortzen da, eta berak diosala egin eta adio esaten
du.*


*Eta malabarista orain nekaturik baldin badago, erratza
berriro
hauts gainean badatza, mahaia berriro
eguneroko iluntasunean barna erortzen bada, eta platerak
mahai gainean irauten badu ere,
beretzat opatuko dizkiogu geure txalo zalapartatsiak
zeren behingoz munduaren pisuari garaitu bait zaio.*

«Eta hala ere, Hiritar Txolarre»

*Eta hala ere, Hiritar Txolarre, naturaren kontra
deritzazun sai horri, utz iezaiozu berriro airean
bulego ustelaren gainetik hegaldatzen, utz iezaiozu
bere haragi-usteleko zama gora jasotzen, eta ortzearen
gailurrik garaienean eraka egoten. Orduan zeru-goietan
hegazti ederragorik ez dela ikusiko duzu,
ezta hegal zabal eta mantsoagorik, ezta hegaldi arretatsu-
agorik ere;
berak natura bizkar gainean darاما, izugarriri libre denak.
buru soila duenak. Barka iezaiozu, zuhaitz iladen artean
oldartzen zaren horrek, zeren bera baita
heriotza irensten duena, aldakortasunari barre egiten diona,
gauzei bukaera emateko bihotza duena, eta natura berriz-
tatzen duena*

*Noez oroitzen, bihotz hobengabeori, saia zaitez ahazten
nola haren zerrak zoramenezko ordu luzez
garrastu zituen bere karraskada zoliaz txorien kantuek,
eta bere mailuaren astinaldiak egun osoz jendearen belarriak*

*hertsi zituela. Ahantz ezazu hiriak korala bailirean
gilapean
eta landa-zelaiak ilunpeko osinetan ikustea
eraman ahal izan zuela. Aitzitik saia zaitez sentitzen
zein altu eta asperturik egongo zen bere mundu bakarra,
eta beste guztiena, kulunkatzen zuen ur-azalean.
barka iezaiozu heroiari, jakin zenekienarekin
zoriontsu hilko zinen horrek; hura Ararat mendiraino
urbiziari jarraiki zitzaion. Gizonak oro dira Noeren seme.*







JOHANNES JESUS SALBAGILE

Gabriel Arestiren *Maldan beheraz* (I. partea)

GARAI, KOLDO JULE

Bittor URAGARi

«Eldu nintzan: ezteustazu ichadon.»

AXULAR

THE BURIAL OF THE DEAD

*April is the cruelest month, breeding
Lilacs out of the dead land, mixing
Memory and desire, stirring
Dull roots with spring rain.
Winter kept us warm, covering
Earth in forgetfull snow, feeding
A little life with dried tubers.
Summer surprised us, comming over the Starnbergersee
With a shower of rain; we stopped in the colonnade,
And went on in sunlight, into the Hofgarten,
And drank coffee, and talked for an hour.
Bin gar keine Russin, stamm'aus Litauen, echt deutsch.
And when we were children, staying at the arch-duke's,
My cousin's, he took me out on a sled,
And I was frightened. He said, Marie,*

*Marie, hold on tight. And down we went.
In the mountains, there you feel free.
I read, much of the night, and go south in the winter.*¹

(T.S. Eliot «The Waste Land», 1922, in *Collected Poems 1909-1935*)

0) OHAR MODURA

Luze lehendabizi aritu ginenetik eta gora. Eta astun. Orain dela pare bat urte klaserako jaio zen lantto hau, eskutan darabilzuna, hasiera batean Bittor Uraga literatura irakasleak manatuz zegoen egitasmotan; rirrau baten ikusi genuen Bittorrek zuhurki seinalaturiko punturantz zihoan bidea. Eta astun. Baina dudan ezintasuna, Werfell kahieren aurrean, argi edo nekusan ustea hiztaratzearena da. Eta latz. Azaldu ere bagenuen klasearen erdira, ulertu gitxi kideek ostera. Esanikoa eta zenbait ohar bateratu eta zirriborro bat genuen. Honekin jo gero, Mirceaz beterik, Bergarako Euskal Kultur Departamendura; bibliografian izan genuen aholkulari Xabier Pardo eta bideratu ninduen Jerardo Elortzak, beronen bidetik etorri baitzitzaidan, besteak beste, Iñaki Aldekoaren lan borobil argitaratugabea. Eta guk irakuri ahala geure aurkikuntza zelakoaren uste ustela eroriz zertorkigun. Eta aparkatu nuen *Maldan Behera*. Eta triste. Nola, bada, ez ditugu aipatuko Enseiukarreango kideak? nola ez dut,

¹ *Apirila da hilarik krudelena, lur
Hileko lilak hazten, oroimena eta desira
Nabasten, sustrai uherrak
Udaberriko euriez eragiten.
Neguak berotan mantendu ginduen, lurra
Elur abanzkorrez estaltzen; bizitza apurra
Tuberkulu eiharrez elikatzen.
Udak ustekabeen hatzeman ginduen, Starnbergersee gainean
Euri zaparrada batekin ailegatzen; arkupetan geratu ginen
Eta gero eguzkiaren argia jarraitu genuen, Hofgarteraino,
Eta kafea hartu eta solasean aritu ginen ordu betez.
Bin gar Keine Russin, stamm aus Litauen, echt deutsch,
Eta haur ginela, artxidukearenean geundela,
Ene lehengusuak trineoan atera ninduen
Eta beldurra ukan nuen. Marie, Marie.
Oratu gogor, esan zuen berak: Eta beheatza!
Mendietan, han aske senditzen duzu zeure burua.
Nik irakurri egiten dut, gauez, eta neguan hegoaldera noa.*

G. Aresti, J. Sarrionandia, J. Juaristi; T. S. Eliot *Euskaraz* Donostia, Hordago 1983.

bada, bihotzean gordeko aldizkariko zuzendari baino euskarri izan dudan Ana Isabel Moralesen springizpia? «Pozetan negarrez, oñazetan kantari» nago *enseiudenborak* joanak ditugulako. Boa hauei ene eskerrik beroena eta neure berorik alaiena.

Lantto honek denbora igaroan jasan izan ditu zenbait aldaketa; bakoitzean berregituratu behar izan dugu, ikuspegi berberaz, ordea. Honelakoetan zuloak ageri eta ez da gurea bestelakoa izan. Alabaina zientziazat dugun kritikan aurrera pausu bat ibiltzea izan dugu helburu, eta jomuga haituegia gure argi horiotarako ezen ez baikaude oso ziur horrelakorik lortu dugunik. Horrela balitz betor hurrengo ensaiu bat Axularren esanetara: «*Aitcitic haur da nic nahi nuqueyen gaucetatic bat, ene enseiu appur hunec quilica cinitçan eta guticia, bertce enseiu hobe ago baten eguitera eta ene hemengo falten ere erremediatcera.*» Eta ez bada, zure denbora alferrik galtzearren bezain batean geurea ere eman dugulako atsekabez bekozkoturik, hartara, gera gaitezen ez bigarren ez hurrengo bagerik, isilik.

Orrialdeotako ibilbidea hauxe genuke:

- I. Solasaurrea
- II. Zenbait beharrezko kontzeptu
- III. Espazioa
- IV. Adibidez: *Hariztia*
- V. Zenbait poemen azterketa
- VI. Denbora: denbora sintaktikoa
- VI. Egitura
- VII. Konklusio gurean zerbait apunte

Uste baino lan luzeagoa atera zaigu dena batera argitara emateko; irakurlea asper ez dadin, bostgarren puntutik behera hurrengo enseiuan ateratzeko asmotan. Azken oharra bibliografiari dagokio; alde batetik eskertu Iñaki Aldekoari bere lana erabiltzen utzi digulako, bestalde Joseba Eskubiri beren beregi artikulu honetarako egin duen irudi argisurleagatik. Bestalde, eta jada bibliografiari gatzazkiolarik, oinarrizko testu gisa Susak argituratutakoa erabili dugu: Gabriel Aresti, *Lehen poesiak* in *Gabriel Arestiren Literatur Lanak - 1*. Beti aipatuko dugu berau, kasu bakoitzeko ize naz gain ez dugu beste argibiderik emango orrialdearena baizik. Gatozkion bada, honez, lanari lotzen.

I) SOLASAUURREA

Euskal literatur historia gehienek Arestiren poemen arteko eten antzeko bat azpimarratzen dute edo, gutxienez, jokamolde

aldaketa². Gure uste apalez, *Harri eta Herri*, esateko, *Maldan Beheraren* ondorio lojiko, ia-ia jarraipena, besterik ez litzateke izango, non *Maldan Behera* arketipoa edo sinboloa izanik, *Harri eta Herri* eta hurrengoak, honen errealizazioa, edo beronen ikar batzuren bederen, bait lirateke. Poetaren bilakaera eta eboluzioa ukatzea hutsegite galanta litzateke; esaten gabiltzana da ez dagoela Aresti I vs Aresti II, Aresti bakarra baino; alde batetik poesia soziala da argitaratzen delako, baina, bestetik, kasu konkretu honetan izen horregaz ezagutzen diren Arestiren poesiek ez lukete aurreko poesiarekin hausiko, bertotik jaio baizik. Ez naiz sakon konprometzuan sartu, baina agerikoa dugu idazle hau errealitatearen bila dabilela, hobeto esateko, «errealitatea» finkatzen dabil, ikusiko dugunez antzinako giza semealabentzat errealitatea trszendentziaduna zen bakar-bakarrik. Politika ezin da errealitateaz landan ulertu, ez eta ideolojia oinarri ekonomikoa gutxienez kautan izan baga, eta *Harri eta Herri* duen garrantzi literarioa funtzio pragmatikoetan ezarri da oraintsugino, balio poetikoek *Maldan Behera* eustarriztat dutelarik. Balio poetikoak aipatzen dugunean ez dugu esan gura erritmoa, errima, hiztegia,... (edo, hobeto, ez hori bakarrik, zerren poesia sorkuntza izanik erretolika ez baita, adierazpide guzi hauek espreski eginiko esangurak dituztelako) baizik eta bizitzarekiko jarrerera bat, ezaguntza bide bat. Horrexegatik dinogu *Harri eta Herri*ren, eta hurrengoan, presupuesto ontikoa *Maldan Beheran* ageriko litzzaigukeela. Biak dabilta errealitatearen bila eta desideratzen duten errealitatea sorke-tan.

Euskalduna fededuna izan balitz, euskal esparrua baserri eta kostaldean zegokeen, esparru gero eta hertsia goa, gero eta mugatuagoa izatera bultzatua, «post-romanticismo trasnochado,³» batetara. Bestalde, eta euskalduna fededuntzat jotzen duen ildo beretik, gure mundu erdiguneak Erroman behar zukeen egon eta Gernika ez zatekeen Golgota arketipoaren errepikapen errituala besterik izanen, hortaz bada, gure behindaberriz ukaturiko historia arazoari darantzu *Maldan Beherak*; orain ez gara zertan kristauak «avant la lettre» izan aurrehistorian kokatzeko gure susterrak,

² «El absoluto fracaso de la obra en unos años en los que el nuevo público lector era aún excesivamente reducido en número y de una preparación literaria muy deficiente, inducen al autor a replantear su actividad poética, lo que producirá como fruto una poesía de urgencia absolutamente adecuada para un público como el vasco al que una fuerte concienciación política lleva a descuidar la contribución cultural y valorar únicamente el contenido de intencionalidad cívica del poema.»

Ibon Sarasola; *Historia social de la literatura vasca*, (Itzultzailea: Jesús Antonio Cid) 163.orr. Madril, Akal editor, 1976.

ez dugu zertan Noeren loba bat arbasotzat euki, ez dugulako kristautasuna euskalduntasunaren adierazletzat hartzen, ez eta «perdomuit feroces vascones»en oinarrituriko ixtorio historiko covadongatar erdiasmatuetan sinetsi behar, ez baikara nahasmenduaren beldur... azken batean historia **orainaldiaren** zuripen kontzeptuala baino ez delakoan gagozkizue. Nola aldendu euskalduntasuna inguruan ziren «mitoetatik»? 98ko belaunaldiak sorturiko esentzialismo absolutuaz nola libratu? eta Poetak, —hau egiten duela onartzen badugu— nola lor zezakeen halakorik? Absolutismoaren kontra beti gizaemakumea platonismotik⁴ askatzen duelako ustetan gaude. Libratzen gaitu, baita, idealizazioaren mundutik ere⁵, gorputzaren lohikeriaren ideia «apurtuko» du. Euskera bera ere askatu-ko du garbikeria «guztiti»⁶.

³ «*trasnochado romanticismo pseudo-historicista*» Koldo Mitxelena; *Historia de la Literatura Vasca*, 2.ed., 138.orr., Donostia, Erein, 1988.

⁴ «*Hablar del espíritu y del bien como lo hizo Platón significaría poner la verdad cabeza abajo y negar el perspectivismo, el cual es condición fundamental de toda la vida.(...)*» «-Pero la lucha contra Platón o, para decirlo de una manera más inteligible para el «pueblo», la lucha contra la opresión cristiano-eclesiástica durante siglos —pues el cristianismo es platonismo para el «pueblo»— ha creado en Europa una magnífica tensión del espíritu, cual no la había habido antes en la tierra:(...) Es cierto que el hombre europeo siente esa tensión como un estado penoso; y ya por dos veces se ha hecho, con gran estilo, el intento de aflojar el arco, la primera por el jesuitismo, y la segunda, por la ilustración democrática: (...) Mas nosotros que no somos ni jesuitas, ni demócratas, y ni siquiera suficientemente alemanes; nosotros los **buenos europeos** y espíritus libres, **muy** libres - ¡nosotros la tenemos todavía, tenemos la penosidad toda del espíritu y la entera tensión de su arco! Y acaso también la flecha, la tarea y, ¿quién sabe?, incluso el **blanco**...»

Sils-Maria, Alta Engadina; en junio de 1885.»

Friedrich Nietzsche; *Más allá del Bien y del Mal, Preludio de una filosofía del futuro*, 19.orr., Madrid, Alianza editorial, 10.^a reimpresión. 1988.

⁵ Bildur haundiagorik

eztut erakutsi.

Nire gorputzaz

nintzen poliki

ni jantzi;

eztut eginen

nire arima

ezerगतikan erantzi.

Bildur haundiagorik

eztut erakutsi.

«Gabriel Aresti, «Iratze ederra» *Maldan Behera* in «Lehen poesiak» Donostia, Susa 1986. 110 orr.

⁶ «*Aldaketa honen hildoa, «BIZKAITARRA» (1959-1960) izenburu sugerigarrina biltzen diren poemak, aurreko obra osoaren ukazioa suposatzen dute. Hizkuntzaren aldetik, euskara klasiko (eta beraz, hil) eta guztiz kulto batetik aho-bizkaierarik herrikoienara pasatzen da. Aldakuntza aurrean, aldaketan eta aldaketa ondoan: idazle gofizialaren kritika garratza. Garbizaletasunaren populismoa (zeinarentzat «herrikoi» edo «jator» izateak «ezlandu» eta «ezkulto» izatea bait zekarren ezinbestean) kritikatzan bazuen lehen, orain populismo inozo horren faltasotasuna eta kontraesan funtsezkoa (ezin baita garbizale eta benetan populista izan batera) kritikatzan du Arestik, bere iharduki ezin populistagoaren bitartez». Sarasola, I.; «Lehen poemak» in *Obra guztia*, 50.orr. eta hur., Donostia, Luis Haranburu editorea Kriselu, 1976.*

Poema hau bere osotasunean ulertzeko simboloen munduan murgildu beharko genuke, eta azalpenok ulertzeko hierofaniaz ihardun. Iniziazio prozesu guztietan baieztatzen den heriotza dagerkigu gorago izendatu diren mailetan: ideolojiko-politikoan, filosofiko-etikoan, historiko-sozialean, linguistiko-literarioan; errealitate bat sortzeko haratodolez eginiko edozein «benetako» gizaemakume konkretu baten jokaera erri-toaren bitartez katartizatzen da. Gure Protagonistak, Prometeok, Juan Baptistak, Jesus Gurutzatuak, (eta Adan gaxoak), Aralarreko Sn.Mielek⁷, Gizakumeen, Euskaldunon, eta Euskeraren gorpuzketa sinbolikoa bere gain harturik «zikinkeria» guziak garbituko ditu, norban dendenak ezabatuz, eta, noski, bigarren pausua askatzea litzateke, bigarren Jaiotza, pizkunda.⁸

Baina zer delata erasoten dio arlo mitikoari⁹? Errealitatea bada jomuga, pentsamolde arkaikoan errealitatea inguru sakratuan kokatzen dena soil-soilik litzateke, beste gainontzeko giza-ekintza guztiek ez lukete inongo trszendentziarik eta, hortaz, benetakotasunbageak lirateke.¹⁰

⁷ Profeta poeta delako, martiria eta salbagilia poema honen bitartez, Aintzindari eta parabizu galdu baten jabe euskalduna delako, eta aingeru zigortzailea eta kate apurtzailea arrazoi guztiongatik.

⁸ «(En el ceremonial Babilónico)... el soberano desempeña un papel considerable, puesto que se le considera hijo y vicario de la divinidad en la tierra; como tal, era responsable de la regularidad de los ritmos de la naturaleza y del buen estado de la sociedad entera.» p.57 «Ceremonias periódicas» Eliade, Mircea *El Mito del Eterno Retorno; Arquetipos y Repetición*, 57.orr., 6ªed. Madril, Alianza editorial, 1985.

⁹ «El mito supone un salto gigantesco... (...) ...de la percepción sensorial y somática de un objeto, se pasa al dominio inmaterial del concepto, pasando la barrera de lo abstracto.»

«El mito pertenece a una categoría superior del conocimiento que sintetiza los principios modélicos y esquemas mentales de un pueblo al margen de que realmente haya sucedido o no.» (SATRÚSTEGUI, J.M.; *Mitos y Creencias* 4ªed. Iruñea, Ed.gabe, 1987. 16. orr.) «No se trata de creencias absurdas, sino que presenta la vinculación *dinámica y constitutiva* que unas realidades mantienen con otras, la *participación* de unas en otras, la *unidad cósmica*, la *dialéctica de los contrarios* y el *parentesco universal* que todo mantiene con todo.» (op. cit., 17. orr.)

Definizio honetan zenbait ezaugarri intereskoak agertzen zaizkigu oso: alde batetik mitoeak errealitate baltzuen harreman eraikile eta dinamikoak aurkezten dizkigutela dinosku, bestetik batasun kosmikoa, —ostera ere kidetazuna eta jazargotuen dialektika, batu-banandu, bildu-zabaldu...—.

«...esta heterogeneidad es lo único que puede revelarnos todas las modalidades de lo sagrado, puesto que un símbolo o un mito evidencian las modalidades que un rito implica, pero no puede por sí mismo manifestar. (...) ..la hierofanía activa en un rito agrario supone que está presente el sistema entero, es decir el conjunto de las modalidades de la sacralidad vegetal que, de una manera más o menos global, revelan las otras hierofanías agrarias.»

(Mircea Eliade, *Tratado de Historia de las Religiones*, Madril, ed. Cristiandad, 1974. 32 orr.)

¹⁰ «...el deseo que experimenta el hombre de las sociedades tradicionales de rechazar la *historia* y de unirse a una imitación indefinida de los arquetipos, delata su sed de realidad y su terror a *perders* si se dejan invadir por la insignificancia de la existencia profana.»

«El acto tiene sentido tan sólo en la medida en que repite un modelo trascendente, un arquetipo.» Mircea Eliade; *El mito del eterno retorno...* op. cit., «Regeneración continua del tiempo» 88.orr.

Herri literaturan usu erabiltzen den kontzeptua anonimotasunarena da, baina, gauza bat da izenik ez edukitzea eta beste gauza bat anonimoa izatea; jatortasuna, hobeto, orijinitatea erromantizismoaren asmakizuna da, aurreko obrek izenik zutenentz ez gabiltza eztabaidatzen, baina hori ez zutela artearen edo delakoaren helburutzat hartu erroz uste dugu. Gauza bat da ahozahoa ibiltzea eta beste gauza bat duten osotasuna eta borobiltasuna «herriaren» emaitza izatea; Herriak, konzepzioa izanik eta delako, ezin du sortu, gutxiago aipatu borobiltasuna zainduz, baina «herriaren» partaideek —batak, eta gero besteak— ahal dute erabili eta moldatu bakoitzaren beharretarako; Herri **oratura** ez du «Herriak» sortu, mantendu baino; kolektibo horren kultura mantentzeko, —kultura, bestalde, guztiz beharrezkoa zena indibiduoaren iraupenerako—, sorketa bera norbaiten —norbait berezi behar bada une hartantxe, ahalmen eta eragin bereziduna alegia— betebeharra zen. Baina erabilpena gordeketarekin josita zetorrenez, «nork» itaunak ezin zuen inongo esangurarik izan. Berezko sorkuntzan, «espontaneoan», ez dugu sinisten; gizakiaren bizitzan beti dago halako jarraipen bat, baina gure kasuan jarraipena baino zerbait gehiago genuke; bertsolarien modura «Itsasoan laino dago» ez da, ez, hasiera bakarrik, ez da atxakia soilik, hori baino askozaz sakonagoa, sintesi epigramatikoa dugu, «ez gaztanberak hezurrik»... ondorengo mezuaren «fuga» kontzeptuala delarik; bestelako alorretan mamituko dira gero jorratuko diren kimu guziak. Eta horretarako, berak, Jainkorik behar ez duen Ministrari horrek, Tximinotik aldendu eta gizakiaren duintasuna berreskuraturik, ospatu eta eskeiniko digu erritu katartikoa, hil eta biztuko den Juanen ixtorio mitifikatua, benetako esanguradun eta errealitatean gertatzen den «Historia»:

«...como el rito consiste siempre en la repetición de un gesto arquetípico realizado in illo tempore (en los comienzos de la «historia») por los antepasados o por los dioses, los hombres intentan «ontificar», mediante una hierofanía, los actos más triviales y más insignificantes.» (M.ELIADE)¹¹

II) ZENBAIT BEHARREZKO KONTZEPTU

Menturaz, solasaurrean sartu ditugun zenbait arrapaladazko kontzeptu ezezagunak litzaizkiguke. Horrexegatik saiatuko gara argitzen ahalik eta hoberen. Egin eta egingo diren aipamenek erlijio fenomenoaz dihardute,

¹¹ M. Eliade *Tratado de la Historia de las Religiones*, op.cit., 57.orr.

guk haien erabilgarritasun hermeneutikoaz baliatzea baino ez dugu egingo.¹² Agian eztabaidatu beharko genuke aparatu teoriko honen baliagarritasuna, agian, litezkeen irakurketak bat baino gehiago izanik, ez lukete denok gure ikuskera onetsiko. Arazoa da aparatu teorikoa ulertu behar dugula gero Maldan Beheraren traszendentzia onartzeko —era berean, terminook errazago ulertzen dira praktikan—, eta mamiari oratzeko garaia denez egitura tradizionalari lotuko gatzaizkio. Ez gabilta dogmak eraiki nahian, horren eraginkorrak izan bagintezke ere, eta lan honen helburuenetarik bat argiren bat esurtzea litzateke, izpi hori batek baino gehiagok ikusi duela segurutik jotzen dugu, itxasoa idoro baitzen asago antzinean¹³. Bestalde lehenak gaituzu, irakurle, zalantzak aitortzen. Baina liburu teologikoetan oinarritzen diren erlijioetan bezala badira konstante batzuk: Sakratua zer den eta hierofania nola gertatzen den (arin baino lasterrago hau putzu sakon eta ilun baita gure argi itzalok indarga geratzeko gainekoa). Aitzingibel honetan kokatuko ditugu aztertresnak:

a) hierofania

- a.1.) espazioa: kosmogonia elazaharra, Genesia berreraikuntza, erritua, zentruma
- a.2.) denbora: urtaroa eta zenbaki sinbolikoak eta bizialdiak¹⁴

¹² «Cada documento puede ser considerado como una hierofanía en la medida en que, a su manera, expresa una modalidad de lo sagrado y un momento de su historia, es decir, una experiencia de lo sagrado entre las innumerables variedades existentes.(...)..la doble revelación que nos hace: 1) revela una modalidad de lo sagrado, en tanto que hierofanía; 2) en tanto que momento histórico, revela una situación del hombre respecto de lo sagrado.» Eliade, M.; *Tratado de la Historia de las religiones*, op. cit., 24. orr.

¹³ Gero jakin eta irakurri nuen ez badu ALDEKOAK bide honetik daroan lan benetan landu eta borobildua baina argitaratugabea. Hura irakurri eta, bide luzea egin bait nuen atzera bihur nendin, bi aukera ikusten nituen nik, edo aipatu iturri izan zitezkeen puntu guztietan edo, beraren ez argitaratzeko borondatea errespetatuz, haren lanetik atera nezakeen argibiderik ez erabili. Azken hau asko artifiziala iduri zitzaidan, baina honen lana ezagutzen ditudanetarik zaharren eta erabilgarrien izan zaidanez, zor dizkiodan puntuetan aipu egingo dagokion bezala. Eskerrak berorri intertestualitatean ibiltzeko ikasi genuenagatik —Dante eta Milton ez nituelako ezagutzen Aresti eragile zuzenak bezala, esate baterako, Eliot ezagunegia da, ordea, inork serioz ikerketa konparatiboa lepoan hartzeko—. Baita berak zenbait sinbolu eta ahapaldi ilunez eman dituen ekarpenengatik.

¹⁴ Gero badira sinbologia azaltzeko lagungarri zaizkigun lanabesak: murtzilen teoria (gorapiloena) eta holakoak, baina hauek lagungarri baino ez ditugu erabiliko, zelanbait albotik. Esate baterako gorapiloak (Indra eta Varuna, Zeus eta Uranos) majiaren tresneria da, majia traszendentearen erabilpen pragmatikoa da, utilitariora. Bestalde Jesus litzateke Arrantzale Nagusia ez bakarrik *gizazale* delako baizik eta sarea gorapiloz, eta hontaz majiaz, eginiko lanabesa delako, hau da, jakituria majikoa behar delako heldu eta askatze prozesu guztietan.

a) Hierofania

Prozesu inizatiko guztiak hierofaniak dira maila ontolojikoaren al-daketa direlako; iniazioetan bi higidurek hartzen dute esku: lehena hil —eta hiltzea itxura galtzea da—, eta, bigarrenez, itxura berria hartzea, berpiztea.

«Iniciación significa, ya se sabe, muerte y resurrección del neófito, o, en otros contextos descenso a los Infiernos seguido de ascensión al Cielo. La muerte -de iniciación o no- es la ruptura de nivel por excelencia (...) El alma del muerto sube por los senderos de una montaña, o trepa por un árbol, o por una liana, hasta los cielos.»¹⁵

Ageriago (garrantzitsuago) edo izkutuago poeman zehar ikusten dira honelako maila hausturak: baita pertsonaiarenak ere, esate baterako gogo gorputzaren banaketa:

Egun honetan nire gogoak
utzi nai baitu mendia,
MALDAN BEHERA DOA AGURO
NIRE GORPUTZ BILUZIA.
(ARESTI: «Requiem», 90.or)

banaketa beti da bereizketa, ebaketa, itxuragabeziatik ateratzea, maila hori apurtzea, irtetzea:

«La dialéctica de la hierofanía supone una selección más o menos manifiesta, una singularización. Un objeto se convierte en sagrado en la medida en que incorpora (es decir, revela) algo distinto de él mismo. Por el momento poco importa que algo distinto sea debido a su forma singular, a su eficiencia o simplemente a su fuerza, ya sea conferido por un rito de consagración o adquirido por la inserción, voluntaria o involuntaria del objeto, en una región saturada de sacralidad (una zona sagrada, un tiempo sagrado, un accidente cualquiera: rayo, crimen, sacrilegio, etc.). Lo que nos importa destacar es que una hierofanía supone una selección, una separación clara del objeto hierofánico con respecto al resto de lo que le rodea. Este resto existe siempre, (...) ...el objeto hierofánico se separa por lo menos de sí mismo, porque no se convierte en hierofanía más que en el momento en que deja de ser un simple objeto profano, en el momento en adquiere una nueva dimensión: la de la sacralidad.»¹⁶

¹⁵ Eliade, M.; *Imágenes y símbolos: ensayos sobre el simbolismo mágico-religioso*, 2ª ed. Madrid, Taurus, 1974. 52. orr.

¹⁶ Eliade, M.; *Tratado de Historia de la Religiones*, op. cit., 36. or.

Izenez eta izatez, definizioz¹⁷, inimizioa heriotza da, beste maila horretara iragateko behar-beharrezkoa, eta intermezzo horretan orotasunarekin bat egin behar du; Uholde unibertsala Genesiaren errepikapen kosmikoa litzateke eta behindaberrizko itzulian, itxuragabezira itzuli behar du berriz bereiztua izan dadin (molde ezberdinez, noski)¹⁸:

Nire arima hegalaria¹⁹
gozatu baitu zerua,
LURPEAN DATZA EHORTZIRIKAN,
NIRE GORPUTZ USTELDUA.
(«Requiem», 130.or.)

Prozesuaren paradigma bidaia da, bai fisikoa bai «gogoeta eroak»-en²⁰ bidez egina bada ere; bestalde, ez dago inimiziorik pizkuntzarik ez bada-go, batak bestea oinaztatzen du:

¹⁷ hiero-, krato-, epi-fanía.

¹⁸ Gure gorputz argalak
desegin ziren,
leze batera
astiro jatsi
baikinen.
Bizkarrean
gurutze hura
biok eraman
genuen.
Gure gorputz argalak
desegin ziren.
(«Herri-bitartea» 127.or.)

¹⁹ Arima hegalaria Platonen arabera, banaketa oso indartsu darakuskigu benetan Iratze Ederrean, edukiak dinoskuna gorpuarimen eta ahapaldien tolesturan igarriko dugu, esate baterako hurrengo erdibituta dagerkigu:

Laster sentitu nuen
egunaren hotza.
nire ahoan
zapora siku
mingotsa.
Iratz artean
bilatu nuen
arinki nire
gorputza.
Laster sentitu nuen
egunaren hotza. (11. orr.)

Goiko alderdian sentzuek jasoten duten inpresioak sendimenduarekin loturik agertzen dira, bigarrenetan arrazoiak gidaturiko ekintza.

²⁰ Gero ikusiko dugunez, *Maldan Beherak* egitura simetrikoa duelako atal bitan partituko ditugu simetriakideok: lehengo atala hamar poemek eratzen dute, hamar poema ho-

Ukitzen nauten eskuek
naramate *gorantza*.
Behera erorteko
eztaukat esperantza;
horixe gertatu
zitzaidan *herrirantza*
nindoanean, antza.
Eztute ezagutu
neronen *mendekantza*.
Eztut estimatuko
beren adiskidantza,
arima pisua baitut,
ta noa *beherantza*.

(«Arbuioaren bitartez», 139.or) Azpimarrak geureak dira

Baina konzeptua lehen behaketan irudi baino askoz ere orokorragoa da; edozein gauza bihur liteke sagaratu, azken baten Mirceak dioenez:

*«Todas las definiciones del fenómeno religioso dadas hasta ahora presentan un rasgo común: cada definición opone, a su manera, lo sagrado y la vida religiosa a lo profano y a la vida secular.»*²¹

Hortaz trszendentearen atea iragatea sakratu bihurtzean datza, eta hementxe genuke, hain zuzen, hierofaniaren ezaugarri nagusienetarikoa: edozein gauzari bere «gauzatasunaren» gainean zerbait gehiago bada-tzekiogu, hau da, bera berez denez gain beste zerbait gehiago izan ba-daiteke orduan objektu, pertsona, leku zein denbora sakralizatu dugu²². Azken baten arruntasunetik ateratzen den edozer izan liteke sakratua; bai

riek ere binaka datozkigu, bost *erpeetan*, belaun bakoitza, esan bezala, poema bik osotzen dute, bada, bigarrenekoak «... gogoeta eroak» deitzen dira. Simetrian, izen buruak eta aha-paldien tolestura garrantzi haundikoak dira, baina baita berba batzuren bilakaera ere, Herri-bitarte, Judizioa, Mendekantza...

²¹ Mirceda Eliade; *Tratado de Historia de la Religiones*, op. cit., 23.or.

²² «...la paradoja de la coincidencia de lo sagrado con lo profano se expresa en el caso del ídolo en forma concreta, y en forma analíticamente descriptiva en el caso de la hermenéutica verbal.» (...) «De hecho, esta coincidencia *sagrado-profano* representa una ruptura de nivel ontológico. Toda hierofanía implica esta ruptura, porque toda hierofanía *muestra*, manifiesta la coexistencia de las dos esencias opuestas: sagrado y profano, espíritu y materia, eterno y no eterno, etc.» Mircea Eliade; *Tratado de Historia de la Religiones*, op. cit., 54.or.

ezohizkoa delako, edo itsusia²³, edo jakintsua, edo atzerritarra...²⁴. Sakralizatuko diren objektuak Lekua, Denbora eta Presunaiak (aktantea) dira; gero, presunaiaren eskutik, ekintzak ere sakralizatuko dira.

III) ESPAZIOA

«La muerte del monstruo Rahab y la victoria sobre las Aguas (que significa la organización del mundo) equivalían a la creación del cosmos y al mismo tiempo a la **salvación** del hombre (**victoria sobre la muerte**, garantía de la alimentación para el año por venir, etc.). Limitémonos por el momento a observar entre esos vestigios de cultos arcaicos la repetición periódica (...) del la creación (pues el combate contra Rahab presupone la reactualización del caos primordial, mientras que la victoria sobre las **profundidades acuáticas** solo puede significar el establecimiento de las **formas firmes**, es decir, la creación). (...) en la conciencia del pueblo hebreo esa victoria cosmogónica se convierte en la victoria sobre los reyes extranjeros presentes y por venir; la cosmogonía justifica el mesianismo y el apocalipsis, y echa así las bases de una filosofía de la historia.» Eliade Mircea *El Mito del Eterno Retorno; Arquetipo y repetición*. 62.orr. (M. ELIADE)

Pentsamolde arkaikoak²⁵ espazioaren benetakotasuna hitzez eta ekintzaz azaltzen du. Hitzezko justifikazioa ele bakoitzak bereganatzen duen botere majikoan datza. Botere majiko hori kondalari eta entzulegoaren arteko hitzarmenean oinarritzen delarik hitz bakoitzak hartzen duen sinbolismoa ez dago metaforetan, hitz horren gorpuzketan edo instantziazioan baino. Hitzak dimentsio fisikoa lorturik leku bat ere behar du eta, hontaz, objektuen hierarkiaren barruan egokitu. Honenbeste bider

²³ «*Todas las valorizaciones negativas de las máculas (el contacto con los muertos, los criminales, etc.) se deben a esa ambivalencia de las hierofanías y de las cratofanías. Lo que está maculado -por tanto consagrado- se distingue ontológicamente de todo lo que pertenece a la esfera de lo profano. Los objetos o los seres maculados están, pues, prácticamente prohibidos a la experiencia profana, a igual título que las cratofanías y las hierofanías. No puede uno acercarse impunemente a un objeto maculado o consagrado cuando se está en condición profana, es decir, cuando no se está preparado ritualmente.*» Eliade, M.; «*El tabú y la ambivalencia de lo sagrado*», *Tratado de la Historia de las religiones*, op. cit., 38.orr.

²⁴ «*... lo sagrado es cualitativamente distinto de lo profano, pero puede manifestarse en cualquier forma y en cualquier sitio dentro del mundo profano, porque tiene la capacidad de transformar todo objeto cósmico en paradoja mediante la hierofanía.*» 55.orr *ibid*.

²⁵ «*aún asistimos al conflicto de dos concepciones: la concepción arcaica, que llamaríamos arquetípica y anti-histórica, y la moderna, posthegeliana, que quiere ser histórica.*»

(Mircea Eliade; *El mito del Eterno Retorno: Arquetipos y Repetición*, op. cit., 130 orr.

halako otoitza errepikatu behar delakoaren ustea honen ispilu litzateke, edota deabruaren izen ahozkaezina (Lekeition Txerren esan daroe, adibidez) edota «Adonai». Hitzak ez du errealitatea mugatzen edo seinalatzen, errealitate bera sortzen baizik, eta Munduaren sorrera azaltzen duten elezaharrek Mundua sortzen dute kontatu ahala. Honexegatik, hain zuzen ere, ezin da edonon eta edonoiz kontatu, arin ez dadin berba, eta are gutxiago edonoren ahotan jarri, zeren kondatzaileak ahozkatzeko adina indar ezezen traszendentetik, hilen mundutik, berezkabetuen mundutik eta jainkoen mundutik, letozkioken ahotsak entzuteko gauza ere izan behar baitu. Honegatik edozein kulturatan apai-zek, profetek, poetek behar dute egon, «Garai Hartan» nola gertatu zen zehazki azaltzeaz gain, —eta zehaztasuna sinboloen funtzioetan datza eta ez bakarrik gaur egun deituko geniokeen errepikapen magnetofonikoan—, desiraturiko parabizue zein agindutako Moab orlegia sor dezaten. (Abisinia²⁶).

Esan dugunez, espazioaren benetakotasuna²⁷ hitzez eta ekintzaz justifikatzen da. Hitzak dimentsio fisikoa bereganatzen du, baina sorkunde²⁸ mementua berreraikitzen badu sortu egin behar izango da Mundua; orduan jaiotzen da antzerkia, Jainkoen eginkizuna antzezten denean, ezer ez egotetik zerbaitetarako bidea ibili behar da. Giza semealabek abre batez sinbolizatu dute «Ezereza»²⁹ (Sugea, Herensugea...). Ezereza ankerra da. Burruka³⁰, jainko aingeru onak eta txarren artekoa, antolatuko da

²⁶ Honezaz, ironia vs analisia erabiliz, idazle sailkapen iradokikorra ematen digu J. Kortazarrek bere *Laberintoaren oroimenez*-ean non Mirande Ironiari loturik esperantza baitlitzateke Aresti handik aldentzen duen ezaugarria. Aladekoak aipaturiko lan argitaratu gabeen zera dinosku: «*Maldan-Behera utopia bat dago eta, beraz, obraren ironia maila oso bajua da;*» 87.or. eta 111.or. eta «*Profetaren eta heroiaeren hamarrik boteretsuena mezu sakratuan datza, antiheroiaarena ironian.*».

²⁷ «*En la geografía mítica, el espacio sagrado es el espacio real por excelencia, porque, (...) para el mundo arcaico es real el mito porque refiere las manifestaciones de la realidad verdadera: lo sagrado. En tal espacio es donde se toca directamente lo sagrado —sea materializado en ciertos objetos (Tchuringas, representaciones de la divinidad, etc.), sea manifestado en los símbolos hierocósmicos (Pilar del Mundo, Arbol Cósmico, etc.)*» Mircea Eliade, *Imágenes y símbolos*. op. cit., 44.or.

²⁸ «*... los rituales de construcción presuponen asimismo la imitación más o menos explícita del acto cosmogónico.*» (Mircea Eliade, *El mito del eterno retorno*, 75or.)

²⁹ «*Las luchas rituales entre dos grupos figurantes reactualizan el momento cosmogónico del combate entre el dios y el dragón primordial (simbolizando la serpiente en casi todas partes lo latente, preformal indiferenciado).*»

Eliade Mircea *El Mito del Eterno Retorno; Arquetipo y Repetición* «La periodicidad de la Creación» 69.or.

³⁰ «*En el curso de la ceremonia Akitu, que duraba doce días, se repite solemnemente, y varias veces, el poema llamado de la creación: Enuma Elish (...) Así se reactualizaba el combate entre Marduk y el monstruo marino Tiamat. (...) Marduk creó el cosmos con los pedazos del cuerpo desmembrado de Tiamat y creó al hombre con la sangre de Kingu, demonio al cual Tiamat había confiado las Tablas del Destino.*» Eliade Mircea *El Mito del Eterno Retorno; Arquetipo y Repetición*.

(Pastoralak, ihauteriak³¹, Mundakako marroak...). Burruka harremana da eta, zelanbait, elkar batze bat adierazten du. Baina azkenik itxura zaindarien irabaziko dute, indar eraikitzaileek, alegia. Hauek eratuko dituzte behar diren elementu guztiak, uretarik edo itsasotik edo itzaletarik formak egiten agertuko zaizkigu, zeren Jainko baten ezaugarriak nabarmenena gizakiak duen berbera izan behar baitu: antolatzea, tolestekoa, moldatzekoa, konformatzekoa, itxuratzekoa; Jainko arkitekto antolatzailearen Erdi aroko irudia.

Antzerkian ekintza hieratikoak ageri badira ere orain arte ez gara erritoan bertan murgildu. Alde batetik borroka errituala ospatuko da eta, bestetik, espazio fisikoa antolatu behar izango. Espazio honek «garai hartako» ezaugarriak izan beharko ditu, hots, Parabizu garaiko ezaugarriak non giza-jainkoen arteko eta zero-lurren arteko egunoroko komunikazioa gertatu ohi zen. Orduan, hiru maila kosmiko horiek³² batzanduko dituen elementu bat behar izango dugu; esate baterako gurutze bat edo arbola santu³³ bat (haritza zein sagarrondo) edota Babelgo dorreren bat, eta «gune» hau Munduko Erdigune³⁴ izendatu. Komunikazioa lortzen duen elementu bakarra denez hauxe babestu behar, eta babes berau edo harresi edo laberintoa³⁵ litzai guke. Harresi laberinto horietatik ate geratzen dena

³¹ «...la ceremonia de la expulsión de los demonios, enfermedades y pecados puede resumirse en los elementos siguientes: ayuno, abluciones y purificaciones, extinción del fuego y su reanimación ritual en una segunda parte del ceremonial; expulsión de los demonios por medio de ruidos, gritos, golpes (en el interior de las habitaciones), seguida de la persecución de aquellos, acompañada de gran estrépito, a través del pueblo: dicha expulsión puede practicarse en la forma del despido ritual de un animal (tipo chivo emisario) o de un hombre (tipo Mamurio Veturio) considerado como el vehículo material, gracias al cual las tareas de toda la comunidad son transportadas allende los límites del territorio habitado (...). A menudo se intercalan combates ceremoniales entre dos grupos de figurantes, u orgías colectivas, o procesiones de hombres enmascarados (que representan las almas de los antepasados, los dioses, etc.). (...) ..en esa ocasión se celebran las ceremonias de iniciación de los jóvenes...»

Eliade Mircea; *El Mito del Eterno Retorno; Arquetipo y Repeticion* «Ceremonias periódicas», op. cit., 55 or.

³² «En las culturas que conocen la concepción de las tres regiones cósmicas —Cielo, Tierra, Infierno— el «Centro» constituye el punto de intersección de estas regiones.» Eliade, M.; *Imágenes y símbolos*, op. cit., 43.orr.

³³ «La variante más extendida de simbolismo del centro es el Arbol Cósmico, que se halla en medio de Universo, y que sostiene como un eje los tres Mundos. (...) ..cuyas raíces se hunden hasta los Infiernos y cuyas ramas tocan el Cielo.» *Tratado...*, «Simbolismo del centro», op. cit., 47.orr.

³⁴ «La creación del hombre, réplica de la cosmología, ha tenido lugar paralelamente en un punto central, en el Centro del mundo.» *ibid.*, 46.orr.

³⁵ «...Es probable que las defensas de los lugares habitados y de las ciudades comenzaran por ser defensas mágicas; porque estas defensas -fosos, laberintos murallas, etc.- se disponían para impedir la invasión de los malos espíritus, mucho más que para el ataque de los humanos. (...) En fin de cuentas el resultado de sus ataques, sean demoníacos o militares, es siempre el mismo: ruina, desintegración, muerte.» Eliade, M.; *Imágenes y símbolos*, op. cit., 41.orr.

Ezereza da, Animen mundua, gutarra ez denarena³⁶, erdaldunena, barbar nahiz berber mintzo direnena, pagoaren inguruan bizi direnena. Eta gu-rea, berriz, Munduko ertziloa izango da.

Hontaz, laburbiltzeko espazioaz esana:

ELEZAHARRA: Kosmosaren sorrera azaltzen duen testu hermeneu-
tikoa.

- a) BORROKA: Bereizkabearen kontra, Itxuragabetuaren aurka, Ja-
torrizko Itsasabrearen aurka.
- b) ERAIKUNTZA: Borrokan barreiatutako hondakinez unibertsoa-
ren antolamendua.

ERRITOA: ekandua

- a) BORROKA ERRITUALA: garbiketak, purgak, ihauteriak, na-
hasmendua...
- b) LUR SAKRATUA:
 - 1. Zentzumaren eraikuntza
 - 2. Harresiez babestea
- d) OTOITZA: indarra norberegantzea.

IV) ADIBIDE BAT: «HARIZTIA», ELEZAHARRA EDO EPIKA

«Maldan Behera»n agertzen den kosmogonia «Hariztia»n dugu argi eta harrigarri; gure lehendabiziko baieztapena hau da: Maldan Behera dokumentu trazeidentat³⁷ harturik geroko errealtate finkatzailetzat ere hartu beharko genuke, esateko, onartzen badugu testua Bibliari hur-
bildik darraikiola oso egon behar du tipifikatuta zenbait alde jakinez. Au-
sartki gure hurrengo hipotesia jaurtikitzera gatoz:

³⁶ « Las sociedades arcaicas y tradicionales conciben el mundo en torno como un microcosmos. En los límites de este mundo cerrado comienza el campo de lo desconocido, de lo no-formado. Por una parte, existe el espacio hecho cosmos, porque habitado y organizado, por otra parte, al exterior de este espacio familiar, existe la región desconocida y temible de los demonios, de las larvas, de los muertos, de los extranjeros; en una palabra caos, muerte, noche. (...)»

Mircea Eliade, *Imágenes y símbolos* 41.or.

³⁷ N.Frye-k esango du obra hauek egitura enziklopedikoa daukatela, alegia, idatziak izan zirenean aurretik zegoen tradizio literarioa bereganatu zutelako.» Aladekoa 18.orr.

ELEZAHARRA:

1. Espazio-denbora berezkabetuen deskribapena
2. Pertsonaiaren egoera:
 - orain/gero
 - arima/gorputza
 - Ni/alterra
3. Kosmogonia:
 - a. borroka, Arraina
 - b. harresiak, desertua
 - d. eraiketa: elementuen aurkezpena (suge-arranoak)hierarkia
zentruma > Haritza

ERRITOA:

- a) Maila simboliko-telurikoa (lurra)
- b) Maila objektu-kontzeptuala (katea)
- d) Maila komunikatibo-gizatiarra (arbasoa, benedikazioa)

ERREBELAZIOA:

1. Bideari jarraitzeko agindua, Bidea eta tokiak
2. Penitentzia bete ondorengo bide inizatikoaren hasiera.
3. Denborari buruzko tabuak
4. Ondorioak heroiarengan

Azterketa

Poetak Maldan Beheran prozesu askatzailea erakusten digula azaldu dugulakoan gaude. Prozesu askatzaile hori inimizazioaren bidez gertatzen delakoan gabiltza halaber; Nietzsche dela bide Zaratruste-Juan genuke, Bibliaren bitartez egitura hertsia eta borobildua; Elioten ezaguntza eta Miranderen adiskidantzak direla bide, poesiak gorputz hartzen du. Guzti hau onar bageneza ere, eta seguraski orain arte gauzok arinegiak onartuak izan litezke, hala ere, edo beronengatik, hurrengo hipotesia botatzera gindoazke: Inimizazio prozesua liburuan urrats bitan ematen da, bata Genesia-tik³⁸ heriotzara, sinboloen medioz *Riequem*-eragino; bigarrena konzeptuen

³⁸ Hariztia, Gabonak edo Sn.Juan gaua, Eguberria.

bidez, aurreko atalen sinbolo poemok erlazionatuz eta garatuz; lehenengokoa sinboliko-esentziala, bigarrena analitiko-elkarkaria. Behinekoa askozaz ere aztertuagoa eta ikertuagoa izan da, guk uste, sinbolismoaren kumeak garen, borobilagoa iruditzen zaigulako; hau da, beti lotu izan diogu hertsitasun sinbolikoa poesiari. Bigarren zatitik aurrerantzekoa bere poesia sozialaren **praeludiuma** izan daiteke. Arrazoiok ez ditugu azalduko, batez ere kritikaren kritika litzatekeelako, eta honelakoak soberan dira gurean. Aldiz hipotesia argitzeko simetria erabiliko dugu, zerren ezer izatekotan Maldan Behera poema simetrikoa baita.

Poetak, gorago esana dagoenez, aztarna batzuk uzten dizkigu gakoak uler ditzagun: simetria, —maila ezberdinetan dagerkiguna, bai egituran bai iragatean—, izen buruak eta ahapaldi moetak³⁹. Gero badira zenbait osagai obran bertan esanahia hartu, gorde eta apur apurka aldatzen daroateanak, eta badira beste batzuk kanpotik esangura zurgatuz eransten eta zelanbait aldaketok ahalbideratzen dituztenak. Osagai hauek kulturari (Literaturari, Musikari eta Arte Ederrei⁴⁰) begira zein eguneroko munduari (Historiari —zentzu klasikoan ez hemen ibili izan dugunean—, Gizarte eta abarrari) daude. Aurreneko osagaiak ezagutu eta sailkatzeko simetrian oinarrituko gara. Bigarrenekoak, berriz, jakituria zabalagoa behar du —guk horren itzala seinalatzen baino ausartzen ez garenetarikoa—, hau da, lehen aipaturiko literatura lanak eta sinboloen bilakaera.

Hiru ahapaldi moeta ikusten ditugu: hiru seiko, hiru hamaiko, zazpi seiko desberdinak. Atzera begira lehen biak eta aurrera hirugarrena. Guk lehen azpimultzoari epika deitu nahi izan diogu, bigarrenari lirika eta errebelazio⁴¹ modura datorrenari dramatika. Esan genezake Genesiari darraikiola, baina ez da ispilatze hutsa eta zatiak identifikatu ahal baditugu ere gehiengotan metaliteraturazko aipuak lagungarri ez beste dira, hots, testuaren beraren kanpotik irensten duen informazioa esanahiari arinago hel gakizkion baliagarria litzaigukeen arren, nahikoa beharko luke izan zeinuen arteko erlazioek darakuskigutena. Esango genuke guk Maldan Beheraren osagarriak bi ardatzotan bereiz litezkeela: Prozesua-presunaia (prozesu inizatikoa eta aktante nagusia), Prozesuaren ikuspegitik espazio aldaketa genuke, deskribapen aldaketa, espazio horrekiko hartu emona eta erlazio aldaketa presunaiaren ikuspuntutik ordea. Estrapolazio bat eginez esan genezake espaziori begira inimizazioa Uholde Unibertsala dela, eta aktanteari begira

³⁹ Sarasola, I.; *Aresti: Obra guztia*, Donostia, Kriselu, 1976. 50.orr eta hur.

⁴⁰ Goya/Picasso, Dostoyevsky/Proust, Mozart/Bartok, deshumanizazioaren kontrako jarrera. Aladekoa.

⁴¹ Aldekoaren lan aipatuak sujerituriko kontzeptua

Bataioa edo Negua-Heriotza, azkenik erlazioa espazioari begira eraikuntza litzateke eta aktantearen aldetik lehen egoera berreskuratzeak.

DINAMIKA ESTATIKA	PROZESUA	ERLAZIOA
ESPAZIOA	BIDEAK AROAK	DESKRIBAPENA ERAIKUNTZA
PRESUNAIA	HERIOTZA PIZKUNTZA	EKINTZAK KONTAKETA

Hontaz, Biblia bada ardatzon topagunea, Itun Zaharraren «Lur Agin-dua», Miltonen «Parabizu Galdua», Elioten «Lur Antzua» alde batean leudeke, eta Itun Berriko Jesus eta Nietscheren Zarathustra beste aldean, Odiseok eta Itakak lotuko lituzketenak. Eta, noski, sakralizaturiko objektua lehen ardatzean kanpoko elementuari esker balitz bereiztua, bigarrean Jesus edo Virgilio gabeko Dante, hots, Zarathustra genuke. Hau dugu, bada, Maldan Beheran agerien zaigun ezaugarria: Juan, Odiseo edo Prometeo dela eta Latronak, berriz, oso mugatu eta ahul hartzen duela esku.

Lehen ahapaldia

*«Orain hemen nago, eremu latz honetan.
Nire gurariak galdurik, lur hauetan
arbola adar-gabeen pareta naiz orain.
Landare zekenak baitaduzka eremuak,
erratzak harean, haitzetan kalamuak,
nire arima dago mirari baten zain.»*
(ARESTI Hariztia, 91.)

Denbora	Lekua/Izadia	Presunaia
Orain	hemen	nago nire gurariak galdurik
Orain	eremu latz honetan arbola adargabeen pareta Landare zekenak erratzak/harean haitzetan/kalamuak	naiz nire arima dago

Sailkapen honi pare bat adinontze: Presunaia sailean sartu ditugu lehen pertsonan emanak zetozen aditzak; Presunaiari dagokiona espazioa eta denbora iragaztea da, erlazio mundua, alegia. Arima eta gurariak presunaiaren egoera deskribatzen dutelako ondo kokatuta daude daudenean. Erdiko zutabea, berriz, zailtxoagoa zaigu ingurugiroaz ari baitira elementuok; inguru deskribatzeko bi elementu moetak darabilzki poetak:

—Izadi deskribatzaileak

—Lur deiktikoak

Bereizteko erabili dugun kriterioa, aipatu denaz gain, gramatikazkoa da, hots, leku adierazleez gain inesiboz zetozenak. Arazoak izan ditugu «haitzetan» eta «harean» azpisaillkatzean; alde batetik Izadia hila da, bestalde Non kasuan datozkigu. Azkenean kriterio errazenak irabazi du, gramatikalak.

I) *Lehen Unitate erritmikoa: «Orain...orain»*

Haur baten begirada bailitzan nitasunaganik asagotuz doa; «hemen» denok ezagutu lekua balitz bezala azalduko zaigu. Gero bi urrats emango dira abstrakzio bidean: «eremu» izen berezia, eta izenondoturik datorrena, eta, hurren, «lur hauetan» aniztasunaz gain orokortasunez datorkigun sintagma. Kaledoskopikoagoak zaizkigu nolari erantzuten dioten sintagmak. Esana dago presunaia izango dela denbora eta espazioen galbae eta moldatzailea:

nago__Nire gurariak galdurik__arbola adar gabeen naiz orain

Hemen ere barrutik kanpora, kanpoko irudiak barneko egoerari berdintzen daroazen begiraden bidez sinboluak sortzen arituko zaigu poeta; Ni/Kosmosa identifikatzen dakar Maldan Behera-ren lehen zatian zehar.

II) *Bigarren unitate erritmikoa*

Bigarren pausu honekin aditza konplexuagotzen doakigu:

egon-izan-eduki-zain egon

Hizkuntzaren ikarretik erakusten digun eraikitze hau inguruarena-ren ispilutzat har genezake:

eremuak daduzka { Landare zekenak
erratzak (harean)
Kalamuak (haitzetan)

Joskera ere badoa zailtzen; alde batetik ikasi dugun Non hori Zer sintagmekin, Nitaz eta eremuaz kanpo diren gauzak adierazten dituztene-kin alegia, atonduko da.

Errimatik aterako bagina, puntuek mugatzen dituzten lerroen erai-kuntza ikus genezan, eskema dinamikoago batetara jo beharko genuke:

1.

Orain hemen	}	eremu latz honetan	}	nago
-------------	---	--------------------------	---	------

2.

Orain lur hauetan	}	Nire gurariak galdurik (NAGO) arbola adargabea (NAIZ)
-------------------	---	--

3.

Eremuak baitaduzka	}	Landare zekenak erratzak harean haitzetan kalamuak
--------------------	---	--

Nire arima dago	}	Mirari baten zain
-----------------	---	-------------------

Lehen puntuan elementu baten adierazle gehigarria azaltzen zaigu. Bigarrenean batuketa aditz desberdindun sintagmez osatzen zaigu. Hirugarrenean kausalitatea dagerkigu batuketa soila gaindituz. Ahapaldi piramidal honetan (1,2,3 bertsolerro puntu diakritiko bakoitzean) nitasunari legozkioken elementuak, ezezkor eta, era berean, gerora artezturik, higidura eliptiko batez, banan bilduz, hurrengo ahapaldietara esuroko diren lokarriak dira; hamaikagarrenez diogunez, elementu sinbolikoak esanguratu-ko dituzten presunaia adierazleak:

nire	<	gurariak	>	dago	<	galdurik
		arima				mirari baten zain

«Nire» posesiboa testualizatzailea dugu, presunaiaren funtzio komunikatiboa agertzen duena alde batetik, eta, bestalde, hurren datorren informazioa aipatu dugun begirada higidurarekiko kokatzen duena. «gurariak

eta «arima» nitasun korreferenteak dira, baina erreferentzia horren ikar baten azpimarratzaileak; «gurariak», —Judea dena S. Juan de la Cruz-en ustez, nahimena beste aldean— gerorantz bultzatzen gaitu («...el espíritu mío, aún fugitivo,/ así a mirar se torna el duro paso...»). Eta arima hori edo eraikiz letorkeen osotasunaren izen edo nitasunaren zati bat eta, orduan, esanahi zehatz eta bakarra lukeena litzateke.

Bigarren ahapaldia

*Eztago zeruan egun hodei batere.
Denbora sikuak garantzen ditu bere
ordu miragarriak sekula batean.
Zerura begira egoten naiz luzaro,
izarren esnetik edaten dut oparo,
baina egarri bizia daukat bihotzean.*
(«Hariztia» 91.orr.)

Hirugarren esparru kosmikoa zerua dugu, poema honetan, aldiz, bigarrenaz zaigu ematen. Zerutik denborara erausten digun zioa toleste trukatze honen berdina genuke. Ikusten genuen aurrerakoan «Non» parámetro askoz ere errepikakorragoa zela; «Noiz» betiere «orain» zen ordea. Kasuan «Non» zerua da eta «Noiz» adierazle bihurtu zaiguna:

DENBORA	ESPAZIOA PRESUNAIA
egun	eztago
Denbora sikuak	zeruan
garantzen ditu	hodei ⁴² batere
bere ordu miragarriak	
sekula batean	zerura
begira egoten naiz	izarren esnetik
luzaro	
edaten dut oparo	
egarri bizia daukat	bihotzean

⁴² «Poema honetan berebiziko dimentsioa hartzen duen zantzua urarena litzateke.(...) Ur faltaren ondorioa egarria izango da...(26.orr) «Munduko gizonaren egoera euria eskatuko du eta, hau ere, uraren aldaki bat besterik ez delarik maiz aurkituko dugu Maldan-Beheran.(...) Geroago ziurtatu beharko da odolak bizitza zuzpertzeko ahalmenik duen ala ez, baina, Kristoren odolak gizonak oro berbiztu eta bizitza berria emango zien. (27.orr.) Aldekoa, op. cit.

Aipatzeko lehen gauza gramatikari genioke; Lehen ahapaldian lehen multzoan aditza beti zegokion presunaiari, baina aldenketa hasirik zegoen, begirada barrutik kanporanzkoa zenez higidura eksozentrikoa izaki, gizakia zen ardatza. Hemen, berriz, kontrara dakusagu: kanpotik barrurantz datorkio goian legokeen esneargia. Lehendabiziz presunaiatik ate gertatzen dena deskribatzen zaigu, deskribatzeko ahalmena ere maila bat konplexuagotzen delarik zeren, egon dagoenaz gain, prozesua ere deskribatzen baitu, gero, berak horrekiko duen jarrera, jokaera eta emaitza nitasun objetibizatuan borobiltzen da, bihotzean alegia, inesiboz izendaturiko *n̄a*: haustura ezin bortitzagoa.

Bigarrenez esateko gauza parametruon distribuzioari buruzkoa litzateke: Espazioari haseran hiru aipu jarraian, gero denborari, izenondo eta guzti (hain zuzen, beluago aztertzeke beta izango dugunez, beronen jokoak bidaliko gaitu sinbolu gakora) eta, azkenez, nitasun horri. Denborak du pisu gehiena, baina espazioa bidea da eta presunaia betiko ispilu. Puntu hauek izango dira kautan hartzeakoak:


1. Denborari dagokion izenondoaren joko
2. Presunaiaren funtzio lotzailea.

Esana denez, «Non» (zerua) «Noiz» bihur dadin sinbolu gakoa saretu beharko genuke; bestalde Denboraz —sekulaz, eternidadeaz (ikus hurrengo puntua)— ari diren izenondoak hauexek dira: «sikuak», «miragarriak». «sikuak» espazioari legokiokeen adjetiboa da, aurreko ahapaldian sortu duen sinbolu poetikoari, artez esateko: «eremu latz»-ari. «miragarriak»-ek presunaiaren arimak jasaten zuen egoera dakarkigu gomura fonikoki: han mirari baten zain zegoenak miragarri diren orduz dihardu hemen. Berriz ere, «sikuak» orain presunaiak jasango lukeen egarriari jarrai dakiok. Hontaz:


Espazio___Denbora: sikua
Espazio/Denbora___Presunaia: sikua

Laburbiltzeko:

1.



Odola zuzenean naturaren elementu bat ez bada ere urarekin batera paratzea nahi izan dugu. Deskribatzen ari garen testuinguru honek interpretaziorako lehendabiziko marko edo norabide zabal bat eskainiko digu. Ura nahitanahiez naturaren emankortasunarekin hertsiki lotua dago, lur antzua uraren zai legoke bere baitan bizitza berpiztu dadin.(28.orr) Aldekoa, op.cit.



«Hodeia»/«bihotza» objektu sinbolikoak ditugu sema amankomun aniztunak (gorputzaren hodeia edo ur sortzailea bihotza da eta zeruko bihotza hodeia) ura odol bihurtzen den munduan; «Ordu miragarriak»/«izarren esnetik» kanpo semantiko biok lotzen dituzten irudi metaforikoak; Zerua/denbora, begira/egarria kanpo batetik besterako bidea ibiltzera behartzen gaituzten esparru semantikoak. Arkotxak⁴³ dioen legez sistole-diastrale taupadak bailiran, biak egitura piramidaldunak —bertsolero bat, bi eta hiru puntu diakritiko bakoitzak ideien garapena ondotik datorkiolarik— Lehenak bideak askatzen dihardu, bigarrenak, aldiz, integratzen:

Lehen ahapaldian:

1. Egoera: eremua (1.bertsolerroan)
2. Berdinketa: Ni=Landare (2. eta 3. bert.)
3. Egoera: Landare, ni / eremua (4-6 bert.)

Bigarrenean:

1. Egoera: Zerua
2. Prozesua: Denbora
3. Jarrera (jokaera) + Egoera = Ni

Hirugarren ahapaldia

*Azken eremuon natzalako atinik,
 bezur-lekuetan eztaukat zer-eginik,
 ta iruten dut astiro itogin sikua,
 nundik egunotan doakidan bihotza,
 entzun ezstelako ur lasterraren hotsa,
 apur bat busti dezan lurreko kolkua.*

(«Haritzia» =, 91.orr)

Puntu diakritikoek ez digute egitura piramidalik erakusten, aurrekoen kontrara. Dena da bat, komez bananduta, esaldi bakarra. Hirugarren

⁴³ *Hegats* «Maldan-Behera»-ren irakurketa baten inguruan, Donostia, Euskal idazleen elkarte, Ekaina, 1990, 145.orr eta hur.

ahapaldi honetan bilkura datorkigu. Simetria izango dugu aztarnabide unitate erritmikoek emana hasera haseratik (AA-B-CC-B); bestalde, sinboluek ahapaldian bertan dituzten kokaguneak tinkoak dira:

1. ahap: eremu latz honetan
eremuak
2. ahap: hodei batere
luzaro
3. ahap: natzalako atinik
doakidan bihotza

Ahapaldi honetako lehen hiru lerrokaden subjektua presunaia da; bigarrenean, ostera, presunaiaren pasibotasunaren bidez Espazio = presunaia berdinketa ematen zaigu. Espazio Denborak ere elkar loturik datozkigu, baina lehen lerrokadan egoeraz ari bazaigu ere bigarrenean prozesua da deskribatzen dena. Estatika/ /Dinamika azterrardatz interesgarri bi gemituzke inoizko.

«Azken erremuon»/«nundik egunotan»: Espazio-denbora berdinketa
«natzalako»/«doakidan bihotza»: Egoera deskribapen aktiboa/
/Prozesuaren deskribapen pasiboa
«itogin sikua»: kontraesanahien onargarritasuna
«lurreko kolkua»: bihotz den lurraren kolku =
= presunaia-espazioa berdinketa

Laugarren ahapaldia

*Eztut gaur ezer jan: eztut horren beharrik;
eta gau osoan egondu naiz itzarririk,
kandeletan ikusiz eulien egalak.
Barauetan eztut oinazerik aurkitu,
bakarrik egoteko asmotxo makalak,
eta lo-galeak benedikatu ditu.*

(«Haritzia», 91or.)

Laugarren ahapaldiari «penitencija» deskribatzea dagokio:

1. [-jan][-behar] [Barauetan][-oinazerik]
2. [gauan][itzarririk] [bakarrik][asmoak]
3. [Kandeletan][euliak] [lo-galeak][benedikatu]

Dakusagunez garbipidea ezagutzeko zantzuak hiru mailotan ematen zaizkigu: fisikoa, izpiritualean, metaforikoa. Maila bakoitzean diskurtso moeta bi direla deritzogu: irudiak, eskoiko hirukadan, kanpoko errealitatearen ezaguntzan oinarriturik eraikitako sinboluak genituzke. Ezkerrekoe-tan, berriz, kontzeptualizaturiko errealitateak haziz daroakigute. Hau Maldan Behera osoari, «Hariztia»tik «Lore-mendia»ra bata eta «Partiera»tik «Ditxa»ra bestea, heda dakiokelakoan gaude. Maila fisikoa deitu izan dioguna presunaiaren egoera fisikoaz dabil; bigarren ezagutza bakardadearen gaua heriotzarako urrats berri bat emango digu bertsootan, utopiaren izpiek kontrako bide osagarri egingo dutelarik —«itzarri» eta «asmoak»ei Vitalismo deitu izan zaie—. Kandelak eta euliak hilik datzan gorpuari inguratzen zaizkion objektuak dira; atabutaren barneko fenomenoak loaldi eta benedikaturat eman izan da.

Deskripzio maila honek errealitatea sortzen du eta osagarri gisa dator-kiguru hurrengo ahapaldiko errebelazio iragatea, gertakizunarekin lotuko gaituen iragarpena.

Boskarren ahapaldia

*Gainerakoa da alperrikako gauza:
Hermita eroria, hobietako lauza
eta maitalearen gorputz usteldua;
ezpaitzekidaten benetan erantzuten,
mugitu ezineko itxura hartu zuten
herio geldiarenekin mustur zimeldua.*

(«Maldan Behera» 92.orr)

Iragarpen⁴⁴ hau lehen hiru bertsoetan datorren testuari oratzen zaio eta, bigarren hirukotean, kanpo erreferente mitiko literarioari (Eskritura Sainguei, hontaz), Aldekoaren lan argitaratugabe aipatutik deduzitzen du-danez: Ediporen Esfigiek planteaturiko galderari erantzuteko gauza ez zi-relako, edo Orfeok edo delakoek Huri pekatarien hondamendiari begiratu

⁴⁴ «¿Cómo la invasión de las almas de los muertos podría ser otra cosa que el signo de una suspensión del tiempo profano, la realización paradójica de una coexistencia del «pasado» y del «presente»? (...) Los últimos días del año transcurrido pueden ser identificados con el caos anterior a la creación, por dicha invasión de los muertos —que anula la ley del tiempo— y por los excesos sexuales que señalan la mayor parte del tiempo en esa ocasión.» Eliade, Mircea *El Mito del Eterno Retorno; Arquetipo y Repetición*, 62.orr.

ziotenez, hots, bizimodu zahar eta berritu, bataiatu behar zirenei so egin zietenez, gatzezko gizaintzura bihurtu ziren:

[Gainerako]	[alperrik]	[jakin benetan]	[erantzun]
Hobietako lauza	Hermita eroria	/itxura	/mugitu ezin
+ gorputz usteldua			+ mustur zimeldua
+ maitalea / herio geldia			

Benekotasungabea gomura ekarriz —edo lur antzuko gizakia den esfigiea Aldekoaren esanetan— aurreko ahapaldiak egitate iragankor traszendentalak azaldu badizkigu, edota errealitate gabeko ekintzetan (jan, lo...) galdu ez den gizakia, itzarririk baitago, honako hau, aldiz, itxura, hermita eroria, denboraren eraginez zahartzen diren elementuez osaturiko ahapaldia dugu:

a)1) gainerakoa _____lauza _____gorputza
Hermita erori_____usteldua

Gorputza *Templea* da alde batetik, gorputz hilaren gainean lauza datza beste mandatik, Eroria/usteldua denboraren eragin Qvevedotarra dugu azkenik.

a)2) gorputza _____gainerakoa _____lauza
Hermita eroria/usteldua

b)1) benetan jakin___erantzun _____itxura
mugitu ezin _____zimeldu

b)2) Itxura _____benetan jakin _____erantzun
mugitu ezin _____zimeldu

d) Gorputza = itxura

Benetan bizi ez den gorputza gizaki antzua da. Mugitzen ez dena iragangaitza da, intraszendentea, errealitaterik bagakoa. Poetak ahapalardi bakoitzean ideia berbera azalduko du aipaturiko diskurtso mota desberdinez, (sinbolu/kontzeptu). Traszendente diren hitz bakarrek Jesusen irakatsiak hausnartzera garamatzate: maitalea/herioa; biak maila, toki eta funtzio sintaktiko berebean jartzen ditu poetak. Ez diogu gehiagorik hatzematzen kasuan, baina lur antzuko esklaboen moralaz dabilelako usaina antzematzen

diogu. Hurrengo hiru ahapaldiak VI, VII, VIII elkar loturik komitatiboz hasiz datozkigu⁴⁵:

Sei, zapi eta zortzigarren ahapaldiak

*Gauerdi batekin agertu zen arraina,
zilarrezko ezkatatak eta buztan apaina:
Ez nuen konprenitu nundik etorri zen.
Goizaldean, noski, paratu zen marean,
ta gero sartu zen jarri nion sarean,
iheri neuganantza ahalik lasterren.*

*Bere aginekin eman zidan dolore,
kolore denetan: gorri, beilegi, more,
ikusten bainizkion begi biribilak,
gutiziarekin, bere hegal zimelak
ebaki zizkidan tenorean kordelak,
geldiro libratu nire orkatilak.*

*Eta indarrarekin eman zuen bizia.
Nire sabelean mendekuzko zuzia
izar baten moduan izeki zitzaidan.
Nire etsaiak zeuden lekurantza joan nintzen;
biak nituen hil, eta eguzki-brintzen
edertasun zabala argitu zen nigan.*

(«Hariztia» 92.orr)

Alde batetik kosmogoniaren erdigunean gaude; Borroka dator bai testu sakratuan zein leinuko zuribidean, idatziz nahiz ahoz aho. Borrokak

⁴⁵ Gure mana gramatikala ez da debaldekoa; poesia » sinbolua » zeinua » hizkuntza erai-kuntza batera datorrela uste baitugu. Poetak denbora instrumentalean emanda dotoreago letorkeela zekienik ez dugu zalantzan jartzen, are gehiago, ez dugu uste metri causa ezer egin zuenik, neurkerari legokiokeen esanahia erantsi barik behintzat. Ez dabil euskera inori irakasten eta edertasun poetikoa, klasikoki ulertuta, hots, ingeniozko erretolikan oinarriturikoa, ez dateke poema honen helburua. Alde honetan, inoiz baino matematikoago —Bequer bera baino areago—, hotzago eta, honela ulertzen badugu, pragmatikoago agertzen zaigulakoan geundeke, ez du sentimentalismorik sartzen —bere maiteñoaz ari denean inoiz edo behi malko garratzen bat itzurtzen bazaio ere, lapsus calami—. Ez dugu uste gure tre-bezia faltaz inpresionismo usaindun berbok erabiliagatik baloraziotan ari garenik. Ez dugu esanahi edertasun poetikorik izango ez luenik baizik eta ez dela hori testu artistiko honen helburua, hau da, Malda Behera-n ez dago kasualiterik, eta balego ez genuke abiapuntutzat hartuko, ezinbestean eta gure ezjakintasunaren ostean aitortuko baino.

kosmogonia eskatzen du, eta kosmogonia guztietan epifania dago⁴⁶. Alabaina ezin genezake ahantz testuan sinbolizatzen doazen elementuen azterketa, haxe baita helburua.

Seigarren ahapaldia

Azterketa estatikoari gagozkiolarik elementu garrantzitsu batzuk sailkatuko ditugu:

Denbora: Noiz: Gauerdi batekin
Goizaldean
Noiz (nola): Lasterren
Abrea: arraina: elementu harrigarriak {zilarrezko ezkatat buztan
apaina}
Espazioa: -nundik {marean, sarean}
-neuganantza

Espazioa deitu izan diogun sailean gertatuko da elkarrekiko eragina. Denbora moeta bi ditugu epifaniako denboran, non kontrako informazio objektiboa emateaz esanahi berbera adierazten digun, eta eraginean, prozesuan, ekintza sakratuetan higitzen den denbora erlatiboa. Abrea, monstruoa (herensugea gure mitologian, sugea beste tiresiaikoetan), berezkabetuaren sinbolua izan ohi da (itsasoa dena den, Jaun Zuria). Denbora epifanikoa, Gauerdi/Goizalde esanahi berekoak direla esan dugu, denbora puntuala da eta, hontaz, puntu hori osotasun bat lege harturik, infinito eta absolutua. Higituz doana, aldiz, denbora erabilia, hilkorra, egaria da, ekintzaren menpe eta erlatiboa: «lasterren». Abreak, kosmogonia

⁴⁶ «Hantxe deabruekin aurkituko da. Hori izango da Graziosoak aurrera atara beharko duen lehenengoko eraso. Deabruak eraso egiten diote. Eia jarraitzen dugun metodologiaren arabera, Graziosoak monstruoarekin borroka izango du, eta baita ere galdu, beraz badirudi antiheroen baten aurrean aurkitzen garena. Ez da gizon hau deabruak jarritako borrokari erantzuteko gai izan.

Deabruak baina infernuko izakiak izanik, ez da ahaztu behar metodologiak proposatzen duen pausu bat. Grazioso *descensus ad inferos* bat egin du bere pasade hortan, deabruekin aurkitzen bait da. Hala eta guztiz, jeiskera hori ez da benetakoa, deabruak mundura etorri baitira gerra egitera, eta horregatik ba, hobe izango da zati hau monstruoren aurkako borroka bezala onartzea. Baina dinogunez antiheroen baten borroka da, monstruoa inabazteko gai ez den batena, hain zuzen.

Baina ez dira arazoak hor bukatu. Zeren iraingarria izan bada deabruen kontrako borroka hori, iraingarriagoa izango da Mari Gabonen aurkakoa. Mari Gabon ere borrokagatik monstruo bezala agertzen bazaigu ere, ez da hain zuzen, hau bere papera. Nolabait esateko ba du pertsonai honek monstruo baten ezaupidea: indartsua eta bildurgarria: Grazioso jotzen duenean ba dirudi emakume indartsuen topikoarekin jokatzeko ari dela Barrutia, eta zentzu hortan izango luke bigarren maila bateko etsaiaren irudia.»

Kortazar J. *Altxorak eta bidaiak* «Barrutiaren Gabonetako ikuskizuna» Derio, Colección Magisterio, 1985. 87.orr.

elezahar guztietan etsaia denak, ezereza gura du esan eta berorren zatiez —esana denez— atonduko da mundua. Itsasoa⁴⁷ da materia itxuragabe guztietarik lehena eta orokorra. Arraina, bestalde, kristautasun goiztiarrak erabilitako sinbolua da; Christus Arrantzale Nagusia litzateke eta, aldi berean, arraina bera: Sakrifikatzaile eta sakrifikatua —gogoratu Meza-ren etimoa zein den—. Honegatik epifania deitu izan diogu: ikar mitikoetan berezkabetuaren sinbolua dena metaliteraturan Jesus genuke, —arrunta ez denaren agerpena dena den, bai Antolatzaile Nagusiarena bai Ezerezaarena—, testuan identifikazio paradigmatico hau sintagmatikoki gauzatzen delarik, horren kontra arituko litzazukeen heroia benetako salbagilea genuke; hau da, ikar ezberdinetan kontrako funtzioa luketen elementuak biltzen dira testuan eta poetak obra osoan egin behar duen teoriaren berriztapena aurretik dagoenari buelta ematean datza gerokoa eraikitzeke, zertu dagien. Ezaugarri miragarriek sinboluaren lehentasun eta garrantzia azpimarratzen dute. Beste manda batetik, hizjoko gisa, Sn.Migel Excelsis-en ezaugarriak zilarrezko ezPata eta buztan apainak⁴⁸ lirateke, hau da, herensugeak sinbolizatu-ko lukeen paganismoa desegin zuenarenak, Santurik zaharrena denarenak⁴⁹. Ez dakigu San Gabriel —ez Gabino ezta Aresti ere, bestea, Luziferren ikara— baino zaharragoa denentz, dakiguna da, laborantza mitoetatik hur grekoen Sn.Jordi bailitzan, Juduen Saindua bazela Jesus jaio aurretik.

Gauerdia hamabiak dira, hurrengo txatalean ikusteko beta izango dugunez hamabiak dira urteko hilabeteak, denborari begira osotasuna, Amaya, hamabiak dira Gabon gabatik Hiru Errege egunera, Epifaniara, doazen egunak (hilabete bakoitzeko ordezkariak⁵⁰). Jesus jaio zeneko ordua esan beharko genuke. Goizaldea, berriz, hasiera baino lehentxeagoko

⁴⁷ «6: "Ortzia izan bedi uren erdian, eta urak uretarik berez betza."»

7: "Eta Jainkoak egin izan zuen ortzia, eta ortzi gainaldeko urak azpikaldean zirenetarik berezi izan zituen. Eta hola egin izan zen."

8: "Eta Jainkoak ortziari izentzat eman zioen zerua. Eta arratsetik eta goizetik egin izan zen bigarren eguna."

9: "Jainkoak erran zuen gero zerupeko urak batera bil ditezela eta ager bedi leihorra. Eta hala egin izan zen." Duvoisin-en itzulpena.

⁴⁸ «Es típica en una inmensa área de Navarra la bella estampa de la efigie alada, emergiendo de los paños bordados de una pintoresca falda.» Satrustegui, J. M^a. *Mitos y Creencias* Iruñea 1987. 4.ed. 120.or. eta hur.

⁴⁹ «La devoción a San Miguel es muy antigua en la Iglesia. Más antigua que ella misma, pues se trata de una herencia semítica. Ya los judíos lo proclamaron 'protector del pueblo de Dios' y en este sentido pasó a las primeras cristiandades.» Satrustegui, J. M^a. *Mitos y creencias*, 129.orr.

⁵⁰ «...se determinaban los presagios para cada uno de los doce meses del año, lo que equivalía a crear los doce mese por venir.» Eliade, M.; *El mito del eterno retorno...* op. cit., 58.orr.

«Asimismo los doce días que separan Nochebuena de la Epifanía siguen siendo considerados actualmente como una prefiguración de los doce meses del año, debido a que el Año nuevo repite el acto cosmogónico.» Eliade, M.; *ibid.*, 68.orr.

ordu misteriotsua, Homeroren poetizitateak sorturiko atzamarrek zauritu bako ordua, Asiera. Esanahi berbera dute, baina goizaldeak eguzkia eskatzen du eta honen konotazioak bereganatzen. «lasterren», aldiz, ez da izendatzailerik nolakotzailerik baino, ez du denbora deskribatzen ekintza behatu baino denboraren beiraz iragaziz. Denbora hau erretzeak zaharkitzen gaitu eta denbora sakratua berreskuratzeko lehendabizikoa berreraiki beharko. Honetatik denbora profanoa kontsumitzea oso da arriskutsua.

Espazioari gagozkiola nondik-non-norantza erakusten dizkiguten sintagmek dinamika bat azpimarratzen dutela esan beharra dago. Espazio berezia dugu hau, elementuek elkarri eragingo dioten lekua. Higidura nabarmentzeko atzizkiei begiratuko diegu:

Marean
 Nondik _____ neuganantza
 Sarean

«Nondik» eta «norantz»-en bidez jatorria eta helburua azaltzen zaizkigu; inesiboz, berriz, borroka planteatzen da. Sarea majia da, babesa, jakituriazko harma beldurgarria⁵¹, Kristoren seinalea; Marea, berriz, antolamendu ororen ezabaketa, nonatoen mundua, itxuragabezia, profanoa. Iruditzen zaigu ez *nuen konprenitu nondik etorri zen* intertestutan Jesusen kontzezioari egiten diola aipu, alde mitikoan (ezerezak ez baitu hasierarik eta, gainera, ezin genezake ez uler ez goberna) jatorri eza adierazten den legez, eta sintagmatikan presunaiaren jokaera azaltzen grekoen misterioa bailitzan gudu ofizialen egitasmoeikiko. Hontaz, arerioaren strategiari presunaiak ez dio erantzuten, hurrengo urratsa arrainak emango du, halaber, baina presunaiak bere burua sareaz babestuko du eta arrainak ihardungo du babesa hausten. Arriskua azken lerroak darakuskigu: Mareak sareari irabazi dio ezen arraina iherian dator, eta denbora profanoak ere aurrera egiten bait du (*lasterren*):

	A. (Paratu)	
	MAREAN	
ARRAINA _____(etorri)	Ni (0)	A.(iheri)
	NONDIK _____	_____NEUGANANTZA
NI _____(ulertu)	A. (sartu)	Ni (0)
	SAREAN	
	Nik (jarri nion)	
Gauerdi batekin	Goizaldean	Lasterren
[–]	[+]	[–]

⁵¹ Indra eta Varuna.

Zazpigarren ahapaldia

aginak (eman)	{ dolore }	{ gorri {begilegi} more }	gutiziarekin {begibiribilak}	____nik (ikus)
(ebaki) hegal zimelak	{ kordelak orkatilak }			nik (libraturik)

Deskripzioari legozkioken espazio denborak ez zaizkigu agertzen «geldiro» izan ezik zein tankeraz berdintzen eta esanguraz jazartzen zaion aurreko ahapaldiko arrisku hurbiltzearen aztarna zen «lasterren»ari. Dena, hemen, ekintza eta burruka da. Espazio adierazle bakarra, bai barnekoa bai kosmikoa, koloreak dira: *gorri*, *beilegi*, *more*, gorria-sua, begilegi-lurra, eta morea-urraizeak, hidros eta atmos, maila kosmikoak hiru bada, Aldekoak⁵² azaltzen dituen Aristotelearen lau elementuak ez dabilta hain urrun. lehengoz urratu den batasun kosmikoaren bidari nolabaiteko jarraipena emateko edo. —Ez dago esan beharrik ez dela kasualitatea Errepublikak bakarnez ezagutubage gomuntatuaren koloreak izateaz gain San Juan de la Cruzek Fede, Karitate eta Esperantza iduritaratzeko erabili zituen koloreen aurkakotzat har genitzakeela—. Itsasoak esangura bikoitza luke, alde batetik infernua, bestetik, berezkabea; Jangoikoak urak banatu zituen Genesian, baita Egiptoko eskola teolojiko⁵³ batek azaltzen duen modu berberara ere; Neptunoren ezugarriak Erdiaroko Txerrenak bereganatu zituen; Itxasoaren ezaugarriak nabariena sakontasuna da, hortaz infernua, baina, bestalde, bizitzaren sorrera litzateke⁵⁴;

⁵² Aldekoak aipatu lanean Jainkoen zeinutzat interpretagarri gisa azal litekeela dino; honetan ortzadarra/hodeia jazartzen dira batak euri besteak aterri, batak uholde besteak itun, batak bizitza (dinamika) besteak egarria (egonaldia).

⁵³ «En Heliópolis, ya con anterioridad a la V dinastía (2501-2342), sus sacerdotes habían estructurado una teología propia -doctrina heliopolitana- que, reflejada en los *Textos de las Pirámides*, tendría su desarrollo durante los Imperios Medio (2060-1633) y Nuevo (1567-1085), quedando así recogidos algunos de sus aspectos en el *Libro de los Muertos*. Según dicha escuela, de concepción espiritualista, en el origen sólo existían aguas primordiales, el Nun, de donde surgió Atum-Re (en otra versión se dice que se autcreó), el cual creó una primera pareja de dioses, Shu (el aire) y Tefnut (el fuego), que a su vez engendraron a Geb (la tierra) y a Nut (el cielo). Esta pareja engendró luego a Osiris, Seth, Isis y Neftis, componentes todos ellos del mito ostrico.» F. Lara Peinado *Libro de los muertos* «Estudio Preliminar» XXI or. Madrid, Tecnos, 1989

⁵⁴ «En el curso de la ceremonia Akitu, que duraba doce días, se repite solemnemente, y varias veces, el poema llamado de la creación: *Enuma Elish* (...) Así se reactualizaba el combate

hau ez da inondik eta inora kontraesanahia. Hegalak⁵⁵ beste ulerketa baten Eternidadearekin daude lotuta zuzenean.

Bigarren ahapaldian prozesu bikoitza ematen da: lehengoz presunaiak kanpoko inguru sakaratua barnekoarekin parekatzen du, sabela eta eremua, «izarra ... argitu zen **nigan**»; gero, sorketa bera haren barruan ematen da kanpokoaren antzera, kordelak ebagiz,... eta heriotzarekin, pizkuntza, Jainko-arrain hats-haginkadaz. Eta jaiotza guztietan gertatzen den legez, negarrez hasten da, bizitza berrira. Beste ikuspegi bat genuke borrokan edo hilketan, borrokek ere hierofania suposatzen baitute (Dn. Carnal eta Dña. Cuaresma), borroka inizatiko horien bitartez kolektibitate osoaren garbiketa suertatzen delarik. Bada beste puntu bat bereziki aipatu beharko genukeena: Nitasuna eta inguru natural sinboloez betea identifikatze prozesua, hots, lehen zati honetan ageriko zaizkigun natura sinbolo guztiak presunaiak bereganatuko ditu, honekin naturan gertatzen diren gauzak esanahi sakaratua dutelarik beregain hartzen ditu eta berak egiten dituen ekintza guztiek leku sakratua aurkituko dute, beraz, ez dira galduko bada errealitatean kokatuta daude. (Bigarren zatia analitiko eta aristotelikoagoa genuke eta Errenazimendu eta Gotiko Loratuaren artean suertatu zen jauzi berbera legoke hemen).

Identifikazio zehatzak ez zaizkigu baliagarri, asko dugu jakitearekin osotasuna adierazten dutela koloreok, eta espazio oso hori barneko espazio berbera denez gogo espazioa litzatekeela. Beraz, aktante bien deskribapena eta euron arteko eraginaren narrazioak izango ditugu ahapaldi honetan:

Arrainak ditu	{	aginak begi biribilak hegal zimelak
Nik ditu	{	dolorea kolore denetan kordelak orkatilik

*entre Marduk y el monstruo marino Tiamat. (...) Marduk creó el cosmos con los pedazos del cuerpo desmembrado de Tiamat y creó al hombre con la sangre de Kingu, demonio al cual Tiamat había confiado las **Tablas del Destino**.*» M. Eliade ; *El mito del eterno retorno...*, op. cit., 57.orr.

⁵⁵ «*Se sabe que los hebreos parecen haber pensado que las águilas recobran la juventud mudando las plumas;...*»

Frazer, Sir James: *El Folklore en el Antiguo Testamento*, 30. orr. México, FCE, 1981, 2.^a ed.

Arrainak egiten du	{	dolorea eman ZEREZ aginekin ebaki kordelak hegalekin libratu orkatilak
Nik egiten du	{	ikusi begi biribilak gutiziarekin ⁵⁶

Danteren ontzak narru polit pikarta zuen eta Jainkoaganako maitasunak bultzatzen du poeta ontzaren narrua eskuratzerara; arrainak ere gutizia gainditzeko zilarrezko ezkatat zituen, eta begiak Platonek maite zuen zentzuaren zantzua lirateke: «Nire begietatik puntu bat ere ez da alden-tzen» dinosku Dantek. Alabaina gaitza zaigu oso hagin en esangura ateratzea. Hontaz, har ditzagun kautan Danteren ontza, legoi, otsameak, baina ahapaldi honen azterketari berari lot gakizkion:

MAILA FISIKOA

*Aginekin
Eman zidan dolore
Ikusi bainizkion begi biribilak*

MAILA IZPIRITUALA

*Gutiziarekin
Ebaki zizkidan kordelak
libraturik nire orkatilak*

⁵⁶ Otsamea guk uste, Danteri lotzearren:

«Cuando, al trepar, ve aquí se me presenta
onza veloz con piel de pinta rara,
que en el suelo la garra ni aun asienta.*

*«De mis ojos ni un punto se separa;
antes tanto embaraza mi camino,
que cien veces tenté de volver cara.*

*«Era el nacer del alba matutino,
y el sol iba ascendiendo con aquellas
secuaces dél, cuando el amor divino*

*moverse hizo a su voz soles y estrellas;
así que a poseer me mueve ahora
de la fiera la piel de manchas bellas*

* En la onza, el león y la loba, que se oponen a que Dante suba al collado que doran los rayos del sol (esto es, a la moral y política regeneración de su patria), están simbolizados los defectos de los hombres tales como la envidia, la soberbia y la avaricia.»

Dante Alighieri *La Divina comedia*, «Infierno» I kantua, trad. Conde de Cheste, Madrid, Edaf, 1989 34-35.orr.

Haginak gutziaren sinbolu fisikoa direna badakigu orain, jakin ez dakiguna da testuan zein esangurari begira dauden hagingutiziok. Korde-lak⁵⁷ mozteak bi gauza esan ditzake, edo babesa hausten duela edo sorgin kaltea desegiten duela, Heraclesek Prometheori bezala; dakusagunez biak elkarren aurkako dira. Hirugarrenean sintesia datorkigukeena badakigu alde aurretik, nitasuna agertu behar baitzaigu aurreko ahapaldietan bezala. Ikustea libratzea izan liteke. Orkatilak gorputzako beherengo partea ilfernurantzago, beherakatzatza legez, (Freud-en kodean oina arren sexuaren sinboluetarik bat bada ere) edo ihes egitekoak lirateke. «Ikusi»k eta «libratu»k «jakin» esan nahi balute «begiak» eta «orkatilak» goien barrenak lirateke, hagingutiziak legexe. Guk uste Danteri irauli egiten diola hau guzti honekin; Danteren komiriari legozkiokeen hirukoetan, ihartsitik libratzeko bidea ontzaren narrua eskuratzea litzateke, Jaungoikoaren ahotsak sorturiko Maitasunaren bitartez ezarritako barealdia zela medio⁵⁸, hots, begien bitartez begiok sortutako pekatua; gure idazleak, ordea, begion bidez loturik zeuden gurariak libratu pekatuzkotasunetik aldendurik. Poeman leku eta denbora lortu zituen gizakia nahimenaz eta arrazoimenaz ornitzen du.

Zortzigarren ahapaldia

Aurreko ahapaldian bereganatu duen jakintza dela bide garaipena eskuratuko du presunaiak oraingotan, eta garaipenak bizitza suposatzen du. Zortzigarren ahapaldi hau laugarrenari lotzen zaio; han gorpu bateko izpiritu bizia bazen, hemen heriotza eskatuko duen sendimendua jaiotzen da bizitzara. Garapen hau lehen aipaturiko konmitatiboak darakuskigu: «Gau batekin», «Aginekin», «Indarrarekin».

LEKUAK: sabelean_____Lekurantz_____nigan

Alde batetik sabela da bizitzaren sorlekua, etsaiak dauden lekua heriotzarena izango den legez. Bestalde, kosmogoniaren lehen aldiaren

⁵⁷ «...Las redes y los nudos embrujan, y también protegen sobre el embrujamiento;» Mircea Eliade *Imágenes y símbolos*, 117.orr.


«Por otra parte, el laberinto se concibe a veces como un «nudo» que debe «desatarse», y esta idea se encuentra en un conjunto metafísico-ritual que contiene ideas de dificultad, peligro, muerte inanición.» Mircea Eliade. *Imágenes y símbolos*, op. cit., 121.orr.

⁵⁸ «Eguzki-brintzen» gero Arestik.

sintesia dakarkigun ahapaldi honetan egitura piramidala berreskuraturik, abstrakzio prozesua hiru hortzetan ematen da, oposizio joko bikoitza agerteraziz: Bizitza/Heriotza, inguru/nitasuna. Azken honek, berriz ere, borrokak lekarkeen bereizketa ezabatu baino nitasunganatuko du ingurua. Azkenik, esan beharra dago, azpi unitate izan daitekeen hiru ahapaldikada honen lehendabizikoan gertatzen zen eragintokiaren higidura nundik-non-norantza bazen ere, honako honetan non-norantza-non suertatzen dela, ekintza bukaturik dagoelakoaren seinale gisa. Denborarik ez zaigu agertzen, ez sakraturik ezta arriskua azpimarratzen zuen denbora profanorik ere. Presunaiari gagozkiolarik interesgarria iruditzen zaigu aditzetan esku hartze esanguratsua, piramidea azaleraziz:

1. Lehen bertsolerroan: ez da agertzen, urrun geratzen da presunaiaren kondalariaren funtzio klasikoetan bezala: subjektoa arraina da eta emaitza bizitza, ez dago espreski azalduriko hartzailerik aurreko ahapaldien kontrara: zuen/zidan.
2. Bigarren eta hirugarren bertsolerroetan: kondalaria hartzailea da, baina, beheak eta goiak iruditaraturik, ez dago oraindik sintesia osaro eginda.
3. Bigarren ahapalardia, lau, bost eta seigarren bertsolerroetan: Presunaiaren subjektu bihurtzen da; lehenago iragangaizki, gero heriotzaren igorle izanik ergatibotasun osoz eta, amaitzeko, datibo baino, aipatu dugun espazio sinbolizatzen horretan, hartzaile bihurtzen da.

Abrea ez dago iada; honen ordez, argigailu eta bideak ditugu:



Ispilu batek galduko ez zukeen bikoiztasunaz datoz emanak; barnera begira, goiari so:

PRESUNAIA	mendekuzko zuzia
KOSMOSA	izar baten moduan
KOSMOSA	eguzki-brintzen
PRESUNAIA	edertasun zabala

Hurrengo bereizketa, orain arte sistematikoki agertzen zitzaiguna eta unitate erritmikoez manatua, (Abendañoakoari itaundu barik) aditz hauek erakutsiko digute beharko genukeen giltzarria:

IZEKI = ARGITU
mendekuzko zuzia = eguzki-brintzen
izar baten modura = edertasun zabala

Esanahiari dagokionez badakigu sinbolu eta metaforek ozkatuko dutena, hala ere badira oraindik argitu gabeko zantzuak: Indarra, bizia / biak, hil

Indarrarekin _____ bizia
hil _____ biak: arraina
gutizia

Sailkapenik errazena elementu positiboak negatiboei jazartzean datza: hil/bizia, bata aditz partizipioa, bestea objektu zuzena den izena, objektutasun-ean berdinduko lirateke; «hil»-ek hartzaile diren objektuak ditu eta, hontaz, bera da bezua; «bizia»-k, berriz, ez du hartzaile agerririk. Esanahiaren aldetik gauzak argiago daude eta honek ezarriko digun ardezpean uztartuko ditugu geratzen zaizkigun elementuak: Bizia/hil, Indarra/biak. Bereizketa honek honaxe garamatza: indarra bizia bada eta biak hil, zeintzuk dira hildakoak? Proposamen literarioek esango ligukete Legoi otsame Dantiarrei zegozkiela, baina testura begira hagingutizietan erdibitu den Abrea delako ustea dugu, eta banandu den munstroa indarrari oposatzen zaiolakoarena⁵⁹. Hontaz:

A)

INDARRA	{	mendekuzko zuzia	sabelean	}	BIZIA
		izeki zitzaidan	izar baten moduan		
		etsaiak zeuden lekurantza	eguzki-brintzen		
		biak nituen hil			

B)

INDARRAREKIN	{	zuzia	sabelean	izeki	}	BIZIA
		izarra	etsaien lekurantza	hil		
		eguzkia	nigan	argitu		
		edertasuna				

⁵⁹ Berriz ere Nietzsche. Hala eta guztiz, guk uste, poetak bien arteko sintesi propioa, hobeto azaldu behar dena, adierazten digula.

Bederatzigarren ahapaldia

*Eremuak ere dauzkalako mareak,
behera eta gora egiten du hareak,
eta nire gorputzak ezin egon zutik.
Arroken ostean agertu den etsaia
ene begian da baratzeko galaia,
itsuki baitiotsat: Ken hadi hemendik!*

Azpiunitate berri bat hasten zaigu hemen; Lehen ahapaldian espazioa mintzagaia bazen, boskarrenean espazio horretako egiturak edo legozkiokeen gizateria, tolestura, antolamenduei loturik datorkien bederatzigarren ahapaldi honek berriz ere Eremua/gorpua du berbagai. Egitura bikoitza piramidaltasuna ezabatzeko adin indartsu dagerkigu: Deskribapena/Narrazio dialogatua:

1.

EREMUAK _____	hareak	}	behera	}	_____	GORPUTZAK
	mareak	}	gora	}		

2.

(non) Arroken ostean _____	ene begian	}	Ken hadi hemendik
(zer) Etsaia _____	baratzeko Galaia		

3. a) Eremuak/Arroken ostean	b) gora/behera
Gorputzak/Ene begian	Etsaia/Galaia
	hareak/mareak

Borrokaren ostean unibertsoa sortua litzateke, eginik legoke, baina ez dago mugatuta, ez da oraindik sakralizatu⁶⁰; bereizkabeen erortzeko

⁶⁰ «... si queremos delimitar y definir lo **sagrado** necesitamos disponer de una cantidad suficiente de **sacralidades**, es decir, de hechos sagrados. (...) ... se trata de ritos, de mitos, de formas divinas, de objetos sagrados y venerados, de símbolos, de cosmogonías, de teogómenos, de hombres consagrados, de animales de plantas, de lugares sagrados, etc.» (23.orr.) (Eliade, M., *Tratado...*)

«Pero lo cierto es que todo lo que el hombre ha manejado, sentido, encontrado o amado pudo convertirse en hierofanía (...) Evidentemente no se trata de que **toda** la especie humana haya pasado por **todas** esas fases, de que cada grupo humano haya conocido, una tras otra todas esas hierofanías. (...) Pero cada grupo humano ha transustanciado por su cuenta, en algún lugar,

arriskuan geundeke eta irutu dugun haria hauts liteke. Horren beldurrak iraganezean ibiltzetik historia eratzera bultzatuko gaitu. Harean eta Marean forma gabeko esparruetan ez gaitezen ibil tentaldia gaudituz behar da, Harresiak eraiki, laberintoa ezarri geure buruak defenda ditzagun. Gutasuna agertzen denean erdaltasunatik bereizi beharra sortzen da eta honek antolamendua eskatzen. Gorputza intraszendentea da gora eta behera dabilen artio; hareaz gain, mugarririk ez badager galdu egiten gara etsaien hamalau zakutan, edo marroen artean.

Ahapaldi honetan Lekupresunaiaren intraszendentsia, benetakotasun-gabezia azalduko zaigu lehen hirukotean. Bigarrean, ostera, harresi izaten hasi diren «Arrokak» daude, ni ez den etsaia datorkit eta nire gorputz harresi diren begiez bestaldeko antolatugabeko esparru hori, antolatzen doan barne esparrutik aterariko erantzun batez usatuko dut. Jesusi sæculumetik aldendu zeneko garizuma garaian gertaturiko pasadizoarekin parekotasunak gomura dakazkigu. Zein baratzez ari zaigu poeta? lehen gure interpretazioa ez den arren, posiblea dena esango dugu; parabizua balitz, baratzeko Galaia («Lore Mendia»-n pertsonaia berbera aipatuko dena, bestalde —han *Miren*⁶¹ izaki—) Jatorrizko Pekatuaren ostean Parabizuko atepostetan Jainkoak jarritako zaindari beldurgarria izan liteke, San Gabriel alegia. Gogora dezagun, halaber, kaukasoko mendirik haituenean loturik Zeusen Arranoaren goseari aurre egin behar zion Prometeo. Gure interpretazioan, berriz, baratza Mundua da, eta honen zaindaria deabrua, baratz sinboluak Munduko intraszendentsia guziak hartzen dituelarik bere baitan:

Antolagabea	»»» intraszendentsia
Eremu/gorputza	»»» harea/marea gora/behera
Harresiak:	
Eremuak	»»» Arrokak _____etsaia
Gorputzak	»»» begiak _____baratzeko Galaia

en un momento histórico dado, cierto número de objetos, de animales de plantas, de gestos, etc., en hierofanías,... Mircea Eliade *Tratado de Historia de la Religiones* 35.orr.

⁶¹ *Baratz honetara atzo nintzen etorri.
Kolare guztiak, beilegi, more, gorri,
lilietan zaizkigu agertzen hemendik.
Eta baratzainak izena dauka Miren:
bere begietan lore guztiak ziren;
dantzella da garbia, engaño gaberik.*

(Aresti, G. *Malda Behera* «Lore-mendia», op. cit. 116.orr.)

Hamargarren ahapaldia

*Haitz gorri beltzetik datorren arranoak
moldegaizki lotzen dizkit anka-besoak,
eta laket bizian etzaten da lotan.
Koba sakonetik irten duen sugeak
egunero dizkit moztutzen bost erpeak;
hegaztinari zaio hurbiltzen narrastan.*

(«Hariztia» 93.orr)

Simetrikoak diren hirukote biotako ezberdintasunak hauexek lirateke:

Haitz gorri beltzetik / Koba sakonetik
lotzen / moztutzen
anka besoak / bost-erpeak
ARRANOA / SUGEA

Zararustaren kideon esanahia zaila da erabakitzen: Arranoa zero zatia izan liteke eta Koba Sakonetik irtetzen duen sugea infernuaren ordezkaria. Betiko legez, espazioa sakralizatzeko komunikazioa lortu behar da, zero-lur-ifernuak batzandurik; honek aurreko kosmogoniatik aldentzen den bereizketa garrantzitsua ematen digu. Aurrekoak sortu duen esparrua, arrainaren aurkako borroka Atlas eta Cronos-ek gobernatuko luketen mundu sorkuntza litzatekeena, intraszententzian edo itxurabakoien munduan galtzeko arrisku bizian zegoen esparrua antolatzeko, gurea delako zeruaren antzo tolostu beharra dago, eta hori egiteko *Illud Tempus*-a berrezarri behar da, Olinpon Gizasemealabak eta jainkoak eguneroko harremanetan bizi zirenekoa, edo Sugearen bitartez Sagarrondoko araua⁶² hautsi aurretikakoa. Horretarako Ezagueraren Zuhaitza eraiki beharko litzateke, Zuhaitzek —Gernikako zein Elimeko— zerulurak elkar komunikatzen baitituzte.

Oraindik elementuak datozkigu, zerua aurrena eta gero ilfernu; ohar gaitzen alde batetik «Haitz gorri beltzak» —koloreok ere duten esanahia

⁶² «En esencia, toda la historia de la caída parece ser una tentativa para explicar la mortalidad del hombre...»(28.orr.)

«En esta narración todo gira alrededor del árbol de la ciencia del bien y del mal (...) Pero un examen más atento nos permite percibir un segundo árbol, que se levanta al lado del otro en medio del jardín (...) nada menos que el del árbol de la vida, cuyos frutos confieren la inmortalidad a todo aquel que lo come (...) Los ojos de los actores se hallan vueltos hacia el árbol del conocimiento, no parecen percibir el árbol de la vida.»(27.orr.)

«Todo lo cual nos lleva a pensar que se trataba de un árbol de la muerte y no de un árbol del conocimiento...»(28.orr.) J.G. Frazer *El folklore en el Antiguo Testamento*, F.C.E.

dutela, zehazki esaten ez dakiguna— harresi edo sakralizatuko den esparruaren lehen mugaketa liratekeela eta, bestetik, Azkorri gure orografiako toponimo bat delarik⁶³, mendiak mugak izan ohi direla; baina baita kontrakoa ere, Barrengo Vulcanorekin batera zerurantz doan lurra, Zeusen zigorra. Honelako interpretazio batek lekarkeen arazoa orokorki eta bereziki kultura bakoitzean josten den apaizpoetaren pentsamoldea ezagutzean letzake. Hau da gure kezka: zer esangura duten lotu/moztuak, zein den positiboa eta zein usagarria. Yavhe, zigorren Jaina, sare batez iduritaratzen zen eta, esana denez, Jesus Babestzailea Arrantzale Nagusia zen; lotu bizitzari ala heriotzak dakarren denborari? Zertarako Prometeoren eratzuna? askatu bizitza ala gaitzatik? Eta abar. Erpe eta hanka besoek komunikabideak adierazoten dizkigute, Arbola adargabeak gomuntatzen ditugu, baina bost⁶⁴? Testuan ez genekike esaten, segurutik espazioa sakralizatzen dabilel.

Hamaikagarren ahapaldia:

Batzutan diotsat ilunpeko jaunari:
Pozetan negarrez, doloretan kantari,
gizona zen emazte urrikaria nauk.
Nire ezpainetan dagoen ur gazia
oraintxe kentzeko, egin zaidak grazia:
Ezin paira nitzake premia gogor hauk.
 («Hariztia» 93.orr)

Aldekoaren proposamena⁶⁵ onartuz Tiresias deituko geniokeen ahapaldi honetan, berriz ere egitura piramidalaz, baina oraingotan apur

⁶³ Ez da hain harrigarria mendi izen erreala eta Euskalerrian kokatua dagoenarena erabiltzea testu honetan, aurrerago ere holakorik agertzen baitzaigu:

Gorbeia baino gorago,
askozaz goragoa.
Arginek egin digute,
harmore bat haltua.
Izena jarri diote,
apaizek itsasoa.

(Aresti, G. *Maldan Behera* «Kaminoan eginiko gogoeta eroak», op.cit.123.orr.).

«*Nos hallamos en presencia de una geografía sagrada y mítica, la única efectivamente real, y no de una geografía profana, «objetiva», en cierto modo abstracta y no esencial, construcción teórica de un espacio y de un mundo que no se habita y, que, por tanto no se conoce.*» Mircea Eliade *Imágenes y símbolos*, 43.orr. Madril Taurus 1974.

⁶⁴ Aldekoa op.cit., 18.orr.: «*Ziklo monumental honek bizitza eta natura den oro egituratuko du bere bost monumentuetan: kreazioa, erorketa, herbestea, berrerospena, ekanketa.*»

Bestalde bost dira Maldan Behera ematen diren belaunartzeak: «Hariztia», «Lizardia», «Iratze ederra», «Lore-mendia», «Herri-bitartea».

⁶⁵ op.cit.

bat arauz kanpo, arreta deitzen digun lehendabiziko gauza letra moldea da: borobila lehen lerroa, etzana hurren datozenak. Borobiletan bertan beste hitz bategen harrutuko gaitu: «jaunari»⁶⁶. Errebelazioa sorkuntza da eta intertestoa, berriz, errituala litzateke; oraingotan espreski aditzera emanikako aipamena dugu, badirudi hitz majikoak errepikatzen dabilela.

Gure inorantziaren putzutik aterariko zenbait proposamenez gatzokizu: «pozetan negarrez, doloretan kantari»: Denmarkako errege berriak anaiaren hilketaren osteko ezkontza du anuntzio. Dena den kontraesanak estasi giroa sortarazten du —San Juan de la Cruz-en poesigintzan parra parra irtengo zaizkigu horrelakoak—, eta Mitoetan sakralizatu orduko iniaziorako beharrezkoa den batzanketa hiztaratuko luke.

«gizona zen emazte urrikaria nauk»: honako Aldekoak Tiresiasen mitoa proposatzen du eta ondo deritzogu zeren Edipok hasitako lana bukatzen baitu: gure Hamleteko ahaideogenari ondo jatorkiolako eta arbasoekin beharrezko bezain iraultzailea den txilborrestearen mozketak —han aitarekiko, hemen amagazko— osaro ematen baitzaigu. Tiresias-ek hauxe lortu bazuen ere, jainkoen postura baten ondorioz, itsutu zen, antzinako Odiseoz besteren determinismoan murgildurik ere.

Bigarren hirukoa Bibliako pasagune batekin identifikatzen dugu⁶⁷: Getsemani. Ez zaigu inoiz Jesus hain gizatiar ezta horren estu Aitarekin mintzo denik ere iduri, jainkotasunaren ezaugarriak direla, hain sutsu bere gainetik horrelako nekaldia kentzeko eskatu ez diolakoan. Dantek ere, Santa Teresa de Jesus-ek bezala, Jainkoaren aurpegia ikusi baino

⁶⁶ «Gure lan honi dagokionez, aurretik noraezean eta inongo sailkapen serioerik gabe neuzkan sinboluen ordenamendu sakon baten aukera eskaini zidan —FRY-ren *Anatomy of criticism*-ari buruz— Honetaz gain Fry-ren liburuaren asmoa areago dihoa literatur teoria —eta, era berean, jeneru ezberdinena—, eta kritika teori bat delarik. Beraz, sinbolu terminoari Frye-k ematen dion esanahi geureganatuz, azterketa kritikorako bereiz daitekeen orotan. Nahitanbiez sinbolu hauentzat esanahien aniztasuna onartu beharko dugu, polisemikoak izango dira. Ez da berria izango esaten badut ezinbestekoa dela obraren benetako ulerkuntzarako sinboluen azterketatik ekitea. Gorago aipatzen genuen bezala hauek bait dira azterketaren elementu edo unitate txikiak eta, Frye-k adieraziko zuenez, zientzietan erabili ohi den zorrotzasun bera erabili behar dela azterketa literarioetan ere. Sinbolu hauen nolokotasuna medio literatur obra osoa definituko duen testuinguru sekuentziala —eta ez esanahi sekuentziala— eratu da. Testuinguru sekuentzial bakoitzak bere mythos-a edo narrazio berezia eta ethos-a edo jite berezia izango ditu. N. Frye-k lau mailatan sailkatuko ditu sekuentziok, errealitateetik hurbilen dagoenetik hasi eta literatura tradizioaren barruan bakarrik eta, iadanik errealitateetik urrun kokatzen deneraino, poesia eta erlijioa batzen diren unean, non hitza sorkuntza hutsa edo errebelazioa izango den. Horregatik aurreratuko digu Frye-k Literatura ez dela errealitateetik abiatuz sortzen, literatura barnetik abiatuz baizik.» Aldekoa, I. Gabriel Aresti-ren *Maldan Behera*, 8-9.orr. argitaratu gabea.

⁶⁷ Hitanoz, Leizarragak bezala

lehentxeagoko beldurra⁶⁸ erakusten zuen⁶⁹. Ahapaldi hau interesgarri zaigu oso nekaldia igarotzeko zalantza eta erabakia agertzen delako. Bestalde inizatze behar den barneratze eta hausnarketa azaltzen zaigu.

Hontaz, laburbiltzeko:

1. Eskukotasun osoa lortzea: Edipo »»» Tiresias
2. Ahulezia: Jaunari...grazia.

Eta bilakaera:

1. Historiakiko tirabirazko menpekotasuna,
2. Legez kanpoko ezkontza (Edipo gomuntatzeko),

⁶⁸ «El miedo a esa ruptura —impuesta necesariamente por las diferencias de régimen ontológico existentes entre la condición profana y la condición hierofánica o cratofónica— aparece incluso en las relaciones del hombre con los alimentos consagrados o con los alimentos que se suponen tienen ciertas fuerzas mágico-religiosas.» (...) «Lo que desde ahora podemos señalar es la tendencia contradictoria que el hombre manifiesta respecto a lo sagrado (tomando ese término en su acepción más general). Por un lado, trata de asegurarse y de incrementar su propia realidad mediante un contacto lo más fructuoso posible con las hierofanías y las cratofanías; por otro, teme perder definitivamente esa realidad, al integrarse en un plano ontológico superior a su condición profana; aun deseando superarla, no puede abandonarla del todo.» Mircea Eliade *Tratado de Historia de la Religiones*, 41.orr.

⁶⁹ *Oh! eterna luz que sola en ti te inflamas,
sola te entiendes; y de ti entendida,
al entenderte, te sonríes y amas!*

*Aquella irradiación que despedida
parecía por ti, sol reflectante,
por mí un tanto en redor reconocida,
dentro de sí, de su color constante
pintada me mostró nuestra figura,
con que en ella mi vista era incesante.*

*Cual géometra atento, que procura
el círculo medir, y nunca acaba
de encontrar el principio que le apura,*

*a aquella vista nueva, tal me hallaba:
ver yo quería cómo se convino
la efigie al cerco, y cómo en él se grana;*

*mas no hallaron mis alas el camino;
sino que percutida fue mi mente
que a llenar su gusto vino.*

*Aquí mi alta intención fue ya impotente;
y cual rueda que gira en vueltas bellas,
el mío y su querer movió igualmente
el amor que al sol mueve y las estrellas.*

(Dante, op.cit. «El Paraíso, Canto XXXIII», 547.orr.)

3. Pekatuaren plazaratzea (Tiresias-en ahoz),
4. Bizitza independenteak eta hortik, sorturiko bakardade eta bel-durrek eskatzen duten erabaki hartze eta hausnarketa.

Espazio sakralizazio prozesua deitu nahi izan diogun lau ahapaldiz osaturiko azpiunitate honetako alde majikoa eta errituala betetzearekin indar hartzeak lirarteke funtzioak.

Hamabigarren ahapaldia

*Animali biok dira nire lagunak;
nire deserriko mahats geza bigunak,
ze moduz jakin gabe, orain dizkiet zor.
Biziko lorean ernatu da kimua:
Sugea, arranoa, ta azkenean zimua;
hiru animalia baizik eztago hor.*

(«Hariztia», op.cit. 93.orr)

Ahapaldi hau borrokalditzat hartu dugun hiru ahapaldiz osaturiko azpiunitatearekin erkatuz esan genezake han, segida honetantxe, aurkezpena, ekintza eta emaitzak bazetozen, hemen, espazio sakratuaren eraketa litzatekeen honetan, aurkezpena eta ekintza ahapaldi berberan datozela lehendabiziz, gero, abstrakzio bideetan trebatuz bait goaz, aurrera urrats bat emanez, goiari oles eta, azkenik, harremanen deskribaketa; elementu traszendenteekin hartu emanetan ibiltzeko indar berezia behar baita, atera kontua ezaguntza mailak suposatzen direla eta, horretarako, estasi berezi baten beharra legokeela.

Gatozen orain ahapaldi honi beroni begitzera. Formaz bikoiztasuna zainduko du poetak eta simetriak sortuko du adierazia. Lehen hirukoan harremanak deskribatuko dira; hasteko alterratik nitasunganakoak, hurren lekuan gertatuko den zentzuen bitartez indefinizioa eta, hirugarrenez, nitasunaganik animalioen ordezeko datibora. Hiruko biak lotuko dituen elementua espazioa izango da, baina zeharo elkarren aurkako direlarik, sorkuntzarako behar den borroka sinbolikoa, nitasun horreganik kanpo arimaren zatiketa sortzailearengan hagituko zatekeen, sakralizatuko den espazio hori Hitzunaren barnean ez balego. Eta haustura bortitzagoa suertatzen da zenbakien inkoherentziaz. Honek gako diren bi berbatarantz garamatza: «zor» eta «zimu».

Bigarren hirukoan bizidunen *Jenesa* azalduko zaigu. Bizidunak aipatu ditugula, oso interesgarria zaigu hauen bilakaera⁷⁰:

Animali: generikoki denotatua

Mahats: Landare sinbolikoa

Biziko lorea: metafora

kimua: generikoki, metafora

sugea, arranoa... *zimua*⁷¹: espezieka denotatuak

animalia: generikoki denotatua.

Abereen izendazioak joanetorri bat eratzen du, baina ibilitako bidea landareek egiten duten triangeluaren kontrakoa suertatzen da. Bestalde animaliek testuan dute erreferentzia, ez, ordea, landareek. Badira landareetan txikiagotzen datozen aztarnak. Sinbolua izan litekeen konotazio literariodun «mahatsa», gero, orokortze metaforikoa litzazigukeen «biziko lorea» eta, azkenik, literaturan unibertsa litzatekeen, beti poetizagarria eta sorketa elementua genukeen «kimua». Animaliak, berriz, testuari legozkioke: «animali biok» orokortasunatik generoari eta, era berean, testuan

⁷⁰ «Maldan-Beheran azalduko den animali saldoa kontutan hartzeko modukoa iruditu zaigu. Hariztia poematik basi eta Lore-Mendia deituriko poemaraino pausurik gabeko borrokaldiak igaro behar izango ditu protagonistak. Lehenago esaten bagenuen sendan, estratan, galtzadan eta kaminoan eginiko gogoeta eroak zibilizaziorantz eginiko bidean dautzala, animalien kasuan ere ikus daiteke antzeko graduazioa: Hariztian sugea, arranoa eta zimua ziren eremuko animaliak (egungo zibilizaziotik urrun samar geratzen zaizkigun animaliak); Lizardian belea eta barea (kaltebako animalioek gizonagandik hurbilago daude), baita Lizardi honetan ebizan harrapatuko diren zenbait animalia ikusi ahal izango dugu; Iratze-Ederrean animalia domestikoak direlakoak agertuko zaizkigu (dagoeneko etxetan edukitzen diren animaliak); eta Lore-Mendian animalien ordez barazzetako eguneroko elikadura izango dugu.

Animali honek, ene ustez, funtzio bat beteko du: animalidatea izpiritualtasunari kontrajarria agertzen zaigu. Lurrari eta munduari lotuko gaituen fenomenoak litzateke.» Aldekoa, Iñaki. op.cit. 37.orr.

⁷¹ «Zimua izan da bereziki animalia mimetikoa eta, iadanik eboluzio teorikoak baino lehenagotik ikusia zen gizonaren imitatzaileris. Hala ere, eboluzio teorian oinarrituriko ikuspegi batetatik abiatuz egungo gizona, geroak ekarriko duenaren aurrean, zimua litzateke. Hau izango da Zarathustraren gizontzoa supergizonaren aurrean. Beharbada zantzu inportantea litzateke azpimarratu duguna, alegia, Nietzsche-ren filosofiatik izan duen eragina Maldan-Beherako heroia moldatzeko orduan.» (Aldekoa, I. op.cit., 38.orr.)

Baita Satrustegik —op. cit.— *Mitos y creencias*-en 164-165. orrialdeetan badu zimuari buruzko ipuin bat. Guk uste dugu zimua gaitza dela, trszendentzia bako gizakia, pekatutan dabilena: «*La ambivalencia de lo sagrado no es sólo de orden psicológico (en la medida en que atrae o repele), sino también de orden axiológico; lo sagrado es a un mismo tiempo sagrado y maculado.*»(...) «*Todas las valorizaciones negativas de las máculas (el contacto con los muertos, los criminales, etc.) se deben a esa ambivalencia de las hierofanías y de las cratofanías. Lo que está maculado —por tanto consagrado— se distingue ontológicamente de todo lo que pertenece a la esfera de lo profano. Los objetos o los seres maculados están, pues, prácticamente prohibidos a la experiencia profana, a igual título que las cratofanías y las hierofanías. No puede uno acercarse impunemente a un objeto maculado o consagrado cuando se está en condición profana, es decir, cuando no se está preparado ritualmente.*» Mircea Eliade *Tratado de Historia de la Religiones* 38.orr.

gorago identifikatuta dagoenari begira, gero, epikari jarraikiz, sorketa —batez ere hirugarren aberea zaigu berri— eta, hirugarrenez, laburpena izanik, baina dagokion epika indarrari uko egin gabe, kontaketa aforistikoa.

Objetuez gain lekuak eta harremanak ostera ere gomura badakazki-gu, honako eskema batez bilduko genuke ahapaldiaz esana:

1. —lagunak/zorra
—Animali biok/hiru animalia
—deserriko/Biziko lorean
2. HARREMANAK
 - a) Ni <<< Animali biok
Ni << deserriko >> mahats geza bigunak
Nik >>> dizkiet zor mahats geza bigunak
 - b) Niri/k_____ {laguntasuna/mahatsak} _____Animaliok/i
3. GENESIA edota OSTEGUN SANTUA

KIMUA
Biziko lorea
Hiru animalia
Biok + zimua
arrano-sugea + X
biok lagunak nireak
mahatsak zor nik

Beraz: neu naiz zimua, beste bi animalia daude, animaliak ezagunak dira. Biziko loretik sortu garelako lagunak gara, maila ontolojiko berbera dugu eta deserrian nuen jaki apurrak dizkiet zor honegatik, jatorrizko pekatuagatik, berriz jaio behar baitugu; edota zimu apaizak errittoa aurrera eramango du odol izan litekeen biziko loreko ardo bihurtuko den mahatsez; inmortalizatzeo ahaleginak.

Hamairugarren ahapaldia

*Hiru gorputzekin egin nuen arbola
sikuari, gero, eman nion odola,
bihotzetik ugari atera nuena.
Arrainen hegalek ziren bere susterrak,
arrano zurien lumak ziren adarrak,
eta bere tronkua sugeen buztana.*

Betiko bikoiztasuna jabonez —presunaia lehendabiziko hirukoan, narratzailea bigarren goan— aurrena prozesua deskribatuko du, gero objektua.

Zentrum eraikintzak kosmogonia osoa dakar, horregatik ahapaldi honek orain arteko guztia suposatzen du; zelanbait esateko, sorkuntza guztiek Sorkuntza Nagusia, zeinenak baitira azken batez iduri errepikapenak, hartzen dute beren baitan. Honegatik zuhaitz⁷² baten altxatzeak, Zuhaitz Kosmikoaren⁷³ ispilua dena —eta hau Garai Hartako Espazio Denbora eraiketa—, kosmos osoaren antolaketa eskatzen du. Ardatz sin-tagmatikoan gertatuko litzatekeena zuhaitz sakratuaren eraikuntza da, baina paradigmatikoki poema honen ahapaldi nagusienetara bialtzen gaitu; ohiartzunok aurretiko sinbolu nagusiei egiten die aipu:

1. *arbola*: «arbola adargabeen pareta naiz orain» (1. ahap, 3.bert.)
2. *sikuari*: «denbora sikuak garantzen ditu» (2.2.)
«ta iruten dut astiro itogin siku» (3.3.)
3. *odola* (Matrixa)
4. *bihotzetik*: «baina egarri bizia daukat bihotzean» (2.6.)
«nundik egunotan dohakida bihotza» (3.4)

⁷² Ala dorrea izan liteke, gogoratu Babelgo Dorrea zertarako eraikitzen saiatu ziren gizakiak, azken finean arazoa ez da zerez baizik eta alde batetik bestera iragateko zubi-txalupa-soka-keinu egotea, Lurra Inpernu eta Olinpoaren elkarren arteko komunikazioa ezartzea:

⁷³ «Los indios, por ejemplo veneran un árbol llamado *asvattha*; la manifestación de lo sagrado en esta especie vegetal es para ellos transparente, porque para ellos es el *asvattha* una *hierofanía* y no simplemente un árbol. (...) Pero los indios conocen también el símbolo de un árbol cósmico (*Axis Mundi*), y esta *hierofanía* mítico-simbólica es universal: árboles cósmicos se encuentran en todas las antiguas civilizaciones. Hay que advertir que el *asvattha* es venerado tan sólo en la medida en que incorpora la sacralidad del universo en continua regeneración, lo cual quiere decir que se le venera porque incorpora, participa o simboliza el universo que los árboles cósmicos de las distintas mitologías representan.» Mircea Eliade *Tratado de Historia de la Religiones* 25.orr.

«En la India védica, el poste sacrificial (*yüpa*) está hecho de un arbol que se asimila al Arbol Universal; (...) De la madera de este Arbol se hace el pote sacrificial, éste se convierte en una especie de Pilar Cósmico (...)

«La instalación y consagración del poste sacrificial son un rito del Centro. Asimilado al Arbol de Mundo, el poste se convierte a su vez en eje que une las tres regiones cósmicas. La comunicación entre el Cielo y la Tierra se hace posible por la intersección de este pilar. Y, en efecto el sacrificador sube al Cielo, solo o con su esposa, sobre este poste ritualmente transformado en el Eje mismo del Mundo.» (48.orr.) «La asimilación del árbol ritual el Arbol Cósmico todavía es más clara en el chamanismo central y nord-asiático. La ascensión a un árbol semejante por el chamán tártaro simboliza su ascensión al Cielo. En efecto, en el árbol se hacen 7 ó 9 entalladuras, y, al subirlas, el chamán declara oportunamente que sube al Cielo. (...) En sus sueños de iniciación, el futuro chamán se considera que se aproxima al Arbol Cósmico y que recibe tres ramas de este árbol de la mano de Dios mismo, que le servirán como cajas para sus tambores. Ya se sabe el papel capital que desempeña el tambor durante las sesiones chamánicas; los chamanes logran el éxtasis, gracias, sobre todo, a la ayuda de los tambores (...). el tambor está hecho de la propia madera del Arbol de Mundo, (...) ..al bautizarlo, el chamán se siente proyectado junto al Arbol del Mundo» (49.orr) Mircea Eliade: *Imágenes y símbolos* Madrid, Taurus, 1974.

5. *Arrainen hegialak:*

- a) «Guerdi batekin agertu zen arraina» (6.1)
- b) «gutiziarekin, bere hegial zimelak» (7.4.)

6. *arrano (zurien):* «Haitz gorri beltzetik datorren arranoak» (10.1.)

«Sugea, arranoa, ta azkenean zimua» (12.5)

7. *adarrak:* «arbola adar-gabeen parena naiz orain» (1.3.)

8. *sugeen:* «Koba sakonetik irten duen sugeak» (10.4)

«Sugea, arranoa, ta azkenean zimua» (12.5.)

Aztarnok emango digute poemaren zati hau egituratzeko agindua, baina lehenbizi elementuok duten esanahia ahapaldian barrena kokatu beharko genuke:

- a) Hiru gorputz ____arbola (Nik)
odola _____sikua
bihotzetik

- b) Arrain Hegialak = susterrak

Arrano lumak = adarrak

Suge Tronkua = buztana

Badakigu beraz, arbolak espazio sakratua iduritaratzen duena. Badakigu, halaber, «sikua» adjetiboa denboraz ari dena eta denbora, Munduko eta Bizitzaren aroen sintesia, urarekin datorrena; ildo beretik presunaiaren gorputza eremuaren enblema den bezain batean, atzekoz aurrera, Munduko ura bihotzaren odola litzateke⁷⁴. Ez dago Jesusen heriotzaz mintzo beharrik, egina dago.

Faltatzen zaiguna da abereek espazio eraikitze horretan hartzen dituzten zereginak zehaztea. Hasteko esan dezagun abereok lehen bakoitzenaren generoaren azpian bakarraren antzaz emanak bazetozen ere oraingotan pluralean datozela⁷⁵. Honez gain, metonimikoki objektuen zati

⁷⁴ Honezaz bestelako bilakaera egiten du Aldekoak testua osotasunean harturik, alabaina gure ustez hemen bezalako emaitzetara datorrelarik, hura lan zaharragoa izanik Aldekoarekiko dugun zor eta eskerronak aitortu baino igorri behar dizkiogu, bai hemen baita honi lotzen zaion buztina sinbolu bilakaeragatik ere zeinez Genesisako gizonaren Sorkuntzari aipamenaz «Kaminoan eginiko gogoeta eroak»-en baliatu izan baikara.

⁷⁵ «Consiste, pues, la perfección de las cosas en que cada uno de nosotros sea un mundo perfecto, para que por esta manera, estando todos en mí y yo en todos los otros, y teniendo su ser de todos ellos, y todos y cada uno de ellos teniendo yo su ser de todos ellos, y todos y cada uno de ellos teniendo el ser mío, se abraza y eslabone toda esta máquina del universo, y se reduzca a unidad la muchedumbre de sus diferencias; y quedando no mezcladas, se mezclen; y permaneciendo muchas, no lo sean; y para que, extendiéndose y como desplegándose delante de los ojos la variedad y diversidad, venza y reine y

esanguratsu⁷⁶ bakoitzak arbolaren parte bat hartuko du, hots, espazio sakralizatze horretan funtzio bana. Era berean, funtzio bakoitzak maila kosmiko bat ordezkatu du. Maila kosmikoa zentzu zabalean, noski; Infernua ez da Luziferren eta punituen bizitegia soilik, nonatoen mundua ere bada, hamalau zakuena, itxuragabezia, amaren sabela, Mendia, penitentzia tokia, Tellus Mater... bakoitzean dagokion bezala mamituko delarik. Era horretara ere zerua ez da soilik Yavhén egoteko aulkia eta, berdintsu, lurra ez da bakarrik gizakion espazioa. Kasuan Arraina hastapeneko materia eta, Pluto izan litekeen Neptunoren erresumatik sortua, beheko munduarekin harremanetan jartzeko arduraduna litzateke; arranoa, berriz, atmosferaren zeru ideiekin eta lotura erpeak ebaki zizkiona. Objektuon ezagupideak izango dira arbola zatiak eraikitzeo hautatuak. Laburbilduz:

1. Hiru gorputzekin _____ Arbola Arrainen hegialak = susterrak arrano zurien hegialak = adarrak sugeen buztana = tronkua	ESPazio SINBOLIKOA
2. Odola _____ Sikuari	DENBORA SINBOLIKOA
Bihotza/Lurreko Kolkua	ESPazio DENBORA Sakratua METAFORIKOA

ponga su silla la unidad sobre todo. Fray Luis de León De los nombres de Cristo in Obras Completas vol. I, Bac, Madrid, 1967, pp. 414-415.» Aipua eta zita bera J. CAMINERO-ren *Dialéctica entre poema y sistema en el aforismo literario in Homenaje a Ignacio Elizalde* Bilbon Deustuko Unibertsitate argitarapen sailatik dago hartuta, 72. orrialdean, maisuki eta bere lanetan ekandua den atondu aberatsaz aforismoaren gauzatzearaz honela dihardu: «*El proceso indicado va más allá de un proceso de datos, descripciones, imágenes del mundo a un menos del concepto, que se mantiene formalmente en los mecanismos de abstracción, según se puede constatar en el primer axioma del método científico, que es reducir a unidad la multiplicidad del ser disperso, en fórmulas felices, impactantes y sumarias,...*» Dakusagunez gure poetak alderantziz egiten du: kontzeptu baten iduri sinboliko konkretua, baina kaledoskopikogarria, hots, esanahi ezberdinetarako baliagarri litzazigukeen objektua. Galdera da, diskurtso mota bi eratuta egonik, bai ahapaldiotan, azaldu den legez, bai Maldan Behera osorako proposatzen dugun lehen eta bigarren zatiek duten elkarren parekotasun paradigmaticoa, ardatz sintagmatikoan istorioaren bilakaera baitoa —hau da, bidaia inizatitokoa—, eta sinbolu sintetikoak kontzeptu analitikoarekin batera erakusten digutela, ez ote dabil, esanahiaz gain, agertu dugun platonismoari kritika egiten formaz ere baliatzen delarik?»

⁷⁶ «*...partiendo de la analogía con la luna o con los animales que se despojan de su piel, los filósofos han sacado la conclusión de que, al principio, un ser bondadoso había destinado al hombre el rejuvenecimiento perpetuo, o el hombre disfrutaba ya de él, y que si no hubiese sido por causa de un crimen, un accidente o un error, todavía seguiría disfrutándolo eternamente.*»

Frazer, Sir James: *El Folklore en el Antiguo Testamento*, 48. orr.

Haritzia deritzon poema hau ahapaldien formari begira hiru zatitan bana genezake: Epika deitu diogun azterturiko zatia, lirika edo erritua izango den hiru ahapaldiz osaturiko hurrengoa eta, azkenik, dramatika izan daitekeen errebelazio doinuduna. Gagozkion epika edo kosmogonia azalduko duen elezaharrari darizkion azpiunitateak ahapaldi honek matzen ditu, eta beronek bialduko gaitu zelanbait «Ditxaren bitartez»eko azken ahapaldirantz:

- A] 1: Eremua (Espazioa) Lurra
 2: Denbora sikua (Denbora) Zerua
 3: Bihotza = Lurreko kolkua (bilkura) Infernua
 odola = ura
 4: Jan, lo, beharrak (penitentzia) pertsonaia
 gorpu hila/itzarririk
 5: Debekua, erorketa (Arazoa) benetakotasuna
 Edipo, lehen haustura
- B] Kosmogonia
- 6: Agerpena
 7: Borroka
 8: Gaingipena
 9: Arrokak, begiak (Harresiak) intrazendentzia
 Tentaldia
- C] Espazioaren Sakralizazioa
- 10: Elementuak (I) nondik zer, lotu/askatu
 11: Goiari oles, Getsemani (Indarrak hartu)
 Tiresias, bigarren haustura
 12: Elementuak (II), Ostiral Santua, erlazio eta hierarkiak.
- D] Zentrum-aren eraikuntza, zuhaitz kosmikoa.

GERTAERA	PENITENTZIA	HAUSNARKETA
1, 2-3	4	5
6, 7 8	9	
10		11
13		12
13		

B) **Lirika:** Letañak

*Haritz bedeinkatua
adoratu nuen.
Nire belaunak
lurrean jarri
nituen.*

*Ordu hartan
nik eznenkien
zerk iharrosi
ninduen.
Haritz bedeinkatua
adoratu nuen*

*Arbola bakarreko
harizti maitea:
Egun oraindik
eztuzu bete
urtea;
indar haundiz
apurtu duzu
lotu ninduen
katea.*

*Arbola bakarreko
harizti maitea.*

*Haritzaren adarrak
mugituz bizi-
ro, aita nirea
balitz bezala
emaro
behar nuen
bendizioa
partitu zidan
luzaro
Haritzaren adarrak
mugituz bizi-
ro.*

Errepikapenak sortzen duen geometrismoan oinarritutako lirikotasun ezaugarriaz bataiatu dugu «Hariztia»ko bigarren azpiunitate formal hau. Gogora ekarriz hitza errealitate sortzaile gisa ulertu beharraren gainean esanikoak, inon baino sendoago otoitzetan ikus daitezke; orain arteko

guztia ez zukeen baliorik izango baldin eta arketipo errepikagarria izan ez balitz; era askotara, baina errepikapen bakoitzak jarraitu behar dio bere arketipoari ahalik eta ondoen. Hitzaren bitartez errealitatea sortu egiten da pentsamolde arkaikoan. Honegatik, eginikoa sor dadin, otoitz egin behar zaio, hau da, kosmogonia eta munduko erdigune hori benetakotasundunak izan daitezen errealdasuna emateko gauza den bakarrak, heroi-poeta-apaiz-propetak berba egingo die. Hiru ahapaldi hauetan hitzon zuzenbidea adierazgarria litzaiguke:

1. Arbolari buruz (gu zuzenbide) deskribatu
2. Arbolari zuzenean beharrezko komunikazioa lortuz
3. Arbola biziaren egitateak presunaiak jaso dituenak (gu zuzenbide) deskribatu.

Hurren aztergarriak litzaizkigukeenak lemak dira:

- 1- Lema errepikapenak:
1. Haritz bedeinkatua
adoratu nuen
 2. Arbola bakarreko
harizti maitea
 3. Haritzaren adarrak
mugituz biziro

Hiruretan arbola tema entzuten dugu; baina badago eraikitze bat. Lehengoan seinalatu baino ez dugu egingo, aditzak adiak beragana erakartzen dizkigu; begiradak «nik egin nuen»-aren inguruan fokalizatzen dira; nolabait bedeinkatu zen arbola, nondik ez dakigun arren, zentzu emate ihardueraren bidez, gure adorazio ekintzak bedeinkatuko du arbola. Arbola honen izena «Haritz» delarik, hurrengo lemak hurbilagotik deskribatuko digu haritz hori —ikus genuen elkar hizketa baten lehen zatia zela eta oso afektionatua gainera, «maitea» eta agertzen zitzaigularik—. Zelanbait bilduta legoke aurreko esanahia aurrera urrats honetan. Deskribapenan agertuko zaigu ez sakraldasuna bakarrik goikoan bezala, baizik eta arketipikotasuna. Aniztasun-bakuntasun joko honez erdiesten da, aurrerago argituko den legez, batasun horren kaledoskopikogarritasuna. Hirugarrenez bizirik dagoela dinosku, hots, definitzen bukatzeko faltatzen zaigun pausu bakarra: objektutik jasotako ekintzen deskribapena ematen zaigu aditzera; menpekotasuna eta, honetaz, zentrumaren sakralizatzeko prozesua bete da.

Lemaz gain sakralizatzeko prozesu hori suma daiteke ahapaldioen egituraren bertan: erdibiturik daude azkena izan ezean, eta etengune hau gogo-

rrogoa zaigu lehengoan bigarrengoan baino. Kontakizuna orden honetantxe datorrela esan genezake:

Espazioa-Denbora
Denbora-Ekintza: Nola
Zer

«Espazioa» deitu izan diogunari begiratu behar zaio zein elementuz dagoen eraturik: «Belaunak» izango dira, «Requiem»-ean⁷⁷ legez, lurrarekin bat egiteko erabiliko dituen elementuak. Berak eginiko ekintza sinboliko horrek abstrakto ezaugarria hartuko du hurrengo erdibian, ohi duen bezala; ez belauna, bera bultzatu duen indar ezezagun batez ari zaigu kausa/ondorioez.

Bigarren ahapaldian zati hauen arteko etena, punto eta koma batez, leunagoa da formaz, baina egin behar den jauzi lojikoari begira sendoagoa haatik; darabilzkieen gaiak denbora-kateak dira. Lehen zatian urtea litzateke giltzarria; urteak zikloa esan nahi du, osotasuna, eta orokorki harturik esaldia, ezezakoak eta «bete» aditzak emango digute esnahia. Denborari gagozkiola esaldi honetan bertan beste berba bi dauzkagu honezaz: «Egun oraindik», loturazko denbora deituko diogu. Berez, batak denbora aktualizatuko du eta ondokoak atzera begira dagoen denbora jariora. Alde bate-tik hausturarako prestatzen gaituen kontrajokotzat har genezake, bestalde, aurrera eta atzera pareko erreferentziaguneen bila bidaliko gaituen gaketzat. Eman diogun izena, esandakoa ukatu gabe, azken honi dagokio:

Lehen ahapaldian: Ordu hartan
Bigarrengoan: Egun oraindik
Hirugarrenkoan: luzaro

Hauek dira poema honetan lotu askatzeari buruzko aipamenak:

«Indar haundiz / apurtu duzu / lotu ninduen / katea:

(7.5-6)⁷⁸: *ebaki zizkidan tenorean kordelak,
geldiro libratu-rik nire orkatilak.*

(10.2,5.): *moldegaizki lotzen dizkit anka besoak,
egunero dizkit moztutzen bost erpeak;*

⁷⁷ Ikus lan honen hurrengo txatala.

⁷⁸ Lehen zenbakia ahapaldiari dagokio, hurrengo biak bertsoleerroari

zentzu zehatzik ezin dezakegu esan segurutik, baina kosmogoniari lotzen zaion gizonaren sorketari, presunaiaren genesiari dagokiola gauza ziurra da —Literaturan, eta honen azalpen saio zientifikoa izan behar duen kritikan ziur den gauzarik egon baledi—. Gertatzen dena da gauza bat dela buztinez eginiko giza gorputza, beste bat Goikoaren hatsez atunduriko giza arima, edo lore usainez ernaturiko gizabihotza, edo zuhaitz untzez sakralizaturiko gizaekintza, edo Hadesetan garbituriko gizahistoria,... eta abar; bakoitzak jaiotze bat suposatzen du, bakoitzak heriotza den bidaia dakarkigu gomura, zein den zein da jakiten ez dakiguna eta, hontaz, gure esangura lanabes zitzaigun sinbolismoa motz eta orokorregia suertatzen da.

Esan genezake diskurtso moeta bakoitzak bere lekua hartzen duela ahapaldian barrena. Esan genezake, halaber, orokorrean aurkezten duen egitura hauxe dela:

1. sinbolua
2. kontzeptua

eta bion artean ahapaldiaren adierazia hizkuntzalaritza zaharrak zioen bezala. Baina gaitz zaigu oso ahapaldi honen bilakaera garatzea. Alde batetik denbora —konkretuki, kokaguneari dagokion legez— azaltzen zaigu; bestalde hurrengo zatia ez datzekio goiko eskemari eta sinbolu konkretua litzatekeen «katea» denborari lotua ageri zaigu (Peneloperen beharrik gabe «*iruten dut astiro*»⁷⁹ gogora dakargu), bai eta askatasunpean leudekeen aipaturiko jaiotza ezberdinei ere:

Urtea
»
indar haundiz («eta indarrarekin...»)

katea

Kateak, bada, bereganatuko ditu urteak eta indarrak iduritaratzen dituzten kontzeptuak eta hauen sinbolu bihurtuko, hurrengo ahapaldia izanik honen azalpen sintagmatikoa, hots, historiari dagokiona:

ESPAZIOA	DENBORA	ENERGIA
Ni belauna tokia lurrean	(loturazkoa) Ordu hartan Egun oraindik luzaro (sinbolikoa) urtea	iharrosi ninduen
	 indar haundiz	
	katea	

⁷⁹ Hirugarren ahapaldian, hirugarren bertsoleerroan: «Hariztia» 91.orr.

Ondorioz bizitza datorkigu. Bizi denak gurasoak ukan beharko bi-deak ibiltzen erakuts diezaioten, eta hau dela atxakia emango dio hasiera dramatika edo errebelazioa deitu izan diogun poema honetako hirugarren aldiari. Hori baino lehen azal dezagun hirugarren ahapaldi hau.

Aurreko bietan agertzen zitzaigun banaketa oso dugu leuna egiturari begira, koma batez; baina bada deskripzio/Narrazio oposaketa: «nola» lehen erdibian, «zer» bigarrenean. Lehen zatian, beraz, deskribapena dakusaguke; deskribapena metafora eta similez emango digu eta, noski, antzekoa dela esaten badu horren funtzioa betetzen duelako izan beharko, hau da, bezala-konparaketa eskatzen du, konparaketak bi konparaburu eta buruotarik gutxienez batek testukanpotik zurgatuko du esangura:

—Haritza = Aitak emaro

—«benedizioa»k aurreko «katea»ren funtzio berdintsua beteko du, alde batetik esanikoaren sinbolu bihurtuz, bestalde aurrera bidaliko gaitu, zein benedizio jakiteko sortzen duelarik.

—«luzaro» dugu beste elementu garrantzitsu bat; azpiunitate honen prozesuaren amaiera azpimarratzen du eta, era berean, zirkulu bihurtu.

Haritza > adoratu	{	belaun (*) lurra	}	bete	{	iharrosi lotu	}	apurketa = bizia > Aitak emaro
(nik)								(ni) (niri)

(*)urtea: Ordu hartan
Egun oraindik
luzaro


Aitamak testuan beharrezko diren arbasoak izanik, paradigmatikoki Bibliako adierazietarantz artezten digu arreta. Onerrate ospetsua izan zen Jacob eta Esaturen arteko lehia⁸⁰ garbitu zuena (Gen. 27.). Baina denak ez dena suposatzen duen gisan onerrateak gaitzesatea dakar, eta bi dira

⁸⁰ «Para llevar a cabo la transferencia de un hijo de sus padres reales a sus padres adoptivos se efectúa la siguiente ceremonia. El niño, que suele tener unos tres años de edad, es tomado en brazos de su madre y se le lleva a un bosque. Allí el padre renuncia a todos sus derechos sobre la criatura y declara que a partir de ese momento el que era su hijo ha muerto. Entonces se mata un buey y con la sangre se le unta al niño la frente, se le pone alrededor del cuello una porción de la grasa y se le cubren las manos con un trozo de pellejo. Es evidente la semejanza que existe entre esa ceremonia y la treta empleada por Jacob:...» «Jacob y las pieles de cabrito, o el segundo nacimiento» J. G. Frazer *El folklore en el Antiguo Testamento*, México F.C.E. 1982, 2.ª ed. 276.orr.

aipatzekoak: bata da erorketaren ostekoa (Gen. 3. 17-19) eta bestea lehen hilketaren⁸¹ ondorengoa (Gen. 4. 10-12). Baina hau hurrengo zatiari le-
gokioke, dramatikari. Ez dugu, ordea, genuen zati honen azterketa idatzi
luzeegi hartuko baigintuzke, esan bakarrik urtaroen kokatzen duela isto-
ria —igaliek dinoskue— eta kontalaria ez den presunaiaren bat ari zai-
gula mintzo; zazpi dira zati honetako ahapaldiak, profetak edo Jesusek gu-
rutzetik igorritakoak bailiren. Amaitzeko esango genuke lehen
azpimultzoak espazioaz baziharduen, eta lirikoak presunaiaz, dramatikoa
denboraz arituko zaigula.

Hipotesirik hipotesi gabiltza. Lehen susmoa, idazti giltzatua zelako-
arena, egitura ordenatu bati zegokiola iruditu zitzaigun. Antolamendu
hau garatzeko beharrak zenbait suierentzia zabaltzera bulkatu gintuen, eta
berone ikerketa sakon eta luzeago bat planteatzera gakartza. Hau da, ha-
sieran, iragate kriptiko bati legokion bezala, diskurtsoa sagaratu/ profano
alorretan bana zitekeelako atxakian geunden; baina gero sakertasunak
duen tankerak, sinbolu erabilera neurtu eta literarioa erakutsi zigulako,
berridazketa simple eta esangura bakandunetik aldendu gintuen. Hots, ez
da nahikoa teoria antropologikoa edota hermeneutiko baten ondorioak
diskurtsoaren alde *sakratuetan* aplikatu eta egiaztatzea, iruten doan iragate
sinbolikoa mugatu, edo identifikatu bederen, eta aztertzea baizik. Profan-
otasuna, bestalde, ez da liburu sinboliko baten hondarra, ezta hondakina
ere, hondoan dagoen eta, zelanbait, aurrekoaren zutabe eta karioa baino.
Esango genuke sintaxi poetikoa aztertu behar dela. Zeinu linguistikoaren
esangura adierazle eta adieraziaren erlazioek, eta zeinu konkretuak ditue-
nek —bai ingurukoekin, in praesentia, bai paradigmakoekin, in absen-
tia— definitzen duten legez, poema osoa, eta liburuan agertzen den alder-
di bakoitza —banatzeko kriterioa eta, hontaz, segmentuok aukeran eta
hautaturikoak hautatzen ditugula ere—, osotasunean definitzen da; para-
digmok sinboliko / metaforikoak izaki, artean eta aurkan, egiaztatzen eta
justifikatzen direlarik.

⁸¹ «*De modo que la marca de Caín pudo haber sido una manera de disfrazar a un homici-
da, o de darle una apariencia tan repulsiva o amenazadora que el espíritu de la víctima no
pudiese reconocerlo o se mantuviese al menos apartado de él.*» J. G. Frazer *El folklore en el An-
tiguo Testamento*, F.C.E. 55.orr.





ENSEIUKARREAN ALDIZKARIKO
AURKIBIDE OROKORRA
(Lehen zazpi zenbaki eta monografikoetako)

JOSU LARTATEGIK PARATUA



NON TOPA ZER *ENSEIUKARREAN*-EN

1. AURKIBIDEA ALEZ ALE

ENSEIUKARREAN I

(1986.eko udaberria)

EDITORIALA	2. or.
UGARTEBURU, I.: «Bakarrik utzi zuten gaua (Juan Rulforen kontagaia euskaraz)»	3. or.
ANONIMOA: «Komikia: halabeharrik gabeko artea»	8. or.
ROS KUBAS, A.: «Hinault ihauterietan neurriko etimoen bila»	12. or.
URIBETXE BARRIA, M.: «Suari so erre nituen begiak»	19. or.
AGIRRE, N.: «Neguaren izotz ilunaren artean»	20. or.
SANTANO, X.: «Europa, printzesa eder hori bahitu ziguten egunean. Andres Ortiz-Oses-ekin solasean»	21. or.
GARATE, G.: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz, Hitako Artzapezaren eta Bernard Etxepareren bizitza eta idazlanetan»	27. or.
ROS KUBAS, A.: «I. Toponimia Jardunaldien kronika»	36. or.
URANGA, M.: «Hautazko absolutoa eta hautazko erlatiboa (F. de Saussure euskaraz)»	37. or.
AIARZA, P.: «Maskaradakoekin hizketan»	41. or.
GORRI: «Arloteak»	45. or.
GORRI: «Astelehen euritsuen ikuslea»	46. or.
GORRI: «Arrano urdina»	46. or.

ATXA ELORDUI, M.G.: « <i>Undurain anderiaren kanta edo Maitia, nun zira?</i> baladaren azterketa semiologikoa»	47. or.
ELKOROBerezibar, M.A.: «Migeltxo, gauero ipuin ttipi bat».....	53. or.
ROS KUBAS, A.: «Artxietimo baterako 15 ohar: gusano -izain -ziraun - zizari - bizio»	58. or.
URI, M.: «Mikel bizidun batek hainbat eraildutako Mikeli»	63. or.

ENSEIUKARREAN II

(1986.eko negua)

EDITORIALA	1. or.
ROS KUBAS, A.: «Aditz morfologia historikorako ohar kritikoak: aloku- zioa»	5. or.
URIZAR, J.A.: «E. Allan Poe-ren lan kritikoak»	57. or.
GAMINDE, I. eta GARIKORTA, J.R.: «XVIII. mendeko otoitz batzu»	61. or.
MADARIAGA, J.: «Jose Apirileko goiz batetan hil zelako»	67. or.
LAESPADA, F.: «Larru gorria zuen tren»	71. or.
URANGA, M.: «Zeinu linguistikoaren hautazkotasuna (F. de Saussure eus- karaz)»	75. or.
ELKOROBerezibar, M.A.: «Edward Spencer Dogson-en identitateari bu- ruz zenbait ohar kritiko»	79. or.
SANTANO, X.: «Hitzaren iraganbidea: A. Ortiz-Oses-en azken liburua»	107. or.
URAGA, B.: «Barrutiaren <i>Acto para la nochebuena</i> : Latxagaren edizioari kritika»	117. or.
ROS KUBAS, A.: «J.R. Fernandez Gonzalez-en <i>Gramática histórica pro- venzab</i> »	121. or.

ENSEIUKARREAN III

(1987.eko negua)

EDITORIALA	2. or.
MANJON, R.: «Etxahun eta manikeismoa»	2. or.
GAMINDE, I.: «Aoristoaren inguruan»	17. or.
GAMINDE, I.: «SANOren erabileraz»	29. or.
ROS KUBAS, I.: «Ekdotika kartografikoa»	35. or.
OLMO, K. del eta FERRERO, E.: «S.F. (Zientzi Fikzioa). Hurbilketa literarioa»	65. or.
GUIJARRO, A.: «Omar Khayyam»	79. or.
ELKOROBerezibar, M.A.: «Marianne Moore (1877-1972). Ehun urte Missouriko poetisaren hitzek»	85. or.
MAIZ, M.: «Erlijiotik filosofia»	93. or.

ALARZA, P.: «Sorburuari hurbiltzen»	105. or.
ROS KUBAS, A.: « <i>Orotariko Euskal Hiztegia (I. tomoa A - Ama)</i> . Mitxelenaren lan postumoa»	111. or.
ROS KUBAS, A.: « <i>Euskal Hiztegi Historikoa</i> . Berandaturik zetorren euskal hiztegia»	121. or.
MADARIAGA, J.: «Ez nuen ezagutzen»	133. or.
EL LOCO PASCUAL: «Infernurako bidaia»	139. or.

ENSEIUKARREAN IV

(1988.eko negua)

EDITORIALA	1. or.
MAXIME, A.: «Mintzodun gizaki zahar agurgarri hori ez zaitez isil» ...	3. or.
DE RIJK, R.P.G.: «Euskal hizkuntza eta bere tipologia»	13. or.
MANJON, R.: «Edizioak zertan diren»	33. or.
GAMINDE, I.: «Erabili, Esan eta Eritzi mendebaldeko bizkaieraz»	49. or.
PENADES, J.: «Joannes Leizarraga eta XVI. gizaldiko euskal protestantismo barrizatua»	81. or.
EGIDAZU, J.: «Izenak eta adjetiboak automatikoki ateratzeko programa: bideak eta oztipoak»	113. or.

ENSEIUKARREAN V

(1990. urtean)

EDITORIALA	9. or.
ATXAGA, B.: « <i>Obabakoak</i> -en gainean»	11. or.
BARRUTIA, X.: «Demokrazia eta manipulazioa»	33. or.
ETXEBARRIA, J.M.: «Zeberio Haraneko galde-hitz, izenorde eta erakusleen deklinabideaz»	45. or.
JUARISTI, F.: «Galiziako eta Kataluniako literatura»	61. or.
LARTATEGI, J.: «Lagunaren txerka»	73. or.
MANJON, R.: «Zenbait gogoeta gaztelaniaz egindako nobelaren gainean (1936-1981)»	75. or.
GARAI, K.J.: «Esan baietz»	85. or.
MORALES, A.I.: «Sistema semiko ez-linguistikoak Dostoyewsky-ren <i>Bihotz ahula</i> -n»	89. or.
ITURRIMITI: «Oihartzun itogarriak»	117. or.
OTAEGI, J.: «Herri kontalaria»	119. or.
ROS KUBAS, A.: «Etimologia koitadu baten ustea egosten»	131. or.
ROS KUBAS, A.: «Bonaparte printzearen baper bateko dialektologiaz»	135. or.
SANTXO, J.: «Sarrionandiaren olerkia aztergai»	149. or.
SANTXO, J.: «Pausalekua»	165. or.

ENSEIUKARREAN VI
(1991. urtean. Ale monografikoa)

EDITORIALA	9.or.
ARTZE, J.: «Nik uste nahiko hurbildik eta zuzenki erantzuten dietela zuek bidalitako lehen hiru galderei. Ongi dagoela deritzot, olerkariak olerkien bidez erantzutea»	15. or.
EZKIAGA, P.: «Poeta bizitzaren esploradorea da»	25. or.
IGERABIDE, J.K.: «Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soinuak»	47. or.
IRSTORZA, T.: «Enseiucarreen»	61. or.
IRIGARAY, J.A.: «Olerkigintzak ez du zerikus zuzen edo mekanikorik eguneroko errealitatearekin, nahiz eta isladak ugariak izan eta harekiko muga ibili»	69. or.
JUSRISTI, F.: «Poesiak ezer aldatuko ez duela egia bada, zertarako idatzi poesia? Bizi behar delako».....	81. or.
JUARISTI, F.: «Poesiari buruzko ene gogoeta fragmentarioak».....	101. or.
PERURENA, P.: «Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea»	107. or.
ALDEKOA, I.: «Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta» ...	113. or.

ENSEIUKARREAN VII
(1992. urtean)

EDITORIALA	11. or.
FULLAONDO, A. eta IRIONDO, M.: «Eutrofizazioaren inguruan»	17. or.
GARATE, R.: «Oroimena: herria, arkaikoa, historia»	49. or.
HOYO, E. del, LATRATEGI, J. eta ZUBIZARRETA, I.: « <i>Izuen gordeleketan barrena</i> -ri hurbilketa semantikoa»	81. or.
MARTÍNEZ RUEDA, F.: «Ohizko burdin manufakturaketa eta gizarte harremanak»	119. or.
PENADES, J.: «Gizatasunezko bizitza-ibilbidean kide»	139. or.
URAGA, B.: «Bilboko gauetan»	171. or.
ZULOAGA, N.: «Kriseiluaren itzaltze hura»	195. or.

2. GEHIGARRI EDO SEPARATAK

1. ELKOROBEREZIBAR, M.A.: «Edward Spencer Dogson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko.
(«Heuscarologus Anglicanus». «Palamedes»). 1857-1922.
edota
Edward Spencer Dogson: euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak»,
1987an argitaratua.

2. ZOELLNER, R., ELKOROBEREZIBAR, M.A. eta MARTÍNEZ, M.^a A.:
«William Wordsworth: politikari eta poeta», edizio trilinguea, 1988an argitaratua.

3. AURKIBIDEA ARLOKA

3.1. Linguistika

- DE RIJK, R.P.G.: «Euskal linguistika eta bere tipologia», *ENSEIUKARREAN IV*, 13. or.
- ETXEARRIA, J.M.: «Zeberio haraneko galde-hitz, izenorde eta erakusleen deklinabidez», *ENSEIUKARREAN V*, 45. or.
- GAMINDE, I.: «Aoristoaren inguruan», *ENSEIUKARREAN III*, 17. or.
- GAMINDE, I.: «SANOn erabileraz», *ENSEIUKARREAN III*, 29. or.
- GAMINDE, I.: «Erabili, Esan eta Eritzi mendebaldeko bizkaieraz», *ENSEIUKARREAN IV*, 49. or.
- GAMINDE, I. eta GARIKORTA, J.R.: «XVIII. mendeko otoitz batzu», *ENSEIUKARREAN II*, 61. or.
- GARIKORTA, J.R.: ikus GAMINDE, J.R.
- MAXIME, A.: «Mintzodun gizaki zahar agurgarri hori ez zaitez isil», *ENSEIUKARREAN IV*, 3. or.
- ROS KUBAS, A.: «Hinault ihauterietan neurriko etimoen bila», *ENSEIUKARREAN I*, 12. or.
- ROS KUBAS, A.: «I. Toponimia Jardunaldien kronika», *ENSEIUKARREAN I*, 36. or.
- ROS KUBAS, A.: «Artxietimo baterako 15 ohar: gusano - izain - ziraun - zizari - bizio», *ENSEIUKARREAN I*, 58. or.
- ROS KUBAS, A.: «Aditz morfologia historikorako ohar kritikoak: alokuzioa», *ENSEIUKARREAN II*, 35. or.
- ROS KUBAS, A.: «Ekdotika kartografikoa», *ENSEIUKARREAN III*, 35. or.
- ROS KUBAS, A.: «Etimologia koitadu baten ustea egosten», *ENSEIUKARREAN V*, 131. or.
- ROS KUBAS, A.: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologiaz», *ENSEIUKARREAN V*, 135. or.

3. 2. Literatura

- AGIRRE, N.: «Neguaren izotz ilunaren artean», *ENSEIUKARREAN I*, 20. or.
- ARTZE, J.: «Nik uste nahiko hurbildik eta zuzenki erantzuten dietela zuek bidalitako lehen hiru galderi. Ongi dagoela deritzot, olerkariak olerkien bidez erantzutea», *ENSEIUKARREAN VI*, 15. or.
- EL LOCO PASCUAL: «Infernurako bidaia», *ENSEIUKARREAN III*, 139. or.

- ELKOROBEREZIBAR, M.A.: «Migeltxo, gauero ipuin ttipi bat...», *ENSEIUKARREAN I*, 53. or.
- GARAI, K.J.: «Esan baietz», *ENSEIUKARREAN V*, 85. or.
- GORRI: «Arloteak», *ENSEIUKARREAN I*, 45. or.
- GORRI: «Astelehen euritsuen ikuslea», *ENSEIUKARREAN I*, 46. or.
- GORRI: «Arrano urdina», *ENSEIUKARREAN I*, 46. or.
- ITURRIMITI: «Oihartzun itogarriak», *ENSEIUKARREAN V*, 117. or.
- LAESPADA, F.: «Larru gorria zuen tren», *ENSEIUKARREAN II*, 71. or.
- LARTATEGI, J.: «Lagunaren txerka», *ENSEIUKARREAN V*, 73. or.
- MADARIAGA, J.: «Jose Apirileko goiz batetan hil zelako», *ENSEIUKARREAN II*, 67. or.
- MADARIAGA, J.: «Ez nuen ezagutzen», *ENSEIUKARREAN III*, 133. or.
- SANTXO, J.: «Pausalekua», *ENSEIUKARREAN V*, 165. or.
- URAGA, B.: «Bilboko gauetan», *ENSEIUKARREAN VII*, 171. or.
- URI, M.: «Mikel bizidun batek hainbat eraildutako Mikeli», *ENSEIUKARREAN I*, 63. or.
- URIBETXEBARRIA, M.: «Suari so erre nituen begiak», *ENSEIUKARREAN I*, 19. or.
- ZULOAGA, N.: «Kriseiluaren itzaltze hura», *ENSEIUKARREAN VII*, 195. or.

3.3. Literatur kritika

- ALDEKOA, I.: «Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta», *ENSEIUKARREAN VI*, 113. or.
- ATXA ELORDUI, M.G.: «*Undurain anderiaren kanta* edo *Maitia, nun zira?* baladaren azterketa semiologikoa», *ENSEIUKARREAN I*, 47. or.
- ATXAGA, B.: «*Obabakoak*-en gainean», *ENSEIUKARREAN V*, 11. or.
- ELKOROBEREZIBAR, M.A.: «Marianne Moore (1877-1972). Ehun urte Missouriko poetisaren hitzek», *ENSEIUKARREAN III*, 85. or.
- ELKOROBEREZIBAR, M.A.: «Edward Spencer Dogson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko. («Heuscarologus Anglicanus». «Palamedes»). 1857-1922. edota Edward Spencer Dogson: euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak», *ENSEIUKARREAN*-en lehen gehigarria, 1987an argitaratua.
- ELKOROBEREZIBAR, M.A.: ikus ZOELLNER, R.
- EZKIAGA, P.: «Poeta bizitzaren esploradorea da», *ENSEIUKARREAN VI*, 25. or.
- FERRERO, E.: ikus OLMO, K. DEL
- GARATE, G.: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz, Hitako Artzapezaren eta Bernard Etxepareren bizitza eta idazlanetan», *ENSEIUKARREAN I*, 27. or.
- GUIJARRO, A.: «Omar Khayyam», *ENSEIUKARREAN III*, 79. or.
- HOYO, E. DEL, LARTATEGI, J. eta ZUBIZARRETA, I.: «*Izuen gordelekuetan barrena-ri* hurbilketa semantikoa», *ENSEIUKARREAN VII*, 81. or.

- IGERABIDE, J.K.: «Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soinuak», *ENSEIUKARREAN VI*, 47. or.
- IRASTORZA, T.: «Enseiucarrean», *ENSEIUKARREAN VI*, 61. or.
- IRIGARAY, J.A.: «Olerkigintzak ez du zerikus zuzen edo mekanikorik eguneroko errealitatearekin, nahiz eta isladak ugariak izan eta harekiko mugan ibili», *ENSEIUKARREAN VI*, 69. or.
- JUARISTI, F.: «Galiziako eta Kataluniako literatura», *ENSEIUKARREAN V*, 61. or.
- JUARISTI, F.: «Poesiak ezer aldatuko ez duela egia bada, zertarako idatzi poesia? Bizi behar delako», *ENSEIUKARREAN VI*, 81. or.
- JUARISTI, F.: «Poesiari buruzko ene gogoeta frakmentarioak», *ENSEIUKARREAN VI*, 101. or.
- LARTATEGI, J.: ikus HOYO, E. DEL
- MANJON, R.: «Etxahun eta manikeismoa», *ENSEIUKARREAN III*, 5. or.
- MANJON, R.: «Edizioak zertan diren», *ENSEIUKARREAN IV*, 33. or.
- MANJON, R.: «Zenbait gogoeta gaztelaniaz egindako nobelaren gainean (1936-1981)», *ENSEIUKARREAN V*, 75. or.
- MARTÍNEZ, M.^a A.: ikus ZOELLNER, R.
- MORALES, A.I.: «Sistema semiko ez-linguistikoak Dostoyewsky-ren *Bibotz abula*-n», *ENSEIUKARREAN V*, 89. or.
- OLMO, K. del eta FERRERO, E.: «S.F. (Zientzi Fikzioa). Hurbilketa literarioa», *ENSEIUKARREAN III*, 65. or.
- OTAEGI, J.: «Herri kontalaria», *ENSEIUKARREAN V*, 119. or.
- PERURENA, P.: «Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea?», *ENSEIUKARREAN VI*, 107. or.
- SANTXO, J.: «Sarrionandiaren olerkia aztergai», *ENSEIUKARREAN V*, 149. or.
- ZOELLNER, R., ELKOROBerezibar, M.A. eta MARTÍNEZ, M.^a A.: «William Wordsworth: politikari eta poeta», *ENSEIUKARREAN*-en bigarren gehigarria, 1988an argitaratua.
- ZUBIZARRETA, I.: ikus HOYO, E. DEL

3.4. Liburu komentarioak

- AIARZA, P.: «Sorburuari hurbiltzen», *ENSEIUKARREAN III*, 105. or.
- ROS KUBAS, A.: «J.R. Fernández González-en *Gramática histórica provenzal*», *ENSEIUKARREAN II*, 121. or.
- ROS KUBAS, A.: «Orotariko Euskal Hiztegia (I. tomoa A - Ama). Mitxelenaren lan postumoa», *ENSEIUKARREAN III*, 111. or.
- ROS KUBAS, A.: «*Euskal Hiztegi Historikoa*. Beranduturik zetorren historia hiztegia», *ENSEIUKARREAN III*, 121. or.
- SANTANO, X.: «Hitzaren iraganbidea: A. Ortiz-Oses-en azken liburuaz», *ENSEIUKARREAN II*, 107. or.
- URAGA, B.: «Barrutiaren *Acto para la nochebuena*: Latxagaren edizioari kritika», *ENSEIUKARREAN II*, 117. or.

3.5. Itzulpenak

- UGARTEBURU, I.: «Bakarrik utzi zuten gaua (Juan Rulfo-ren kontagaia euskaraz)», *ENSEIUKARREAN I*, 3. or.
- URANGA, M.: «Hautazko absolutoa eta hautazko erlatiboa (F. de Saussure euskaraz)», *ENSEIUKARREAN I*, 37. or.
- URANGA, M.: «Zeinu linguistikoaren hautazkotasuna (F. de Saussure euskaraz)», *ENSEIUKARREAN II*, 37. or.
- URIZAR, J.A.: «E. Allan Poe-ren lan kritikoak», *ENSEIUKARREAN II*, 5. or.

3.6. Bestelakoak

- AIARZA, P.: «Maskaradakoekin hizketan» (Elkarrizketa), *ENSEIUKARREAN I*, 41. or.
- ANONIMOA: «Komikia: halabeharrik gabeko artea» (Komikiaz), *ENSEIUKARREAN I*, 8. or.
- BARRUTIA, X.: «Demokrazia eta manipulazioa» (Ekonomiaz), *ENSEIUKARREAN V*, 33. or.
- FULLAONDO, A. eta IRIONDO, M.: «Eutrofizazioaren inguruan» (Biologiaz), *ENSEIUKARREAN VII*, 17. or.
- GARATE, G.: «Oroimena: herria, arkaikoa, historia» (Filosofiaz), *ENSEIUKARREAN VII*, 49. or.
- IRIONDO, M.: ikus FULLAONDO, A.
- MAIZ, M.: «Erlijiotik filosofiara» (Filosofiaz), *ENSEIUKARREAN III*, 93. or.
- MARTÍNEZ RUEDA, F.: «Ohizko burdin manufakturaketa eta gizarte harremanak» (Historiaz), *ENSEIUKARREAN VII*, 119. or.
- PENADES, J.: «Joannes Leizarraga eta XVI. gizaldiko euskal protestantismo barrizatua» (Historiaz), *ENSEIUKARREAN IV*, 81. or.
- PENADES, J.: «Gizatasunezko bizitza-ibilbidean kide» (Filosofiaz), *ENSEIUKARREAN VII*, 139. or.
- SANTANO, X.: «Europa, printzesa eder hori bahitu ziguten egunean. Andres Ortiz-Oses-ekin solasean» (Elkarrizketa), *ENSEIUKARREAN I*, 21. or.

4. AUTOREEN AURKIBIDE OROKORRA

- AGIRRE, N.: «Neguaren izotz ilunaren artean», *ENSEIUKARREAN I*, 20. or.
- AIARZA, P.: «Maskaradakoekin hizketan», *ENSEIUKARREAN I*, 41. or.
- AIARZA, P.: «Sorburuari hurbiltzen», *ENSEIUKARREAN III*, 105. or.
- ALDEKOA, I.: «Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsasoa gartzelatuta», *ENSEIUKARREAN VI*, 113. or.
- ANONIMOA: «Komikia: halabeharrik gabeko artea», *ENSEIUKARREAN I*, 8. or.

- ARTZE, J.: «Nik uste nahiko hurbildik eta zuzenki erantzuten dietela zuek bidali-tako lehen hiru galderi. Ongi dagoela deritzot, olerkariak olerkien bidez erantzutea», *ENSEIUKARREAN VI*, 15. or.
- ATXA ELORDUI, M.G.: «*Undurain anderiaren kanta* edo *Maitia, nun zira?* balada-ren azterketa semiologikoa», *ENSEIUKARREAN I*, 47. or.
- ATXAGA, B.: «*Obabakoak*-en gainean», *ENSEIUKARREAN V*, 11. or.
- BARRUTIA, X.: «Demokrazia eta manipulazioa», *ENSEIUKARREAN V*, 33. or.
- DE RIJK, R.P.G.: «Euskal hizkuntza eta bere tipologia», *ENSEIUKARREAN IV*, 13. or.
- EGIDAZU, J.: «Izenak eta adjetiboak automatikoki ateratzeko programa: bideak eta oztopoak», *ENSEIUKARREAN IV*, 113. or.
- EL LOCO PASCUAL: «Infernurako bidaia», *ENSEIUKARREAN III*, 139. or.
- ELKOROBerezibar, M.A.: «Migeltxo, gauero ipuin ttipi bat...», *ENSEIUKARREAN I*, 53. or.
- ELKOROBerezibar, M.A.: «Edward Spencer Dogson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko», *ENSEIUKARREAN II*, 79. or.
- ELKOROBerezibar, M.A.: «Marianne Moore (1877-1972). Ehun urte Missouriko poetisaren hitzek», *ENSEIUKARREAN III*, 85. or.
- ELKOROBerezibar, M.A.: «Edward Spencer Dogson-en identitateari buruz zenbait ohar kritiko.
(«Heuscarologus Anglicanus». «Palamedes»). 1857-1922.
edota
Edward Spencer Dogson: euskaltzale ezezagunaren 100 urte ospetsuak», *ENSEIUCARREAN*-en lehen gehigarria, 1987an argitaratua.
- ELKOROBerezibar, M.A.: ikus ZOELLNER, R.
- ETXEBARRIA, J.M.: «Zeberio Haraneko galde-hitz, izenorde eta erakusleen deklinabideaz», *ENSEIUKARREAN V*, 45. or.
- EZKIAGA, P.: «Poeta bizitzaren esploradorea da», *ENSEIUKARREAN VI*, 25. or.
- FERRERO, E.: ikus OLMO, K. DEL
- FULLAONDO, A. eta IRIONDO, M.: «Eutrofizazioaren inguruan», *ENSEIUKARREAN VII*, 17. or.
- GAMINDE, I.: «Aoristoaren inguruan», *ENSEIUKARREAN III*, 17. or.
- GAMINDE, I.: «SAN Oren erabileraz», *ENSEIUKARREAN III*, 29. or.
- GAMINDE, I.: «Erabili, Esan eta Eritzi mendebaldeko bizkaieraz», *ENSEIUKARREAN IV*, 49. or.
- GAMINDE, I. eta GARIKORTA, J.R.: «XVIII. mendeko otoitz batzu», *ENSEIUKARREAN II*, 61. or.
- GARAI, K.J.: «Esan baietz», *ENSEIUKARREAN V*, 85. or.
- GARATE, G.: «Zenbait alderdi antzeko Juan Ruiz, Hitako Artzapezaren eta Bernard Etxepareren bizitza eta idazlanetan», *ENSEIUKARREAN I*, 27. or.
- GARATE, R.: «Oroimena: herria, arkaikoa, historia», *ENSEIUKARREAN VII*, 49. or.
- GARIKORTA, J.R.: ikus GAMINDE, I.


- GORRI: «Arloteak», *ENSEIUKARREAN I*, 45. or.
- GORRI: «Astelehen euritsuen ikuslea», *ENSEIUKARREAN I*, 46. or.
- GORRI: «Arrano urdina», *ENSEIUKARREAN I*, 46. or.
- GUIJARRO, A.: «Omar Khayyam», *ENSEIUKARREAN III*, 79. or.
- HOYO, E. DEL, LARTATEGI, J. eta ZUBIZARRETA, I.: «Izuen gordelekuetan barrenari hurbilketa semantikoa», *ENSEIUKARREAN VII*, 81. or.
- IGERABIDE, J.K.: «Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soinuak», *ENSEIUKARREAN VI*, 47. or.
- IRASTORZA, T.: «Enseicuarrean», *ENSEIUKARREAN VI*, 61. or.
- IRIGARAY, J.A.: «Olerkigintzak ez zerikus zuzen edo mekanikorik eguneroko errealitatearekin, nahiz eta isladak ugariak izan eta harekiko muga ibili», *ENSEIUKARREAN VI*, 69. or.
- IRIONDO, M.: ikus FULLAONDO, A.
- ITURRIMITI: «Ohiartzun itogarriak», *ENSEIUKARREAN V*, 117. or.
- JUARISTI, F.: «Galiziako eta Kataluniako literatura», *ENSEIUKARREAN V*, 61. or.
- JUARISTI, F.: «Poesiak ezer aldatuko ez duela egia bada, zertarako idatzi poesia? Bizi behar delako», *ENSEIUKARREAN VI*, 81. or.
- JUARISTI, F.: «Poesiari buruzko ene gogoeta fragmentarioak», *ENSEIUKARREAN VI*, 101. or.
- LAESPADA, F.: «Larru gorria zuen tren», *ENSEIUKARREAN II*, 71. or.
- LARTATEGI, J.: «Lagunaren txerka», *ENSEIUKARREAN V*, 73. or.
- LARTATEGI, J.: ikus HOYO, E. del
- MADARIAGA, J.: «Jose Apirileko goiz batetan hil zelako», *ENSEIUKARREAN II*, 67. or.
- MADARIAGA, J.: «Ez nuen ezagutzen», *ENSEIUKARREAN III*, 133. or.
- MAIZ, M.: «Erlijiotik filosofiar», *ENSEIUKARREAN III*, 93. or.
- MANJON, R.: «Etxahun eta manikeismoa», *ENSEIUKARREAN III*, 5. or.
- MANJON, R.: «Edizioak zertan diren», *ENSEIUKARREAN IV*, 33. or.
- MANJON, R.: «Zenbait gogoeta gaztelaniaz egindako nobelaren gainean (1936-1981)», *ENSEIUKARREAN V*, 75. or.
- MARTÍNEZ, M.^a A.: ikus ZOELLNER, R.
- MARTÍNEZ RUEDA, F.: «Ohizko burdin manufakturaketa eta gizarte harremanak», *ENSEIUKARREAN VII*, 119. or.
- MAXIME, A.: «Mintzodun gizaki zahar agurgarri hori ez zaitez isil», *ENSEIUKARREAN IV*, 3. or.
- MORALES, A.I.: «Sistema semiko ez-linguistikoak Dostoyewsky-ren *Bihotz ahuln*», *ENSEIUKARREAN V*, 89. or.
- OLMO, K. del eta FERRERO, E.: «S.F. (Zientzi Fikzioa). Hurbilketa literarioa», *ENSEIUKARREAN III*, 65. or.
- OTAEGI, J.: «Herri kontalaria», *ENSEIUKARREAN V*, 119. or.
- PENADES, J.: «Joannes Leizarraga eta XVI. gizaldiko euskal protestantismo barrizatua», *ENSEIUKARREAN IV*, 81. or.

- PENADES, J.: «Gizatasuneko bizitza-ibilbidean kide», *ENSEIUKARREAN VII*, 139. or.
- PERURENA, P.: «Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea?», *ENSEIUKARREAN VI*, 107. or.
- ROS KUBAS, A.: «Hinault ihauterietan neurriko etimoen bila», *ENSEIUKARREAN I*, 12. or.
- ROS KUBAS, A.: «I. Toponimia Jardunaldien kronika», *ENSEIUKARREAN I*, 36. or.
- ROS KUBAS, A.: «Artxietimo baterako 15 ohar: gusano - izain - ziraun - zizari - bizio», *ENSEIUKARREAN I*, 58. or.
- ROS KUBAS, A.: «Aditz morfologia historikorako ohar kritikoak: alokuzioa», *ENSEIUKARREAN II*, 5. or.
- ROS KUBAS, A.: «J.R. Fernández González-en *Gramática histórica provenzal*», *ENSEIUKARREAN II*, 121. or.
- ROS KUBAS, A.: «Ekdotika kartografikoa», *ENSEIUKARREAN III*, 35. or.
- ROS KUBAS, A.: «*Orotariko Euskal Hiztegia (I. Tomoa A - Ama)*. Mitxelenaren lan postumoa», *ENSEIUKARREAN III*, 111. or.
- ROS KUBAS, A.: «*Euskal Hiztegi Historikoa*. Beranduturik zetorren historia hiztegia», *ENSEIUKARREAN III*, 121. or.
- ROS KUBAS, A.: «Etimologia koitadu baten ustea egosten», *ENSEIUKARREAN V*, 131. or.
- ROS KUBAS, A.: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologiaz», *ENSEIUKARREAN V*, 135. or.
- SANTANO, X.: «Europa, printzesa eder hori bahitu ziguten egunean. Andres Ortiz-Oses-ekin solasean», *ENSEIUKARREAN I*, 21. or.
- SANTANO, X.: «Hitzaren iraganbidea: A. Ortiz-Oses-en azken liburuaz», *ENSEIUKARREAN II*, 107. or.
- SANTXO, J.: «Sarrionandiaren olerkia aztergai», *ENSEIUKARREAN V*, 149. or.
- SANTXO, J.: «Pausalekua», *ENSEIUKARREAN V*, 165. or.
- UGARTEBURU, I.: «Bakarrik utzi zuten gaua (Juan Rulfo-ren kontagaia euskaraz)», *ENSEIUKARREAN I*, 3. or.
- URAGA, B.: «Barrutiaren *Acto para la nochebuena*: Latxagaren edizioari kritika», *ENSEIUKARREAN II*, 117. or.
- URAGA, B.: «Bilboko gauetan», *ENSEIUKARREAN VII*, 171. or.
- URANGA, M.: «Hautazko absolutoa eta hautazko erlatiboa (F. de Saussure euskaraz)», *ENSEIUKARREAN I*, 37. or.
- URANGA, M.: «Zeinu linguistikoaren hautazkotasuna (F. de Saussure euskaraz)», *ENSEIUKARREAN II*, 75. or.
- URI, M.: «Mikel bizidun batek hainbat eraildutako Mikeli», *ENSEIUKARREAN I*, 63. or.
- URIBETXEBARRIA, M.: «Suari so erre nituen begiak», *ENSEIUKARREAN I*, 19. or.
- URIZAR, J.A.: «E. Allan Poe-ren lan kritikoak», *ENSEIUKARREAN II*, 57. or.

ZOELLNER, R., ELKOROBEREZIBAR, M.A. eta MARTÍNEZ, M.^a A.: «William Wordsworth: politikari eta poeta», *ENSEIUKARREAN*-en bigarren gehigarria, edizio trilinguea, 1988an argitaratua.

ZUBIZARRETA, I.: ikus HOYO, E. DEL

ZULOAGA, N.: «Kriseiluaren itzaltze hurra», *ENSEIUKARREAN VII*, 195. or.







DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
ARGITARAPEN SAILA

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
DEPARTAMENTO DE PUBLICACIONES